

## ZENBAKI HONETAN

---

*Eskutan duzun zenbakia, irakurle, Jakin-en bigarren aldi honetako 21.a da eta aurtengo 5.a. Baina batez ere zenbaki extra bat da, Jakin-en zilarrezko ezteiak ospatzean zuri, agindu bezala, opari gisa eskaintzen dizuguna.*

*Zenbaki extra mardul honetan Jakin bera da aztergaia. Jakin-en historia eta edukina, azala eta barnea, dena duzu hor luze-zabalean. Eta aldizkariaren ardatzaren jirabiran duzu azterturik gerraosteko kultur mugimenduaren hainbat alderdi eta une ez-egun bezain garrantzizko.*

*Editorial batez hasten dugu zenbakia, gisa denex. Hor aurkituko duzu zenbaki honekin eta aldizkariarekin lortu nahi duguna, gure eritzia eta jarrera. Eta ondoren, azterketa bera dator.*

*Bost zatitan aurkezten dugu gure ikerlana.*

*Lehen kapituluak gerraoste hurbila aztertzen du. Alegia, alde batetik Jakin sortu aintzineko kultur eta hizkuntz problematika, eta bereziki Jakin-en sorrera-urtea, 1956a. Beste aldetik, eliz ikastetxeetako kultur giroa eta bertako aldizkariak aztertzen ditu P. Iztuetak, eta hemen, modu berezi batetan «Gure Izarra», frantziskotar gazteen barne-aldizkaria. Lehen parteko azterketa hauen bidez Jakin bere garaian eta gizarteaz kokatu egiten dugu, zer balioztatu eta zer erlatibizatu adieraziz.*

*Bigarren zatian aldizkariaren historia bera aztertzen dugu. Lcu alditan banatu ditugu 25 urteok, eta aldi bakoitza aldenik alde miazten dugu: aldizkariaren azpiegitura, antolaketa, itxura, hizkuntz arazoak, auzirik larrienak, lerro nagusiak, artikulu eta idazle gorenak, etab. Historia hotza eta urruna ez baino bizi-bizia, konkretua egin nahi izan dizugu.*

Hirugarren kapituluak ez du munta gutiago. Gaiak aztertzen ditugu hemen, Jakin-en eman denaren arabera. Bi modutan bur-bildu gatzazkio arazoari: bateko, Jakin-en zer argitaratu den ikusi dugu, adibidez, teologiaz, filosofiaz, arteaz, literaturaz, zientziaz, euskarari buruz. Eta besteko, Jakin-en pentsaera hainbat alorretan eta aldizkariaren planteamenduak eta praxia, batez ere kulturaren eta euskararen alorretan. Jakin kultur aldizkariaren edukina ia puntaz-punta duzu hor, irakurle.

Laugarren atala apalagoa da, baina ez horregatik garrantzi gutikoa. Jakin-en bizitzatxoa kontatzen dizugu hemen: 25 urteotako trabak, katramilak, egin ditugun abaleginak eta aldaketak, izan dugun arrakasta, izan ditugun laguntzak, etxe-barneko zokotxorik izkutuenak erakusten dizkizugu artikuluxka horietan.

Bostgarren atala aurkibideek osatzen dute. Ohi denez, gaien arabera egina lehena, eta autoreen arabera bestea. Esan beharrik ez dugu honelako eskaintza batek zein neurritan laguntzen duen ikertzailearen zein edozein irakurle interesaturen azterketa.

Zenbaki biribila eta azterketa sakona egin nahi izan dugu. Halere, gaitz agortu eta beti asmatu dugunaren pretentsiorik ez dugu. Izango da hutsunerik eta akatsik! Hori nolabait erremediatzeko eta azterketa finagotzeko, egon daitezkeen hutsuneak betetzeko, eritziak kontrastatzeko, informazioa osatzeko, aukera bat eskaintzen diogu edozein jakinlariri. Inor animatzen bada, datorren urteko 4 zenbakietan txoko edo sail bat sortuko dugu 25 urteon azterketarako. Hor jakinlariak bere kritika egin lezake, bere eritzia eman, bere interpretazioa azaldu, eta bere oroitzenak eta datu berriak gehi.

Eskuetan duzun zenbaki berezi honen berezitasun handiena, agian, hauxe dateke. Izenpetu gabe agertzen da zenbakia, Jakin-ek berak talde gisa eta elkarlanean burutu duela argi eta garbi adierazteko. Zenbaki hau ekipo lana da bete betean. Hona lankideak:

Aduriz, Jose Antonio  
 Agirrebaltzategi, Paulo  
 Azurmendi, Joxe  
 Huizi, Pello  
 Intxausti, Joseba  
 Pagola, Manolo  
 Torrealdai, Joan Mari

*Hauetz gain, aipamen berezia merezi du Paulo Iztuetak, be-  
rorena bait da «Eliz ikastetxeetako aldizkariak» azterketa sozio-  
logikoa. Eskerronezko aipamena behar dute, baita, Pili Larrea,  
Mila Larrea eta Ana Agirre idazkariek, aitormen hau lankidetz  
handiaren ordain eskasa bada ere.*

*Besterik ez, irakurle. Ondoko orri hauetan ikerlan-ordu asko  
dago, kostu ekonomiko gaitza dago Jakin taldearen aldetik. Gu-  
re abalegin hauen emaitza zuri eskaintzen dizugu atzera, gure  
eskerronarekin batean, zuri esker bizi bait da aldizkaria.*

## JAKIN zilarrezko ezteietan

### 1. JAKIN bere burua aztertzen

1981eko udazken honetan 25 urte bete ditu Jakin-ek. Zilarrezko ezteietan gaude beraz. Eta egun seinalatu hau ospatzeko erarik egokiena, bere buruaren azterketa egitea iruditu zaio Jakin-i. Erabaki horren arrazoia ez da izan, gisa horretako urtemuga ezin aproposagoa dela, etorkizunaren zelatan, iraganeko nabigabe eta pozak begi leunez harrotzea. Ez eta bere burua aldare erdian jarri eta intzentsua erretzea ere. Bada sentimentalismoa edo txalo merkea baino motibazio funtsezkoagorik.

Euskal kulturako indarrak ezezagunak zaizkigu sarri. Ezezagunak beraien jaiotzako asmoak, jasandako estuasunak, pasatako larrialdi ekonomikoak. Belaunaldien arteko eten eta gatazka dakartzan elkar ez ezagutze hori gainditu beharra dago.

Bestetik historia «*magistra vitae*» bada —eta hala dirudi—, iraganaren berri izateak asko irakas diezaguke aurrera begira. Gizona omen da belaunaldiz belaunaldi aurrekoen esperentzia pilatuz, ikasi eta aurrera egin dezakeen animalia bakarra. Gure giza berezitasun horri uko egitea litzateke geure aurrekoen historia galtzea.

Guzti honek eraman gaitu, zilarrezko ezteiak aitzakitatzat hartuz, geure aldizkariaren historia kontatzera, emandakoaren balantzea egitera, kulturako beste eremuen artean eta hauen eraginez, zein funtzio bete duen aztertzeraz.

Arrazoi beretsuengatik, baita, oso interesgarri deritzagu gerra aurreko eta ondoko mugimendu, orduko aldizkari, talde, eta barren historia, bere inguruan kokatua, banan banan arakatzeari.

(Unibertsitatea da, noski, horrelako azterketen leku naturala. Baina eginkizun hori betetzen ez duen artean, beste indar kulturelak egin behar). Jakin-ek bere buruaz zenbaki honekin egin duena egingarri ikusten du besteei buruz ere. Eta beharbada egin gingo du.

## 2. 25 urteko historia

Jakin-ek 25 urteko historia du. Besterik ez! Epe laburra da, zalantzarik gabe, edozein herrirentzat. Euskal Herriaren historiako gurdiaren ibilaldi mantsoan ere, 25 urte ez dira milimetro laurden eskasa baino askoz gehiago izango.

Baina 25 urte, urte asko da belaunaldi baten bizitzan. Urte asko da lurrikarak bezala herrien eta kulturen zutabeak, ustez bain sendoak, dardaritzen eta kraskatzen direnean. Urte asko, kultur mugimendu, aldizkari eta instituzio batentzat, babes ekonomiko eta politikorik gabe, zentsuraren expatazo beldurrez, arnasestuka larri, bizi edo «kiraun» egin behar duenean. Euskal Herriaren historiak abiada hain bizkorra hartu duen mende eta erdi honetan. Urte asko, bere bizikeran, lan moduan, jendetan, erlijioan, beziketan, egitura politikoetan, balako haustura Euskal Herriari ekarri dioten azken 25 urteon kasuan. Urte asko da Jakin-en historian.

## 3. 25 urte euskal kulturari

Ez dago ukatzerik. Pozarren ikusten dugu Jakin-ek urratu duen bidea. Izan ere, hasieretako «kixote» haien asmoei, oro har, guztiz zuzenak, egokiak deritzegu 25 urteren buruan. Gutako edonork sina ditzake gaur bertan. Jakin-en historia, bere laburrean, aski urduria, bizia, mugikorra, zaila izan da. Baina egindako bidea, hara eta hona balantzaka ibili denean ere, sorreran jarritako helmugak gidatu du. Nabiz borondatezko nabiz gozoz kontrako aldakuntzen artean, beti asmo berari jarraitu zaito.

Ongi ikusi zuen Jakin-ek. Euskara, kulturako joera, mugimendu eta alor guztietara zabaltzen ez bada, «aizea orrazten ari gera» (1, 1956, 1). Euskara eta kultura uztartu beharra, euskara giza bizitzako dimentsio guztietara sartu beharra derrigorrez-

kotzat jotzen zuen Jakin-ek 1956an. Euskaldun izan nahi duen euskal gizonak bi eginkizun bait dauzka eta alternatiba bat.

Bi eginkizun: Bat, giza kultura unibertsalaren dinamikan murgildu, beste herrien eta historien aberastasunekin Euskal Herria aberastuz, eta gure herriak duentxo besteei emanaz. Bestea, euskara trebatu eta gaitu egungo gizaldi zabalaren bizitasunean, honen argiune eta beltzune guztiekin, parte izateko gauza izan dadin. Ez dago soziolinguistikan aditua izan beharrik euskara standard, erraz, batu, kaletartu eta modernoaren premiaz jabetzeko.

Eta alternatiba bakar bat: Programa horren eskakizunei erantzuteko ausardia eta arnasa izan, ala bilobia prestatzen hasi. Hil ala bizi! Jakin-ek Euskal Herri euskaldunaren apostua jokatatu zuen. Eta, zuen laguntzarekin, ez du amore emango irabazi arte.

Ez al zaigu harrokeriatzat salatuko, sorrerako helburuari, aipatu bi eginkizunei eta egindako apostuari setati izateraino leial izan gatzaizkiela 25 urte honetan aitortzea. Jakin, nola ez?, aldatu egin da. Ezin zitekeen bestela izan, kontu egirik, 25 urte honetan Euskal Herria bera nola itzulipurdikatu den, gazteria, aurreko belaunaldien eskarmentu faltaz, lau haizeetatik zetozeion ideologia berrien ubin zalapartatsu artean, nola brujula galduta bezala ibili den, bai kultur mugimenduetan, bai talde politikoetan, bai seminarioetan. Bapateko eboluzio ikaragarri horri erantzuten saiatuko zaio Jakin, baina hasierako xedeak begi bistatik sekula galdu gabe.

Leialtasun hori, gaien aukera eta erabileran, eta euskara kontuan hartutako erabakietan somatzen den eboluzioan ikus daiteke, irakurleak zenbaki honetako orrialdeetan aise egiazta dezakeenez.

Euskal kultur gintzan, aldizkaria eta liburuak ateratzeaz gain, beste asmoa ere izan zuen Jakin-ek. Talde-bateragile izan. Lehen urteetan apezgaiak batu dituzte gehienbat. Seminarioetatik irten beharra ikusi duenean, beste talde, indar, mugimenduen eta hauen ideien plataforma bilakatu da. Hasieratik bertatik, eta geroago eta areago, ideia desberdinetako idazleen presentzia nabari da Jakin-en orrialdeetan. Irekitasun hori, antidogmatismo hori, izan da gure aldizkaria lantzen saiatu den jokamoldea. Guzti honengatik Jakin garrantzizko aldizkaria eta talde bultzagilea izan delakoan gaude, euskal kulturaren barnean. Era be-

*rean euskal errealtate anizkorraren ispilu izan da. Eritzi desberdinek hemen izan dute non espresatu, non kontrarioekin neurtu.*

#### 4. JAKIN, hondar ale bat euskal kulturaren

*Pozik egotekoa baldin bada Jakin-en 25 urtetako lana, beste inor baino hobeto jabetzen gara geu aldizkari honen atzoko eta gaurko mugez, beste kultur sailetako lankideekin dugun loturaz eta zorraz.*

*Jakin-ek oso ongi daki berak ez daukala inolaz ere azken 25 urteetako euskal kulturaren monopoliorik ez eta protagonismorik. Jakin kultura idatziaren baitan kokatzen da batipat. Eta honen barneko eremu bati bakarrik lotu zaio. Beste mila dago inguruan.*

*Horregatik eskutan duzun zenbaki honetan geure buruari gehiegizko gorespenik abesten diogula, eta euskal kultura osoa Jakin-en ardatz inguruan jiraka jarri dugula, baderitzazu, ez dugula izan tamainako pretentsiorik aitortu nahi genizuke, irakurle argi horri. Badugu «historiaurrea» bat (saiatu gatzaizkizu azaltzen) eta baditugu garaikideak ere, lankideak nolabait. Orain-txe bertan euskal kulturaren arlo asko dago Jakin-etik aparte: euskalduntze-alfabetatzea, ikastola, testugintza, hiztegegintza, liturgi itzulpena, literaturgintza, bertsolaritza, irratia eta telebista, haur literatura, komikiak, euskal kanta berria, folklorea, antzerkia, kazetaritza, goi mailako ikerketa etab. etab. Idazle askok egin du lan bikaina eta lan asko, beste aldizkari, talde eta tokietan. Sarri klandestinitateko isiltasunean ere bai. Oraingoan Jakin-en historia ematen dizugu. Baina guk, gure lana, kultur sail desberdin horietako lankideekin batera egin dugu. Sarri kultur arlo anitzetan lankide berberak izan gara. Adiskideak. Kultur munduan, izan ere, eta gurea bezain txikian areago, sail bakoitzaren historia besteenaren zatia da. Guztiok elkarri eragiten diogu. Harreman sare estu honetan sortu zen eta garatu da Jakin aldizkaria. Baina, bestalde, Jakin-ekiko loturarik gabe ere ez dira bizi izan beste kultur sailak. Ziur gaude Jakin-ek ere jarri duela bere hondar aletxoak euskal kulturaren eraikuntzan eta indar berritzean.*

*Euskal munduko hainbat mugimendu, idazle, aldizkarik, Jakin-ekin izan dituen loturak aipatuz guztion elkarreikiko lotura dialektiko hori nola gertatu den zebatz adierazi nahi izan dugu,*

*eta gure aldizkariaren kondaira ulerterrazagoa egin. Gure zorrak ere agertu nahi izan ditugu. Jakin-en ez jaiotza, ez 25 urteko historia, ez dira fenomeno bakarti eta apartekorik. Batzutan hotzago bestetan beroago, baina beti elkarri eskua emanaz bizi izan dugu euskal kultura orokorraren susperraldi bikainaren prozesua. Elkarrekiko dependentzia hori denentzako da aberasgarri. Tren beraren bagoi desberdinetan goaz. Denok iritsiko gara edo denok galduko gara. Segurua zera da: bakarrik ibili nahi lukeenaren suizidio ziurra.*

## 5. JAKINen mugak

*Jakin-ek baditu bere mugak. Neurri batean mugatzat har genitzake ondoko hauek.*

*Jakin-eko idazkiak nahi baino gehiagotan oso apalak dira. Ikasle heldugabeen eskua erakusten dute. Baina, bestetik, baita ezin aitortu gabe utzi, Jakin-eko orrialde umil horietan bezi abal izan duela bere luma hainbat eta hainbat euskal idazlek.*

*Jakin-ek behin eta berriro beste oztopo honekin jotzen du: hautatutako gai honetaz edo hartaz euskaraz dakien jende adi-tuaren faltarekin. Garantia osoko informazioa nahi bada eta goiko mailari eutsi, sarri erdal idazleengana eta itzulpenetara jo behar izaten dugu. Eta honek orduak eta dirua zurrupatzen dizkigu.*

*Jakin-en beste muga, eta ez garrantzi txikienekoa, ekonomia da. Ahalbide ekonomikoen eskasiak garamatza borondate eta intentziorik onenak ere estali ezin dituen zuloak gure lanean uztera. Diru eskasiak infrastruktura tinko eta eginkorragoa edukitzea eragozten digu. Oinarri beretik datoz, baita, presakako lana, debaldekoa, edo behar adina ordaindu ezinekoa egin beharra. Boluntarismoa, luzarora begira, nekez izan daiteke aski, aldizkaria tajuz antolatu, lanak sakondu eta idazle iaioak erakartzeko.*

*Jakin-ek eginkizun kritikoa bete beharra aitortu du, euskal kulturaren barnean. Eta betekizun honi eman zaion erantzunak ez gaitu asetzen. Arrazoizko aitzakitan sartuz gero, aipa genitzake: euskal kulturgintzako gertakarien ugaltza (ez liburu pro-dukzioarena bakarrik) kontrolatzeko eta zehatz neurtzeko zail-*



tasuna; benetako tradizio kritikoaren falta; euskal kulturako jendeon minberatasuna; administrazioarekin, instituzioekin, alderdi politikoekin etab. egin behar diren jesticok sortzen duten kondizionamendua. Gainera euskaldungoaren base soziala, bai irakurleena bai idazleena, oso estua da. Alegia hemen denok elkar ezagutzen dugu, eta elkarren ondoan bizi behar dugu. Guzti honek moteldu egin du aldizkariaren izpiritu kritikoa, eta amustu bere zorroztasuna.

Gure eritziak, editorial gisan, agertzeko orduan ere badirudi ez dugula zaletasun gehiegirik. Zergatik? Beti ez da gertatuko eritzirik ez dugulako behintzat. Konprometitzeko beldurrez? Ideologekin asperturik? Gure arteko eritzien borobiltasun dogmatikoen nazkaz? Eritzien maila utzirik abalik eta berri emate soilera mugatu nabiz? Denetik egongo da noski.

Guk oso garbi daukaguna hauxe da: polemika eta pertsonalizazio errazegiak alde batera utzi beharra, abalik eta jenderik gehienarengana iritsi nahi badugu. Gure artean jende eta indar gehiagi erre da eta ekintza asko hondatu da, Euskal Herriko plaza oso merke eta erraz irabazteko ustetan. Merkea bait da, eta aspaldi zahartua, sensazionalismo tanta batzu eskandaluari nahasiz lortutako arrakasta. Erraza bait da, edozeinentzat ere, polemika mingots eta pertsonalen aldapan behera abiatuz geroz, ideia edo okurrentzia «distiratsu» pare bat edonori disparatu eta gustora gelditzea.

Jakin-ek badaki, Euskal Herriko plazan segitu nahi badu, gizalegea gorde behar duela eta publikoari errespetua eta begirunea zor dizkiola. Korrika hasi orduko jendearen txaloak irabazi, edo besterik ezean, honen esamesetan ibili nahi duenak ez dauka korrika saio luzeetara plazaratu beharrik. Aski du txispazo sensazional bat eta gero harro harro hil (zenbait ekintza ikusirik horretxen bila dabilela zuzenean bat baino gehiago pentsa daiteke). Jakin-ek, ordea, badaki maratoi luzea hasi nahi zuela eta, bukatu nahi badu, ez daukala, ez bidelagunen zangoak trabatzen, ez jendeari iranka eta barreka aritzerik. Irekitasuna, besteeikiko errespetua, pauso neurritsua, lan sistematikoa, seriotasuna dira Jakin-ek aukeratu dituen arma bakarrak, Euskal Herriko maratoi gogor honetan lotsagarri ez gelditzeko. Horregatik erabaki du Jakin-ek, gaurko Euskal Herri minbera honetan ahal den tonurik hotzena, bareena eta aseptikoena erabiltzea; nabiz eta eritzi propioa agertzearen kaltetan izan.

## 6. Irakurleari zor zaio JAKIN

*Aldizkari batek ez du zentzurik, guretzat behintzat, irakurle-goaren zerbitzutan ez bada. Eta harpideduna da, bereziki, kasu honetan, gure irakurlea.*

*Harpidedunen onarpena da, batipat, lan honetan segitzeko dugun ezten akuilaria. Eta hau ez da bere onginabia irabaxtearren harpidedunari egin obi zaion kortesia hutsa. Guretzat egia osoa da. Harpidedunen dirua da, hasteko, gure aldizkaria aurrera ateratzeko bide bakarra dohan edo erdi dohan egiten dugun lanarekin batera. Horregatik Jakin-ek pozik eskertzen ditu bere bi mila eta hirurehun harpidedunak. Zuek zarete aldizkariaren oinarria. Eta zuek zarete gure lanaren saria.*

*Hain zuzen zure, gure harpidedun horren, leialtasuna eta gureganako estimua eskertzeko, Jakin-en zilarrezko ezteieak ospatzean, zenbaki berezi mardul hau eman nahi izan dizugu oparitzat. Zure aldizkari honen historia eta pasadizoak hobeto eza gut ditzazun. Urteroko lau zenbakien gehigarri bezala argitara dugun zenbaki hau, Jakin-en eta honen inguruan moldatutako azterketa bait da. Ziur gaude azken urteotan harpidedun egin zaretenok, batez ere, gure abonatu gebientsuenak zuek zaretenez, etxeoago ikusiko duzuela zeuen burua, Jakin-en historia txiki honetako une pozgarri eta latzen berri gertutik jakin deza- zueanean.*

*Baina zuen guganako atxekimendua irabaztea eta, hortik, gure zabalkundea egitea baino gehiago beste zerbait lortu nahi genuke: zuen eta gure arteko harremanak estutu eta bizitu. Jakin-ek betidanik izan du irakurleriaren eritzien premia. Sortu zenean, nondik nora jo behar zuen galdetuz hasi zen. «Azaldu zeure iritzia» eskatzen zuen lehen zenbakian (1, 3). Bigarren aldia bastean eritzia eskatu zion irakurleari (16, 1964, 48-49). Hirugarren aldiz kaleratzeko, 1976an, ahaleginetan ari zela, euskal kulturako jende ezagunen artean galdeketa txiki bat egin zuen. Bestetik irakurlearen eritziak jasotzeko bi inkesta egin ditu bere historian. Azkenekoak zer eman duen, Jakin-en 25 urteak bete direla eta egina, zenbaki honetan bertan daukazu.*

*Lehen urteetako Jakin-ek bazuen sail interesgarri bat, «Elkarrizketa» zeritzana. Oso bizia zen eta irakurleek eta euskal idazleek gogoz parte hartzen zuten. Ikustekoak dira, gaur ere, lehen 15 zenbakiak. Gerora, ordea, erdi desagertzearaino edo*

*makaldu zen sail hori. Gure gogo litzateke bigarren aldiko aldizkari honen «gutunak» saila gotortzea eta mardultzea. Zuen eritziak, kritikak, gogoak, etab. agertzeko zuen toki bezala ikus dezazuela sail hori. Benetan irakurlearen txoko izan dadila.*

## 7. Etorkizunari begira

*Gaur etorkizunari begiratzea ez da amets liluragarritan murgiltzea. 25 urteko eskarmentua dugu bizkarrean.*

*Aurtengo zilarrezko ezteien ospaketa, etorkizuna esperantza tinkoz eraikitzeko deia da guretzat. Sortarazi eta, debekuak debeku, beste bitan jaio arazi ere gintuen bokazioari gogor eusteko deia.*

*Badira, zalantzarik gabe, eta izango dira gerora ere, gurea baino lan premiazkoago eta garrantzizkoagoak euskal kulturari. Guk geure xede apalak egikaritzea ere behar duela Euskal Herriak, uste dugu. Badira gaur, gure aldizkaria eta honen antzekoak baino diru iturri hobek. Guk, euskal astekariak eta aldizkariak erdi itoan dabiltzan une honetan, euskal saioa editorialak zorretan sartzen ari den honetan, sirena kantu tentagarritzat jotzen ditugu eremu samurrago eta ekonomikoki etekinetsuagotara bultzatu nahi gintuzketenen deiak. Politika kultural errealista bezain idealistaren baitan ez ote dago, bada, lekuri gurea bezalako aldizkarietzat?*

*Guk geure lan apalari eutsiko diogu. Aldizkaria txukun, interesgarri eta garaiz, ateratzen saiatuko gara. Informazio zintzo eta objektiboa eskaintzea izango da gure helburua. Ezinezko neutraltasun eta independentzia horiek dira gure amets. Asmo horiek egia bihurtzen asmatzen badugu, ziur gaude Euskal Herriko plazan Jakin bezalako aldizkari batek tokirik izango duela, orain artean bezala.*

*Lan honen baitako eginkizuna dela uste dugu euskal idazle berri gazteak bilatzea, sortzea eta plazaratzea. Maiz entzuten da azken aldi honetan euskal idazleen olatu berria guztiz motza dela. Publikoarentzat idazten hasteko behar izaten den bultzadaxoa, animoa eta laguntza eman nahi genioke idazle gazteari. Jakin idazle eskola izan dadila aurrerantzean ere.*

*Eta Jakin-ek baduke beste gogo edo amets bat, oraindik*

asmo zehatzik ez bada ere. Ia urtero bildu obi ziren Arantzazun Jakin-en inguruko idazleak. Aldizkariaren martxa aztertu obi zuten euskararen eta gaien aldetik. Teologia, filosofia eta soziologiako eremuetan mugitzen ziren batzar haiek. Jakindarren garai bateko bilera haien haritik ez legoke antzeko zerbait egiterik? Ez al dago alderdi eta indar politikoen kondizionamendu eta interesetatik aske diren talde kulturalen premiarik? Ez ote du jo saio bat egiteko orduak? Honetaz ere interesgarria litzaiguke irakurlearen eritzia.

Jakin-en zilarrezko ezteiak gure lanari sutsuago heltzeko aukera bezala ulertu ditugu. Eta zuekin, adiskide harpidedunokin, harremanak estutzeko aukera bezala orobat. Guri bezala zuei, denoi batera, etorkizuna eginkizun zaigu.

Gerraostekoak



## JAKINen historiaurrea: abertzaletasuna eta euskara

*Jakin* aldizkaria 1956an jaio zen, eta berau sortu edo lagundu zuten gazte eta ez hain gazteek, tradizio eta ingurune bati erantzuten ziharduten. Txikitatik jasotako historia baten eraginez eta garaiko beharrian eta ahalbideei irtenbide berriak eskaintzeko asmoz eman zuten pauso hura. Hogeitabost urte geroagoko belaunaldiari orduko arrazoinen berriemate bat zor diogu.

Aipa dezagun, ba, urte haietako zenbait datu politiko eta kultural, ekintza haren zentzua ulergarriago izan dadin, izan ere harritzekoa baita (geroago ikusiko dugu hori) 1956an eta berehalakoetan zenbat zinu berri biltzen den.

### **Gerrateondo politikoaren mugarrak (1937-1953)**

Ia berrogei urteko gerrateondo luzeak (1937-1975), epealdi oso ezberdinak izan zituen bai politikan eta bai kultur gintzan. Xehetasun gehiegitan galdu gabe 1956-1960. urteetan ezar dezakegu mugarri bat: belaunaldi berria orduantxe agertzen da plazara, gerratea apenas bizi izan duena.

Euskal abertzaletasunaren bihurtune historiko batean gaudela pentsa liteke, beraz.

Lehenengo gerrateondoa (1937-1946), gerrak erbesterratu zituenentzat itxaropen-aldia da. Armaz bentsutuak izan dira, eta galtzaileak direna ondotxo dakite atzerriratu behar izan dutenek. Baina hondamendiari gain hartuz garaipen handiago baten itxaropena darraikio: Munduko II. Gerratea amaitzera doa eta abertzaleak, behingoz bederen, irabazleekin batera garaizaille bezala agertzen dira. Euskadiren askapen-kanpaiak, ustez, berehala joko du ordua, eta Eusko Jaurlaritzak sekula baino itzal handiagoa duenez, abertzale eta euskaldunon artean ezezik, baita Espainian eta na-

zioartean ere, laster eskuratuko den botereaz jabetzeko Baionako Akordioa lortuko da denen artean: PNV-EAJ, ANV-EAE, Mendigoizaleak, PSOE, PC, Partido Republicano Federal, Izquierda Republicana (1945-martxo-17).

Akordio horren argitan gidatuko dira abertzaleen ahalegin politikoak. III. Reich-a erori da (1945-ekaina-9) eta nazioarteko oreka berri bat sortu nahi da, faxismoa itoz eta harremanak molde berrietan emanez: UNO jaiotzen da San Francisco-n (1945). Bakealdiak, garaileen ideal demokratikoak ekarriko ditu, diotenez 1946eko abenduaren 13an, Erregimen frankista isolatzea erabakitzen da UNO-n: Madril-eko enbaxadak hutsik gelditzen dira. Nazioarteko harremanak eten zaizkio frankismoari.

Eusko Jaurlaritza eta abertzaleak, itxuraz laster datorkeen aldakuntzaren zain-zain daude. Errepublikak garaiko instituzio politikoetatik itzalik handikoena Eusko Jaurlaritza da, gainera, 1945-47etan. Badirudi, inoiz ez bezala, orduantxe asmatu dutela euskal politikoei etorkizuna ongi antolatzen: *...la realidad ha demostrado que el camino seguido ha sido el más eficaz, hasta ser hoy el problema de España un asunto internacional que necesita solución* (Eusko Jaurlaritza, Baiona 1946-VIII-26). Zinez, etorkizuna baikorki begira litekeela ematen du.

Baina abertzaleen eskuetan ez, baizik besterenetan zeuden baldintza gehiegi aurkitzen da planteatutako politiko hartan. Baldintza haiekin bi, behintzat, nabarmenak dira: alde batetik, xede haiek lortzeko, aliatuen arteko harremanak eta batasuna funtsezkoak dira, eta, bestetik, ikusi egin behar da Franco-ri zein maliobragarritasuna geratzen zaion. Egia da, 1945ean Franco-k ez duela nazioartean erosotasun handirik, baina —aliatuen artean zer gertatuko ere— ari da ahal duentzako egiten: aurpegia garbitu nahiz, «Fuero de los Españoles» delakoa ematen du (1945) eta diktadura ere «aldatu» egiten da «Ley de Sucesión» (1947) haren bidez, erregimena teorikoki monarkia bilakatzen delarik.

Eta, bapatean, «Gerrate Hotza» erortzen da Europa eta munduaren gain: mundua bi taldetan banatzen da. Aliatuen arteko itxurazko batasun irmoa oso ahula ageri da. Komunismoa/antikomunismoa bikotearen inguruan ardatzuko dira nazioarteko harreman politikoak: alderdi kristaude-mokrata batek gidaturiko Eusko Jaurlaritza, sare horretan hartua aurkitzen da. Geroz eta estuagoa da abertzaleentzat nazioarteko politikaren probalekua. Eta, hain zuzen, nazioarteko koiuntura hari lotuta ikusi ohi ziren ordurarteko itxaropen politikoak!

Oraindik ere, barneko Erresistentziak oso bortitz dihardu ekinean (1947, 1951 eta 1953ko grebak) baina gertakari larriak dira nazioartean bata bestearen gain datozenak: Koreako Gerratea (1950); UNOren aholkuz, enbaxadariak Madrileren berriz itzultzea (1950); Eusko Jaurlaritzari Frantziako Gobernuak kendu egiten dio bere etxea (1951); Estatu Espainola UNESCOn onartua da (1952) Vatikanorekin Konkordatuaren izenpetzen da (1953) eta USArekin Laguntza-Tratatuak (1953), Mitterrand-ek itxi egiten du Mugerreko Euskadi Irratia (1954). Hiruzpalau urteren buruan ure-

tara joan dira itxaropen-arrazoirik bizienak: 1955ean, Espainia frankista UNOn sartu zen.

Nabarmena da, beraz, estrategia politiko berri baten beharra, abertzaletasunari segida eman eta ekintza bulartsu bat sustatu nahi bada. Ondorengo urteak, ba, bereziki gogoeta politiko eta kultural batera zuzenduak izango dira (1954-1960), bai PNV-EAJren barnean, bai politikara berehala iritxiko den belaunaldikoen artean: Xabier Landaburuk eta Federiko Krutwig-ek toki berezia izango dute gogoeta horretan.

Aldakuntza hori dena gertatzen den garai berean mokoz moko segitzen dute, noski, frankismoak eta Eusko Erresistentziak; baina martiri politikoak gorabehera (1953) Erregimenak berean irauten du, inoiz baino tenteago eta lagun demokrata gehiagorekin. Ekintza politikoa moteldu egiten da; Eusko Gobernuaren itzal morala handia da, baina noraezean ez ote dabilen galdetzen du belaunaldi berriko zenbaitek. Eta ez da falta abertzaletasunaren santutegian bertan horrelako galderaren bat: gogora Monzon-en Kontseilari-dimisioa (1953). (Ik. *Euskal Batzar Orokorra*, 186-193 or.). Jelkideetatik at, jaioko ez jaioko dabil «heterodoxia» politikoa: ekintza politiko eta kultural biziago baten egarri den mugimendu gaztea.

### Proiektu politiko berriak? (1954-56)

Gerra bat galdu zen (1937), beste handiago bat alferrik irabazi (1945); itxaropen berriak piztu ziren (1946-49) eta lagun izandakoen eskuetan itzali (1950-53); aurrerantzean, baikortasun politiko zenari parentesi bat jarraituko zitzaion (1954-60).

Abertzaletasun jelkidearen barnean, ekintzak gogoetari egiten dio toki. Gogoeta politikoak eta kulturgintzak berak ere toki nabarmenagoa izango du orain jelkideen artean. Textuinguru politiko berriak, asmo zaharrentzat proiektu politiko berri bat eskatzen du.

Erbesteko Eusko-Ikaskuntzak 1954ean ospatuko du, Baionan, bere VIII. Batzar Nagusia. Eusko Jaurlaritzaz kezkatu dago, gazteak eske baitatoz geroz eta urduariago (*Ekin* taldea), eta ez dago apenas zer emanik, ez teoria politikotan, ez eta ekinbide berri batetarako planketan. Horregatik ere, Jaurlaritzak epe egoki batez eta garaiz deitzen du euskotarren biltzar nagusi batera, Parisera (1956). Mundu osotik biltzen da jendea, alde aurretik prestaturiko lanak eta proposamenak aztertzeraz. Arrakasta zabalda du bilkurak; baina, dagoeneko sumatzen zen gazteria berria urrunxko geratu zen.

Politika berri baten azalpen teorikoen premiaz arduratuta zeuden, gazteria ezezik, amerikarren liluramendutik irten eta urrunduz zihoazen Eusko Jaurlaritzaz eta EAJ. Xabier Landaburu eta F. Krutwig izan ziren azalpen teoriko berri edo berri horiei izena eman zietenak: *La Causa del Pueblo Vasco* (1956) eta *Vasconia* (1962). Landaburuk kristaudemo-



kraziaren garai haietako itzala (Adenauer, De Gasperi, Schumann...), zekarren, eta kultur minorientzako Europa berrituaren mezua, itxaropen galduen (Amerika salbatzailearen) truke, horrela proiektu amesgarri bat eskainiz. Gaur garbi dago obra haren alkantzu historikoa: EAJren ideologiaren eguneratze bat zen; iragandako ahalegin politiko galduei buruz etsipenez betea agertzen zen; gazteriarri irekia eta zuzendua zegoen; baina —hala diote kritikoe— etorkizunerako estrategia politiko berri baten eskaintza praktikorik ez zekarren.

«Esta obra —aunque de carácter oficioso y no oficial— debe ser tenida muy en cuenta; al ser la última elaboración teórica del nacionalismo vasco tradicional, puede ser considerada la ideología del PNV en vigor hasta la fecha» (Ortzi).

«He aquí un libro clave para comprender el estado de espíritu de los nacionalistas del PNV en aquellos años negros de inactividad y desesperanza. El autor muestra con claridad su desconsuelo ante la traición hecha por los americanos a Euzkadi y a la causa de la democracia; dirige su libro a la juventud de Euzkadi, (...), y lo hace en un tono extremadamente conciliador, historicista y teórico. (...) Sin embargo, (...) ninguna línea política destinada a una actividad inmediata y popular en el interior es propuesta» (Beltza).

Bai Landabururen lana eta orobat Krutwigena, itxaropen-bila egindakoak dira. Bi obra hauen argitalpenen artean sei urteren aldea dago (1956/62), baina biak dira, abertzaletasunaren barnean jasaten zen etsipen berari erantzunez moldatutako pentsamentuak: erritmo eta ideologia ezberdinez mamituak izan arren, politikarien orduko ateka estuari, irtenbide zabalago bat bilatu nahia azaltzen dute. Zentzu honetan, aurreko hamarkadaren eskarmentu gaiztoari buruz egindako gogoetak dira biak. *La Casa del PV* eta *Vasconia* hain desberdinak suertatu baldin baziren, ez zen halabeharrez baizik gertatu: garai haietako krisi politiko-ideologikoak erdibitu zuen, hain zuzen, euskal abertzaletasuna bi partetan. Orduan gutxi batzuek sumatzen zuten krisi hura benetakoa eta sakona gertatu da.

*Jakin*-en jaiotza eta, berehala, beronen barneko nahiz inguru hurbileko gorabeherak krisi hura ispilatzen dute beren kultur lanetan. Apurka apurka argiagotuz joan ziren asmoak *jakinlarien* artean eta baitan. Berrikuntza hau, aldizkariaren barnean bi mailatan ikusiko da, batez ere: a) moderno-kutsu bat dakarten aztergaiak ugarituz, b) euskarari molde berriko irtenbideak bilatuz. Aldizkariaren jaioturtea ez zen ausaz suertatu, garaien beharriaz ere eraginda baizik.

### **Abertzaletasun berrituaren hizkuntz eskakizuna**

Efikaziarekin edo efikaziarik gabe, baina euskal abertzaletasunak beti izan du bere baitan hizkuntzaren eskea, izan ere hain argia baitzen

datu objektibo horren esanahia. Hala ere, ez du beti berdinki azpimarratu hizkuntzaren naziotasun-balioa. Berezikiago Kanpion-ek emango zion lehentasuna hizkuntzari:

«La lengua es, pues, el núcleo del concepto de nación en Campión. No es que rechace las tesis basadas en la raza, que proporcionan un criterio de distinción aplicable a los vascos. Pero es la lengua lo que constituye la posibilidad de que un pueblo, ya diferenciado por la raza, adquiera a través de su conciencia histórica la seguridad del ser nacional» (A. ELORZA, *Ideologías del nac. vasco*, 45-46. Ik. gainera, 129-131).

Abertzaletasunaren hegal kulturalak gogorki eutsiko dio (eta ahal duenean indarreanagotu ere bai) lehentasun horri. Eleizalde, Landeta edo Aitzolengan nabari dago naziotasunean hizkuntzari ematen zaion pisua (ELORZA, aip. lib., 316-322). Politikoez errazkiago ahanzten zuten hori, beren teorian lehenik eta praxian sarrienik. Nolanahi ere, harri-garria da nola jasotzen zuten Irujo-k tradizio euskaltzalearen ohiartzuna euskal instituzio historikoen azterketa juridiko baten atarian:

«La lengua de la raza constituye la primera institución de la vida vasca, la más digna de cariño y atención, y al igual que Dechepare hace cuatro siglos, el Padre Urrutia, recientemente, aquí, en Londres, nos arengaba a todos para que no demos quietud al ánimo ni nos sintamos satisfechos sólo con ostentar apellidos euskéricos, sino que debemos llevar nuestro idioma nacional a la familia, a la cultura, a la iglesia, a la calle y al mundo. —El euskera es la primera de nuestras instituciones (...). La segunda entre nuestras instituciones es el derecho». (*Instituciones jurídicas vascas*, 1945, 15 or.).

1950-60 urteetako politika-tristurak areagotu baizik ez zuen egin hizkuntzaren aldeko baieztapena. *Jakin*-en inguruko lankidegoak zekarren hizkuntz grinaren nondinorakoa korronte historiko horren barnean agertzen zaigu; baina, inondik ere, urte haietako eskakizun politikoez inposatuko dute euskaltzaletasunaren lehertzapen bortitzago bat, *hitzetan* eta *egintzetan*. Izan ere, ez baitzen hura hitzen arazoa bakarrik. Euskaltzaletasunaren baieztapen berria errazki ikusten da, «heterodoxia» politiko-ideologikora joango direnengan ezezik (Krutwig, Txillardegi, etab.), baita jeltxide politiko (Agirre-ren baitan, e. b.) edo gerraurretiko euskaltzale jeltxidezaleengan ere (Zaitegi, Ibinagabeitia, Umandi, etab.). Ezin uka, euskaltzaleagotze hau, politiko helduengan batez ere, nazioarteko euskal politika hondatuaren etsipenak eragina ere badena. Aberria askatzeko lehentasuna etxe barneko indarrei eman behar zaie: herri baten nortasuna dago arriskutan, eta nortasun horren zutaberik zindoena hizkuntza da. Desliluramendu politiko bati, hizkuntzaren itxaropenarekin erantzuten zaio (J. A. AGUIRRE: *Obras Completas*, II, 847, 894).

«...hemos cometido errores de perspectiva que han privado

a veces a nuestra acción de la tensión y dinamismo que son necesarios en los momentos decisivos. Entre estas equivocaciones, la que aparece a primera vista es nuestra excesiva atención hacia el mundo exterior esperando que nuestros problemas pudieran ser resueltos por las potencias democráticas sin que se exigiera de nuestra parte esfuerzo fundamental» (1952).

Idea bera errepikatzen du Agirrek «Euskal Batzar Orokorra»-ren (1956) ondoren. Lehendakariaren deietan, euskararen balio nazional askatzailearen ideia nagusituz zetorren. Kasik urteroko «Gabon-deietan» adierazten du Agirrek hizkuntzarena, zeregin politiko eta nazional lehena bezala.

Ondorioz, badirudi, ekinbide politikoak eskatzen zion praktikotasunaz gain naziotasunaren ikusmolde *teoriko* berrizatu batera igaro nahi duela Agirrek: Naziotasunaren funts berezgarriena hizkuntza da. 1940an eta 1947an azpimarratutako ideiak (O. C. II, 26-27; 738, 748) *leit motiv*, etengabe berrituak, bihurtzen dira behin eta berriz ondoko urteetan (O. C. II, *passim*):

«Orra or euzkera, gure etsaiari min geien ematen dion izkillu zorrotza, eta darabilgun burrukarako aukera-aukerakoa gañera (...). Orra euskal burrukarako guda-landa eder ta muga-gabea» (1951).

«... gure etsaiak garaitu ta beren asmo kaltegarriak betiko austeko izkillu egokienak eskuartean dauzkagula [gogora]. Izkillu guzietan egokiena ordea, Euskera. Benetako abertzale baginake ez litzake euskotar bat be euskera jakin gabe egon bear» (1952).

«Bitartean sendotu daiguzan geure oiturak, geure izkuntza eta euskalduntasuna. Itz baten esateko, indartu daigun geure 'nortasuna'. Euskaldundu daiguzan geure buruak eta inguruetako geure anaiak euskaldunduten be gogoz ekin daigun» (1952).

«Gure gogo orri eusteko ta zabaltzeko, ba-dakizute, euskera da bide bakarra; beraz, euskera galtzen bada, gure gogoia ere galduko da, bai guretzat, bai gure Erria'rentzat» (1953).

«Al grito de alarma que el mensaje del VIII Congreso de Estudios Vascos encierra denunciando la gravísima situación de nuestro idioma nacional, asfixiado por la persecución y por nuestra desidia, debemos responder todos con el propósito firme de ser en el futuro vascos integrales (...). Nuestra determinación debe ser tanto más firme cuanto que nuestro país se encuentra sometido a un régimen (...) que por su propia naturaleza persigue nuestra desintegración nacional y la pérdida de nuestro propio ser» (1954).

Hizkuntzarekin batera gure nortasun nazionala galtzearen arriskuaz kontzientzia argia zeukan Agirrek (beste arazo bat da garai haietako gazteek eta ez hain gazteek zer ikusten zuten hainbat abertzale erdi

euskaltzaleren bizitzetan)<sup>1</sup>, eta frankismoak hizkuntza nola zapaltzen zigan bortizki salatu zuen (1954) UNESCOren aurrean (*Obras Completas*, II, 881-882. BELTZA, *El nacionalismo Vasco en el exilio, 1937-1960*, 133-136): «la persecución de la lengua y de la cultura vascas se extiende desde la cuna hasta la tumba». Urte hartako Gabon-agurrean, euskaraz eta espainieraz, salakuntza berarekin erasoko du Lehendakariak (O. C. II, 883-884).

Agirrek zabaldu zuen pentsamendua gisa sistematikoagoan biltzen da Landabururengan (Ortziren ustez, honetan ere Héraud-i jarraitzen zaiola. Ik. *Historia de Euskadi*, 1975, 273. or.).

Nazio-beregarrien artean ondoko hauek ematen ditu Landaburuk: arraza (121 or.), hizkuntza (122 or.), historia (122 or.), zuzenbidea eta instituzioak (127 or.), kultura (128 or.), kontzientzia eta aginte-gaitasuna (139-140or.). Landaburu bera, *Gazteiz* erdaldunean jaioa izan arren (1907), euskara bultzatu nahirik sortutako «Baraibar» taldearen eragile izan zen hiriburu hartan, Errepublikakoan. Abertzaletasun jeltkideak hizkuntzari benetan lagundu ziola uste zuen autoreak (83 or.). Euskarari buruz hau idazten zuen:

Elemento característico de nacionalidad, y sin duda el más expresivo, es también el que más se resiente de los ataques exteriores (122 or.).

Baina Landabururentzat ere euskara zaila zen, ikasteko, eta beronen etorkizunaz batek baino gehiagok izan zitzakeen zalantzak gogoratzen ditu. Dena den, Landabururentzat, berezgarri oinarritzkoenak arraza, hizkuntza eta psikologia dira, eta atzetik datoz geografia eta historia (134 hor.). Jeltkideetasun ofizialak, egin nahi du zerbait euskararen alde, baina badi-rudi ez duela asmatzen erabaki politiko programatuak bultzatzen. Bienbitartean, esate baterako, harek oso berea izan dezakeen *Euzko-Gogoa* ahaleginetan ari da, lanak eginez eta bere ideiak barreiatuz. (Ik. *Jakin* 13, 1980, 98-103 or.). Ideiak ideia, eta esanak esan, euskaltzaletasun berriak definizioak garbi nahi ditu, bai, baina ekintzetaraino iritsi nahi du, gainera.

Zer pentsa gaur garai horretako jeltkideen eske teorikoaren eta joka-

<sup>1</sup> Zenbait euskaltzale suharren artean, halako salakuntza isildu bat sumatzen da: «Eusko Jaurlaritzak ez dio euskarari behar hainbat laguntzen, euskal kultura ez du laguntzen». *Euzko-Gogoa*-tarren artean baze-goen horrelako zerbait. Monzonek 1952an Kontseilaritza utzi zuenean horixe zuen bi arrazoinetatik bat: «Y tengo que decir con toda verdad y con toda claridad que hasta ahora, creo, que de todos los medios de que ha dispuesto el Gobierno Vasco que han sido cuantiosos (...), honestísimamente empleados teniendo siempre en cuenta las necesidades y el bien del país, no ha habido una atención suficiente, un sacrificio suficiente porque es sacrificio, al mantenimiento, al robustecimiento de las características nacionales de nuestro país y me refiero principalísimamente a la lengua vasca». Ik. *Euskal Batzar Orokarra*, 1956, 189-190 or.

bide praktikoaren arteko aldeaz? Horren kritika, barnetik ere bai (geroago ikusiko dugu zerbait), baina batez ere ikus-puntu «heterodoxo» batetik egin zitzaion jeltkidegoari.

1950az geroztik, abertzale euskaltzale berrien artean geroz eta ozenago entzuten zen abertzale erdaltzaleen teoriari eta praxi linguistikoei egiten zitzaien kritika. F. Krutwigek Villasante Euskaltzaindian sartzean emandako erantzun-mintzalditik hasita (1952) *Vasconia* agertu arte (1962), abertzaletasunak hizkuntzaz zuen balioztapen teorikoaren kontzientzia eta sentiera aldatuz doaz, eta, ondorioz, abertzale gazteen hizkuntzarekiko kontzientzi berrikuntzak praxi euskaltzalearen goraldia dakar abertzalegoaren barnean.

Arestian jasotako Irujoren pasartea eta Kanpion eta beronen segitzailak aintzakotzat hartuta ere, azpimarratzekoa da Aita Iberoren eta Krutwigen beste bi pasarte hauek bi tesi kontrajarriak nola ispiilatzen ziren. Erdaldun jeltkide askorentzat oso baliagarria izan zitekeen Iberoren teoria hau:

«¿Cuáles son las [propiedades] que esencialmente constituyen la nacionalidad? —*En primer lugar*, la sangre, raza u origen; *en segundo lugar*, la lengua» (Azp. nerea. IBERO, *A mi Vasco*, 2. galdera).

Egun argitan zegoen, erdaldun jeltkide askoren artean teoria honek nola jokatzeko zuen kontzientzi lasagarri bezala; hau da, hizkuntzarekiko zabarkeria ez zela, azkenean, euskaltasunaren kontrako bekaturik larriena, bazegoela, mintzairaz kanpo, zerbait funtsezkoagorik ere. Euskararekiko utzikeria ez zegoen Iberoren teoriarekin orduan, historikoki, sendatzerik. Euskaltzaleek, nahitaez, indartu beharra zeukaten hizkuntzaren eskakizuna. Horregatik, Krutwigek itzulipurdikatu egingo du, geroxeago, Iberorena. Honela:

«*Lengua*. Este es, sin duda, el factor más importante, tanto que se ha llegado a decir que allí donde se habla una lengua diferente existe una nacionalidad diferente» (KRUTWIG, *Vasconia* 1962, 21 or.). «Los mayores tesoros de un pueblo son su idioma y su espíritu» (KRUTWIG, «Discurso pronunciado...» [1952], *Vasconia*, 518 or.).

Jeltkide benetan euskaltzaleek aisago onartzen zuten urte haietan bigarren tesi hau, Iberorena baino. Jeltkideengandik geroz eta urrunago, korrante abertzale berriak bortizki eraso zion abertzalego ez-euskaltzale biziatuari. Baina euskaltzaleen artean mugak (zerbait ikusi dugu) ez datoz bat alderdi eta ideologia sozialekin. Harritzekoa da zein antzekoak diren Agirrek eta Krutwigek darabiltzaten argudioak: hizkuntza/naziotasuna, familia/ama-hizkuntza, hizkuntza/askapen nazionala... (Ik. 1950aren ondoko Agirreraren Gabon-agurrak eta *Vasconia*, 519-520, eta geroagokoa: 24-25).

Aranaren arraza-lehtasun teorikoei kupidarik gabe ekiten die Krut-

wigek (*Vasconia*, 26-27 or.); baina, batez ere, jasan, ezin jasan ditu hainbat jelkideren itxurakeriak eta abertzaletasun ahoberoak.

Ordorengo pasarte hau idaztean, ez dirudi Krutwig inoren *teoriak* arbuaitzen ari denik, *jokabideak* itsusten baizik. Hizkuntzaren balio nazionala neurtzean, kideko asko aurki zitzakeen autoreak jelkideen artean ere; baina ez zegoen prest hainbaten burubide zuri hura isiltzeko:

«Lamentablemente el nacionalismo jeltkide y su apéndice llamado «Acción Nacionalista Vasca», no dieron nunca a la lengua vasca la importancia que ésta se merecía (...). Su infame conducta con respecto del euskara es tal, que han llegado los seguidores del nacionalismo jeltkide a convertirse en los más abominables enemigos de la lengua vasca. Han llegado a desvirtuar el sentimiento nacionalista vasco, de tal forma que ante los ojos del pueblo inculto, han presentado como posible una solución monstruosa, de que se pueda ser nacionalista vasco sin atender debidamente al euskara» (*Vasconia*, 25-26).

Abertzaletasun historikoaren hizkuntzarekiko utzikeria edo ezina salatzean eta arazoari formulazio berria ematean, *Euzko-Gogoa*-ko zenbait salaketarekin bat dator autorea eta, zalantzarik gabe, sentiera berri baten ahotsa gertatzen da, hemen darabilgun arazo honetan. Agian, nahiko argigarria da Landaburuk hizkuntzari eskaintzen diona eta Krutwigena aldekatzea (*Vasconia*, 33-55). Bi tonu ezberdin direla oso nabari dago, Txillardegiren 1961eko mintzaldi sonatuaren sarreran topatzen dugun tonu bera (*BELTZA, El nac. vasco...*, 151-152. or.). Bide beretik, Txillardegik geroago (1966) azpimarratuko zuen hizkuntzaren balio politikoa erakutsi nahiz: «Erresumaren lehen instituzioa gaur hizkuntza da». Ekin taldearen eskea hori zen (1952-53) (Ik. *BELTZA*, aip. lib., 94). Gogoan duzu, irakurle: hauxe bera idatzi zuen Irujok 1945ean.

Honaino, politikan eta kanpoko kultur giroan ikusitakoak argigarri dira, noski, eliz ikastetxeetan jaio zen euskal loraldia explikatzeko; baina eragin handiagoa izan zuen zer bait ere badago komentuetxe eta Seminario haietan: gerraondoa luzatu ala, euskal urak beren historiatxoaren egiten ari dira, eta etxe barneko lan hauxe izango da bere garaian kanpora lehertuko dena.

### Eliz Ikastetxeetako kultur giro hurbila (1950-1956)

Hemen gogoratuko diren datuek batez ere frantziskotarren arteko giroa agertzeko balio dute; beste eliz ikastetxeetan gertatua ezagutzeko eta denen arteko indar erlatiboa jakiteko, ikus beza irakurleak, ale honetan bertan, ikastetxe haietako euskal lanei eskaintzen zaien artikulua («Ikasle erlijiosoen aldizkariak eta *Gure Izarras*). *Jakin*-en jaiotza hurbilagotik erakutsi nahirik mugatzen dugu honela atalburu hau.

Berehalako politika-helburu handi eta distiratsurik ezak, kulturara

eramango du abertzalego gaztearen parte handi bat; gure naziotasunaren kultur berezgarririk baliozkoenari helduko dio. Eliz ikastetxeetako gazteria hori, gainera, alfabetatua da, abertzaletasunaz kontzientziatua, eta, lanerako ere, bizi-moduz teilape berean elkartua. Alde aintzetatik mugatua bazegoen ere (e.b., ekintza politiko zuzena debekatua zeukan, kultur harreman-modu asko ezinezkoak zituen), beste baldintza horiek lagungarri izan zitzaizkion seminario eta komentuetxeetan bizi zen gazteria hari.

Alde askotatik zetozkion honi iradokizunak: a) gerraurreko literatur tradizioetik (ikastetxeetako liburutegi aberatsak han zeuden), b) ugarituz ari ziren euskal argitalpen berrietatik (Orixeren lan beteak; berrargitalpenak: *Gero* eta *Kresala* 1954ean), c) norberaren familiarretatik (ikasle gehienak herri eta herrixka euskaldunetakoak ziren, ez hiri erdaldunetakoak), d) irakasleen artean euskaltzaletasunari eutsi ziotenengandik (frantziskotar euskaltzale zaharrek ez zuten kanpoaldi luzerik jasan eta irakaslegora itzultzeko aukerarik ez zitzaien ukatu), e) geroko apez-eginkizunek ezarrita, halabeharrez, noizbait ere berritu ziren euskal ikastaroetatik...

Filosofi urteetan *Etika* ikasi behar da, eta Aita Santuen irakaskizun sozialak: hark eta hauek herrien eta langileriaren eskubideak aztertu ohi dituzte. Noizbehinka eskuratu ohi diren *Euzko-Deia*-k, *Alderdi*-k, edo OPE-k —norberaren eskarmentua gutxi balitz— behin eta berriz erakusten dute nolakoa den hizkuntzaren pertsegioa:

«La lengua vasca ha sido proscrita de todos los usos oficiales y de la enseñanza en todo el País Vasco.

'El juez o el cura, obedeciendo instrucciones recibidas, niega a los padres el derecho de poner a sus hijos nombres vascos... En las iglesias en que el culto público interno se hacía en euskera porque los fieles no hablaban otra lengua, fue proscrito el idioma vasco, autorizándose sólo su uso antes de las ocho de la mañana... Los franquistas no toleraron la presencia del euskera ni en las tumbas y panteones de los cementerios vascos. Por decisión de las autoridades militares y civiles fueron tapadas con cal y cemento, o borrados con cincel o martillo, los nombres e inscripciones en lengua vasca... La consecuencia de toda esta persecución bárbara es que los límites lingüísticos del euskera van estrechándose y reduciéndose de una manera alarmante. El dialecto roncalés ha desaparecido totalmente. Según cómputo del Congreso de Estudios Vascos de Biarritz, el número de vascos que hablaban el euskera era de 700.000; en 1954 la cifra había bajado a 525.000' (Itarko) (ORTZI, *Hist. de Euskadi*, 289-290)».

Beraz izan beharko zukeenaren (=Etika) eta izan halakoxea zena- ren (=Soziologia, Politika) arteko aldea sufriezina zen. Bidegabekiaren eztenak eragiten zuen beste ezerk baino mingarrikiago.

Eskierki, literatur tradizio etenak martiriaren itzal eta izen ona zuen. Zenbat eta gehiago ezkutatu, orduantxe zen are gomutagarriago. Lauaxeta edo Olabide hilak; Barandiaran eta Jakakortajarena erbesterratuak, Lekuona eta beste hainbat erdal herriratuak. Seminario eta fraidexte guztietan baziren zigortuak izandako euskaltzale ezagunak, eta lehentxeago edo geroxeago berriro ikastetxeetara, edo gertura bederen, itzuliak. Hauen geletan topa zitezkeen gerraurreko edizioak (Azkue eta Altuberen gramatika-lanak, Lizardiren idazlanak...). Inoiz zorte hobeagoko ikastetxerik ere bazen: komentuko biblioteka izaten zen holakoetan altxorrik onena.

*Kuliska Sorta* eta *Euzko-Gogoa* etortzen hasi zenetik arnasaldi ederra hartu genuen (1950). Liburuetan baino ere errazkiago ikusten zen aldizkarian eguneroko ekina. Hura lan jasoagoa iruditzen zitzaigun, jite berri batekoa: ahalegin ideal bat bezala agertzen zen. Maila apalagoan, 17-22 urteko ikasle gazteok bagenituen hurbilagoko ereduak eta lan-aukerak ere.

Zenbait erlijioso-elkartek bazuen kristau-herriarentzat bere euskal aldizkaria: *Aránzazu* erdi-euskalduna frantziskotarrek (1921), *Karmel* (Egutegia) karmeldarrek (1951), *Zeruko Argia* kaputxinoek (1919, eta berriro 1954). Eginkizun hauetatik batzuk, *Egutegiak* esate baterako, gazteon gain geratzen ziren. Aukera polita zen norberaren lantxoak plazaratzeko. Eta lankide gaztearen poza ez zen txikia izaten zerbait izenpetuta argitaratzen bazioten.

Gerraondoan nahiko garaz hasitako argitalpen-tradiziotoxo bat zen frantziskotarren artean, horretarakoxe balio zuenari idazle-ofizioa ikas-teko aukera emango ziona. Garai haietan laurogei edo ehun gazte ziren, hamaseitik hogeitalau urtetarainokoak, elkarrekin Filosofia edo Teologia ikasten zutenak, Nafarroako Erriberrin eta Arantzazun.

Gerraondoan, berehala eskuak libre izan zituen apez euskaltzale zenbaiten ahaleginei esker, hiruzpalau aldizkari sortu ziren urte haietan: *El Maestro de los terciarios* (1944-1949), *Arantzazu-ko Amaren Egutegia* (1947-gaurdaino), *Anaitasuna* (giputza, 1950; bizkaitarra, 1953), *Goiz-Argi* (1959). Hauetan guztietan idazten zuten —hau da ongi azpimarratu nahi dena— frantziskotar ikasleek, eta sarritan zuzendaritzetatik eskatzen zitzaien lankidetzeta hori. Aldizkari-multzo haren eragile eta zuzendarik ezagunak dira: J. A. Garate (*El Maestro*, 1944-49; *Anaitasuna-G*, 1950-55; *Goiz-Argi*, 1959-64 administrazioa, 1964-76 zuzendaritza), Imanol Berriatua (*Anaitasuna-B*, 1953), biak urte berean jaiokoak (1914).

Ez zeuden bakarrik horiek, belaunaldi bereko beste luma batzuk ere lanean ari ziren; 1950ean hogeitamar bat urte zituztenak: D. Garmendia (1908), K. Izagirre (1913), K. Zubizarreta (1912), J. Alustiza (1913), S. Mitxelena (1918), E. Agirretxe (1920), L. Villasante (1920), K. Iturria (1923)... Aldizkarien lemaizain, eragile nahiz idazle bezala gerraondoan errauspeko su isilari haize ematea suertatu zitzaien. Memento horretan, 1949an, egokiera berri bat datorkie frantziskotar euskaltzaleei:



Aita Pablo Letek hartu du nagusigoa bere eskuetan, eta frantziskotarren artean elkartuta eta zain-zain Arantzazun zeuden indar euskaltzaleek aukera ederra izan zuten<sup>2</sup>.

Ekintza berri baten mistika sortu zen: Arantzazuko eliz berrikuntza (lehen harria 1950ean) handikiro moldatu nahi izan zuen; baina elizaren eraikuntza ezetik kultur berrikuntza bat bultzatu zuen, eta, berrikuntza horretan, idazlanari toki bat eman zitzaion: orduantxe kaleratu zen Mitxelena *Arantzazu. Euskal Poema* (1949) eta berehala, Leteren aginduz idatzitako *Ama-Semeak* (1951) ere. *Anaitasuna* biak ere olatu berean etorri ziren. Villasante laster sartuko da Euskaltzaindian (1952, maiatza). Hiru urte pasatxotan bakarrik izan zen Lete frantziskotarren nagusi; baina, Bermudetan hegazkin-ixtripuz hil zenean, inoiz gutxitan bezala sentitu zen ezbehar hura (1952, abendua).

Ezbeharra gorabehera, aspertzeke segitu zuten euskaltzaleek ekintza berrien gogoz. Herrietako apezten artean egindako inkesta baten ondoren, ahaleginetan ziharduten aldizkariaren ondoan. *Astea* deituriko aste-kari bat sortu nahi izan zuten (1955-57) Villasante, Agirretxe, Omaetxebarria eta abarrek. Asteroko hura ez zen bideratu, *Zeruko Argia* astekari bilakatzera zihola jakin zelako.

Une artan, inguru kulturala lagungarri dute (Oteiza, Basterretxea...) Arantzazuko gazteek. Urte haietantxe dago B. Gandiaga (1928) bere ikasketen azken urteak ematen (1951-54), eta 1954ean irabaziko du bere lehen saria. Baina ez diezaigun garaia aurrea har.

Euskal Herriko Eliza osoari begira, aldakuntza handi bat dugu

<sup>2</sup> Orain azpimarratzen ari garen frantziskotarren euskal ekintza ez da neurritz kanpo ikusi behar: a) 1960ra arte edo, gutiengo euskaltzale baten lana izan zen (horregatik ere ematen ditugu izenak); b) inizatibak behetik hasi ohi ziren, gehienetan, zenbait nagusiren kontra edo beraien tolerantziarekin; c) urtetan (1939-49) beldurra zen nagusien lege, baina geroz eta gehiago arriskatu ziren beheko inizatibak espreski edo isilduz babesten: legezko baimenik gabeko argitalpenak (*Jakin*) eranskin gisa asmatutako aldizkariak (*Anaitasuna-B*, *Goiz-Argi*), etab.; d) ekintza berri batzuk goitik (Mitxelena lanak) edo talde bilera ofizialetatik sustatuak ere izan ziren (*Anaitasuna-G*, *Astea*), batez ere 1949-az geroztik; e) eskierki, ez zen sekula falta ekintza jaino berrien ondoan nagusi behatopatzaileren bat; f) euskaltzale eragileak babes handirik gabe sentitzen ziren. —Oro, har, eta inguruetan gertatzen zenari begiratuta, 1950-60. urteetako Kantauriko frantziskotarren Probintziaren (bere komentuetxeak Euskal Herrian, Gaztelan eta Ameriketara ditu, eta ez da, gutxiagorik ere, osorik euskalduna) euskal politika positibotzat eman behar da, bere punturaino erlatibatuz. Gerra-galtzailearen arrazoinak eta irabazleen kontzientzia txarrak poliki lagundu zuten instituzio-barneko euskaltzaletasuna. Seminarioetan gertatzen zenaz ere jakin beharko litzateke euskararekiko zapalkuntza/libertateak nola desorekatzen ziren. Izan ere, orrialde hauetan, gertatu zen zerbait positiboren zergatia bilatzen dugu, eta ez, egin beharko ziren eta biderdian geratutako askoren ezin jarioa: zapalkuntzaren indarra eta efikazia ere ezagutu behar lirateke egia osoaz jabetzeko.

urte horietan: Gasteizko Elizbarrutia hirutan banatzen da: Gasteiz, Bilbo, Donostia (1949). Elizbarrutietako Apezgaitegi berriak jasoko dira: gerraurreko kardaberaztarren izpirituak Donostian eta Derion aurkituko ditu kokalekuak; ez, noski, nahi bezain erosoak, baina bai, denen bultzadaz, indartuz joan diren erdigune kulturalak. Hemen ez dugu historia hau aztertuko, zuzenean une honetan darabilgunari ez dagokiolako, baina esan dezagun, bederen, gerraurreko tradizio bati segida emanez ekingo ziotela euskal lanari.

Ez ziren ezerezen gain agertu Lekuonatar gazteak, M. Atxaga, J. M. Aranalde, L. Dorronsoro, J. Gaztañaga, etab. Donostian; J. Kerejeta, M. Zarate etab. Bizkaian.

Ikasleen eraginez eta eginez sortu zen *Jakin*, eta, horrela gertatu zenean, aurreko urteetako hainbat lanen garapen logikoa baizik ez zen izan: ikasleei *eskatu egiten zitzaien idaztea*, eta lantxo llaburrak argitara emateko aukera eskaini. Idazle-premia zeukan plataforma baitzen aipatutako aldizkari-multzo hura.

*El Maestro de los terciarios* hura lau orrialderekin hasi zen (1944) eta zortzirekin bukatu (1949): lehenengotan erdia bakarrik zen euskaraz, bukaeran ia dena (sei orrialde). Erriberakoek ezetik Alfaro eta Lermako hirugarrendarren albisteak ere euskaraz ematen zituen... Garate bere zuzendariak gorde digun bilduman ikus daiteke, errenkan, zenbat teologo ikaslek idazten zituen artikuluxka haiek. Egia esan, ez zen nahitaez luma finegirik behar eginkizun hartarako, eta eskarmentu handiegirik gabeko zenbaitek babes eroso topatu zuten orrialde haietan. Betekizun beretsua konplitzen hasi zen *Egutegia* ere (1947): oso idazlan laburrak behar ziren, edonork aisa idaztekoak, eta atzetik zuzentzaile hobeagoren baten segurantzia zegoen, gainera. Ehundaka orritxo zirenez gero, gaiez gai sailkatuta banatzen zen lagunartean lana. Bestalde, *Egutegia*-ren zabalkundea erabatekoa zen: lehenengo urtean 40.000 aleko edizioa egin zen Gipuzkoarako. Hamabost mila geratu ziren saldu gabe. Handik aurrera 25.000 milako argitaraldiak inprimatzen ziren, eta dena saldu. Frankismoaren menpean, hau zen milaka sukaldetan eguneroko irakurgaia (1960: 16.000). Irakurle go leial eta atxekia zuen *Egutegia*-k. Ikasleek bazekiten, lana hain apala izanik ere, hain mugatua, ez zela alferrikakoa han emandako izerdia. Hala ere, Egutegiko hura urtean behingo ekinaldia izan ohi zen, eta idazlegaien trebakuntzak segidatasun hobe eskatzen zuten, etenik gabeko maiztasuna alegia. Horretarako parada hilerokoetan topatzen zen.

*Aránzazu*-k zerbait laguntzen zuen; baina Hirugarrendarren Anaiarteari zuzendutako argitalpenek ematen zuten aukerarik onena, *Anaitasuna* biek batez ere. Arantzazuko apezgaiei bakarrik ez, baita beste etxe batzuetakoei ere. Iruñetik idazten zuten Apezetxeak, Gardek, eta abarrek. Zabalkundea ere estimagarria zuen, Gipuzkoakoak behintzat: haseran 15.000 aleko kopurua aipatzen da (1950, otsaila); gerora, bere puntuan kokatu zenean (1953, urtarrila), 7.000 zirela esaten da. Hileroko

hau, aipatutako besteak bezala, erlijiosoa zen, baina behin baino gehiagotan gogoratu zuen herrietako Anaiarteetan balio kultural batzuek zaindu beharra: e.b., herri bakoitzekoak liburutegi bat sortu beharra zeukan («1. Anaidi bakoitzak jarri beza *liburutegi bat*, 2. Junta berriak izendatzean, *liburu-zaitzalle bat izendatu bedi*»), eta argitara berriak ziren liburu batzuk ematen zituen Agirretxek zerrendan (1954, 139, 1). Euskal irakurgaiak, egunekoak eta biziak, sortzearen, PPC-ren liburuxkak argitaratu zituen aldizkariak: itzulpenak frantziskotar ikasleen ardurapean gelditu ziren, orduan ere, 1954 eta 1956. urteetan literatur Sari-keten propaganda behin eta berriro egiten zuen; dei haiek kanpaina baten antza ere badute: sei zenbakitan ematen dira (1954) «Gure euskal Sariketa»-ren berriak. Honela banatu ziren jasotako lan lehiakideak: 18 olerki, 6 antzerki eta 2 hitz-lauetzko saiakera. Olerkietan teologo ikasle bat izan zen irabazlea, Bitoriano Gandiaga, eta Bordari bigarrena. Horrezaz gain, liburuen aurkezpenek edo euskal bileraren baten albisteek ere izaten zuten tokirik. *Jakin*-en sortzaile guztiek idatzi zuten *Anaitasuna* haietan (I. Bereziartua, I. Bastarrika, S. Berasaluze...).

Kanpoko argitalpenetarako zeregin hauek, gazteen lumak eskolatzeko interesgarriak izanik ere, bazegoen (beti, baina batez ere 1950etik aurrera) beste zerbait, norberarentzat lehenengo probaleku serioa gertatzen zena: Nafarroako Erriberrin filosofi ikasleek sortutako etxeko aldizkaria, *Gure Izarra* (1950-1974), hogeitabost urte bete arte iraun zuena. Ikasturteko ikaskizun-lanak jasoz idatzitako urtekari kulturala zen berau. Hauxe zen lanik apainena, zainduena eta jasoena; baina bestelakorik ere izaten zen, esan dezagun, idazketa hutserako, gelaz gela elkarri pasatzen genizkion koadernetxoak.

*Gure Izarra*-n zailduta iristen ziren gazteak Arantzazuko lanetara. Irakurle interesatuak «Eliz ikastetxetako aldizkariak» artikuluan ikus dezake honen xehetasun ugariagorik; baina gogoan har dezagun, orain, idazlan haien xede nagusia, edozein ikaskizun akademiko euskaraz landu ahal izatea zela; hau da, orainartean izendatu ditugun frantziskotar aldizkarietan egiten ez zen zerbait, eta nolana ere, *Euzko-Gogoa*-ren helburuen parekoa zen lana. Beraz, lehenengo jakinlariengan, *Jakin*-en aurretik, *Gure Izarra*-ren eskarmetua dago.

*Gure Izarra*-ren azken helburuak, frantziskotarren orduko argitalpenetatik ez, baina garaiko beste argitalpen onetatik jasoak zeuden.

*Gure Izarra*-ko ahalegin haietara iritsi aurretik fraidegai mutiko koskorrek Seminarioko lehenengo urteetan izan ohi zuten euskal hezkuntza gogoratzea egoki da hemen. Hamar-hamabi urterekin ikasketak hastean, Arantzazuko mutikoei ez zitzaion, 1950aren aurretik, lehenengo bi ikasturteetan euskararik irakasten, eta hurrengo hiruretan astean ordubete bakarrik. 1961ean Gandiagak esaten digunez, sei urtetan astero ordubete ematen zen. Hala ere, alde onik ere izan zuten: e.b., gerraurreko «Zabalkundea»-ren *Garoa*-tik (ba ote daki inork nola salbatu zen gerrateko sutatik) ale bana eman zitzaion ikasle bakoitzari 1949an.

Hortixe hasi ginen euskal literatura ederra zuzenean ezagutzen. (Bide batez, gogora dezagun, jakindar izatekoen irakasle bat Imanol Berriatua izan zela). Adinera iritsi orduko, *Egan* eta *Euzko-Gogoa* aurkitu genituen, eta gerraondoko lehenengo birredizio ederrak.

1950az gero, literatur lanak hegada garaia goa erakutsi zuen. Gehientzuenok irakurrita genuen Ibar-en aspaldiko *Genio y lengua* (1935) eta handixe ikasita geneukan hizkuntzarentzat literaturak duen salbaidiz-balioa. Txikia zen liburua, eta erdaraz zegoen, gainera; baina istimurik handiena irabazi zuen gure artean. Horregatik, ez da batere harritzekoa gure gozamina Lizardiren *Biotz-begietan*, gerraurreko edizio horizta eta txikiago maitagarri hartan, ixilka-mixilka irakurtzen genuenean... Eta zer esan poema-mirari berriez: Salvatore Mitxelenaren *Arantzazu. Poema* (1949), Orixe-ren *Euskaldunak* (1950), Labaienek eman zion lagungarri eta guzti. Eta Onaindia-ren *Euskal Milla Olerki Eder* (1954). Honek jo eta pasa egiten zituen gure amets guztiak: berau zen euskal literaturaren frogarik onena, hizkuntzaren zapaltzaile oren kontra. Egia da, baikorregiak eta xaloeziak ginela gure uste eta eritzietan; baina halaxe sentitzen genuen eta hortixe bizi ginen. *Euzko-Gogoa*-ren Guatemalako azken aleak benetan hunkitu gintuen bere olermen oparoarekin (1956). Mitxelenaren *Bizi nai* hura eta N. Etxanizen olerkiak eta Aurraitzen lana zinez gustagarriak izan ziren guretzat. Oraindik poesi molde berriak ez ziren agiri; baina enbor zaharraren gerraondoa gerraurreko onenarekin aldera zitekeela pentsatzen hasi ginen.

Prosa ere ez zen baztertzekoa. Hura gozamina *Gero* (M. Lekuonaren edizioa) eta *Kresala* (1954) aurkitu genituenean! Beharbada, euskaraz obratu diren itzulpen-asmorik handienak oraindik ere ordukoak ditugu. Orixe bortizki lehiatu zen San Agustinen *Aitorkizunak* euskaraz ematen (1956); hil baino lehentxeago, bere bizitzan egindako obra osoari begiraturaz, lanik onentzat ematen zuen Orixe berak:

«Besterik ez ba'da ere, ezin esan, S. Agustiñ-ek euskerari on aundia egiñen ez dionik. Gaurkotik au gelditu diteke, Biblia leku, euskal-libururik bikiñena» (*Aitorkizunak*, 5. or.). «Euskerari begiratuta, Aitorkizunak [nere lanik onena]; ori aztertuko dute geienik *euskera sakonago* ikasi nahi dutenak» (*Karmel*, 1960, iraila, 159 or.).

Hori, eta Gaizka Barandiaranen *Ilias'ena* (beren lorpen hain desberdinekin) aipatu beharrekoak ditugu, Zaitegi eta Ibinagabeitiaren itzulpen klasikoekin batera: prosa landuari bultzada handi bat eman zitzaion, lehenagotik zetozen eginahalei nolabait ere gailur berria emanez.

Aipatu hauetxek hain zuzen, *Jakin*-en aurreko gaztetxoek irakurri, ez genituen gehiegirak irakurtzen; ulertu, berriz, ezer gutxi, baina, miretsi, bihotzez eta begi zabal handiz miresten genituen, eta kritika-txintik ere ez genuen egin, geroxeago «errebolta» lotsagabeki sortu zen arte (1959): gero ikusiko dugu nondik eta zergatik. Haiek ziren guretzat benetako nahiz ustezko obra maisuak; ustezkoak diot, zeren hamasei-

-hogei urteko gazte erdi-eskolatuok ez baigenituen sobera konprenitzen. Beste batzuk, bai, hobekiago konprenitzen genituen, baina heterodoxiarako edo okerrakotarako bide samurragoak ziren hauek: Jon Etxaideren *Joanak Joan* (1955) eta, gerotxoago, Txillardegiren *Leturiaren Egunkari Ezkutua* (1957) eta S. Mitxelenaen *Unamuno eta Abendats* (1958).

Kanpoko liburugintzatik zetozkigun eztenkadak ziren horiek; irakur-min zirentzat bazka zapoetsua. Azken ereduak ziren, beti ere urrunak, baina ereduak segitzaileak eskatzen ditu, eta kazetaritzaz gain (lehen aipatu dira aldizkarietako lanak) liburu-lanak ere izan zuen tokirik filosofo eta teologoaren artean. Jakindarren aurretikoko ikaskideentzat horretarako egokierarik erosoena Sariketak izan ziren: Etxaidek bere elaberria sarizatua izan zuen hartan «Itunbe»-ri (= J. Iturria, I. Untzurruntzaga, S. Berasaluze) eman zitzaion bigarren saria eta, bide horretatik, kaleratu zen lan hori: Hugo Wast-en *Bide izkutua* (1956). Orobat, Sorarrain-Galarraga-Garaialderen *Elezarrak* (1955). Ez ziren, hala ere, ikasleen lehenengo liburuak; ordurako Sorarrainek bi zituen argitara emanak (1950, 1955). Urte haietan ari zen F. Bilbao ipuinlaria ere (*Ipuin Barreka*, 1959) bere lanak ontzen. Posible zen, beraz, eta eskuragarria garaiko euskal ingurune sozialean preziatua zen luma-lanari ekitea!

Etxez kanpotik eta etxe barnean idazle-ofizioa ikasiz joateko eragina ez zitzaion gazteriarri falta. Garai haietako argitalpenek gure baitan sortzen zuten zirrara, hogeitamar urte geroago, modu ulergarri batez agertzea ez da batere erraza. Gerraondoko isilaldia, guretako askorentzat, bizitza osokoa gertatzen zen. Azken hamarkadan (1944-56) jasotako bizipenek, zera erakutsi zieten gazteei: kazetari-lan edo literatur-idazkizunaren ondoan ikaskizun akademikoak ere kalera zitzaketela euskaraz; horretarako bidea urratua zegoela, alegia.

## 1956: urte mugarri bat

Aurreko artikuluetan ikusi dugun historiaurre haren ondoren jaiotzen zen aldizkaria, orain hogeitabost urte. Urte bera epe baten ataria dela esan liteke, beldur handirik gabe; asko eta esanahitsuak izan ziren hamabi hilabete haietan sortutako kultur gertakariak.

Erlatiboki beti ere, baina ordurarteko gerraondo urterik oparoena gertatu zen hura, euskal kulturarentzat. 1956. Liburu, aldizkari eta bilkura sonatuak elkarren gain hasten dira biltzen, Euskal Herri barnean eta erbestean. Lehendik bizirik zeudenek gorakada nabarmena dute, eta, luma berriei leku emateko, argitalpen berriak jaiotzen dira. Gerraurrekoak berriro ere irakurlegoaren eskuetara eraman nahi dira.

*Karmen'go Amaren Egutegia* (1951), urte honetan, *Karmel* aldizkari bihurtzen da, Xanti Onaindia-ren irudimen «administratiboak» halaxe nahirik. Ezin, ba, sortu euskal aldizkari berririk; baina zergatik ez atera urteroko egutegia hainbat hilerokotan banatua? 1962raino iraun zuten zutik asmazio polit honek... Hemen eman zituen batez ere Orixe-k bere lantxo laburrak, hizkuntzaren bihurtze berria korrante berriei aurpegi emanez.

*Egan* aldizkariak, seitan biderkatzen ditu bere orrialdeak, 1954/1956, ia bostehunetara iritsiz, aldizkari batengan horrek esan nahi duen indar guztiarekin; goraldi honek ederki asko eutsiko dio lortutako gailurrari, urte hauetako (1956-63) batezbestekoak 455 orrialde dituela. *Egan*-en bizitza osoko (1948-1977) orrialde-kopuruaren (7.423 or.) erdia baino gehiago (4.097 or.) eman zen urte haietan. Ikasle euskaltzale aintzek puntarik punta irakurtzen genuen. Orrialde haietatik zetorren maisugoak bazuen, gainera, euskaltzaleon artean gutxitan aurkitu izan den kritika-lana (K. Mitxelena-rena batez ere): arduraz egina, serioa, zurikeriarik gabea.

Guatemala-ko *Euzko-Gogoa* urrunak Euskal Herriratzea erabaki du; eta orain, barnean beste aldizkari lehiakideak izanarren, hil arte (1960) lankidego zabala eta emankorra bilduko du Miarritzen. (Ik. 13, 1980, 105-107). Berrikuntza duen beste aldizkaria *Euskera* da hain zuzen. Esaterako gerraondoko lehenengo ale trinkoa hilabete haietako lanekin betetzen da: berauek Altube, Mokoroa, Barandiaran, Lekuona, Villasante, Altuna, Zabala, Txillardegí, Gandiaga, Urrestarazu eta abarrek izenpetuak. Hortxe biltzen ziren, gainera, Euskaltzaindiak 1941az geroztik izandako bileren agiriak ere.

Urte hartako liburu-argitalpenak ere gogoangarriak dira; ikus daitekeenez, toki nabarmena dute berredizioek eta itzulpenek:

LIZARDI, *Biotz-begietan*  
 KIRIKIÑO, *Abarrak*  
 AGIRRE, *Garoa*  
 MOGEL, *Peru Abarka*  
 ORIXE, *Agustin Gurenaren Aitorkizunak*  
 S. BARANDIARAN, *Ilias'ena*.

Baina urte hartan, batez ere, bi gertakari nagusiren inguruan biltzen dira euskaltzale eta abertzaleak; gertakari horiek, elkarren segidan bildutako bi Biltzarre izan ziren, baina ehundaka kilometroren aldearekin bilduak. Bata Arantzazun, bestea Parisen: Lehenengoak, Euskaltzaindiaren deiarri erantzunez ospatu zen, «Arantzazuko Urtea»ren barnean; bigarrena, Eusko Jaurlaritzak hotseginda inguratu zen jendea. Euskaltzaindiarenak euskara eta beronen etorkizuna zuen gaitzat; Parisekoak, ostera, lau sail izan zituen, politikari, sozio-ekonomiari, kulturari eta «Munduko euskaldunei» buruz zihardutenak. Esan gabe doa, Arantzazukoan ez zegoela politikaz hitzegiterik; Parisekoan, aitzitik, horixe zen orenen ardatza.

## 1. Euskaltzaindiaren Biltzarrea: Arantzazu (1956)

Euskaltzaindiaren «Euskaltzaleen Biltzarra» Irailaren 14/15/16tan bildu zen. Villasantek eman zien ongietorria batzarkideei eta A. Arruek azken agurra, amaierakoan. Tartean, hitzaldi eta komunikazio-sail batek, hitzaldiondoko etabaidak ahanzteke, bete zituen ihardunaldiak. Batzar-lagunak ugari izan ziren, nolnahi ere ehundik gora (Pariseko Batzarrean «eundaka, eundik gora beñepein» izan ote ziren ere aipatzen du Hernandorenak. Ik. *Euskal Batzar Orokorra*, 397). Batzar-lagun haien artean zabaldu zen lehenengoz *Jakin* aldizkaria.

Hiru egunetako mintzaldiak, eskierki, bi sailetan bana ditzakegu: a) Batzuek beren *bilketa-lanen* azalpena egin zuten (Altuna, Izagirre, Mendizabal, Gandiaga, Zabala, Barandiaran), b) Besteek, hizkuntzaren *etorkizunari buruz* hainbat *gogoeta* eskaini zuten (Txillardegí, Villasante, Mokoroa «Ibar», Urrestarazu). Hemen, gurerako interesgarrienak bigarren hauen hitzaldiak dira; baina azpimarratu behar da, orduan aurkeztu zela harez gero halako segida izan duen Zabala-ren bertso-bilketaren asma

ere. Hau ere, esan liteke, histori mugarría izan zen urte haren bereizgarri bat da.

Urrestarazu eta Txillardegí ez ziren Biltzarrean egon, baina «Euskera eta Euskal-kulturari buruz» eta «karta idigía» komunikazioak bidali zituzten. Villasantek «Gure eginbearrak» mintzaldia eskaini zuen, eta Mokoroak —halaberrez erdaraz— «De vida o muerte». Ihardunaldi hauen ondoko eztabaidetan parte hartu zutenak ere gogoratzekoak dira: Mitxelena, Agirretxe, Zeleta, Erkiaga, Inza, Omaetxebarria, Agirre. Ez ziren, antza, eztabaida denak osorik jaso; baina nahiko argibide ere bil liteke hango giroa ezagutzeko.

Gerraondoan euskaltzaleak irekian lehenengo aldiz bildu ziren honetan, hizkuntzaren hil-ala-biziko arazo larriari begira ihardun zuten. Harri-garriro garbí azaldu zuen hori Ibar-ek, bere esan-modu labur-bilduan: Hizkuntza salbatzeko zer behar zen bazekiten euskaltzaleek; berdin, bazekiten ezinaren muga hurbila non zeukaten; horrela, ba, premiazkoa zen orduan bertan obragarri ziren xedeak hautatu eta egintzetara eramatea:

«Nuestro idioma vasco (...) está condenado a muerte de asfixia mientras tenga impedido el libre acceso a la radio, a la prensa diaria, la escuela, el teatro, el cine... (...); y mientras, por el contrario, toda la imponente maquinaria informativa del mundo moderno se ocupe sistemáticamente en saturar nuestra atmósfera de castellano o francés. (...)

...mientras dure el actual estado de cosas en orden a nuestra lengua, no está en nuestra mano el *organizar* la verdadera defensa del Euskera.

Y, descartada así, por fuerza mayor, *la única forma racional y eficaz* de salvar la *vida* de nuestra lengua, no nos quedará, entre tanto, a sus defensores otro recurso que el de cada día más precarios *expedientes*.

Con todo, (...) ninguna traba nos habría de impedir, seguramente, *organizar* y *llevar a cabo* ahora mismo cierta vasta *operación de salvamento indirecto*, de incalculable alcance (...).

El objetivo inmediato de la operación sería lograr el inventario más completo y manejable posible de nuestra lengua en su vocabulario, locuciones, folklore y producción literaria» (IBAR, in *Euskera*, I, 1956, 274-275).

1981eko erpinetik begiratuta, benetan distiratsua agertzen zaigu go-goeta hau, ahots profetiko bat dela esan liteke, batez ere asmoari Ibar-ek eman nahi zion erakunde-proposamena gogoratzen badugu. Garaiko euskaltzaleen Biltzar hark eta asmoaren berri jakin zutenek —hau da, Euskal Herriko indar sozial abertzaleek—, ez zuten ulertu edo ez zuten indarrik izan ongi konprenitua egintzetara eramateko. Hitzaldi eder bat izan zen, eta ez zen deus gertatu. Asmo handitoxa zela esan zuen urliak, eta Txillardegik eskatzen zuen praktikotasuna (*Euskera*,



I, 1956, 248) Ibar-en «*realismo utopiko*» hartantxe egon zitekeenik ez zen sumatu.

Baina Ibar-en bilketa-proposamen honek ezinarekin berehala estropozo egin bazuen ere, Biltzarre hartan egin ziren proposamen berri batzuek bazuten beren baitan geroaren halako promesa bat, batzuegan orduantxe bertan loratzen ari zena (Peillen, Mirande —batzarkidea hau—, Txillardegí...), eta zenbaitengan laister garatzekoa. Hizkuntzari balio praktikoa eta funtzionala eskatu behar zitzaioela esaten zuen tesiaz ari gara. Euskara, kultura modernoaren zerbitzuan jartzean ikusten zuen funtzionaltasun hau. Ideia honetan bat zetozen, elkarrekin, Villasante eta Txillardegí ezezik, Ibar eta Urrestarazu «Umandi» ere, eta, eztabaidetan ikus daitekeenez, Biltzarre osoa (Orixe-ren geroko erreparoa ez dira han nabari, egon ere ez zen bera han egon; baina bai Orixe-zale ugari).

Gaurregun hain burutan dugun hitz bat aipatu zen, eta eginkizuna noski, funtzionaltasun moderno horren azken xedea definitzeko, *normalizazioa*. Ez dago argitu beharrik ere, gaurregungo lan hau eta asmo orokor hura ez direla alkantzu berekoak; baina bai arautasunaren aldetik kidekoak: *Literatur-izkuntza normalizatua, unifikatua, tink ezarria eta aldakaitz bihurtua*, eskatzen zuen Villasantek (*Euskera*, I, 1956, 267).

Hizkuntzak, arautua izateaz gain, *osotua* izan behar zuen praktikotasun eroso bat lortu nahi baldin bazen. *Osakuntza aundia bear du euskerak gaurko bizikeran gai izateko* (Txillardegí, ib, 247). Hizkuntzaren larritasunik handienak bultzata egiten ziren Batzarrean eskeak: erlojuaren kontrako ekintza bat zen euskararen salbamendua. Estuasun horretan, planketarik onena ere, denboratan sobera luzatzeko baldin bazen, ez zen egokia izango salbamendu hura lortzeko:

«Aresti jaunak adierazi du berrogei urteko bizia ematen diola euskerari Bizkaian oraingo bidetik jarraitu ezker eta Mokoroa jaunak azaltzen duen egitama audiegia dela, diru eta denbora geiegi bear litzakela betetzeko (*Euskera*, I, 1956, 282).

Mokoroaren ustez, ikusi dugu, ezer handi eta erabakiorrik egitea ezinezkoa zen urte haietan, egiazko salbabiderako sendagarriak ukatu egiten zitzaizkigulako. Bigarren mailako hautabide ordezkarria eta lagungarria bakarrik zen, beraz, haren proposamena: bilketa-lana, garai berriak etorriko zirenean hizkuntzaren trebakuntza garantia hobezko egiteko laguntza zen.

Hala ere, presaz zetozen jende gazteek, arnasestuka, hizkuntzaren funtzionaltasuna aipatzen zuten behin eta berriz, hil-ala-biziko zeregin bezala:

«Mintzaera bat bizi dedin, beti baña gero ta areago, kulturazko mintzaera izan bear; ezinbesteko baldintza. (...). Guretzat bederik, izkuntza bat kulturazkoa dala esateko, izkuntza ori Munduan erabiltzen eta erabilliko diran giza-adimenaren eza-

gupide guztiak ikasteko, irakasteko, adierazteko ta edatzeko bide izan bear. Orrela dira gaurko ontan ezagutzen ditugun kulturazko-mintzaera guztiak. (...). Orixe bada, gure xederik aundiena: Euskera, kulturazko-izkuntza biurtzea, orain ezpaita» «URRESTARAZU, in *Euskera*, I, 1956, 295).

Bilketaren balioa eta betekizuna ukatu gabe ere, eguneratu, trebatu, gaitu egin zitekeen hizkuntza: egiteko handi bat ahalgarria zitzaien 1956ko euskaltzaleei; horretarako, ez zegoen libertatearen egun distiratsuaren zain egon beharrik. Lanari bertan behera ekin behar zitzaion, askatasun-orduak jotzean, trebe eta prest topa gintzan. *Hizkuntzaren trebakuntza modernoa* zen martxan jarri behar zena:

«Egunen batean, Yainkoak daki noiz, gure Erri'aren eskue-tan izango da gure ikasketa guztiak antolatzeko almena, ta ordurako egitaraua gerturik eukitzea dagokigu; bai ta lendik bete al litezken bide-zati geienak. Gramatika ta beste liburu asko bear izango ditugu beti, ta oso egokia da lenbailen astea antolatze ori» (URRESTARAZU, in *Euskera*, I, 1956, 296).

Pariseko Eusko Jaurlaritzaren ingurutik zetorren, noski, idarokizun hau: egunen batean, nahitaez bete beharko zen politika linguistiko barentzat tresneria prestatzeko premia adierazten zuen Umandik. Isilpean, eta ofizialtasun guztietatik kanpo, geratzen ziren lanok izan zitezkeen, azkenean, praktikoena. Zentzu honetan, Txillardegik izpiritu praktikorik eza salatzen zuen: «egite-gizonak bear ditu euskerak bere orretan», «izpiritu praktikurik ez dugu», «arreta aundiagoa jarri bearko genuke aurre-rakoan eginkizun praktikuak asmatzen, guztiz bearrezkoa bai-da au euske-raren salbaziorako». *Praktikotasuna, egite-gizonak, ekintza*: Euskaltzale-goak beharko zituzkeen sendagarriak hauek ziren, Txillardegiren ustetan.

«Egin ditekena egin, eta ezin ditekena aaztu: ez dago onetaz beste aukerarik. —Eta gaur, nere ustez, bitara bil ditza-kegu egin ditezken gauzak: 1.º) Gutxiengo edo minoria bat gertu. 2.º) Euskera gaitu, batu ta osatu». (*Euskera*, I, 1956, 249).

*Euskera gaitu, batu eta osatu*: Txillardegik hori horrela idazten zuen hartan, oraindik belaualdien arteko etena obratu gabe zegoen. Erdal-keria, garbizalekeria...: hori dena, betidanik izan dugun eztabaidakizuna zen; baina orduantxe zihonan arazo hori hizkuntzaren *modernokuntza prak-tikoaren* egitekoraino sartzera. Krutwigek bere proposamen lapurteratarra eta grekotarra egitean, oraindik mundu teorikoegi batean zeuden gauzak; baina Biltzarre hartako Villasanteren hitzaldia askoz ere obragarriago gertatzen zen entzuleentzat. Eta proposamen-molde hark *gazte langileak* zeuzkan, gainera, atzetik.

«Euskaldunok autokritika pizka baten bearrean ba-gerala deritzat. (...) Poulain jaunak, bere liburu ospetsu batean auxe idatzi du: *Pedid a un sabio que exprese las profundidades del*

*cálculo infinitesimal con el vocabulario de los niños o de los pastores.* Ori argi dago, ezin ditekean gauza da. Parkatu, jaunak, baiño guk oben ori ez al dugu maiz egiten? Erri-euskeraren itzekin nai dugu dena esan dedin ta dena adirazi dedin, ta jakifia, ori ezin ditekean gauza da. Ifiungo erri'izkera arruntean arkitzen ez diren kontzeptu eta itzak, gurean ere ez arkitzea, ezta batere arritzekoa; aitzitik gauza normala da. Gaztelako erri-izkerak ere, jatorriz, adieran, etzitian orrelako kultur-izenak, baiño etxeratu bearrean arkitu zan, eta ala biurtu zan kultur-izkuntza landu aberatsa. (...). Erria eredugarri ta ispillu zaigu milla gauzetan, eztut ukatzen, baiña ez ditzagun gauzak bere neurritik atera» (VILLASANTE, in *Euskera*, I, 1956, 257 eta 259-261).

Jakintza eta kultura gure euskararentzat irabazi behar direla gogoratu digu Villasante berak: Eta hori ez da lujo bat, apaingarri bat. Hortxe dago jokuan hizkuntzaren bizia bera ere: «*Kondaira lekuko, bi izkuntza nor-geiagoka jarri diren guztietan, jakintza ta kultura noren alde egon diren, arena izan da betiere garaipena (...)... kontzeptuak, nozio-neak, izenak eta itzak. Oiek eztitugun artean, eztugu aurrerapenik egin al izango*» (*Euskera*, ib., 260).

Horrela, batasunaren bila, kultur edukinena bila, euskal hitzen bila... hurrengo hogeitabost urteetako eztabaida nagusienentzat galderok mahain gainera ekarri dira, ba. Badirudi, euskaltzale askok ez zuela oraindik modernotasunaren premia esturik nabaritzen; baina, batzuren utsez (eta ez ziren hauek ondoko urteetan langilerik eskasena izango), horixe zen hizkuntzarentzat hordagorik larriena.

Gerora, hizperri-kontuetan hain jokabide ezberdinak eramango zituzten Urrestarazu eta Villasante, bat zetozen terminologia berezituena beharra aitortzean: Hitz egokien faltaz, ez zegoen euskaraz gure hizkuntzaren gramatikarik idazterik, eta beste edozein kultur alorretara jota ere, betiko leloa entzun behar, *hitzak falta* zaizkio hizkuntzari, eta horrela gauden bitartean ez dago inolako irtenbiderik:

«Gramatikari buruz lendariz egin bear dana, beste gaietara gero edatu liteke, bear dan neurrian: Lojika, Kondaira, Kontuak, Geografia'rako eta abar, guziak beren lerroan». (A. URRESTARAZU, in *Euskera*, I, 1956, 296).

«Euskera utsez euskal gramatika bat idazteko, oztopo edo eragozpen aundi bat arkitzen duela terminologiaren falta edo eza. (...). Eta gramatikaz landara, beste jakintzetan motxago oraindik aurkitzen gera» (L. VILLASANTE, in *Euskera*, I, 1956, 258 eta 260).

Batzarreak, bere erabakietan jaso zuen kultur hizkuntzarako hiztegi bat sortzeko asmoa; baina, lehenengo epe batetan, idazle goaren esku geratu zen hiztegi berezituak lantzea:

«Badaki batzarreak zenbait kultura-sailletan itzen eskas gabiltzala. Geroago, bear den garaian, Euskaltzaindiak erabakiak ar ditzan, euskaldun ikasi guztieri eskatzen zaie, orretarako egokiera dutenean, gai oriek, bai itzez eta bai izkribuz, euskeraz erabiltzeko, erderara jo gabe, naiz ta neka jarriago izan» (*Euskera*, I, 1956, 298-299).

Eginkizun hauen atarian, ordea, berehala agertu ziren galderak. Lehen-lehenik hauetxek: 1) Nondik hartu behar ziren hizperrien erroak? Nahitaez geure ohizko euskararen arrobotik hartu behar ziren, ala zilegi zen nazioartean erabiltzen ziren erro grekoetara jotzea? 2) Nork edo zerk emango zion hizperri bati bere zilegiztapena? Usarioak, onarpen sozialak, ala Euskaltzaindiak nahiz beste Elkartegoren batek?

Hitzen etimologiari gagozkiola, garbizaletasun batzuren itsumena salatzen zuen Villasantek (ib., 259), eta kanpotiko hitzei diegun beldurra uxatu nahi zuen:

«[Grezierak], bakarrean, eta kultur-influxu gabe arkitzen zanez, lan ori [dena bere arrobotik sortzea, alegia] egin al izan zuen. Etorri ziren urrengo erromatarrek, eta auek griegoen kulturaz arkitu ziranenez, ortik eskubeteka artu bear izan zuten, eta ala landu zuten beren izkuntza. Eta Europako nazione eta izkuntza berriak berdin. Eta gu ere kasu onetan gera. Egiñik dagoen kultura baten aurrean aurkitzen gera. (...) Kontzeptu oiek, kanpotik ekarritako itzekin edo euskal sustraiezkoekin bear ote diran adirazi, ori beste auzi bat da. Bearbada batzuetan bide bat, eta besteetan beste bat jarraitzea izango da onena» (VILLASANTE, in *Euskera*, I, 1956, 267).

Villasanteren tesi hau, bere eklektizismo eta guzti, garaiko euskalzale gehienentzat entzun-gogorra zen; baina, hala ere, batasunaren arazoarekin nahaspilatzean, gerora, gertatuko zen alde baterako nahiz besterako atxekimendu gogorturik ez da eztabaidatan sumatzen, nahiz eta Mokoroak batez ere garbizaletasunari eutsi beharra expreski azpimarratu (*Euskera*, I, 1956, 273). Hona Erkiagaren jarrera zalua:

«Aita Villasantek esan duan bezala, erderari kalte edo gaztelaniari kalte egin ezpadio beste izkuntzetako itz oiek arteak, euskerari ere, bear-bada, askok uste duten beste kalte ezliokoe ingo» (*Euskera*, I, 1956, 268).

Hain irristakorra agertzen zen lexiko-berrikuntza honetan gidari baten bila joaz, Euskaltzaindia aipatzen zen Biltzarrean behin eta berriz (*Euskera*, I, 1956: Txillardegia, 249; Erkiaga, 268; Villasante, 268; Urrestarazu, 296); baina, batzar-lagunen artean, ez zen mintzairaren modernokuntzarako Euskaltzaindiaren egitekoa definitu, ezta batekizun horretarako lan-prozedura erabaki eta eman. Asmoak eta gogoak azaldu ziren, baina lan-planketa bat Biltzarrearen erabaki bezala proposatu gabe. Beharbada, Biltzarre bategandik espero zitekeena ez zelako, hain zuzen. *Bein-beiñeki arau batzuk, zuzenbide bezala, Euskaltzaindiak emango ba-*

litu (...) *bearbada ezlirake alferrikako*, komentatzen zuen Villasantek, arazo historiko luzea eta arriskugarria zegoela gogoratzen bait zuen euskaltzain honek. 1930eko eritzi-ezberdintasunak aipatzen zituen, Euskaltzaindik eskain daitekeen irtenbidearen alde on eta txarrak honela laburtuz:

«Euskaltzaindia ere, nik uste, bildur da arazo hontan eskuak sarturik ez ote duen bere larderia ta izena arriskuan ipiniko. Len ere izan zan eztabaida Euskaltzaindiak itz berrien sortzalle izan bear duen ala ez [1930], eta ezetzaren alde zeudenak uste dut gelditu zirela gallen. Auen aburuz, idazleek bear dute bidea urratu. Gaiak euskeraz erabilliz, sortuko du batek itz aukerako bat, beste batek beste bat, eta ala, berez bezala, poliki-poliki, sortutako itzaren balioak eta egokitasunak egingo du berau zabaldu ta finkatu dedin. Eta Euskaltzaindiak orduan, eta ez lenago, au da, zabaldurik eta onarturik daudean, itzok bere egingo ditu, eta izkuntzan sartuko. Bide ziurra eta zuurra, noski, baiño luzea, luzeegia *bearbada*» (VILLASANTE, in *Euskera*, I, 1956, 259).

Jendaurre euskaltzale zabal baten aintzinean eztabaizun bezala, *bearbada* orduantxe eman ziren, lehenengoz, hizkuntzaren kultur eskakizun berriei erantzuteko erizpide berriak. Libreki eta garbizaletasun gogortu baten ortopediarik gabe aztertu nahi zen arazoa. Bertan behera izan ez bazen ere, ikusiko dugu, han esanak argitaratzean, nolako eragina izango duten haiek belaunaldi gazteagan.

Euskaltzaindiaren Biltzarrean, gerora idazketa-berritzaile eragileena izango zen Euskal Herri barneko idazlegoa mintzatu zen, edo horietxena izan zen han entzun zen ahotsa. Baina haraino, Arantzazuraino, iristerik izan ez zutenak, erbesteko hainbat, Parisera bildu ziren eta hango beste Batzarrean hitzegin zuten euskararen egoeraz eta etorkizunaz, astebate geroago.

## 2. «Euskal Batzar Orokorra»: Parise (1956)

Batzarre hau Parisen ospatu zen, 1956ko irailaren azken astean (irailaren 23tik urriaren 1era). Agirre Lehendakariak oso garaiz deitu zuen Batzarrerera, 1955eko urtarrilean. Deiarekin batera, asmoaren argibideak ematean, honela azaltzen dira Batzarrearen zergatiak:

«El Gobierno ha estimado que ha transcurrido desde su proclamación el tiempo suficiente que aconseja la organización de una asamblea de la amplitud de la que en su día se reunirá en París.

Hemos vivido años de inquietudes y de turbaciones. Desde 1936 hasta hoy ha surgido una nueva generación cuyos sentimientos y opiniones es del más alto interés conocer y pulsar». (*Euskal Batzar Orokorra/Congreso Mundial Vasco*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Serbitzuak, Gasteiz, 1981, 13. or.).

Ukitu beharko ziren gaien artean, hizkuntzarena zegoen: *Hay que examinar, además, el presente para estudiar la táctica mejor que ponga tope a la desvasquización del País* (Ik. aip. lib. 15 or.). Batzarreak bere Kultur Sailean aztertuko zuen gai hau, eta aldez aurretik bidalitako kaldeketetan lehenengo puntua hauxe zen (46-47. or.). Egoera beltz batetan itoa ikusten zen hizkuntza:

«Arrojado [el euskara] de la escuela y de la prensa diaria encerrado en los límites de uso doméstico, impedido su acceso a los medios de expresión con los que la técnica moderna llega hasta el interior de los hogares, el acoso a la lengua vasca es de tal naturaleza que obedece a un premeditado plan de exterminio» (Aip. lib., 48-49 or.).

Egoera aztertzeko mundu zabaleko euskaltzale asko bildu zen Parisen. Ez zen gehiegi Euskadi barrutik joandakoa; barnekoetatik, gogora ditzagun *Ekin* taldea, Ibalan (= A. M. Labayen) eta bat edo beste. Lehendakariaren agurra hitz hauekin hasi zen: *Batzar Nagusi onen asieran bearrezko dot euskeraz itzegitea* (Ib. 55, or.). Kultur Sailerako aukeraturako alorrok hamar izanarren, euskarak bildu zituen komunikaziorik gehienak: 44etatik 30 bat gutxienik. Oso balio ezberdineko lanak dira; aipa ditzagun interesgarrienak: FEVA (= Federación de Entidades Vasco-Argentinas), Amezaga, Krutwig, Umandi, Ekin, Zaitegi, Hernandezena eta abarren lanak edo eztabaidak argigarriak dira garaiko planteamondeak eta eritziak ezagutzeko.

Etengabe entzuten da euskara amildegian behera doan albistea komunikazioetan eta eztabaidetan. *Ekin* taldeak honela definitzen du, esate baterako, gazte-jendearen hizkuntz jarrera:

«La casi totalidad de los vascos de menos de 30 años hablan mejor el español que el euskera, porque piensan en erdera. La creencia de que el euskera no sirve para nada es general. La inmensa mayoría de los vascos colaboran en la muerte de nuestra lengua. El euskera está al margen de la juventud vasca y en estado francamente agónico» (Aip. lib., 355 or.).

Egoera orokor beltz horren ondoan, Zaitegik gazteria aurrerazale berri baten testigantza zekarren, berak Arantzazun, Lazkao eta Donostian ezagututako alderdi-txartelik gabeko gazteria batena:

«Egia esan, euskera il zorian dago. Ori ezin ukatu. Ala ere ba-dator gaztedi berria, euskal-mistika berriz yantzi eta berritua (...). Arkitu izan ditut barnean, Arantzazu'n (...) berrogeitamar gazte, fiñak, ikasiak egunero une orotan euskera zaintzen ari diranak; ikasleak era berean. Ara yoan nintzan, itzaldi bat ematera (...). Lazkao'n ba-dira beste berrogetamar gazte, egunero beren artean euskeraz bakarrik ari diranak: konbentu ortan sartzen diran erdaldunak euskera ikasi bearra dute: orain ogei urte orrelakorik ez genun» (Aip. lib., 393).

Gure egunotatik begiratuta, bai *Ekin*-ek eta bai Zaitegik arrazoi zutela aitortu behar: euskara maldan behera zihoan, baina itxarokizun berrien zantzuak ere senti zitezkeen urte haietan.

Hizkuntzaren salbamendurako bide berriak urratu beharra gogoratu zen zenbaitetan. B. Estornes Lasak eta Hernandorenak, adibidez: [B. Estornés] *considera fracasados todos los ensayos (334 or.)*; *yo digo que los métodos que hemos empleado hasta ahora, para sostener el vascuence, el euskera, han fracasado totalmente (420 or.)*. Hernandorena jarrera oso kritikoz agertu zen eztabaidakoan, eta *norberaren erantzukizunari* dei egiten zion, azken arma bezala:

«Emen presentatu diran lanak, bat edo beste kenduta, dana zait betiko lelua... Dana zait betiko kantua... Denak zaizkit belarri batetik sartu eta bestetik ateratzen diran itzak... Dena zait liburu edo rebista bat iriki eta ura isten dezutenerako aztuzten diran leluak... Gaizki esateko, eta barkatu zazute, neri iduri zait betiko adar jotzia... —Gauza gogorra da, baño ogeitamar urte oietan, jaunak, entzuten ari naiz, ogeitamar urte oietan, gurasoak dirala, aurrak dirala, apaizak dirala, monjak dirala, eskolak dirala... beti kanta bat, betiko musika bera... —Jaunak, ogeitamar urte oietan besterik ez dugu entzuten... eta ogeitamar urte oietan euskera amilka dijuakigu goitik-bera musika orrekin. —Eta musika onek orrela segitzen badu, laixter ez musika ori, laister abestu bearko diogu euskerari beste musika bat: R.I.P. Amen. —Jaunak, arrazoi oiek frakasatu dute: *beste bide bat billatu bear dugu*» (Aip. lib., 386. Azp. gurea).

Hain zuzen, Zaitegik proposatzen ziona, Hernandorenak ongi ulertu gabea, benetan bide berri bat zen: kultura euskarari lagungarri, eta ez etsai, biurtzea, alegia. Zaitegiren ustez, *elite* gidariak salba zezakeen hizkuntza (aip. lib. 393. Ik. *Euskera*, I, 1956, 263, Broussain-en eritzia), eta hori jaiotzear zegoen Euskal Herrian. Baina Zaitegik bere itxarokizuna topatu baldin bazuen, Hernandorenarentzat —Arantzazun Arestirentzat bezala— itxarokizunak, berandu izan aurretik gainera, ahalik laisterren obratzekoak ziren: Euskararen kinka larria epe erabat laburrean erabakitzekoa zen:

«Jaunak: Neri esaten didate pesimista naizela. Nola nai dezute ez izatia? Bizian emen igaro diran gizonetako batek esaten zuen: “Ogei urte buruan euskera galdua da”. Besteak: “Ola segitzen badegu emendik berrogeitamar urtera ez da euskerarik entzungo”» (Aip. lib., 387 or.).

Etorkizun ezezkor horren aurrean, Hernandorenak norberaren erantzukizuna gogoratzen zuen bezala, beste zenbaitek salbamendu-planketa bati heldu nahi zion: FEVA, Amezaga, Umandi, Estornes, Krutwig, etab. FEVAk ohar hau egiten die politika-gizon eta euskaldunei, denen hizkuntz zabarkeria salatuz, eta jokabide horren azken hondamendia erakutsiz: *no vayamos un día a encontrarnos con que la victoria política nos lleve*

*a conseguir la libertad de un pueblo que ya no existe* (345 or.). Arrisku hori saihesteko, erakunde bat eskatzen du FEVAk: Planketa bat egin behar da, eta, horrentzat, hori egintzetaraino gidatuko eta bultzatuko duen Batzorde Eragile Iraunkorra. Planketa horren zirriborro bat eskaintzen zuen FEVAk, B. Amezagak egiten zuen gisan (343. or.). Honek Idazkaritza baten ideia ematen du, gainera:

«Es preciso agrupar a unos pocos de nuestros hombres mejor preparados para que puedan vivir las 24 horas del día sin otra preocupación que la que con creces han de hallar en la titánica labor que se les encomienda» (Aip. lib. 343 or.).

Urte haietan, batek baino gehiagok aipatuko zuen idazle-etxe baten beharra. B. Estornes-ek *un equipo de trabajo* eta *algo que tenga las características de una herramienta de realización* aipatzen zuen (334. or.); Zaitegik, berriz, bere bizkar daraman Euskal-Idazle Alkartasunaren asmaoa: Baionan etxe bat irekiko dute berak eta <sup>7</sup>Jakakortajarenak: Euskal Herriko idazleen Elkargo bat eratuko da, hainbat aldizkariren arduradun izango dena, eta «datorren urtean (...) udako euskal-ikastaroa egingo dugu, illabete edo illabete t'erdiriz. Guziok opa dugun Euskal-Ikastetxe Nagusi'aren asikin bezela»; Iparraldeko argitalpenen zerbitzuan, inprimategi bat sortuko da. Hori dena obratzeko langileak badaude; falta, dirua falta da (404. or. Ik. gainera 361. or.). Estornes-ek ere argitaletxe baten premiari begiratzen zion gehiago (Geroko *Auñamendi* argitaletxea, noski). Umandik *Eusko Ikaskuntza*-ren berbiztea eta indartzea ikusten zuen erakunde-irtenbiderik onena, horretarako Eusko Jaurlaritzak beharrezko laguntza emanik. Horren barnean idazkaritza iraunkor batek eramango zituzkeen euskararen kulturgintzako gidari-lanak (349. or.).

Salbamendu-planketarako Eusko Jaurlaritzari laguntza eskatzea, baina baino gehiagotan berritzen da. Batzarrean Monzon-ek Gobernuaz esana ikusi dugu arestian; baina ez da bera bakarrik. Villanuevak, Mexiko-tik bidaltzen duen komunikazioan euskararen eskubideak suharki azpimarratu ondoren (liburuan agertzen den eskerik gogorrena, noski: 339. or.), honela bukatzen du: *El Gobierno Vasco tiene la obligación de aportar los fondos necesarios para el estudio y el resurgimiento del idioma vasco* (339 or.). Krutwigek, Jaurlaritzaren egitekoei hamar urteko epea ematen die: *El Gobierno Vasco deberá cuidar de que en un plazo de 10 años la enseñanza se dé enteramente en euskera. También cuidará de que en los seminarios católicos sea el euskera el vehículo de la enseñanza* (346. or.). Hernandorenak, zuzenkiago, Gobernuko gizonci ere kontuak eskatzen dizkie, hizkuntzarekiko betekizunak nola gordetzen dituzten galdetuz:

«Eta barkatu orain zuzentzen banaiz Gobernuari: esango diot, errespeto guztiarekin, baño zindo: guk bear deguna da, Gobernuko gizonak berak, Gobernuko gizon bezela, aita bezela, guraso bezela, guk jakin bear degu nola jokutzen duten berak, bakoitzak berak» (387. or.).

Politika linguistikoaz esandakoen ondoan, ainitzetan aipatu zen Pariseko



Batzarrean hizkuntzaren beraren gain egin zitekeen lana: Hizkuntzaren batasun-beharra (FEVA, 360. or.; Krutwig, 346, etab.), textugintzaren premia (Amezaga, 343. or.; Umandi, 336. or.), hiztegi berezituak, etab. FEVAK hau eskatzen zuen:

«Debe irse inmediatamente a la preparación de la terminología filosófica, científica, técnica y también a la confección de un Diccionario General de la Lengua Vasca (...). Todas esas iniciativas y las que surgieran de los congresistas deben ser puestas en marcha desde este momento. La Academia Vasca debería encargarse de la realización de estos planes (...). Si eso no es factible, las Comisiones ejecutivas que surjan del Congreso deben iniciar esos trabajos» (345. or.).

Batzarre hartako ideia-bilketa hau burutzeko, esan dezagun, aldizkari munduan *Euzko-Gogoa*-ri eman nahi izan zitzaioala bultzada bat. Hain zuzen, orduantxe aldatzen zen Guatemalatik Iparraldera, eta ikusi dugu nola sortu nahi zen, berorren inguruan, idazle-etxe eta elkargo bat. Pariseko aldizkari-asmoak *Euzko-Gogoa*-rekin bat zetozen: Argentina-ko lau Euskal Etxek aldizkari horren inguruko projektua lantzeko komunikazio bat bidaltzen dute. *Euzko-Gogoa*-tarren Baionako etxearen xedea, honela labur-biltzen zuten: *En ella se trabajaría por la unificación del idioma, su adaptación a la ciencia, etc.* (361. or.). Zaitegik berak egin zuen bere ideien azalpena, López Mendizabalen eritzi ona lagun zuela (403-404. or.). Irakurgarria da, *Euzko-Gogoa*-ren lanaren zentzua neurtu nahiz, Hernandezoren eta Zaitegi Guridi jaunek izan zuten eztabaida (385-400. or.). Ordurarte egindako bideagatik eta gerorako eskaintzen zuen konkretutasunagatik, aldizkari honen egitaraua izan zen, nik uste, bilera hartako *vedeta*.

Kulturazko eztabaidak amaitzean, Zaitegik irakurri zuen han bildutakoen erabakia (400. or.). Batzarkide guztiek hobekiago ezagutu zutena, noski, erdal itzulpena izan zen. Kultur Sailaren erabakietan, hau da euskarari buruz agertzen zaiguna:

«Al considerar la situación crítica que la vida del Euzkera atraviesa en la propia Euzkadi debida en parte a la desidia de quienes más interés debieran tener en conservarla y, dándose cuenta de lo urgente de la preparación de un plan de defensa rapidísima de nuestra lengua, la Sección Cultural recomienda la inmediata constitución de una comisión que, reuniendo las iniciativas expuestas en este Congreso, organice dentro del cuadro general del fomento de la cultura vasca, con carácter de prioridad, un programa efectivo para la salvación de la lengua vasca. Esta comisión, una vez formada, debe tener vida autónoma en razón exclusiva de su mayor eficacia» (Resolución adoptada a propuesta de la Sección Cultural, 477. or.).

Parisen hartutako erabakiok nola bete ziren, edo Zaitegiren asmoek lau urteren buruan nola eta zergatik pot egin zuten: hori dena azter-

tzeke geratzen da. Baina Eusko Jaurlaritzak argitara berri duen dokumentazioari esker, ederki aldera daitezke Euskaltzaindiaren inguruko indarrek eta Parisen bildutakoek nolako kidesasunak eta aldeak dituzten. Dena den, 1956ko kultur giroko kezkek lur gozoa zuten eliz ikastetxeetako gazteriarengan, ekintza berriak bizteko: hizkuntz batasuna, kultur hizkera modernoaren premia, talde-lanaren beharra, planketa gidatu baten egarria... Horietaxek dira belaunaldi gaztearen ekintza-banderak.

### 3. Literatur kritika

Pariseko nahiz Euskaltzaindiaren Biltzarreko ideia eta asmoen ondoan, urte hartan badago gazteok oso arretaz irakurti genuen zerbait eta, zuzen ala oker, ulertzen saiatu ginena. Mitxelena *Egan*-en eskaintzen zuen kritika-lanaz ari naiz. Kritika hura izan zen (Txillardegiren lanekin batera), Olabide, Orixe, Zaitegi eta *Euzko-Gogoa*-ren ordurarteko joera nagusiari aurpegi emanez, gure artean zenbaiti begiak ireki zizkiona eta, esan ere, zerbait esateko ausartzia eman ziguna. Handik honako bidea begiratuta, eta gaurregun euskarak dituen erdarakada-arrisku batzuek ondoan ditugula, errakuntza handirik gabe esan genezake hau: kritika haietan aisago ikusi genuela aurreko autoreengan kritikagarri zen alde txarra, beraien baitan biltzen zen hizkuntz ondare aberatsaren balioa baino. Hala ere, esan liteke 1960aren inguruko gogoeta kritiko hark ahalbideratu zuela geroko euskal argitalpen-kopururik handiena. Bide berri bat seinalatu zigun.

Ekar ditzagun hona idazlan haietako ideia ardatzak. Lehenik, euskal literaturaren tradizioa aintzakotzat hartzera deitzen zuen Mitxelena: 1954koa da *Gero*-ren kritika eta 1956an eman zituen *Peru Abarka*, *Garoa* eta *Biotz-begietan* liburuei buruzko idazlanak. Beraz, alde batetik gipuzkeraz kanpoko bi euskalkitako obra klasiko handiak, eta, bestetik, Eusko Pizkunde hurbilagoaren barneko bi obra nagusi. Tradizio zaharrari egin nahi zitzaion muzin gaiztoa salatzen zuen kritikariak, e.b., Olabideren lana aztertzean (Ik. MITXELENA, *Idazlan hautatuak*, 347. or.). Badaukagun literatur tradizio zaharrari begiratu gabe, euskararen *eredu* berri bat sortu nahia, ahalegin desbideratua iruditzen zitzaion, edo, gutxienez, hizkuntzaren gihar bizi eta sozialik gabea.

«Saio hizkera, hots, euskera esperimentalta, deritzat Olabideren hizkerari, bide berri batetik abiatuz gero noraino hel litekeen antzemateko sortua edo. Horretarako, bihar-etzitako euskaldunei begira, ahaztu egin behar nora-ezean, gutxi edo gehiago, gaurko euskaldunak, atzokoak ez ezik» (343. or.).

Olabidek eta beronen joerek emandakoa *hizkuntz eredutzat* hartzeak beldurtzen zuen Mitxelena (gogora *Ilias'ena*-ri egingadako kritika). Auto-rea, bere ahalegin eta lanetan, benetan miresten bazuen ere, ez zuen uste hizkuntz eredu ona izan zitekeenik, inola ere.

«Hitz batean eredutzat hartzekoa dugu Olabide. Giza-eredu

jatorra dugu, gutxi bezalakoia (...). Hizkuntz eredutzat, ordea, gidari segurutzat, inola ere ez» (Aip. lib. 351. or.).

Zer esanik ez, Orixe-ri beste jatortasun bat ikusten zion Mitxelenak, *Aitorkezunak* arakatzean (156). Begiramen eta mirespenik osoenak zizkion itzultzaileari; baina kritikariak ongi ikusi zion arriskua ere idaz-molde hari, hain zuzen Orixeren irakurle gazteek sentitzen zutena (hauxe izan zen *Jakin*-ek, geroxeago, eredu berrien bila jotzeko arrazoietako bat):

«Itzulpena laburra eta trinkoa da, latina baino areago. Trinkoegia, ene ustez. Laburtasunak merezi ote du horrenbeste opari? Argitasunak eta erraztasunak balio dute, gutxienez, laburtasunak adina. Hau bezalako liburu batean, batez ere. Inolako oharrik ez daukalarik, aurkituko du irakurleak franko eragozpen, hizkuntzaren aldetik oztupo-biderik ez duela ere. (...). Mintzaera lasaia goa izan dute, ordea, Orixe baino lehenago izan ditugun prosa-maisuek» (Aip. lib., 355-356. or.).

Norabide hauekin, eta Axular-en alde ari zelarik *garbizaletasun antzua* aipatzean (164. or.), edota Maisu Juan kaletarraz goxokiro mintzatzean (168. or.), kritikariak arnaspide berri baten esperantza irekitzen zigun gazte hasi-berriei. Luma gazteek, bestalde, lanari ekitean, hizkeraren balio beregainci baino areago, hizkuntzaren funtzionaltasun sozial eta kultur-emaleari begiratu nahi zioten. Hor ere hurbiltasun nabaria dago irakurle haiekin.

«Axularren azalaz, hizkeraz, nahikoa eta gehiago esan da. Gatozen mamira. Ez zen Axular «euskara lantzen» ari: besterik zeukan buruan. Eta gizonak —beti bere buruari begira egon gabe— besteri laguntzen dionean bere burua jasotzen duen gisa, horrelaxe lantzen dira hizkuntzak ere: gauza eder, behar, jakingarriak adierazteko *bide* bihurturik» (Aip. lib., 165. Azp. gurea).

\* \* \*

Kultur giro honetan eta historiaurre honekin jaio zen *Jakin*. Jaiotetxe barneko historiatxoa ikusi dugu, ez osorik. Kanpokoari ere eman diogu begiratu bat. Guztiokin, argiago geratzen da, hala uste dugu, aldizkariaren ingurumaria, eta konprenigarriagoa gertatuko da beronen historia.

## Eliz ikastetxeetako aldizkariak

Hain gutxi aipatua den eta, bestalde, *Jakin* aldizkariaren bizitzan zehar hain erabakiorra gertatu den kultur gintza oparo baten berri eman nahi dugu hemen. *Jakin*-ek, aldizkari gisa bakarka hartuta, baduke segurki bere nortasun berezia, garaikide zaizkion beste aldizkarietatik bereizteko hainbat autonomia alegia. Baina, une berean, *Jakin*-en nortasun horrek, bere lekuan ulertua izan dadin, beraren inguruan edo, nahiago bada, itzalean loratu zen kultur mugimendu indartsu baten ekarria kontutan hartzea eskatzen du. Gerra ondoko euskarazko literatura idatzian epe ohargarria markatzen duen mugimendu hori Euskal Herrian zehar barreiaturik aurkitzen diren komentuetxe eta apezgaitegietan zehazten da batipat, *Jakin* hainbat urtez Arantzazun mamitzen den bezalaxe.

Horixe da, bada, egin nahi genukeena: ezagutzen ez delako edo, agian, ezagutzera emateko amorraziorik egon ez delako, isiltasunera kondenaturik zegoen kolektibo horri bere hitza eman, justiziaz tokatzen zaiona hain zuzen; apala izanik ere, bere umiltasun horretan arras positiboak erizten diegu zifrek erakusten dituzten emaitzei. Ezjakintasunari mututasuna joango zaiolakoan idazten ditugu orrialde hauek.

Zifren kontua aipatu denez, datu-bilketa nola egin den esan beharrean gaude. Geure lanerako behar genituen datuak biltzeko, hiru inkesta-mota<sup>1</sup> bidali ziren *Gure Izarra*, *Erein*, *Gogoz*, *Arnas*, *Laiaketan*, *Ekin* etab. argitaratzen ziren komentuetxetara<sup>2</sup>. Iturri horietatik jasotako datuetan oinarritu gara.

Irakurle ohartuak berehalaxe ikusiko duenez, zenbait aldizkari, adibidez, Oña-ko ikasle jesuiten *Ekin*, Lazkaoko beneditarren *Jaunaren Deia*, fraile eta apezgaien *EHA* etab. ez dira sartzen azterketa honetan. Zergatik

kanpoan? Erantzun behartuak, batetik gertaerak konstatatzera eta, bestetik, erizpideak zorroztera garamatza.

*Ekin* aldizkariaren berririk ez badator, berari buruzko daturik eza izan da horren arrazoi bakarra<sup>3</sup>. *Jaunaren Deia*-ren kasua besterik da. Aldizkari hau beste aldizkari horien textuinguru beretsuan kokatzen bada ere, berezitasun propioak dituela eta, ondorioz, beste kultur barruti batean, agian autonomoan, aztertzea legokiokela iruditu zaigu. *Jaunaren Deia*-k beste aldizkariak ez bezalako ezaugarriak dituela esan dugu arestian. Eta halaxe da, izan: lankidetzaren prestakuntzari dagokionez, han luma prestatuek eskuhartzen dute eta hemen, aldiz, ikasleek soilik; idazle goaren jatorriari dagokionez, hark kanpoko lankideak ere biltzen dituen bitartean, hauek norbere kongregazio edo ordenakoak bakarrik ingurutzen dituzte; hura oraindik emanean dago, hauek desagerturik dira.

Marka horiek aski adierazgarriak dirateke, noski, zein erizpidek gidatu gaituzten galdezka letorkeena kontura dadin nondik nora goazen.

Eta EHA (Euskal-Herriko-Apaizgaiak), zer? Izenak berak adierazten duenez, lehenik eta batipat, Euskal Herriko apezgai eta frailegaien asmoak bateratu nahirik sorturiko kultur mugimendua izan genuen. Mugimendu horren barruan zeuden lehen aipatu diren komentuetxeetako frailegaiak, halaber Donostia, Derio eta Iruñeko apezgaiak; Arabakorik ez, hala ere. Talde horren bihotza Donostiako seminarioan zegoen kokaturik. Probinzia, komentuetxe eta seminarioen gainetik joanez, guztien ahalegin lokalistik gaintitu nahiak eta beharrak eragindako mugimendu honek urte pare bat iraun zuen ozta-ozta, hots, 1965.etik 1967.era<sup>4</sup>. Euskararen beharrak bateratzen dituen zenbait ikasleren dokumentu idatzia da EHA, talde kezkatu baten denbora laburreko arnasa, bere talde-lana orrialde sendo eta jarraitutan umotzera heldu ez zen desira hegakor baten ispilu publikoa. Ez gehiago. Laburki esanda: EHA-k ez zuen lortu komentuetxeetako aldizkariak zenbait urte lehenagotik zekarten ez aupadarik, ez iraupenik. Zentzu honetan, bada, EHA-ren izpirituak ez zuen beretu *Arnas* edo *Gure Izarra* baten gorputzik. Textu-masa hori falta zaiolako geratu da, hain zuzen, azterketatik at. Dena dela, eta datu honek nahiko bitxia dirudi, apezgaitegietan ez da ezagutzen komentuetako lan-talderik. Bakarkako lanak, bai, badaude; kolektiborik, oso gutxi. Derioko zein Donostiako seminarioak oraindik berriki eraikiak izanak izango du behar bada zerikusirik. Dena dela, fenomeno horren zergatikoak arakatzeko mereziko luke aparteko arretarik.

Eta honenbestez, zedarriturik uzten dugu, ustez behintzat, geure iker-eremuaren nondik norainokoa. Jarraiko bost aldizkariok izango dira, bada, aztertuko ditugunak: frantziskotarren *Gure Izarra*, pasiotarren *Laiaketan*, sakramentinoen *Arnas*, laterandarren *Erein* eta karmeldarren *Gogoz*. Azkenean, aldizkari guzti hauetaz zenbait datu eman ondoan, *Gure Izarra* hurbilagotik aztertuzera pasatuko gara. *Gure Izarra*-renganako trataera berezi hori, berorrek *Jakin*-en baitan izan duen eragin apartekoaren amoretan giten da.

## 1. Erlijioso-aldizkarien ezaugarri nagusiak

Aldizkari hauek argitaratu ziren garaian bazen, *Jakin*-en salbuespenaz gain, erlijiosoek zuzenduriko eta euskara hutsean idatziriko beste aldizkariak ere, besteak beste: *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia*. Alderdi horretatik begiratuta, aldizkari hauek ez zekarkioten berritasunik gerraondoko euskal literaturari, sektore bereko beste langile batzu hor bait zeuden. Zertan datza, bada, aldizkari hauen inguruan gorpuzten den kultur mugimenduari aitortu nahi geniokeen berezitasuna? Aldizkari hauek eskaintzen ote dute kultur mugimendu hau talde kolektibo homogeno gisa mugatu ahal izateko hainbat elementu?

Guzti honek aldizkari hauen baitan atzeman daitezkeen ezaugarri nagusien atzetik chizan abiatzea eskatzen du.

### 1.1. Komentualak dira.

Egia da, 1950.etik 1974.era urte-tarte haundi xamarra dago eta epe zabal horren barruan eboluziorik ezagutu da eliz pentsamenduan. Bestalde, *Gure Izarra* izan ezik, beste laurak 1960.eko hamarkada ingurukoak ditugu, Vatikanoko II-aren atarian sortu eta haize berritzailearen freskotasuna somatzen zen garaian garatu zirenak, hain zuzen.

Hala ere, aldizkari bakoitzaren baitan egon daitezkeen pentsamolde-aldaketa guztien gaineratik, bakoitzak darama garai horretako komentuetxeek duten marka berezia, bere-berea. *Gure Izarra* Oliten, *Laiaketan* Urretxun, *Arnas* Areatzan, *Erein* Oñatin eta *Gogoz* Begoñan, geografiaren aldetik bertako ikasleak elkarrengandik nahiko urrundurik aurkitzen badira ere, buru-egituraren aldetik ezin hurbilago zeudela esango genuke. Nondik datorkien gizarte-bizitzari buruzko jarreraren komunitasuna?

Beste zenbait arrazoiaren eragina ukatu gabe, uste dugunez, komentualak izatetik. Aldizkariok, hitzaren zentzu hertsian, eta batipat beraien kultur adierazpenean, komentukume naturalak dira, harrizko komentualak berea duen kultur giroan gorpuztuak alegia.

Komentuetxeak, batetik, halako autonomia aski nabarmena gordetzen du herri jakin batetako hirigintzaren barruan. Azkenaldiko hirigintza basak etxez inguratu xamaturik daukan arren, gehienetan herriatik bertatik zerbait aldendurik aurkitzen da, baratzaz eta hormaz ongi inguratuta. Eta kanpokaldeko itxura honek berak bere inguruko mundutik ebakita bezala uzten ditu barrukoak, bereziki pastoralgintzako harremanik ez duten ikasleak, bi giza-komunitate desberdin bailiran: zu han eta gu hemen, zu mundukoa eta gu komentukoak.

Erlijiosoa komentuaren kanpoko arkitekturaren aldetik kulturalki baldintzaturik dagoela esan badugu, barne-egituraren aldetik areago dagokeela esatera ausartuko ginake. Beti komunitatean bizi da; ohizko iharduerak, egunero ordu beretsutan errepikatzen direnak, beste erlijiosokideekin batera egiten ditu. Guztien gaineratik, disziplina da kapitana pilotu eta hari behar zaio obeditu. Bizigiro hau ezin hobekiago prestatzen da

talde-lanetarako aurre-baldintzak sortzeko. Eta komentuetan aldizkariak sortu badira eta seminarioetan ez, barne-egitura honen nolakoak fenomeno horretan zerikusirik ba ote duen galdetzea ez litzateke behar bada lekuz kanpo egongo. Seminaristen eta erlijiosoen ikasle-egoera gauza askotan antzekoa edo berdina izanik ere, seminarioetako bizi-erregelamenduak, erlijiosoenarekin konparatuz gero, leku gehiago, dextentez gehiago, eskaintzen dio norberaren askatasunari, ez kanpora begira bakarrik, baita barrura begira ere.

Horregatik, indibidualtasuna indartuz doan heinean doake ahulduz kolektibitate-zentzua ere. Eta aldizkari komentualak zerbait badira, lehen-lehenik lan kolektibo baten fruitu emankor dira, izpiritu horrek bizi-bizirik bait dirau aldizkari horiek sortu eta bideratu zituztenen artean. *Arnas*-ek, lehen zenbakiko hitzaurrean, hala dakar:

«*Arnas* ez dezu errebista, ez; lan metatze bat baño ez da».

*Laiaketan*-ek, talde-lanaren garrantzia bereziki azpimarkatu nahirik, izena bera elkarrekiko lana adierazten duen nekazal tresnatik jasoa du:

«Laiaketa, lur arrotzea da. Askoren indarrak alkarturik egiten dan lana»<sup>5</sup>.

## 1.2. Ikasleen aldizkariak dira.

Ikasleek beren kabuz lantzen zituzten artikulua dotoz. Idazlegoa, eskuarki, ikasleetara bakarrik mugatzen da. *Gure Izarra* Oliteko filosofi ikasle frantziskotarrek ateratzen dute; *Laiaketan*, Urretxuko teologiako ikasle pasiotarrek bakarrik 1966.eko iraila arte eta hortik aurrera filosofoek eta teologoek batera; *Arnas*, filosofoek eta teologoek Areatzan, beti batera; *Erein*-en idazle-eremua zabalagoa da, zeren hor, nahiz eta filosofoak eta teologoak izan gehienik idazten zutenak, neurri apalago batetan nobizioek eta apezitutakoek ere (hauen artean Bedita Larrakoetxea, Alfonso Urkidi, Jon Oleaga eta Patxi Lasak) eskuhartzen bait zuten; *Gogoz*-en, orobat, nobizio, filosofo eta teologoak ez ezik, nobiziadu-aurrekoak ere lankide ziren. Textu honetan irakur daitekeenez, leku askotatik zetorkion lankidetzatza *Gogoz*-i, hasieratik bertatik gainera:

«Pozez artzen ditugu ba, Zornotza-ko gure anaitxoen xorta tiki oiek, biribil eta polittak, orri auetan sartzeko. Villafranca-n eta Larrean ere anai koxkorrak badauzkagu ta euskeraz politto dakitenak. Erroma-n ere bai, ainbat anai gogoratuak... Arrobi danetako gaia nai gendukenarren, auek, tamalez, gaurkoan ixillik geratu zaizkigu. Markiña-tarren eta Gazteiz-koen bultzada sendoak atera gaitu oraingoan betiko lo-zorro epeletik, *Gogoz* ateratzera»<sup>6</sup>.

Idazlegoaren ikasketa-mailaren baremoa aldizkari batzutatik bestetara zerbait aldatzen bada ere, guztiek daramate soinean zigilu beraren seinalea, hots, ikasleen aldizkariak izatearena.

### 13. Aldizkari bakoitzak du bere historiaurrea

Bestela esanda: ez dira hutsetik bapatean sortutakoak, aurreko urteetatik emeki-emeki indartzenago zetorren euskalzaletasunaren adierazle baizik. Euskara hutsean landutako aldizkari hauek, *Erein*-en kasuan ez beste guztietan, bi hizkuntzatan edo bakarrean argitaratzen ziren anaia zaharragoak zituzten, erdaraz trebeagoak euskaraz baino.

Aldizkari bakoitzaren atariko historikoa zehaztuz, esan dezagun *Arnas*-ek bederatzit urtez lehenago agertu zen *Estudiante sacramentino*-ri darraiola<sup>7</sup>; *Horizontes*-ek jadanik bide aski luzea eginik zuen *Laiaketan* jaio aitzin, hura hau baino hamazortzi urtez zaharragoa baita<sup>8</sup>; karmeldar batzu, *Gogoz* sortu aurretik, *Karmel*-en idazten hasiak ziren, baina ikasleek zeukaten aldizkari bakarra, *Cuadernos* izenekoa, gaztelaniaz ateratzen zen<sup>9</sup>; *Gure Izarra* datorkigu aurreko tradizioari atxekienik euskara-minez; batetik teologoez eta filosofoek, hauek Oliten eta haiek Arantzazun, *Ensayo*<sup>10</sup> argitaratzen zuten eta, bestetik, *Loramendi*<sup>11</sup> Oliteko filosofoek gerra-garaian; gerra bukatu eta berehala, Arantzazuko teologoez *Izarño* eta *Bai* atera zituzten<sup>12</sup>; geroago, 1940.eko hamarkadaren azkenaldira, bizkaitar teologo-talde batek, hauek ere Arantzazun, *Ekin*<sup>13</sup> landu zuen. *Gure Izarra*-ren aurretik, bada, euskal soroa ongisko maneaturik zegoen.

Ez badira hutsetik datozkigunak, are gutxiago dira zerutik jaitsitako mana gozoa bezala debalde ahora etorritakoak. Ixileko burrukaren bidez eta ondotik altza zuen euskarak bere burua, euskalzaletasunaren kontzientzia bere heldutasunera iritsi zenean, hain zuzen. Laguntza ofizialik gabe, noski<sup>14</sup>.

Aldizkari hauen sorreran euskalzaletasunaren sukarra da, zalantzarik gabe, faktorerik nagusienetako bat. Joxe Austin Orbegozo pasiotarrak garbiki aitortzen zuen lehen zenbakiko «Behartsuak» artikuluan:

«Euskal-zaletasuna burrundatsu dabil. Zar eta gazteak Euskera lantzeari ekin diote, alkarren leian. Batez ere, gaztediaren sentimen biziak lozorro ajolakabea zapuzterafioko astinaldia artu du»<sup>15</sup>.

Euskalzaletasunaren kezka hori, ordea, bederatzit urtez lehenago, 1950.ean hain zuzen, pizten da Oliteko filosofoen artean. «Eskeintza» ataltxoan honela dator:

«*Gure Izarra* oraindiano nagitasunezko lotan egon geranoi euskeraren egunsenti pozgarria adierazten digun txoritxo abeslaria dezute»<sup>16</sup>.

### 1.4. Helburuak

Aldizkari hauen xedeak, nagusienak bilduz, hiruko honetara labur daitezke:

\* *Euskalzaletasuna indartu*. Urretxuko filosofoek, beren lehenengo



agerraldian, asmo hori zuten gogoan eta bihotzean. Zertarako *Laiaketan* galderari honela erantzuten zaio:

«Lana egiteko ta egiñarazteko. Indarrak biltzeko Euskaltzale-tasuna ereiteko»<sup>17</sup>.

Euskararekiko arazoan, beraz, euskaltzaletasuna da lehen premisa.

\* *Euskarazko alfabetakuntza*. Erdara bazter guztietan —komentuetan ere bai— nagusitzen den kultur giroan, bertan arrotza den euskarari bere lekutxo eskaini nahi zaio. Ama euskararenganako (hori da erabiltzen den irudia) begirunea goraltzen du *Gure Izarra*-k:

«Or ikusiko dezue ondo asko, Ama baten semeak geran ta Ama beorren arnasatik bizi geran euskal-gazte gartsu, yayo, tre-beak nola eta zenbateraño maite degun izkuntza berdingabea ta zeñen pozik lana egin, izerditu ta nekatuko geran Ama Euskera goraltzearren»<sup>18</sup>.

Euskaraganako maitasun horrek, praktikan, euskaraz alfabetatzea esan nahi du, batipat euskara idatzia menderatzen saiatzea. Puntu hau oso begitan du *Gogoz*-ek:

Guztioi ajola aundikoa zaigu, euskeraz idazten gure luma-txoak berotzea ta trebatzea. Au da karmeldar ikasle guztioak daukagun asmo kutuna»<sup>19</sup>

Alfabetakuntza hau, bada, hein batetan eta lehen urratsetan bereziki, *pastoralgintzari* begira zuzendurik dago. Biharko egunean Kristoren ordezkari izango direnak gertatu nahi lirakeke, maila horretan zer eginik badagoela pentsatzen bait du *Laiaketan*-ek. Salaketa modura datorkigu honako pasarte hau:

«Euskalerriko zenbait pulpito gogait garbi eginak daude mordolokeriarekin. Ez dut esanai izarretara igo bear dugunik. Ez. Erriari erri-gogoz itzegin bear zaio. Baño zenbait sermoilarien predikuak «auntzeriarenak» geiago dira gure erriarenak baino»<sup>20</sup>.

Eusebio Osak *Erein*-go «Gure jokabidea» artikuluan, elizgizonek beren sermoietan zergatik erabiltzen duten euskara eskasa esaten digu, hau da, non datzan akats horren iturria:

«Guri, konbentuan sartzen geranetik, erriak saillean erabiltzen dituan itz eder asko, aaztu egiten zaizkigu. Pulpittora igotzean, bada, ori izan bear genuke gogoan. Ala ere, itzen au gaitz erdi dala esan bear. Euskal-joskeran, syntaxisean dago gure utsik aundiena. Izugarritzko erdal kutsua ematen diogu euskerari»<sup>21</sup>.

Euskara besterik ez zekien baserritarrari, ikastetxean zenbait urte egin ondoan, gaztelaniaz besterik ez mintzatzearen poderioan gauzarik normalena gertatzen zaio: atzendu egin dela bere amangandiko hizkuntzan. Horregatik errebindikatzan du *Erein*-ek, *Laiaketan*-en bide beretsutik horrek ere, euskara berreskuratzearen behar larria:

«Apaizgaiak euskeran gertatu ta landu egin bear ditugu, bai, ta txikitandik asita gañera»<sup>22</sup>.

Horregatik, aldizkari hauek komentu-barruko ikasleen hizkuntza-lanketa eta heziketarako pentsaturik daude batipat eta, zentzu honetan, kanpoko irakurlegoa bigarren maila batetan lekutzen da. *Arnas*-ek zuzeneko aipamena dakargu puntu honetaz:

«Euskal apaizgai gazteok ateratzen ditugun aldizkariok gure kultura kanpokoan artean baño geiago etxekoan artean formazioa artzera zuzentzen dira»<sup>23</sup>.

Aldizkari honen xede hau zalantzan jarriz, izenpetu gabeko artikulua bat azaldu zen *Zeruko Argia*-n. Hor, besteak beste, «aldizkari ariñak, gai arruntez eta idazle ikaslez osatuak» direlako horien lekuan «goi mailako aldizkari bat» (*Jakin*, alegia) hobe zela, esaten zen. Kritika honi modu honetan erantzun zion *Gogoz*-etik Ernes Alberdik:

«Ez gera luzitzearren ari; gure elburua: Ikasle gazteen kontzientzia esnatu ta beren lumak euskal alorrerako prestatu. Aldizkaria aien zaletasunari laguntzeko bestetako ez da. Orregatik, ikaslaroan gaudenok, espezialisten gairik eztegu erabilli oi, ez gera gauza-ta»<sup>24</sup>.

Orixek ere, *Arnas*-era bidali zuen artikulua batetan, aldizkari bakar baten egokitasuna defendatzen zuen. Pasarte luze xamarra bada ere, merezi du hona ekartzeak:

«*Arnas*-ek bai bide ditu lau aizpa: *Yakin*, *Laiaketan*, *Ekin*, *Erein*. Ez ditut ezagutzen oraingo *Ekin* eta *Erein*.

Ez ote dira aizpa geiegi, bakoizka agertzeko? Oinbeste paper eta papertxoaz jendea asperturik dago. Aizpa edo aizpautxi oriek sartu litezke kartoi-etxezko elkartegi batean, aizpa-sendi bakoizka bakoitz gelditzen dala, bere sailla edukiz. Artikuluak ez lirake elkarri ille-tiraka asiko. Denok elkar artuta *Revista* bikaiña atera diteke. Ez ote merkego ere? Erdi-illik dabilzan oinbeste *Revista*-txori bizirik eusten ez al da geiago gostatzen? Prailleak baserrietan, mojak beuren eskoletatik, eta auk ez euskalzaile amorratuak, gazta-puxka biltzeko edo sua pizteko bestetako gauza ez diran paper eta papertxoak okotzeraiño sartu-bearrez, etxekoan lotsaz baliatuki. Eta geienak erderaz!

Oinbeste *Mixio-Revistekin* ere bakarra atera liteke, sendi bakoitzak bere bakoitzasunari eusten diola»<sup>25</sup>.

Kritikak kritika, bakoitzak bereari eutsi zion halabeharrezko heriotzak eramane zituen arte.

Lehen bi xede hauek, bada, batetik euskara heriotzaren atzaparretatik askatu nahiaren mesianismoa eta bestetik, mesianismo honen hezur-duran mamiturik, apez-eginkizunetarako euskaraz berari dagokion duinatasunez baliatzea alegia, ikasle gazte hauen bihotzak mugierazten dituz-

ten egiazko bi indar eragile ditugu. Aita eta ama bezala dira lanerako motibazioen jaitozan. Gure *Izarra*-k helburu biok zekartzan 1952.ean:

«1. Danok idatzi dezaten; ta 2. Gure Ama izkeraganako maistasuna berotu, azi dezagun»<sup>26</sup>.

Halaber *Erein*-ek 1960.eko Atarikoan, baina zehazkiago:

«Bi gauz dira, ba, *Erein*-ek bereziki iritxi naiko lituzkeanak: apaizgaiak euskal apaiz lanetarako tajutu ta iltzear dagoen eleari esolatxo bat ondoratu»<sup>27</sup>.

Ez dira hor ahitzen idazle ikasle hauen jomugak. Euskarari zerbait gehiago eskaini nahiko liokete. Euskara kulturadun egin nahi dute. Eta honekin hirugarren helburura igarotzen gara.

\* *Kultura euskaraz landu*. Aldizkari hauek, mutikotuz eta beren buruen baitan konfiantza hartuz doazen heinean, xede zailago eta ausartago baten irrikak eraginik dihardute lanean.

*Gure Izarra*-k jadanik 1962.enerako bereturik zuen asmo hori edo, bederen, kultur beharraren minberatasuna, «Euskeraren kulturarako joera-kezka» landu behar zela zioenean<sup>28</sup>. Kezka horrek berak kutsaturik, Joxe Austin Orbegozo, «Ari gera» artikuluan, euskarak kultur gaitan zergatik murgildu behar duen arrazoitzen ahalegintzen da. Hartutako jokabidea justifikatzera dator haren pasarte hau:

«Ondo dakigu, kultura sakon batek bakarrik atera dezakela gure *Amandre* (eusgara) xarra auleri anker ontatik. Orregatik kulturaz, Euskal kulturaz bete nai ditugu gure gaztetasun ontziak. Geon kultur egarria ase nai degu aurrena... euskal kultura egiñ-egiña gure Amari ta bere geroko seme guziei eskeñi al izateko. Ari gera, kultur-soroan *Laiaketan*»<sup>29</sup>.

Euskara kultur alorretara eraman beharraren eskabidez, liturgi, filosofia, teologi, soziologi gaiak etab. jorratzeari ekiten zaio, harrotasunik gabe ekiten, baina, garaiko ikasle bati eska ziezaiokeen mugen barruan, arras seriotan.

Hiru xedeok aipatu ondoan, galdera bat geratzen da zintzilik: zergatik egiten da euskararen aldeko desafio hori? Azken batean, galdera honi ematen zaion erantzunean funtsatzen da helburu hirukotearen etxea. *Erein*-en dator zehazkien azaldurik egindako aukeraren zergatikoa. Eusebio Osarena da textu hau:

«... euskaldun aurrari, ikasten duana erderaz eman bearrean, euskeraz emango balitzaio, askoz geiago aurreratuko lukela.

(...) Gurasoengandik artzen dugun edozerk, berebiziko eragin izugarria du guban (...) Unamunok dionez, pentsakera izkerak dakar, itzez pentsatzen baida. Orregaitik, izkuntzaz aldatzea, gogoz aldatzea da, gogoz aldatzea berriz, norbera ukatzea»<sup>30</sup>.

Pasarte horretan, arrazoitu gabeko konbentzimendu itsuaren gerizpean ez, baizik eta hizkuntzaren filosofiak eskaintzen duen argitan boro-bildutako gogoetak ematen zaizkigu ondoko urtetan linguistek are boro-bilduago behin eta berriz errepikatuko dituzten gogoetak, hain zuzen.

### 1.5. Zabalkunde mugatua dute

Batipat komentu-barrurako eraturik zeudenez gero, ezin pentsa zitekeen zabalkunde hedatsu batetan. Botaldia mugatua da, multikopiatua bera, 100dik 150 ale bitarte ingurukoa. Aldizkari hauek ezin zezaketen inprimatuena aipurik ukan irakurleagoaren merkatuan, haien bezeroa besterik bait zen; ezta, orobat, haien mailarik ere, idazlegoa, lehen esan genuenez, ikaslez bakarrik osaturik bait zegoen. Hala ere, oraindik gaur goizekoa den aldizkari hauen historia ahazturik geratu bazaigu ere, Zaitegik idatzirik utzi zuen berorien lekukotasuna bere *Platon-eneko Atarian* liburuan:

«Bide onez dabilta *Euzko Gogoan*-n Aranargi, Larrakoetxea, Beiztegi-ta oraingo gairik sakonenak euskeraz ematen. Baita irakurgarriak ere ditugu *Unamuno ta Abendants*, Inurritza-rena, ta ikasle gazte eraginek eta mardulek argitarazten dituzten aldizkariak, Arantzazu-ko *Yakin*, Urretxu-ko Pasiotarren *Laiaketan*, Oña-ko iesulagunen *Ekin*, Sakramentinoen *Arnas*, Oñako agustindarren *Erein*, esate baterako»<sup>31</sup>.

Lehen begirada batetan harrigarri gerta liteke bizitzarik luzeena eta irmoena duen *Gure Izarra*-ren izenik ere ez mentatzea. Hala badirudi ere, ez da batere harrigarri; Zaitegi ez zebilen galduta edo inoren lana ezkutatzeko asmo gaiztoz. Gertatzen zena beste hauxe da: etxeokoz eta oso hurbilekoek izan ezik, kanpoko inork edo inork gutxi izan zezakeela haren berri, emanaldi bakoitzean ale bat besterik ez bait zen argitaratzen, eta hori esku-makinaz idatzia.

Ezaugarri nagusien atal honi bukaera eman aurretik, beste aldizkariak *Gure Izarra* baino lehen zergatik desagertzen diren galdetzeak baluke interesik. De facto, sakramentinoak, pasiotarrak, etab., beren lehengo komentuak utzirik, Deustuko Jesuiten Fakultate-inguruan elkartu zirenean (1968), orduantxe entzun ziren aldizkari hauen azken hil-kanpaiak. Frantziskotarrak ez ziren sartu ikasle erlijiosoek egituraketa berri horretan eta *Gure Izarra*-k bizirik iraun zuen oraindik beste sei urtez Oliteko komentuan.

Komentukoak hiritartu zirenez gero, hor Bilbo haundian, lehen zeudenak desagerturik, ikasle erlijioso guztien artean beste berri bat sortzeko asmoarekin ados zetozen gehienak. Komentu bakoitzak bere aldizkaria behar zuela defendatzen zuen aldizkariak berak, aldizkari bakarra, guztiena izango zen aldizkari berria, argitaratzearen desagertzen dela esaten digu orain. Patxi Uribarrenek honela agurtzen du *Gogoz*:

«Uste dot eldu dala Deusto-ko Unibersidade osoko ikasle on artean aldizkari on bat argitaratzeko eguna. Oraindño ez da au segurua baiña uste dot aurten lortuko dogula ori be. Danontzat oba izango da. Zueik eta guk, danok, irabazi baiño ez dogu egingo. Onetara gairera indar aundiagoa artuko du aldizkari orrek eta euskeraren onerako izango dogu. Onelako aldizkari gazte eta indartsu baten premiña be badaukagu-ta»<sup>32</sup>.

Lehenagoak desagertu eta berririk ez sortze horretan balegoke agian egituraketa berriak suposaturiko intzidentzia kojuntulararik, oraindik zutik segitzen bait du *Gure Izarra*-k; alabaina, aldizkari hauen desagertzea, bakoitzari goizago edo beranduxeago tokatu zitzaiona, sakonera joanda, erlijioso-ikaslegoa gizarte sekulartuaren eragin gero eta bortitzagoz pairatuz zetorren ideologi eboluzioaren baitan zetzalakoan gaude. Komentuak eta seminarioak abiada bizian husten dira 1960.eko hamarkadaren azken urtetan. Baina puntu hau, gehiago gabe, bereharten uzten dugu ikergai gisa, patxada gehiagoz noiz landuko zai.

## 2. Emaiza orokorrak

Hemen, taula honetan ikus daitekeenez, aldizkari guztiak batera hartuta ateratzen ditugu zifrak. Emaiza orokorren aurkezpen hau lehen hurbilketa gisa aurreratzen dugu.

### IKASLE ERLIJIOSOEN EMAITZAK

Aldizkariak	Urteak	Eman-aldiak	Orri-aldeak	%	Idazleak	%	Non
Gure Izarra	1950-74	43	6.175	58,02	306	61,81	Oliten
Laiaketan	1959-69	28	1.738	16,33	54	10,90	Urretxun
Arnas	1959-67	16	1.267	11,90	53	10,70	Areatzan
Erein	1960-66	19	958	9,00	41	8,28	Oñatian
Gogoz	1965-68	7	504	4,73	41	8,28	Begoñan
Guztira			10.642	100	495	100	

Guztira 10.642 orrialdeko sorta mardula osatzen dute, emankortasunari buruzko portzentaiak honela banatzen direlarik: Lehena *Gure Izarra* %58,02rekin, bigarren *Laiaketan* %16,33rekin, hirugarren *Arnas* %11,90ekin, laugarren *Erein* %9rekin eta, azkenik, *Gogoz* %4,73rekin. *Gure Izarra* dago guztien buru, berak bakarrik produkziogintza osoaren erdia baino zertxobait gehiago osatzen bait du. Ez da ahaztu behar, ordea, *Gure Izarra*-k 24 urte iraun zuela; beste aldizkariak ordea, guztiak batera eginiko urteak batuz gero, 27 urteko kopurua ematen dute, hots, *Gure Izarra*-k baino 3 urte gehiagoko kopurua.

Idazleen kopuruari dagokionez, orobat, 495 idazletatik 306 *Gure Izarra*-koak direla ageri da, hau da, % 61,81. Orrialde-emankortasunean baino poxin bat aberatsago da oraindik idazleen ugaritasunean. Ondoren, *Laiaketan* eta *Arnas* ia parekaturik datoz, % 10,90 eta % 10,70ekin, hurrenez hurren; azkenik, biak berdinean, *Erein* eta *Gogoz*, % 8,28rekin.

Komentuan bizi ziren ikasle erlijiosoak orotara hartuta, proportzionalki zein aldizkarik ematen duen idazlerik gehien kontuak ateratzen badira, jarraiko taula honetan datorrenez, zifrak aldatu egiten dira.

### IDAZLEEN KOPURUA ETA PORTZENTAIK PROPORTZIOAN

<i>Aldizkariak</i>	<i>Ikasleak orotara</i>	<i>Idazleak orotara</i>	<i>% idazle</i>
Gure Izarra	1.235	306	24,77
Laiaketan	340	54	15,88
Arnas	260	53	20,38
Erein	—	—	—
Gogoz	224	41	18,30
Guztira	2.059	454	22,04

Aurreohar gisa esan dezagun, *Erein*-i dagokiona hutsean doala, ez bait dugu daturik lortu; bestalde, aldizkari bakoitzak izan duen bizitzaren araberako datuak hartu ditugu.

Taula horretatik ateratzen den datu interesgarria zera da: 2.059 ikasle erlijiosotatik 454 konprometaturik daudela, asko edo gutxi, euskal kultur-gintzan. Lauetik ia bat, hau da, % 22,04. Urrezko aroa euskal alfabetakuntzan, dudarik gabe.

Bestalde, idazletan aberatsena *Gure Izarra* bada ere, proportzioaren arabera ez dago halako diferentzia haundirik lehenengotik (% 24,77) azkenengora (% 15,88). Ikuspegi honetatik begiratuta, *Arnas* (% 20,38) zein *Gogoz* (% 18,30) *Laiaketan*-en aurretik lekutzen dira.

Datu horiek, beti ere proportzioaren erizpidearekin jokatuz, zehaztasunean areago joatea eskatzen dute. Ikasleen komentuetxe bakoitza zein neurritan den euskaradun-euskaragabea<sup>33</sup>, hots, zein den euskaradunagoa galdetzea dagokigu. Euskaradunak zenbat diren zenbatuz gero, jakinen dugu, halaber, euskaradun horietatik zenbait bilakatzen diren idazle.

**EUSKARADUN-EUSKARAGABEEN KOPURUA  
ETA PORTZENTAIK**

<i>Aldizkariak</i>	<i>Euskaradunak</i>	<i>%</i>	<i>Euskaragabeak</i>	<i>%</i>
Gure Izarra	1.006	81,45	229	18,54
Laiaketan	232	68,52	107	31,47
Arnas	177	68,07	83	31,92
Erein	—	—	—	—
Gogoz	68	30,35	156	69,64
Guztira	1.488	72,07	575	27,92

Ikasleen komentuetxeak, oro har, neurri haundi-haundian euskaradunak dira: % 72,07, euskaragabeen % 27,92ri buruz. Erlijiosoen bokazioak euskara bizirik dagoen herrietatik datozela frogatzen du honek. Horregatik, komentu gehienak guztiz edo erdizka euskara mintzatuari arrotz zitzaion herri-giroan finkaturik egon badira ere, ikasle euskaradunek berekin zeramatan herritasunaren ezaugarriak behinena. Adibiderik aipatzekotan, *Gure Izarra*-rena lekiguke aipagarriena: euskararen zantzuak aspalditik galdu zituen Nafarroako Olitetik argitzen du gerraondoko euskal letren gau luze bezain iluna.

Ikasle euskaradunik gehien duen komentuetxea, bestalde, Oliteko frantziskotarrena (% 81,45) da eta euskaragabeena, diferentzia nabarmenez gainera, Begoñako karmeldarrena (% 69,64), Urretxuko pasiotarrenak eta Areatzako sakramentinoenak portzentaia beretsuak ematen dituztelarik: % 68,52 eta % 68,07, hurrenez hurren.

Orain arte azalduz etorri garen zifren arabera, orrialde zein idazleen oparotasunari dagokionez, *Gure Izarra* doa guztien buru; eta hala doa erlijiosoz eta euskaraduneh hornituenik, orobat, bera delako. Baina euskaradun horietatik, hauek bakarrik hartuta, zenbatek idatzi zuen kontuek badira, portzentaian sorpresarik aurkitzen dugu, zeren, orrialde nahiz idazletan apalena denak, *Gogoz*-ek alegia, hartzen bait du lehen lekua bere % 60,29rekin. *Gure Izarra* (% 30,41) eta *Arnas*-en (% 29,94) portzentaia bikoiztu egiten ditu eta *Laiaketan*-ena (% 23,17), berriz, ia hirukoiztu.

Datu horrek euskara lantzeari buruzko euskaradunaren konpromisua zenbaterainokoa den azaltzen digu. Euskaraduna izatea gauza bat da eta oso bestea, hala izanik, lumari eragitea; une berean, eta puntu honi ere azpimarkagarri deritzogu, lan kolektibo baten jarraitasuna 24 urte ala 3koa bakarrik izan, horretan ere badago alderik, emaitzak arras bestelakoak bait dira. *Gure Izarra*, zentzu honetan, aparteko kasua dugu.

### 3. Idazleak nongoak diren

Euskarazko kultur soziologiarako datu osagarri gerta dadin, horretarako dakargu jarraiko taula hau. Maila goragoko idazleen leku-jatorriaz lehenetik eginiko inkesten luzapen gisa dator, beraz.

#### IDAZLEGOAREN LEKU-JATORRIA

<i>Aldizkariak</i>	<i>Gipuzkoa</i>	<i>Bizkaia</i>	<i>Nafarroa</i>	<i>Araba</i>	<i>Atzerri- korik</i>	<i>Idazleak orotara</i>
Gure Izarra	70,25	19,93	2,94	0,65	0,65	289 *
Laiaketan	51,85	40,74	3,70	3,70	—	54
Arnas	81,13	9,43	9,43	—	—	53
Erein	58,53	24,39	17,03	—	—	41
Gogoz	29,26	48,78	17,07	2,43	2,43	41
Guztira	67,36	24,68	6,27	1,04	0,62	

\* Hemen 17 idazleren daturik ezin jaso ahal izan dugu, guztira 306 bait dira, izan.

Joan Mari Torrealdai, *Euskal idazleak, gaur lanean*<sup>34</sup>, euskarari idazlerik gehien damaion probintzia Gipuzkoa dela konstatatzen du bere % 61ekin; ondoren urruti Bizkaia, % 22,5ekin; oraindik urrutiago Nafarroa, % 3rekin; Araba, gabe. Komentuetaiko ikasleetara mugatutako inkesta honetan ere, antzeko portzentaia atera zaizkigu. Idazle gehienak gipuzkoarrak ditugu (% 67,36), aldizkarietan gipuzkoarrena *Arnas* dugularik % 81,13ekin; ondoren bizkaitarrak datoz (% 24,68) eta hemen *Gogoz* azaltzen zaigu aldizkaririk bizkaitarrena bezala % 48,78rekin; azken horiengandik benetan urruti, oso bakan, nafarrak dauzkagu (% 6,27) eta besteak, arabarrak % 1,04ekin eta atzerritarrek % 0,62rekin; aldizkaririk nafarrenek, bestalde, *Erein* eta *Gogoz* dira, biak % 17,07rekin.

Oro har, ondoko paralelismo honek zutik dirau: zein eskualde izan euskaradunagoen, hantxe idazlerik gehien.

### 4. Gure Izarra

Orain arteko begirada orokorrari segida emanaz, aldizkari bakoitzaren azalpena egiteari pozikarren helduko geniokeen arren, oraingoz *Gure Izarra* bakarrik aztertuko dugu, bera izan bait da *Jakin*-en aldizkaririk sendiarterkoena; baita, segurki, haren bilakaeran eraginik gehiena izan duena ere.

Lehen partean, *Gure Izarra*-ri atariko gertatu ziotenak zeintzu izan



ziren esan genuen: *Ensayo* hizkuntzabikoa, Salbatore Mitxelenaen hazaldiko *Loramendi*, *Izarño* eta *Bai* hirukotea eta bizkaitar *Ekin*. Zentzu honetan, *Gure Izarra* sortzen delarik Oliteko filosofoen komentuan, ez da gerragaraiko eta ondoko hazaldiarekin eteten; aitzitik, hark txingartu zuen suari soin berriztatua, talde-lanez osotuagoa, ematen zaio. Lehendik bazetorren, baina, gaur agertu eta bihar desagertu, jarraitasunik erdietsi ezinik zebilen tradizioa sendotzera dator, beraz.

*Gure Izarra*-k badu Oliten bertan bizitza luzerik izan ez zuen bere urtekiderik: *Potxolo*. Hau ere, Arantzazuko *Ekin* bezala, bizkaitarrek bizkaieraz egina zen. Bestalde, *Gure Izarra* urtean behin bakarrik ateratzen zen aldizkaria izanik (hasieran behintzat), haren babesean beste aldizkaritxo batzu gorpuztu ziren, *Eutsi*<sup>35</sup> eta *Piztu*<sup>36</sup> zehazki, biak 1950.eko hamarkadaren lehen bost urteren barruan emanak; handik 17 urtetara, 1967.ean hain zuzen, *Gure Izartxo*<sup>37</sup> azalduko da 1960.eko hamarkadaren azkenaldiko gizarte sekulartuaren oihartzunak jasoz.

Baina aipaturiko aldizkaritxo guzti hauen asmoak borobiltzen dituen, inongo zalantzarik gabe, zilarrezko ezteiak betetzear zegoela desagerturiko *Gure Izarra* da. Kanpora begira zabalkunde ezin apalagoa izan zuen, zen guztia esku-makinaz jotako kopia bat besterik ez bait zen, Olitetik Arantzazurako ibilaldia —eta alderantzikoa— eskuz esku egiten zuen kopia bakarra.

Marrazki ugariz eta aberatsez beterik datoz azal-barruak; idazleek ez ezik, pintatzaileak ere bertan eskolatu ziren; Xabier Egañak, adibidez, aldizkari honetan eman zituen bere lehen urratsak.

Aurkezpen labur hau eginik, gatozen gaiak nola sailkatzen diren azaltzera<sup>38</sup>.

#### GAIEI PORTZENTAIK ORRIALDEEN ARABERA

	Orrialdeak	%
Erljioa	796	12,89
Euskal gaiak	1.047	16,95
Kultura	1.212	19,62
Filosofia	904	14,63
Literatura	1.422	23,02
Besterik	794	12,85

Literatur eta kultur sailek betetzen dituzte orrialderik gehien: % 23,02 eta % 19,62. Literatur sailean, zenbait pasarte (adibidez, ipuinak, kontaketak, umorezko pasarteak, etab.) prosan badatoz ere, gehienak poesian emanda datoz; kultur sailak horrelako portzentaia edukitzeak, bestalde,

ez gaitu sobera harritu behar, hor sartzen bait dira, «jakintza» izenpean etorriarik, zein sail berezitan kokatu ez dakigun hainbat lan; zentzu honetan, beste sailak, izenburuak berak agertzen duenez, mugatuagoak dira. Oro har, sail batetik bestera ez dago halako jauzi izugarririk; hala ere, *Gure Izarra* osoki komentuala zela kontutan harturik, ohargarri gertatzen da euskal gaiez (% 16,95) zein filosofiaz (% 14,63) kezkatuago agertzea erlijioaz (% 12,89) baino.

*Gure Izarra* 43. emanaldiarekin bukatzen da, Oliteko filosofia 1974.ean Bilbo, Arantzazu eta Burgos aldera sakabanatzen direnean, hain zuzen. Hain bide luzea egin ondoan, urterik oparoenak zeintzu izan diren galdetzeak bidezko dirudi. Bihoa alde zurretik, alabaina, honako ohar hau: 43 emanaldiko bildumatik 9., 13., 22. eta 33. zenbakiak falta direla.

Oparotasunean, eta guztiz nabarmenki, 1960.eko hamarkadako urteak gailentzen zaizkigu; goranzko abiatan kurbarik gorena 1960.ean (% 9,37) ematen da; ondoko urteetan zerbait jaitsi ondoan, gailurra jo, 1965.ean jotzen du (% 11,69). Goranzko jauzi bertikala, zalantzarik gabe, Joxe Azurmendik 1960.ean eman zion ikaragarritzko bultzadari zor zaio; urte horretan berak zuzendu zuen 11. zenbakia eta bertan 33 lankidez osaturiko 420 orrialdeko aldizkari potoloa, generoan bakarra, burutu zigun; 1965.ean, *Gure Izarra*-k oparotasunean gailurra jo zuen urtean, 3 zenbaki argitaratu ziren, 1960.ean baino 1 gehiago, Joxe Arzallus eta Iñaki Beristainen zuzendaritzapean eginak.

1960.eko hamarkadako lehen bost urteak dira, bada, *Gure Izarra*-ren historian urrezko aroa markatzen dutenak. Bestalde, ez da harritzekoa hala izatea ere, zeren 1959.etik 1966.erako epealdian ematen bait da ikasle euskaradunen kopururik gorena, gailurra 1963.ean jotzen delarik 61 ikasle euskaradunekin.

Erljio-sailean, bereziki 1950.eko hamarkadan, Arantzazuko frantziskotar izpiritalitatearekin zerikusirik duten artikuluak ugari dira. Honela, lehen zenbakia (1950) San Inaziori eskaintzen zaio, baita beste zenbait artikulua ere ondoko urteetan, Arantzazuk Loiolakoaren santutasun-bidean izan duen eragina aztertuz, oso loturik bait datoz Arantzazu eta San Inazio; Euskal Herriak Ama Birjinarenganako, eta bereziki Arantzazukoarenganako, duen jainera berezia aitortuz, 1951.eko 2. zenbakian Euskal Herriko Ama Birjinak aipatzen dira (Arantzazukoa, Izazkungoa, Korukoa, Arratekoa, Itziarkoa, Estibalitzekoa, Gaztelukoa, Begoñakoa, Uxuekoa, etab.); zenbaki berean, Arantzazu euskalduntasunaren txokotzat harturik, probintzia bakoitzak (Gipuzkoak, Arabak, Nafarroak eta Bizkaiak) Arantzazurekin izan dituen harremanen berri dator artikulua berezitan landuta; misioetarako zaletasuna ere oso bizirik zegoela agertzen da, gai honetaz artikulua dexente bait datoz, batez ere 1963.etik aurrera. Kezka nagusienak aipatu ditugun horiek badira ere, bada gaurkotasunez kutsatuagorik ere: entziklikak (*Pacem in terris*, *Mater et Magistra*), Teilhard de Chardin, apez-langileak, kristaua eta biolentzia (1971), progresuzko teologia, erlijio haundiak (islamismoa,

**URTERIK OPAROENAK ORRIALDEEN ARABERA:**  
1950 - 1974

<i>Urtea</i>	<i>Zenbakiak</i>	<i>Erlijioa</i>	<i>Euskal gaiak</i>	<i>Kultura</i>	<i>Filosofia</i>	<i>Literatura</i>	<i>Besterik</i>	<i>%</i>
1950	1	30	1	2	—	11	3	0,76
1951	2-3	58	15	16	—	23	27	2,36
1952	4	15	47	14	10	24	11	1,95
1953	5	31	27	3	28	3	7	1,55
1954	6	20	55	3	16	8	15	1,89
1955	7	5	19	10	18	20	11	1,34
1956	8	10	—	6	11	56	13	1,55
1957	—	—	—	—	—	—	—	—
1958	—	—	—	—	—	—	—	—
1959	10	36	—	20	76	101	37	4,37
1960	11-12	103	102	103	70	174	27	9,37
1961	13	—	58	19	38	38	18	2,76
1962	15-16	19	98	30	78	60	36	5,16
1963	17-18	60	65	99	30	108	68	6,96
1964	19-20	45	43	126	67	123	100	8,16
1965	21-22-23	74	41	155	49	197	68	11,69
1966	24-25	48	93	121	16	39	39	5,79
1967	26-27	69	31	117	116	74	33	7,12
1968	28-29	29	17	47	51	83	39	4,30
1969	30-31-32	49	130	97	20	43	18	5,79
1970	34-35	32	69	40	10	50	27	3,69
1971	36-37-38	35	52	75	46	113	28	5,65
1972	39-40	4	41	30	116	24	48	4,25
1973	41	—	8	34	8	6	10	1,06
1974	42-43	—	11	21	4	45	62	2,36
<b>Guztira</b>		<b>796</b>	<b>1047</b>	<b>1212</b>	<b>904</b>	<b>1422</b>	<b>794</b>	<b>100</b>

hinduismoa), izpiritualitate berriaren mezulariak (Charles de Foucauld, Emaus-ko trapeoak, Opus Dei...), etab.

Euskal gaiez 204 artikulurik inguru daude idatzirik eta hemen urratzen diren gaiak arlo askori dagozkienak ditugu, lehen urtetik azkeneraino konstante gisa agertzen zaizkigunak; hain zuz-n. Hona hemen aipagarrienak: euskara hizkuntzaren egoera, oraingoa eta etorkizuneko, batasunaren arazoa (jadanik 1952.ean bizi-bizirik 3 artikulutan), euskara eta erdarak, gai hauen inguruan biltzen dira artikulurik gehienak, bereziki lehen bi urteetan; euskal literatura ere oso aiputan dauka *Gure Izarra*-k, artikuluren bat edo beste eskaini zaien idazleak ugariantzean izanik. Azkue, Larramendi, Axular, Txomin Agirre, Iparragirre, Loidi, Emeterio Arrese, Joan Andoni Mogel, Bilintx, Etxahun, Jon Etxaide, Elizanburu, Etxepare, Oihenart, Gandiaga eta Udarregi batek, adibidez, artikulurik bana dute; Fernando Amezketarra, Iztueta eta Lizardik, berriz, bina; 1960.eko 12. zenbakiak, bestalde, frantziskotar euskal idazleen historia laburra datorren atal berezia dakar eta hor, banan-banan, idazle klasikoak aipatzen dira gehienbat, hala nola: Esteban Materre, Joan Mateo Zabala, Peru Ashtarloa, Joxe Antonio Uriarte, Etxeita, Ebaristo Buztintza, Joxe Mari Azkue eta, gaurkoetatik, Salbatore Mitxelena, Luis Villasante eta Iñaki Omaetxebarria; euskal gizon famatuen zenbait izen ere jasotzen dira: itsas-gizonenak (Elkano, Txurruka, Urdaneta, Legazpi, etab.), pentsalariak (Unamuno, Saint-Cyran bi aldiz), artistenak ahanzi gabe (Gayarre, Antxieta, etab.) eta besterik; euskal folkloreaki dagokionez, bada, hemen ere, artikulurik interesgarriak, hala nola, euskal dantzak, artazuriketara, txistua, ahari-talka, euskal jokoak (estropadak, pilota), etab.; etnografia bera ere ez da geratzen zerbait arakatu gabe, bereziki euskaldunen jatorriaz, erlijioaz eta sorginkeriaz; eta, azkenik, euskaldungoari buruzko hiruzpalau artikulurik jasotzen dira, nor den euskalduna galderari erantzun nahirik. «Euskadi» hitza lehendabiziko aldiz 1959.eko 10. zenbakian agertzen bada ere, erabat erabili, Euskal Herria hitza erabiltzen da.

Kultur sailean modu askotako gaiekin aurkitzen gara eta zaila da guztien berri ongi sailkaturik ematea; hala ere, badugu aski datu *Gure Izarra*-koen kultur kezka nagusitxoena zeintzu izan ziren jakiteko. Gizarte-arazoetaz arduraturik dago gehienbat eta arlo honetan, zehazkiago esanez, langile-arazoaz (lansaria, grebak, kooperatibak, langile-izakera) eta nekazaritzaz edo baserriaren egoeraz, azken gai honen inguruko artikulurik bait dira ugariak, hamar-hamaika artikulurik gora bai bederen; ismoen ideologi korronteen mundua ere hortxe dago, urtez urte zirika eta zirika egon ere, idazleen gogo-muinetan: komunismoaz 8ren bat artikulurik badatoz (1956-68), marxismoaz 5 bat inguru (1959-71) eta ateismoaz 2 soilki (1971-74); gazteriaz, familiaz, goseaz, bakeaz, indarkeriaz etab. bada, halaber, gogoeta bat baino gehiago; beste gaiak aski barreiatuak dira.

*Gure Izarra*-k, filosofoen aldizkaria izaki, ezin zezakeen filosofi saila bazter utz. Filosofiaz 125 artikulurik inguru zenbatu ditugu. Gaiaren aldetik, besteak beste, jarraiko hauek lantzen dira: Jainkoaren existentzia edo badenekoa, izatea, askatasuna, ezagutzaren arazoa, edertasuna, egia, gizona

(gai hauek errepikaturik datoz), kristau-filosofia, aldia, teosofia, fenomenologia, geogenia, boluntarismoa, humanismoa eta, 1971.az gero, existentzialismoa, materialismoa, materialismo dialektikoa, marxismoa eta humanismoa, etab. Filosofoak aztertzeke orduan ere, ez dira antzu geratzen *Gure Izarra*-koak, hainbat autoreren izenak irakurtzen bait ditugu artikuluen izenburuan; horien artean, frantziskotarren ordenakoak datoz (Duns Scoto 4 aldiz eta Buenaventura 2tan), Heidegger (3 aldiz), Særtre (2 aldiz), Kierkegaard eta Marcel existentzialistak, Unamuno eta Ortega y Gasset (hauetakako bakoitza 2 aldiz), eta jarraiko beste hauek behin bakarrik: Husserl, Bergson, Aquino-ko Tomas, Maitain, Guardini, Kant, Platon, Marcusse, Pascal, Marx, Augusto Comte... Guztira, 22 filosofotik gora. Bada zerbaiz.

Literatur saileko orrialde gehienak, lehen esan genuenez, sorkuntzak-koak dira, poesian ixuriak. Baina sorkuntza hori ez zen informaziorik gabea izan. *Gure Izarra*-koek nahiko orpotik segitzen zioten literatur mugimenduak zeraman bideari. Guztiz chargarri da zein urtetan zeintzu autore datozen begiratzea. Hona hemen, adibide gisa, zerrenda kronologiko hau:

- 1959.ean: Papini, Adolfo Rette, Julien Green, Graham Green, Du Gard, Paul Claudel...
- 1960.ean: Bernanos, Albert Camus...
- 1962.ean: Françoise Sagan...
- 1963.ean: Tagore, Gieurgieu, Dostoievski...
- 1964.ean: G. Cesbron...
- 1965.ean: Péguy, Evtutchenko...
- 1966.ean: Txillardegiren Leturia...
- 1968.ean: André Malraux, Kafka, Rubén Darío...

Horietatik batzu behin baino gehiagotan datoz, hala nola: Paul Claudel 1971.ean; Tagore 1968.ean; Gieurgieu 1965.ean; Dostoievski 1966 eta 1971.ean; Camus 1971.ean. Gusto literarioen zantzurik usma daitekeela uste dugu antologia laburño horretan.

Ez dago esan beharrik, honez gero, *Gure Izarra*-k landu edo, nahiago bada, ukitu zituen gaietan badela aukerarik. Ez dira izango behar bada aldizkari espezializatuetan ohi diren neurrikoak. Ezta izan beharrik ere, sortzetik bertatik beste helburu batzu zekartzanez gero. Mugak muga, 1960.ean argitaratutako 12. zenbakiak, monografi ikuspegiaren aldetik duen interesegatik, merezi luke apamen berezirik, hor sistematikoki azterten bait dira bi gaiok: batetik, frantziskotarren Euskal Herriko komentuak eta, bestetik, frantziskotar idazleak. Lan estimagarriak biak.

## 5. GURE IZARRAko lankideak

Aurkezpen orokorrean aurreratu genuen bezala, *Gure Izarra*-ren 24 urteko produktziogintzak 306 idazleren alfabetakuntza suposatzen du eta, zenbait kasutan, gaurko luma sagaratuen aurreaioigintza ere bai.

Idazleak 306 badira ere, ez zuten lankide guztiek ardura bera eduki aldizkariarekiko. Aldizkariaren historiari zor zaion begirunez besterik ez bada, egoki deritzogu zuzendarien taula kronologikoa aurkezteari.

Guztira 23 zuzendari dira eta, 1966.az gero, hiru eta lau zuzendari-kidez osaturiko hiru zuzendaritza kolektibo. Lchen bi urteetan ez dator zuzendariaren izenik; 1952.ean erabakitzen da, 4. zenbakian hain zuzen, *Gure Izarra*-ren zuzendaritza zuzendari batek eta lau laguntzailek osatuko dutela eta urtero berrituko dela. Funtsean arau honek dirau ondoko urteetan ere, nahiz laguntzaileak gehienetan bi izan lau ordeiz.

Zuzendaritzan datozen gehienak buru-belarri murgildurik dabilzkgu euskal kulturgingtzako alor berezitan banatuta: nor euskara idatzian batipat (adibidez, J. L. Zurutuza, Joseba Intxausti, Joxe Azurmendi, Alexandro Oiarzabal, Joan Mari Torrealdei, Jesus Mari Zabaleta...); nor euskara

### GURE IZARRA-KO ZUZENDARIEN TAULA KRONOLOGIKOA <sup>39</sup>

<i>Urteak</i>	<i>Zuzendariak</i>	<i>Zenbakiak</i>
1950	Taldea ... ..	1
1951	Taldea ... ..	2-2
1952	Jose Antonio Astigarraga ... ..	4
1953	Sabin Berasaluze ... ..	5
1954	Iñaki Bereziartua ... ..	6
1955	Jose Luis Zurutuza ... ..	7
1956	Joan Azurmendi ... ..	8
1957	Joseba Intxausti ... ..	(9)
1958	Santos Beloki ... ..	10
1959	Joxe Azurmendi ... ..	11
1960	Alexandro Oiarzabal ... ..	12-(13)
1961	Pello Mari Zabala ... ..	14-15
1962	Joan Mari Torrealdei ... ..	16-17
1963	Joan Joxe Olaberria ... ..	18-19
1964	Joxe Mari Arzallus ... ..	20-21-(22)
1965	Iñaki Beristain ... ..	23-24
1966	Jesus Mari Zabaleta ... ..	25-26
1967	Jesus Mari Onaindia ... ..	27-28-29
1968	Joxe Mari Arregi ... ..	30-31
1969	Emilio Imaz ... ..	32-(33)
1970	Jon Enbeita ... ..	34
1971	Pello Telleria ... ..	35-36-37
1972	Joxe Arregi ... ..	38-39
1973	Jose Mari Azurmendi ... ..	40-41
1974	Julian Beloki ... ..	42-43

mintzatuari gehienbat (Iñaki Bereziartua, Santos Beloki, Iñaki Beristain, etab. pastoralgintzan; Joxe Ramon eta Julian Beloki irratian; Jon Enbeita bertsoaritzan, etab.). Beste luma batzu, damuz! isilik daude. Sabin Bera-saluze dugu gogoan.

Zuzendarien zerrenda honetatik aparte, beste hainbat izen dauzkagu, *Gure Izarra*-n eskolatu izanik, zein baino zein trebeago direnak bakoitza bere arloan: B. Gandiaga, Fernando Mendizabal, A. Esnaola, Xabier An-donegi, Pello Zabaleta, Manolo Pagola, Jose Antonio Aduriz eta merezi-mendu osoz aipa genitzakeen beste horrenbeste eta gehiago idazle. Beste asko gehiago dira, noski, orain euskararen irakaskuntzan dabiltzanak: Zu-zendari mailan ibilitakoak bakarrik aipatzeko (Zuzendari edo laguntzaile izanak, alegia), horra hor J. A. Astigarraga, Idefonso Alustiza, I. Unzu-rrunzaga, Pello Zabala, J. M. Arzallus, Emilio Imaz, Ruperto Ormaza, Pello Telleria, J. M. Azurmendi, J. A. Agirretxe, J. R. Urrutxua, X. Goitia.

Ez genuke bukatu nahi lantxo hau *Gure Izarra*-ren emaitzak guztiz emankorrak izan direla behin eta berriz aitortu gabe. *Jakin-en* zilarrezko etzeietan inor goratzekotan, *Gure Izarra* goraiatu beharko litzateke, bera izan bait da esku-beteka idazle eman dizkion harrobi naturala.

## OHARRAK

<sup>1</sup> Lehenengoan, aldizkariaren inguruko xehetasunak eskatzen ziren: ikasleen ikasketa-maila (filosofia, teologia, etb.), euskararen egoera nolako zen aldizkaria sortu aurretik, idazle ezagunen zerrendak, etab.; bigarre-nean, aldizkariak iraun zuen garaiko ikasleen hizkuntz egoera zetorren, hots, zenbat euskaradun eta zenbat gabe; hirugarrenean, azkenik, idazle bakoitzari buruzko datuak: noiz eta non sortua den, etab. Zuzeneko iturrietara jo dugu, beraz, datu bila.

<sup>2</sup> Bihoazkie gure eskerrik beroenak artxiboetan hain bihotz zabalez miatzeko pazientzia izan duten Jose Mari Lete frantziskotarrari, Joan Joxe Uranga, Joan Eizagirre eta Joan Otaegi sakramentinoei, Joxe Lizarralde pasiotarrari, Patxi Lasa laterandarrari, halaber Antonio Unzueta eta Patxi Uribarren karmeldarrei. Guzti hauen lankidetzak prestuari esker lortu ahal izan dugu oinarritzko datu-sorta. Bilketa honek ahalbidetu du gure lanari alde zuzen jarri genizkion asmoen burutzea.

<sup>3</sup> Ahaleginak egin genituen, batean Patxi Altunari galdetu eta bestean Gotzon Garateri; azken honek, *Ekin* aldizkariaren zenbakiak han aurkituko genituelakoan, Loiolako bibliotekariarengana bidali gintuen; baina honek, zoritxarrez, ez zituen zenbaki batzu besterik kausitu. Ez dakigu, beraz, *Ekin* noiz sortu zen eta noiz hil, ezta zenbat zenbaki argitaratu ziren ere. Oraingoan, damuz, ikergai geratzen zaigu.

<sup>4</sup> Lehen bilera Lazkaon egin zen 1964.eko Eguberritan. Guztura 20ren bat lagun bildu ziren: Gipuzkoatik Martin Etxeberria, Patxi Apalategi, J. M. Agirre, Gerardo Elorza, Jazinto Setien... Arantzazutik, Joan Mari Torrealda, Joan Joxe Olaberria, Joxe Azurmendi; Bizkaitik, Abel Muniategi, Xabier Amuriza, Alberto Gabika, Julen Kalzada, Angel Zelaieta, Ander Manterola...; Nafarroatik, Xabier Etxepeteleku, Jesus Mari Etxebeste...; Iparraldetik, Roger Idiart, Manex Pagola. Geroztik, 1966.ean, *bizpahiru batzarre egin ziren, horietatik bat Donostiako «Villa Santa Teresa»n Iñaki Larrañagaren zuzendaritzapean eta, azkenengoa, ustez 4.ena, Gernikan. Azken batzarre honetan (1966.eko abenduaren 29an) lau erabaki nagusi hartu ziren:*

1. EHA aldizkariari zegokionez, urtean lau zenbaki argitaratu, Artikulu-gaiek eguneroko bizimoduarekin lotu-loturik zeudenak izan behar zuten, hala nola: tertulietan izaten diren elkarrizketak, zuzentasunak eta egizaletasunak dakartzaten burrukak, erlijiozko egitura berriak, etab. EHAk ez zuen kultur aldizkari izan nahi.
2. Eskoletako filosofia eta teologiako apunteak euskaratu, gero ikastetxe desberdinetan berrehun eta hogeiren bat ale banatzeko asmotan.
3. Seminarioetan, mintegi zein eskoletan, euskara ofizialki sartu eta landu; orobat, irakasleak euskaraz jakin ez arren, lan idatziak euskaraz egitea lortu.
4. *Zeruko Argia*-n erlijiosoen txoko bat sortzeko moduak aztertu. (Ik. EHA, 3. zenb., uterik eta orrialderik gabe).

Emaitzak, zoritxarrez, ez ziren erabakiak bezain urrutitu heldu. EHA aldizkariari dagokionez, hogeit orrialde inguruko 3 zenbaki irten ziren, hiruak folio-erdikoak. Arazo horietan esperientzia gehiena zuela eta, Zuzendaritza *Jakin*-ek hartu zuen. Lankidetzat aski barreiatua da: batzu erlijio-soak (Jose Mari Arzallus, Eusebio Osa, Anastasio Erkizia laterandarrak: Koldo Satrustegi eta Anton Basterretxea sakramentinoak; Joan Mari Torrealda, etab. frantziskotarrak), besteak Donostiako apezgaiak (hauen artean, Jokin Apalategi edo «Txurdintxo», Martin Etxeberria, Jose Arregi, Urbistondo, etab.). Aldizkariak aparte, lortu zen Donostiako apezgaitegian zenbait apunte euskaraz ematea ere, hala nola: *De ecclesia, Kristologia* eta *Antropologia* bederen.

<sup>5</sup> *Laiaketan*, 1959, 1. zenb., Hitzaurrea.

<sup>6</sup> Aipu hau *Laiaketan*-etik jasoa da, 1966, 18. zenb., 47. or.

<sup>7</sup> Aldizkari honen lehen zenbakia Iruñean argitaratu zen 1950.eko otsailaren 5ean eta azkenengoa, berriz, Areatzan 1959.eko abenduaren 12an. Guztura, 100 lanetik gora eman ziren 39 zenbakitan zehar, zenbaki bakoitzean hiru bat lan euskaraz zetozelarik. Harez gero, hots, *Estudiante Sacramentino*-ri 1959-1960 ikasturtean azkena eman zitzaionean, hizkuntza bakoitzak bere bidea egin zuen, gaztelaniaz *Irradiar* eta euskaraz *Arnas* argitaratuz.

<sup>8</sup> *Horizontes*-en lehen zenbakia 1941.eko abenduaren 25koa da eta azkenengoa, berriz, 1960.eko maiatzekoa, guztira 31 zenbaki argitaratu zirelarik; azkenengo zenbakian hiru lan datoz euskaraz, prosan eta gehienbat hitz neurtuetan.

<sup>9</sup> Ez dakigu *Cuadernos* aldizkari hau ez noizkoa den eta ez zenbat zenbaki argitaratu ziren.

<sup>10</sup> Aldizkari hau 1932.ean jaio eta 1939-40 aldera desagertu zen; gaz-



telaniaz idatzirik zegoen gehienbat; jaso zituen, hala ere, euskarazko zenbait idazkitxo, olerkiak etab.

<sup>11</sup> Aldizkari hau 1937.ean jaio zen eta bizpahiru urteko bizitza izan zuen. Salvatore Mitxelena, Karmelo Iturria eta, genituen bultzagileetarik batzu.

<sup>12</sup> Lehenengoa 1942.ean sortu zen, S. Mitxelena, Karmelo Iturria eta abarren gidaritzapean, hain zuzen; eguna ikusten hasi orduko debekatua izan bait zen, hurrengo urtean (1943), lehenengoak utzi zuen zuloa betetzera etorri zen bigarrena, eragileak lehen aipaturiko berak izanik. Arantzazuko *Izariño*-k eta *Bai*-k Oliten dute beren anaia zaharrena: *Loramendi*.

<sup>13</sup> Aldizkari honek 1948.etik 1955.era iraun zuen. Fernando Legarreta izan zen bultzagilerik nagusienetako bat; gero irakasle gisa Olitera joan zelarik, haren euskaltzaleatasunak izan zuen eraginik bertako filosofoen artean eta, bidenabar, *Gure Izarra*-ren bilakaeran.

<sup>14</sup> Esku-makinaz idatzirik *Arnas*-en lehen zenbakia, adibidez, agintarien partetik onartua izan zen, baina ez zen ofizialki argitaratua izan. Beste aldizkariaren ofizialtasun-egoeraz xehetasunik ez badugu ere, bestetan ere antzeko zerbaitek gertatuko zela pentsatzeko bide ematen digu garaiko komentu-egoerak. Oztopoak oztopo, aurrera egiteko asmoz plazaratzen da *Laiaketan*: «Agirian edo ezkutuan, beti «Laiaketan» arituko gara». (*Laiaketan*, 1959, 1. zenb., Hitzaurrea). Agirian edo ezkutuan, dio. Dena dela, ondorio orokorragoak ateratzeko, sakonagotik aztertu beharko litzateke puntu hau.

<sup>15</sup> *Laiaketan*, 1959, 1. zenb., 4. or.

<sup>16</sup> *Gure Izarra*, 1950, 1. zenb., 2. or., Sarrera.

<sup>17</sup> Joxe Austin Orbegozok, 1959, 1. zenb., 5. or., «Behartsuak» artikulua.

<sup>18</sup> *Gure Izarra*, 1950, 1. zenb., 2. or.

<sup>19</sup> *Gogoz*, 1965, 1. zenb., 3. or.

<sup>20</sup> Joxe Austin Orbegozok «Behartsuak» lanean, ibidem.

<sup>21</sup> *Erein*, 1960, 1. zenb., «Gure jokabidea» lanean; orrialderik ez dakar.

<sup>22</sup> *Ibidem*.

<sup>23</sup> *Arnas*, 1965, urria, 65. or.

<sup>24</sup> Aipu hau *Laiaketan*-etik jasoa da, 1966, 18. zenb., 47. or.

<sup>25</sup> *Arnas*, 1960, 3. zenb., 67. or.

<sup>26</sup> *Gure Izarra*, 1952, 4. zenb., 62. or.

<sup>27</sup> *Erein*, 1960, 1. zenb., Atarikoa.

<sup>28</sup> *Gure Izarra*, 1952, 4. zenb., 62. or.

<sup>29</sup> *Laiaketan*, 1959, 2. zenb., 4. or.

<sup>30</sup> *Erein*, 1960, 1. zenb., «Gure jokabidea» artikulua.

<sup>31</sup> *Platon-eneko Atarian*, Donostian, 1962, 171-172 orr.

<sup>32</sup> *Gogoz*, 1967, 7. zenb., Sarrera.

<sup>33</sup> Hitzok, hemen adierazi nahi dena garbi gera ledin, euskaraz idazten eta mintzatzen dakiena eta ez dakiena elkarrengandik bereizteko asmatuak dira. Ez doaz, beraz, urrutirago.

<sup>34</sup> *Euskal idazleak, gaur*, Jakin (Oñati), 1977, 94. or.

<sup>35</sup> Koaderno gisako aldizkaritxo hau eskuz idatzirik dago eta bertan Joxe Mari Lete, Salvatore Biain, Ildefonso Alustiza, Biktoriano Iñurritegi,

Pedro Rezola, Joxe Antonio Astigarraga (Sorginpikueta) eta abarren lantxo llaburrak datoz, mistika-kutsu haundikoak eta eskuz txukun-txukun idatzia. Eskuartean, ditugun aletxoak 1951.ekoak dira, azkenengoa maiatzaren 29koa (6. zenbakia) izanik.

<sup>36</sup> Hau makinaz idatzirik dator eta, Iñaki Bereziartua, Sabin Berasaluze, Fernando Mendizabal, Mikel Elorza eta abarrek osaturiko taldetxo batek bultzaturik, gai filosofikoak lantzen dira bertan; 1953-54 ikasturtean bakarrik argitaratu zen.

<sup>37</sup> Kezkaz jantzita, eritzi bila dator hamarren bat orrialde inguruko aldizkaritxo hau; bertan datozen izenak, besteak beste, Joxe Mari Arregi, Ruperto Ormaza, Karmelo Ajuria, Joan Miguel Pagola, Ramon Azkue, Pedro Urriolabeitia etab. ditugu. Ez dakigu zenbat zenbaki eman zituzten argitara; I, II, III eta IV zenbakitxoak bai bederen. Makinaz joa da.

<sup>38</sup> Gaiak sailkatzeko orduan, gure erizpidearen arabera jokatu dugu. Zergatik geure erizpidez? Batetik, aldizkariak berek, barne-egituraren aldetik, gaien sailkapena dextentetan aldatzen dutelako eta, bestetik, UNESCOren sailkapen-eredua aplikagarri gertatzen ez delako, horko sail berezitu gehienek ez bait dute aldizkari hauetan behar hainbateko garapenik ukan. Hemen jarraiko sei sail hauetan banatu ditugu artikulua guztiak: Erligioa, Euskal gaiak, Kultura, Filosofia, Literatura eta Besterik. Egin dugun banaketa hau, beraz, operazionala da.

<sup>39</sup> Hiruzpalau ohar egin beharrean gaude, taula hau behar bezala ulertzeko:

- a) lehen bi urteetako zuzendaritza, kolektiboa izan zen. Hona 1950.eko partaideen izenak: Bitoriano Gandiaga, Martin Aierbe, Ildefonso Alustiza, Bitoriano Iñurritegi, Joseba Etxeberria, Felix Bilbao, Jose Antonio Astigarraga. 1951.ean beste hauek ere bildu zitzaizkien: Iñaki Etxebeste, Pedro Rezola, Jose Luis Salas, Jose Mari Lete...
- b) Parentesi artean jartzen ditugun zenbakiak (alegia, 9, 13, 22, 33) ez ditugu bildu ahal izan. Ez dakigu ziur, gainera, zein zuzendari-arenak diren (9.a salbu, hau J. Intxaustik zuzendua bait da).
- c) Zuzendariaren hautapen-urtea seinatzen dugu, baina kontu egin behar da Zuzendaritza bakoitzaren aldia, egiazki, irailetik irailera zela, ikasturtea alegia.

Historia



## 1956-1961: kultur euskararen bila

*Jakin*, legez kanpo eta baimenik gabe sortu zen; ez estatu-baimenik, ez eliz baimenik zuen. «Arantzazu-ko Urtea» zela eta euskaltzaleak lehenengo aldiz urte askotan han biltzen zirela jakinki, ikasle gazteak beren ahotsa ere entzun erazi nahi izan zuten: *Yakin*, «y» grekoarekin agertzen zen, *Euzko-Gogoatarren* ortografiari jarraikiz.

Eman ditzagun sortzaileen izenak: Fernando Mendizabal, Iñaki Bereziartua, Iñaki Bastarrika. Berauen inguruko laguntzaileak izan ziren Imanol Urbietta Joxe Mari Osa eta Sabin Berasaluze. Horietatik batzuk euskal munduan segitzen dute lanean; beste batzuk eginkizun urrunagoetara pasa dira. Irakasleetatik babesle ezagunak izan zituen *Jakin*-ek: K. Zubizarreta, K. Iturria. Baina zenbaiten oniritzi handirik gabe egin zuten hori.

Aipa ditzagun hemen aldizkariaren iturri ekonomikoak; garai haietako datu zehatzak galdu badira ere, zera esan liteke: ikasleek ez zuten laguntza instituzionalik irarketa egiteko, hori dena harpindedunaren gain zihoan. Agirre Lehendakariak bidali zuen hasieran laguntzatxo puntualen bat eta, batez ere, horrelako zerbait iritsi ohi zitzaigun Venezuelatik (Isaias Atxa zena eta lagunak) eta inoiz edo bestetan euskaltzaleren baten eskupekoa ere bai, baina egiten zena gazteen ahaleginez egiten zen, diru-lanetan ahal zena emanez. Ezin dira, gainera, barnetik bertatik lagun izan ziren lehenengo tenorekoak: Sabin Arrillaga, Josu Arenaza, Andoni Espartza, etab.

Aldizkariaren lehen banakuntza eta harpide-kanpaina Bil-

tzar-lagunen artean egin zen, eta, lehenengo emanaldia berehala bukatu zenez, biharamunerako bigarren bat prestatu zen. Lehenengo aleak 100 orrialde zituen, eta artikulua sailkaturik agertzen ziren: Teologi Saila, Filosofi Saila, Kultur Saila, Antzeta Elerti, Sasaki Naski, Alkar izketa.

Lankidego-modu berri bat zekarren argitalpenak. Ordurarte, erlijioso-etxeek ez zuten asmatu, Ordena eta Elkargo ezberdinetatik bilduta, elkarrekin lan egiten. Elkarren lehiakide sentitzen ziren batez ere, eginkizun bererako, lagun baino lehenago: lehenengo zenbakian bertan nahasiak datoz pasiotar, beneditar, frantziskotar eta josulagunak. Hori, beste gabe, aurrerapen bat zen, ez kaskarra, ikusiko dugunez. Lankidego-zentzu berria zekarren; belaunaldi gaztearen lorpen bat izan zela esan genezake.

«Ataria» poetiko batekin hasten zen aldizkaria: «Ernaberiturik dager ta lorez orniturik [euskera]». Bestalde, badirudi Zaitegik Arantzazun gazteekin berrikitan izandako topaketaren oihartzuna sumatzen dela *atari* horretan:

«Zaarra dugu izkuntza, ta basatia. Egun, artzain ta ikazkinen mintzaia soilik. Egun-egungo jokabide-mailetatik at dugu gure euskera. (...) Nik bezin ondo dakizu: gure euskera kultur-yoera ta kultur-ats guzi-guzietan murgil ez bitartean, aizea orrazten ari gera. Berez dager» (1, 3. or.).

Nabarmena da non ikusten den aldizkari *eredua*, hau idaztean: «Gogo bat» daramagu. «Euskal-Gogoa» irarri zigun Yainkoak». Zaitegiri elkarrikusketak bat egiten zion I. Urbietak.

Honela laneratu zen argitalpenak, lehen aldian, bost urteko bizitza laburra ezagutu zuen (1956-1961); baina aski gorabehera eta aldakuntza bizi izan zituen urte horietan. Hiru aldiz aldatu zen neurriz, eta beste hainbeste irar-moldez; dena den, alde honetatik, aldakuntzarik koalitatiboena 1961ean gertatua da: lehenengo litografiaz irarria, inprimategira pasa zen, horrek zekartzan arrisku ekonomiko eta legezkoiei aurpegi emanaz.

Hizkera eta edukinaren aldetik garrantzizkoa da, gainera, zuzendaritzaren aldakuntza. Lehenengo sortzaileek ikasketak amaitzen, Arantzazutik kanpora doaz, eta Kepa Enbeita eta Joseba Intxausti sartzen dira arduradun bezala (9. zenb., 1959). Eskuak erabat libre uzten dizkiete beren aurrekoek, eta aurretiko inolako baldintzarik gabe aldatu ahal izango dute aldizkaria, honen hizkera eta edukinetan. Hizkuntz eta edukin-arazoei gagozkiela

bi ataletan erdi erditik banatzen da lehen aldia (1956-59/1959-61). Berehala ikusiko dugu hori.

Pixkaka-pixkaka ikastetxearen barnean nagusiekiko errespetagarritasun bat irabazten da. Zuzendariei errazagoa gertatzen zaie orain beren lana, eta samurragoa da kanporako hariak mugitzea.

### JAKIN, lehen ekinaldia (1956-59)

Lehen ekinaldi honetan aldizkaria da dena, ez dago liburu-argitalpenik. Nahiko lan ematen du kanpoan harreman-sarea sortzeak eta artikulu-bilketak. Orrialdeak edozein gaitara irekiak daude, eta ez dago deus programaturik edukinen aldetik (inoizko salbuespenen bat aparte: Lourdesko Andre Mariri eskainia).

Hizkuntzaren ereduak tradizio laburrekoak dira; baina bizirik daude eta lan eder eta mardul baten jabe dira. Orixek eta Zaitegi, erbestetik zekarten beren eskarmentu ederrarekin eta hizkuntza zernahaitarako trebatu nahiarekin, garai haietan beste inor ez bezala eredu imitagarriak ziren.

Miretsiak ziren haiek, gainera, berehala sartu ziren aldizkariaren harremanen barnean. Halako aita pontekoekin, inolako kritika arriskugarritan sartu gabe, etorkizuna bera ere segurtutua ageri zen. Oraindik —eta gero iturri horretatik bai ote?— Villasanteren ideia hurbilek baino oihartzun handiagoa zuten Arantzazu barnean bertan bizirik zeuden beste hobespen horiek. Ez da harriztekoa, ere, esate baterako familiartekoa eta egunerokoa zen Orixeren idazketa hainbat elizgizonentzat (Mesa-liburua, 1950: Zein euskaltzalek ez zuen ale bat?).

Bigarren zenbakia (1956, Eguberriak) orrialdez ia doblatu egiten da. Interesgarria da elkarrizketa-atalari begiratu bat ematea: Mitxelena, Zaitegi, Goikoetxea eta Zabala (biok josulagunak). Donostiako apaizgaiak, Lazkaoko beneditarrak... Inork ez du alferrikako berrikeriatzat jotzen argitalpena; alderantziz, denek egiten dute akuilari lana. Komentuetxe itxian bizi ziren gazteentzat ez zen kaskarra izan, euskaltzale eta eliz ikastetxeen erantzuna. Puntu bat dago hemen gogoragarria: Une hartan Donostian eta Lazkaon Orixek bere jarraitzaile maiteenak zituen, eta Arantzazukoak ere sintonia berean zebiltzan.

1956-58. urteetako lankideak (1/8. aleak) eguzkialde guztietakoak ditugu:

- Arantzazuko frantziskotarrak: I. Bereziartua, Zurutuza, J. Iturria, Berasaluze, Mendizabal, I. Bastarrika, J. K. Guarrotxena, I. Untzurrunzaga, Aiestaran, Esnaola, Aperribay, Intxausti, Jon Azurmendi, Ulazia.
- Begoñako karmeldarrak: Abelin, Arantza.
- Belokeko beneditarrak: Arnaud Iraola, Martzen Etxehandi, I. Etxehandi.
- Billaroko sakramentinoak: P. Arantzadi, L. M. Muxika, Galdona, Goikoe-txea, Bengoetxea, Dorronsoro, Otaegi, Saizar.
- Donostiako apaizgaiak: Gaztañaga, L. Dorronsoro, Labaka, X. Azur-mendi, Atxaga.
- Elizbarrutietakoak: M. Lekuona.
- Erriberriko frantziskotarrak: Iturriotz.
- Iparraldeko frantziskotarrak: Erdozaintzi.
- Lazkaoko beneditarrak: Balerdi, I. Baztarrika, Sueskun, Eiheraberri, E. Muxika, B. Muxika, Artola.
- Loiolako josulagunak: Goikoe-txea, Madinabeitia, K. Goena, Landondo.
- Oñatiko laterandarrak: F. Lasa.
- Tejaresko lasalletarra: M. Lasa.
- Urretxuko pasiotarrak: J. A. Orbegozo, Damaso, Amadeo.
- Beste: A. Irigoyen, Txillardegi, Umandi.

Aldizkariaren inguruko gazteak talde-zenzu irekian agertzen zaizkigu: Nonnahiko lankideak ongi etorririk beroena dute, guz-tiena den plazan, eta Arantzazuko fraidegaiak berak ere prest daude kanpoko beste aldizkarietan parte hartzeko (Ikus *Euzko-Gogoa*-n horrelako doxenerdi bat artikulua, 1956an).

Talderen batek bere lankidetza ezin eskaini zuenean ere ematen zuen bere ezinaren berri: «Aurten ez bada, datorren urtean alegiñak egingo ditugu zuen artean izateko. Gutxi gera, atzetik datozkigu geiago», idazten zuten Iruñeko Kaputxino gazteek (1957-Orrilla-18ko eskutitza).

Ikusten da, beraz, berehala bildu zela hainbat jende, elkar-ren artean inolako ezagupide pertsonalik ez zuten gazteak eta sortutako aukera baten deia erantzunez zetozenak. Baina hasiera-ko egoera sakabanatu horrek laster erakutsi zuen lankideen arteko harremanak hobeki lotu beharra; honegatik jaio ziren jakinlarien urteroko bilerak. Ez ziren lagunarte zabalegian egiten zirenak, baina, batzutan doxena bat lagunekoak izan arren, bildutako

haietako bakoitza ikaslego oso baten ordezkariak izan ohi ziren. Lehenengo ekinaldi honetan oraindik bileren betekizuna bi puntutara mugatzen zela esan liteke: a) Lankideak elkar ezagutzera (urtero zegoen jende berririk tartean), eta b) Aldizkariaren hizkera (ortografia, hiztegia,...) eta inoiz edukina ere hautatu edo bateratzera.

## Jakinlarien urteroko bilerak

*Bilera* hauetatik lehenengoa 1957ko irailaren 11-12etan egin zen, Arantzazun (ik. *Jakin*, 4, 1956. 85-93. or.): hemeretzi lagun (apaizgai, josulagun, sakramentino, frantziskotar. Ezin etorriak: beneditarrak, karmeldarrak, etab.). Gai jakin bat aztertzea, baino elkar ezagutzea izan zen xedea (ib., 85. or.). Aldizkari berriak euskal idazleen arteko batasunari nola lagun ziezaiokeen izan zen lehenen-lehenengo solasgaia. *Batasun-faltaren* erro nagusia, garbizale/mordoiloizaleen hautabide kontrajarriak dira. Ondorio bezala hauxe atera zen: «Yakin'en idazten dugunok, beintzat batu dezagula gure idazkera eta berdin idatzi». Bi korrante kontrajarrien artean, ordea, hainbat puntu dago batera daitezkeenak, eztabaida mingarriagotan sartu aurretik ere (ib. 86. or.): horrela, batasun ortografikoari heldu zitzaion (*ba, bait, ez...*), atzerriko izen propioak, aditza (*dot/det/dut*). Aldizkarirako arauak hautatu ondoren hau erabaki zen: «Yakin'en idatzi bear dutenek ola idatzi bearko dute», bestelakorik expreski adierazten ez bada, bederen. Eta, etxe-barnean bilduta geratu partez, bileralagunek batasun-asmoa kanpora ere zabaltzea erabakitzen dute:

«Yakin aldizkariak kanpora ere batasun au lenbailen iritxi dedin, erabaki oien birridazki edo kopiak atera eta euskal-idazleei banatzea erabaki zan» (*Jakin*, 4, 1957. 89. or.).

Ortografiatik arazo larriagotara pasatzen dira batzarkideak, gero: kultur hitzak. Ordurarte argitaratutako hiru aleetako eskarmentu txarra ikusita zeukaten, izan ere. Kultur hitzen batasun-eginkizuna bi unetako lana bezala ematen zen: a) norberak bere lanetan ezarri behar duen hiztegi berdintasuna («lenengo norberak egin bear du bere batasuna»), eta b) lankide guztien arteko terminologi batasuna (egiteko honetako erakunde txiki bat ere proposatzen da, bilketa-lana egiteko).

Taldean egin zitezkeen idazlan handiagoen edukinei begira, monografikoak izan zitezela eta osotasun batean landuak erabaki zen, itxaropen on batek bulzatuta: «Era ontara, urte gutxi barru euskeraz genituzke: Teologi; Filosofi eta olakoak» (ib., 90. or.).

Urtebeteko lan labur hark hizkuntzaren hutsune eta beharizan jakin horiek erakutsi zizkien idazlegai gazte haiei, eta berauen lehenengo bileratik hasi ziren (1957) irtenbide praktikoak bilatu eta eratzen.

Bigarren bilera, 1958ko irailaren 10ean egin zen, hau ere Arantzazun:



hamabost bat lagun orotara, bost ikastetxe ezberdinetakoak, gutxienez. (*Jakin*, 7, 1958, 102-109). Iragan urtearen azterketa bat egin zen: alde batetik, hartutako erabakiek, ikusten zenez, ongi lagundu zioten aldizkariaren idazkera-batasunari; baina aitortzen zen eragozpenik ere bazegoela:

«Agirian dago erabaki aiek aldizkariaren idazkerari eman dioten batasuna. Bear bada orrexegatik izan ditu ainbeste aldeko eta kontrako» (ib, 102. or.).

Batasun-gogo hura eta hartarako zabalkunde praktikoa hedatzen ari ziren ikastetxeetan (Areatza-Billaroko sakramentinoetan beren lanetarako ere onartu egiten zituzten arauak). Euskaltzaindiak bere arauak ematen ez zituen bitartean, idazle gazteen arteko akordio bat lortu nahi zen, denen batasunari laguntzeko, eta honelako ahalegin bati ihardun zekizkiokeenak gogoan izanik hola zioen bilerako kronikariak:

«Arau oiek alik eta geiena zabaltzea zan gure asmoa. (...). [Eliz ikastetxe guztietan onartuko balira], idazle-sail ederra izango genduke euskal ortografiaren batasun-bidean. Onek ez du esan nai euskera-kontutan legeak emateko eskubidea gureganatu dugunik. Gu ez gera inor legerik emateko. Baña batasun aundiagorik ez dagoen bitartean, alik eta geienak onela idaztea on aundia dana, Aizkorri baiño aundiagoko egia da ori» (*Jakin*, 7, 1958, 103. or.).

Eta hizkuntzarenak utzita, edukinei, estiloari eta aldizkariaren beraren azken xedeei buruzko eztabaida ere izan zen bileran. Arazorik larriena hautabide bikoitz eta kontrajarri honetan laburtzen zen:

*Yakin*'en jomuga ez da irakurlearentzat izatea bakarrik; euskera jakintzarako bideak irikitzea ere *Yakin*'en asmo nagusienetan jarri bear da. Egia da, irakurleen bearra dauka euskerak, eta irakurleak ugaritzeko biderik egokiena gai ariñak idaztea da. Baiña ez da ori guztia. Euskera ez dago jakintza-gaiak erabiltzeko landua eta tajutu egin bear da ortarako. Arazo au, berriz, *Yakin*'en muin-muñeakoa da (ib., 105. or.).

Interesgarri da, hemen, orduko bi aldizkari nola kontrajartzen diren, eztabaida hartan, *Egan* eta *Jakin*: «Irakurleak ugaritzekotan bakarrik, or zegoan *Egan* jator askoa; eta etzeukan zertan sorturik *Yakin*'ek» (ib., 105. or.). Honela azpimarratu nahi zena zera zen: ikasketa akademikoe-tatik zetorren jakite-arloa sistematikoki euskaraz ere ondu beharra. Bi kezken gatazka, aldizkariko atal ezberdinen bidez gañditu zitekeela esan zen azkenik. «Lan elkorrek» ere beren ukaezinezko betekizuna zuten: geroko beste lanetarako lagungarri izan, luma berriak trebatu (aldizkaria, luma berrientzako saialekua zela, alegia).

Lehenengo bi bileretan finkatuta geratu zen aldizkariaren bokazioa eta kultur zeregina. Hortik aurrera, zalantza handirik gabe joko du taldeak. Joera-aldakuntzak eta eztabaidak ez dira horretaz izango, hori *nola* burutuaz baikik.

## Euskara auzitan

Nolabait esateko, bileretara etortzen zen taldea aldizkariaren redakzio irekia zen: etorriak nahiz han ordezkatuak ziren errebistaren egile. Baina argitalpenaren inguruan bazegoen irakurlego bat, eta honen barnean baita euskaltzalego eta idazlego lan-kide posible bat. Bigarren ingurune hurbil hau modu ezberdinetan landu zen: isilpeko eskutizketa, aldizkariko eskutizketa irekiz, inkesten bidez, beste euskal bileratan esku hartuz (Euskaltzaindiarenetan bereziki).

Lehenengo bi urteetako zenbakietan «Alkar izketa» atala izan zen aldizkariarekiko eritzien eta beronek sortutako eztabaida biziaren topalekua. Hor agertuko dira zenbait berriemate (euskaltzaleen bilerak: Bereziartua, Erdozaintzi), zenbait idazlerekiko elkarrizketa (Zaitegi) edo eztabaidak (Txillardegí); euskararen inguruko eztabaida-lanak (Lekuona/Mendizabal/Irigoyen; Lekuona/Goitia; Orixe/Txillardegí/Bastarrika).

Gerraurreko belaunaldikoak eta ondorengoak (Txillardegí batez ere) ohartu ziren, nonbait, aldizkari haren inguruan bildutako jendeak oldar berria zekarrenaz eta ez zuten haiek indar gazteak gidatzeko aukera galdu nahi izan. Horregatik heldu ziren, noski (aldizkaria, *Egan* eta *Euzko-Gogo*a-ren ondoan hain apala izanik ere) plaza berrira.

Gerraurreko kultur gizon sagaratuen ondoan (Orixe, Jau-tarkol, Lekuona, etab.), Urrestarazu «Umandi»ren gutunek esanahi berezia dute, Eusko Jaurlaritzaren ondoko gizona baitzen berau (ik. *Jakin*, 8, 1958, 86-92). Umandi presente egona zen, bere lanekin, Arantzazuko eta Pariseko Biltzarreetan, eta bietan ere lanerako *planketak* eskaini nahi izan zituen. Umandiren gutun luzea jakingarria da esta beste tokietatik ezaguna baldin bazaigu ere, interes aproposa du *Jakin*-en irakurleen artera bere asmoak ekarri zituela jakitea:

«Gai bakoitzerako, geron gardiz, oso bearra zaigu neurri-batasuna edo yardun-batasuna eukitzea. Batasun hau, iru gauza auetarako zuzendua izan bear: *Teknika-itzak* (itz berri, geyenak), *esakun bereziak* eta *euskal-kultura osoari buruzko norabidea*» (*Jakin*, 8, 1958, 89. or.).

Mitxelenarentzat ez bezala, Umandiren ustez Olabide eredu bikaina zen lanean hasteko. Honek ikasliburuak prestatzea eskatzen zuen, baina horretarako hiztegi teknikoak alde aurretik landu

ondoren. Gaurkotasunik harrigarriena dute orduko asmoek, nahiz eta Umandik proposatzen eta nahi zituen euskara-moldea eta hizkuntzaren batasun-bidea ez gertatu gero nagusiki jarraitu direnak:

«Teknika-itz bildumak bearrak ditugu: Irakaskintza gai guzietarako; lanbide orotarako; erti ta kulturazko mota danetarako; banaketarako; zuzentzari buruzko guzitarako; jolas eta kiroletarako... Itz batez, biziarekiko den guzirako» (URRES-TARAZU: *Jakin*, 8, 1958, 91. or.).

1959-60etan etena sortzean, ez da zalantzatan jarriko azken helburuen arazoa (hizkuntzari kultur baliagarritasun moderno bat ematea, alegia); eztabaidatuko dena, hori zein ereduren gain egin behar den da (ik. ORIXEren proposamena: *Jakin*, 5, 90-91. or.; 5, 3. eta 97-98. or.).

Aldizkariaren harremanen artean sar dezakegu lehenengo bi urte hauetako eztabaiden arloa ere. Bigarren aletik hasita, bi eztabaidagai ikusten ditugu «Alkar izketa»n: *Aita Gurea*-ren euskal itzulpenarena (Mendizabal/Lekuona/Irigoyen jaunen artekoa) eta urte haietan oso sonatua zen Kristau Ikasbide aleman bati buruzkoa. Nahiko luzatu zen lehenengo hori (*Jakin*, 2, 158-160. or.; 3, 162-170. or.; 4, 70-77. or.; 5, 86-90. or.). Bigarrenean, Berasaluze/Goitia/Lekuonak hartu zuten parte, Imanol Berriatuak itzuli eta Villasantek hitzaurrea eman zion liburu haren inguruan (*Kristiñau Katezismoa*. Itxaropena, Zarauz, 1956. lk. *Jakin*, 2 163-167. or.; 3, 158-160. or. Eta ik. hauek ere: *Egan*, 5-6, 1956, 151-154. or.). Eztabaida hauen artean, ez dira baztertu behar Orixeren ohar laburrak (ik. *Jakin*, 5, 90-93. or.).

Euskararen edo idatz-estiloaren aldetik ezezik, badu interesik aldizkariaren sortzailetako batek, Iñaki Bastarrikak, bostgarren alean Orixe eta Txillardegi jaunei zuzendutako gutun irekiak (*Jakin*, 5, 97-102. or.). «Geiegikeri ote litzake zure arnari aziak gerala aitortzea? Non arki ta gozartu euskalbazka atsegiñagorik?», ziotson Bastarrikak Orixeri. Baina Orixeren obra, ondare handia izateaz gain, etorkizunerako guztien egitasmua zen: «Zugan dugu eredurik bikainena. Zu zaitugu gure asmo ta indarren ats-emalle». (ib., 98. or.).

Txillardegi-rekin ari dela, ostera, *Leturi'aren egunkari ez-kutua*-z eritzi kritiko gogortxoaz agertzeaz aparte, (nobelari etortasuna falta zaio, eta «originaltasuna» mailegatua du) 1900-1937etako literatur belaunaldiaren defentsa egiten du Bastarri-

kak, Txillardegiri eredu haietara itzul dadila eskatuz, aintzinako idazle zaharretara baino areago. Nobelaren harira datorrela, kritikariak nahiago zuen idazlea «gure erriaren barne-arazoetan» ikusi, kanpotiko problematika arrotzetan baino. Modernotasunaren arazoa zalantzatan jartzen zen, itxuraz.

Txillardegik berehala erantzun zuen (*Jakin*, 6, 1958, 85-93; erantzuna: ib., 94-98): «bi muturretan bide-gaude pentsae-raz». Kritikariak bizkarreratu nahi izan dion salakizuna (existentzialista-kutsua, alegia) autorearentzat ez da batere lotsagarri: «Gaurko geran guztiok bazter eta paisaje berberak ikusten ditugu-ta». (ib., 86. or.). Txillardegirentzat, *euskal* gaiak ez dira ipuin zaharrak, laminak, baserria eta horrelakoak bakarrik: hori dena *atal bat* da soilik. «Zuk opa duzun literatura ori ez litzake euskaldun presunena izango, Euskalerriko tipismoarena baizik» (ib., 87. or.). Autoreak oso garbi zeukan hau eta ezin zion amoreman kritikariari:

«Gaurko gaztediaren katramillez mintzatzen da nere Leturia, baiñan euskeraz. Presuna unibersala da Leturia. (...). Euskaldun izateko bizieratik kanpo jokatu bear badugu, oraintxe jo dezakegu euskalduntasuna ildakotzat, (...). Zu, Bastarrika, euskararen eriotzaren bidetik ari zera». (*Jakin*, 6, 1958, 87-88. or.).

Hizkuntzaz diharduela, Txillardegi oso gogor jartzen da eta bortizki erasotzen dio Bastarrikari. Esanak, hitzez hitz batzutan, kidetasunik handiena dute *Jakin*-en joerak aldatzean esango direnekin. Ezin ditu jasan euskal gramatikari egin nahi izan diren trakeskeriak:

«Zuk —eta zu bezelako guziak— euskera il nai duzute. (...). Zuk, Bastarrika, euskeraren eriotza nai duzu oarkabeen, eta bere galeraren bidean barrena zoaz» (*Jakin*, 6, 1958, 89. eta 91. or.).

Sekulako artajorra gramatikala egiten dio Txillardegik Bastarrikari beronen artikuluan, salakuntza batekin bukatuz: Gure idazle klasikoan lana ahanztearen poderioaren poderioz, «garako idazleek» (1900-1937) hondamendia ekarriko diote hizkuntzari:

«Gaur gaurkoz beraz, bi joera dira: euskera egiazkoarena bat, eta «garako» idazle batzuen asmazio egoskaitzetakoa bestea. Eta bi gauza gerta ditezke: edo euskera il auek, edo alderantziz» (ib., 91. or.).

«Zuek lurjotzen ba dezute, euskera salbatu dela esan deza-

kegu; zuek garaituko ba zenute, berriz, egingo luke euskerarenak...» (ib., 93, or.).

Garratz, eta haserre-ziniko batekin, eraman zen eztabaida hura. Agian, ez zen ongi ulertu Txillardegik orduan esandakoa. Ereindako haziak gerotxoago eman zuen fruitua, ez orduan.

### JAKIN, bigarren ekinaldia (1959-61)

1959ko udaberrian, 9. zenbakia «Agur» batekin irekitzen da: Sortzaileak badoaz kanpora eta esku berrietan uzten dute aldizkariaren zuzendaritza. Ale berean zuzendaritzako batek «Illobira bultzaka» artikulua ateratzen du (J. Intxausti). Badirudi, ordurarte urratutako bidean, zerbait aldatzera doala. Ezinegon nabari bat ageri da orrialde horietan.

Aurreko zenbakietan Orixeri eskaini zitzaizkion diosala eta agurren ondoren, bigarren ekinaldi honetako udako alean (1959) «Euskaltzaindiari» egiten zaio men. Euskal hitzen jatortasunari buruzko Euskaltzaindiaren Agiria (Ik. *Eusker*a, IV, 1959, 214-215), erabat onartu nahi du aldizkariak: «zure agiri ori pozgarri izan zaio benetan Yakin'ia». Aurreko hamarkaden ondoko lanen eskarmentuaz honaino iritsi da Euskaltzaindia: *Abendu*, *aingeru*, *alkate*, *amodio*,... euskal hitzak dira, «euskaldunak, jatorrak eta garbiak diralako» (ib., 215. or.).

Aldizkariaren atariko ez zen idatzi asmorik gabe. Egin kontu, 1958ko Abenduan bildu zela Bilbon «Euskalzaleen Biltzarra», hain zuzen batasunari (Gorostiaga, Txillardegik), euskara hurbil biziari (Villasante), euskal lexikoari (A. Irigoyen) eskainia. Hiru urte lehenago Arantzazun emandakoak errepikatuz batzutan, argiagotuz eta indartuz gehienetan, hitzaldi haiek harrearririk onena izango dute *Jakin*-en zuzendariengan. Hizkuntzaren beste maisugo bat agertzen da 1956-59. urteetan: Hizkuntzaren gain lanegiteko erizpideak oinarri berrietan ezarri nahi dira (garbitasunaren kontra usarioa, e.b.); gramatikarien belaunaldi honen maisuak Azkue eta Altube dira, eta ez Arriandiaga edo Olabide.

Bilboko Biltzarre honetan, lexiko mailegatuaren arazoari gain hartuz, euskal gramatikaren funtsezko jatortasunei heldu nahi zitzaien berriz. Horretarako, Txillardegik oinarri horien azalpen xehatu bat egiten du. Biltzarre hau izango da —gutxitan aipatu bada ere— eredu gramatikal modernoaren proposatzailea. Redak-

ziotik, *Jakin* entzule arretatsu bezala azaltzen da (*Jakin*, 11, 1959 (ez 1960), 86-91. or.), hain zuzen Txillardegi eta Villasanteren lanak berezikiago komentatuz. Honela, laster baliagarri izan zitezkeen ereduak begien bistan dauzka aldizkariak.

Aldizkariaren harremanak ugarituz doaz, eta ikusten da lehen orduko asmoek (euskarazko kultur aldizkari bat mamitzea, alegia) jarraikitasun bat izan dezaketela, ez direla lehenengo ekinaldiarekin ito. Hamahirugarren alean egiten da aldizkariaren nondik norakoaren azterketa bat. Inkesta baten bidez ezagutu nahi da ematen den irakurgaiak norainoko bidea egiten duen: Irakurria zen ala ez, zenbaiteraino; zer zen irakurriena, atseginena; zer pentsa hitz teknikoei buruz. Azken puntu hau da idazleak eta irakurleak gehien kezkatzen dituen (*Jakin*, 13, 1960, 80-83. or.). Agirre Lehendakariak ere erantzun zuen eta, eskuizkribuan errakuntzaren batekin honela dio: «Teknika eta kultura hitzak euskeraz sortu behar ditugu, edo kanpokoak ere onartu? *Teknika ta kanpokoak artu bear dira nere ustez*».

Lankideak lehenengo etxe beretsuetatik datoz. Hasitako lana aurrera doa ikastetxe guztietan. Hamargarren alean esaten zaigunez, bederlatzi ordena ezberdinetako jendeak parte hartu du, bere lana ekarriz, 52 idazlek idatzi du, eta berauetatik 16 bakarrik dira Arantzazukoak. Teologia eta Kultura Saila orekatzen ari dira: 63 idazlan handik, 48 bigarrenetik. Bigarren ekinaldi honetan olertria kanpora utzi bada ere, gaien berriztapen bat sumatzen da orrialdeetan: Arteak eta literaturak leku zabalagoa irabazi dute orain: Eliz arkitektura berria, R. Guardini, Oteitza, Ibsen, Haendel, Txejof, Bernanos... Elkarrizketek ez dute baltate galdu, indarberritu egin direla esango luke batek. Ale argitara emandakoetan ezezik, urteroko bileretan ere korrante berritzaile eta urduriak ote datozen errezela daiteke.

### **Bilera berrizatuak**

Hogei lagun bildu ziren, zazpi etxetatik etorriak (1959-iraila-10/11). Zuzendari berrientzat lehen bilera zen hura. Aurreko urteko kezka bere-tsuak agertzen dira. Jakinarrria da, bilera honetan oraindik, Orixe-zaleak nagusitu zirela, eztabaida luzeen ondoren: «Gaurrarte *Yakin*'en agertu izan dan kultur-terminoloji osoa bildu eta Orixe'ri bialtzea» erabaki zen. Orixeek eskaini zezakeen lexikoa eman zen (azkenekoz orduantxe) irten-bide egokientzat. Ez zitzaizkion arau teoriko orokorrak bakarrik eskatzen; erdal hitz bakoitzaren euskal ordezkoa puntuz puntu emateko baizik. Euskal letren aitagoiarengana bezalaxe zuzendu ziren batzarkideak Orixe-

rengana: «euskeraren eta euskal gaztediaren izenean, arren eta arren eskatzen diogu» (*Jakin*, 10, 82. or.).

1959ko bileran beste bi puntu jakingarri ukitu ziren: hileroko kultur orri baten beharra, urtean zehar hain bakan zetozen zenbakien arteko hutsuneak bete zitzaizkien, eta, bigarren, urteroko bilerekin egitura hobea aurkitu beharra. Ondorioz, 1960an berrikuntza aberasgarri zenbait ikusi ahal izango da jakinlarien artean.

*Yakin*. *Yakin'en geigarria*, hau da, redakzioan «jakintxo» deitu izan duguna, 1960an jaio zen. Elkarrizketa-sailaren hedapena izan zen: kultur albisteak, gramatika-erabakiak, idazleen arteko harremanak, etab. izan ziren lau emanalditan agertutako gaiak. Euskal kulturaren albistaria izan zitekeen aldizkari-idea bat zegoen azpitik. Hemen ere Orixek toki zabala izan zuen. Euskal kulturaren aldakuntza baten urte mugaidea gertatutako 1960. hartan, *jakintxok* ere eman zuen editorial gisako idazlan bultzatzailearen bat (J. Intxaustiren *Euskalerritik Europa'ra*, Txillardegik gogoko izan zuena). Orri albistariari segida ematea zaila zen, benetan, han eraldi behar ziren diruengatik ere, eta hasita urte berean hil zen argitalpena.

Une honetan iristen dira zuzendaritzako lanetara baliozko lankide berriak: Santos Beloki, I. Olaberria, J. Laskibar, etab. Bereziki garrantziko izango zen, gero zuzendaritzari segida ere emango zion Joxe Azurmendi (Gandiegaren *Elorri-ri* azken bultzada ematen iharduna (1962) eta geroko *Hitz Berdeak* ordudunik ontzen ari zena). Azurmendik ziurtatu zuen 1959-60etan eman berri zen aldakuntzaren itzulezina.

Jarraikitak hobe eta luzeago izango zuten bilera berriztatuek. Urtean barrena pentsatu behar zen 1960ko bilerari zein edukin eta antolamendu eman (*Jakin*, 10, 85). Behin-behingo irtenbide bat eman zitzaizkien orduan (1960) puntu horiei, frantziskotarren arteko beste bilera bateko hitzaldiez, egitama eratuz. Noraezean, erdaraz ere mintzaldiren bat edo beste onartu beharko zela esaten zuen dei batek (euskarari buruzkoak, noski). Bi helmuga ematen zaizkio 1960ko Bilerari: «1. Eskuarteant ditugun lanak entzun eta eztabaidatu, ta 2. Datozen urteetarako, billera auen erakuntza zeazki erabaki» (ik. aip. deia).

Bilera haien baliagarritasuna oso seriozki balioztatzen zen. Gorpuzkera eta planketa bat eman nahi zitzaizkien. Kultur eragile eta bateratzaile bezala, muntarik handiena ematen zitzaizkien; horregatik, erakundetu egin nahi izan zituen Zuzendaritzak. 1960ko batzar-lagunei arautegia bat aurkeztu zitzaizkien eta horren inguruan egin zen gogoeta berritzaile bat. Ezinbestekoa iruditzen zaigu onartua izan zen arautegia hemen jasotzea, berak adierazten bait digu, beste edozein dokumentuk baino hobeki, asmo hark norantza jo nahi zuten:

#### JAKINLARIEN ARTEKO BILERA- ETA LAN-ARAUTEGIA (1960)

1' Erabakia: Erabaki guziak geienen borondateari (mayoria relativa) dagokionez onartuko dire. Boz emateak geienon borondatearen bidetik lan egiteko asmo sendoa adierazi nai du.

2'gn. Er.: 3'gn. Erabakiaren laguntza eman ez dezakenak edo nai ez duenak aurrez aditzera emango du, ta erabaki-orduan ez du boto erabakigarririk izango.

3'gn. Er.: YAKIN'ek bere batzarkideei laguntza au eskatzen die:

a) *Apaizak*: beren bizi-toki inguruko euskal-berriak beintzat Zuzendaritzara bialtzea: txapelketa, euskal-itzaldi, antzerki-saio, t.a.

b) *Apaizgaitegi ta erlijioso-etxeak* laguntza au agintzen dute orain asten dugun urterako (1960-61):

Beneditarrak ... ..	5 lan
Laterandarrak ... ..	3 lan
Karmeldarrak ... ..	6 lan
Pasiotarrak (Urretxu ta Deustu) ...	6 lan
Prantziskotarrak ... ..	6 lan
Sakramentinoak ... ..	6 lan

Guzira ... .. 32 lan

Lan aukerak Abenduaren, Epaillaren ta Dagonillaren 25'erako bialduko dira Arantzazu'ra. Ale bakoitzerako biña (6 aginduak) edo bana lan bialiko dituzte.

*Erabaki au urtero alda ditek.*

4'gn. Er.: YAKIN'en Zuzendaritzak izendatuko ditu Billera auen egunak, deitzen borondatea, ostatu-erreztasunak, t.a. gogoan dituela.

5'gn. Er.: Billera bakoitza bi egun osokoa (iru gau emen) izango da.

6'gn. Er.: Billera auetara etortzeko bakarkako edo taldekako YAKIN'en Zuzendaritzaren deia bear da. Ta Zuzendaritza onek ikusiko du nortzuei dei-egin.

7'gn. Er.: Apaiz, Apaizgai ta Erlijiosoak ez-ezik, erritar batzuek ere batzarkide izan ditezke.

8'gn. Er.: Euskerak eta euskal-arazoak gizarte-egoerarekin duten zerikusiaz jabeturik, ta auzi aukeriko gure ideiak libertatez ta bildurgabe ager ditzagun, zera erabakitzen da: entzundakoak bear den neurrian ixildu ta espiritu zabalez entzun ez dezakenik ez deitzea.

9'gn. Er.: Erlijioso-etxe ta Apaizgaitegi bakoitzak lan bat egingo du billerarako.

10'gn. Er.: Billera bakoitzeko gaia aurreko batzarrean izendatuko da.

11'gn. Er.: YAKIN'en Zuzendaritzaren eginkizuna izango da:

a) Autatu-gaia zabaldu ta borobiltzea.

b) YAKIN'lari talde bakoitzari, bere eritzia aurrez eskaturik, itzaldi-gaiak banatzea.

12'gn. Er.: Urte-barruan gertakizun bereziren bat jazoko balitz edo eragozpen aurre-ikusigaberik sor baledi, YAKIN'en Zuzendaritzak —Ikastetxeen aolkua aurrean duela— gaia aldi dezake, derizkion erarik egokienean.

13'gn. Er.: Erantzule bat izan dedin ta urteroko lanak egingo direnaren ziurtasunik izan dezagun, etxe bakoitzean YAKIN'lari-buru bat aukeratuko da.

14'gn. Er.: Billerako lankide izendatuek onera etortzeko erarik ez balute, gutxienez astebete aurretik, YAKIN'en Zuzendaritzara bialiko dituzte beren lanak, laburpen bat alboan duela.

15'gn. Er.: Mintzaldien ondoren elkarrizketa bat izango da beti, bakoitzak bere eritzi ta ikuserak argitara ditzan.

16'gn. Er.: Billera auetako lanak YAKIN'en Zuzendaritzaren eskuetan geldituko dire, derizkionerako balia dedin.

17'gn. Er.: Lan auetaz kanpora, YAKIN'en eguneko arazo ta jokabideak aztertzeko elkarrizketa-aldi bat ere izango da.

18'gn. Er.: Erabaki aukeratzeko eskubidea YAKIN'larien urteroko Billera-laguneri bakarrik dagokie.



Lehenengo aldiz, eta batzarkide guztien erabakiz, zazpigarren artikulua expreski irekitzen zizkien bilerarako atea elizgizon ez zirenei (gogoan har Seminarioetako sakabanatzeak urte batzuk gerokoak ditugula). Zortzigarren artikulua adierazten duen beldurra ere azpimarratzekoa da: bilerarik aingeruenak izanik ere, noiznahi etor zitekeen debekuren bat, eta zuhurtzia osoa behar zen hasitako lana aurrera ateratzeko.

Arautegi honen arabera, Bilera haiek aldizkari baten lagunarteko batzarre hutsak izatetik denen arteko istudio-egunak izatera pasatzen dira. Guztiek bizienik sentitzen zituzten kultur arazorik larrienak izan zitezkeen urteroko aztergaiak. Erabaki hauei esker, aldizkaria desagertzen denean ere (1961-64), lagunarte kulturalak eutsi egingo dio bere lanari, geroago aterako dituen liburuen originalak landuz. Urtez urte, lau izango dira aukeratutako gaiak:

1961. *Filosofiairen Kondaira*: Irailaren 12/14ak. (1965ean argitaratua).

1962. *Asaldakuntza* (Iraultza esan nahi zen): Irailaren 10/13ak. Argitaragabea.

1963. *Europa*: Irailaren 11/12ak. (1965ean argitaratua).

1964. *Pacem in Terris*: Argitaragabea.

1960ko Bileraren ondoren erabakimen berri bat ikusten zaio taldeari, bai lanegiteko eta gaiak geroz eta areago sakontzeko, bai sortutako lana euskal gizartera zabaltzeko: 1961eko lehenengo aletik hasita inprimategira eramango da aldizkaria, erabat itxuraldatuta. Bortxatutako isilaldi hartan (1961-64) jende berriak biltzen dira Bilera-ingurura: Paulo Iztueta, Bitor Kapanaga, Rikardo Arregi, Txomin Izagirre, Gurutz Ansola, Karlos Santamaria, etab. Alderantziz, Arantzazukoak bertakoak, beren lanak jendaurrera eraman nahiz, kanpoko aldizkarietara joango dira (e.b., *Egan-en* 1960-63. urteetan hamasei idazlan aurkitzen ditugu Arantzazuko ikasleek izenpetuak).

Lan-gogotan, ahaleginetan eta egintzetan nabarmenki sumatzen da bihurtzea 1960an: Bilerak eta aldizkaria bera ere modu berri batetan agertze hori ez zen kasualitatez gertatu. Horren atari bezala, 1959-60. urteetan izandako eztabaidak daude. Ez goaz hemen eztabaida haren edukina eta zentzua osorik jasotzera, baina premiazkoa gertatzen da biraketa haren bidezidorra (han-hemenka barreiatu zen eztabaidakizuna) eta aldizkariaren barneko bizitzan izan zuen alkantzua laburki azaltzea.

## 1959-1960: biraketa

Euskaltzaindiaren 1959ko Agiriaren aurretik zuzendaritza berriro batek «Illobira bultzaka» idazten du bederatzigarren zenbakian. Urte haietan Villasante eta Txillardegik esandakoen eta aldizkariaren bileretan eztabaidatutakoen giroan ulertu behar da lan hau. Euskaltzaindiaren bi Biltzarreek (1959, 1958), *Euz-*

*ko-Gogo*a-rekin kontrajarrita zegoen *Egan*-ek, aldizkariaren beraren hiru urteko lan elkorrak, guztiak dute eragina artikulur horretan. Ideia berririk baino areago inguruan dabilen euskararen eredu praktikokoago bat jakinlarien lanetan txertatu nahia barruntatzen da. Asmo eta amets hori «ofizialki» zilegiztatzen da aldizkarian, esateko, «garako» deitu idazleen ereduaren kontra: «euskara museo ixil eta otza bihurtzeraz goaz orainarteko bideetatik» (*Jakin*, 9, 1959. 83. or.).

Hizkuntzari bi egiteko nagusi ikusten zitzaizkion artikuluan: komunikazio-balioa eta nazio-balioa. Baina bigarren balio hau gordetzeko ere, praktikan beste hartan oinarritu beharra dago:

«Izkuntza bat gordetzeko, ez dago (...) praktikutasunari begiratzea bezelakorik. (...). Euskera kulturaz bakarrik salba dezakegu. (...). Kultura gabeko izkera illobira doa bear-bearrez. (...). Nolako euskera bear genuke lan ontarako? Ona emen koxka. Gaiak *gaurkoak* eta euskera *errez-errez*a. (...) Badira gerorako lanean ari gerala esaten dutenak ere. Gerorako... emendik 150 urtera izango diren euskaldunentzat... (...). Kultura-praktikutasunak bakarrik salba dezake gure euskera, ta idazkera ulertezin eta nekezak nola emango ote dio praktikutasun hori iltzeaz daukagun izkuntzari? (J. INTXAUSTI, *Jakin*, 9, 84-88. or.).

Piztu zen eztabaida bitxian (Metafisikarik aristoteletarrena tartean zela izan baitzen) ondoko puntu hauek zeuden, itzalpean bizirik edo ohartuki azpimarratuta: Pentsamenduaren modernotasuna edo tradizio eskolastikoari eutsi beharra; gizarte eredu baten beharkizuna (Europa?); hizkuntzaren funtzionaltasuna eta, beraz, idazkera erosoago eta irakurgarriago baten premia; idazle klasikoen ala «garako» lehentasuna; lexiko tekniko baten sor-kuntzarako erizpide zabalago baten premia.

«Illobira bultzaketatik ekinda, berehalako eztabaida-artikulu- luen ondoren finlatu zen, pausoz pauso, jarrera berri bat: *Jakin*-en hamargarren alean aldizkariak onartutzat eman zuen Euskaltzaindiaren agiria (10, 3-4. or.), «gidari zaitugu» esanez hasten zen atariko baten bidez: «batasuna ta gidaritzza bat bear dugu, ta ori zuk [Euskaltzaindiak] bakarrik eman dezaigukezu». Oririk laster eman zuen aburua, bere luma aldizkariz aldizkari eramanez: *Jakin* (11, 82-85), *Karmel* («Euskaltzaindiaren aburua», «Oso astuna» 1959an; «Erri eta populua» 1960an), *Jakin'en geigarria*.

Euskararenak ez-czik, modernotasunaren arazoak ere bere-

hala nabarmendu ziren: gogor eraso zion Orixek Txillardegiren *Peru Leartza'ko-ri*: «Barrenak ez dit agintzen ixillik egotea, liburu onek gaurko gazte-jendearen artean egin dezaken kaltearengatik» (*J. geigarria*, 5-6, 5. or.). Baina belaunaldi berekoak elkartzen ari dira; garai batean Bastarririk eritziak Zaitegiri eskatu zizkion bezala (1. zenb.), berehalaxe Txillardegiri kritika zuzenduz gainera (5. zenb.), Intxaustik Txillardegiri eskatzen dizkio (*Jakin*, 12, 81-86). Bestalde Txillardegiri idazle ereduak izendatzea eskatzen zitzaion, eta, eredu horiek emateaz gain *naturaltasuna* eskatzen zien, bere aldetik, *jakinlariei*. Aldizkariaren hasierako euskal joera aldatu ote zen galdetzean, hau zioen:

- Bai, noski, Aldatu eginda *Yakin* zenbait gauzatan. Euskera batez ere.
- Onerako?
- Bai, uste dut.

Orixeren kezken artean, hizkuntzarena eta pentsamenduarena, biena, nahasten ziren egun haietan (zoritzarrez, idazlearen azken hilabeteak).

«Europear biurtu nai gaitute. Zertan, ordea? Zer eta zerbait eta izatea kentzen ba'ditugu, joan da pertza. (*J. geigarria*, 5-6, 7).

Honela, kontrajarrera hauen artean, hasi ziren kidesun eta sentierak multzokatzen. Txillardegi ez zen Orixerekin gogaide: «Aristoteles'en kontrakoa naizela esateak ez dit lotsarik batere ematen» (*Jakin*, 14, 1961, 52-54. or.).

Pentsamenduari ildo libreagoak urratu nahiz, hizkuntzari eta idazkerari erosotasun egokiagoak sortu guraz, gidaritza berriei esker (Hizkuntza: Mitxelena, Villasante, Txillardegi. Filosofia: modernatasunarekiko grifiaz), Txillardegiren argitasun eta eraginez, eta eguneroko ikasketak erakusten zigutenari erantzunez, *Jakin* eta bere inguruko idazle-kumeak prest zeuden, 1961-63. urteetan, eginkizun irekiago eta atrebentzia handiagoko zeregi-ntetan esku hartzeko.

## 1964-1969: hiri-kulturaren bila

### Sarrera: «Bi urte... eta ba-gera berriz ere»

Horrelaxe hasten da *Jakin* 16.a, 1964eko maiatzean, baimen berriarekin kaleratzean.

Bi urte luze aldizkaririk gabeko haiek! Egia esan, bi urte pasata egon da *Jakin* bere aldizkaririk gabe: zehazki, 1961eko abendutik 1964eko otsailera. Aldizkaririk gabe, baina, zertan esan ere ez, *Jakin* taldeak funtzionatzen jarraitu du, ez da desegin, ez bertan behera hil.

Bi urte horietan bizpahiru frontetan lanegiten du *Jakin* eki-poak.

Hasteko, nahitaezkoa zen aldizkaria erdiestea. 1962an baimena eskatu genuen, eta geroztik Administrazioak jarritako oztopo eta eragozpen guztiak gainditu genituen etsi gabe. (Ikus baimen-gorabeherak *Jakin eta prentsa-legea* sailean).

Bizkitartean, zernahi lanetan murgildurik genbiltzan. Batzuk aipatzeko: urteroko bilkura orokorrekin jarraitu genuen. 1962an L. Villasanteren «Kristau Fedearen Sustraiak. Jainkoa» publikatu genuen; urte horietantxe prestatu genituen inprimategirako «Europa» eta «Filosofiaren Kondaira» liburuak, 1964ean eta 1965ean respective argitara emanak. Eta batez ere azpimarratu nahi duguna, hau da: aldizkariaren faltaz ere ez genion, ekipoz bezala, idazteari uko egin. Arantzazuko *Jakin* eki-poak, Luis Mitxelena eskatuta, *Egan*-en idatziko du urte horietan. 1962an

3 artikulu idazten dituzte J. Intxaustik, J. Azurmendik eta I. Olaberriak. Eta 1963an askoz gehiago: 12 artikulu, hauen artean: J. Azurmendi, P. M. Zabaleta, J. M. Regillaga, P. M. Zabala, J. Intxausti, A. Oiarzabal, J. Arzuaga, J. M. Torrealdei.

Kuriosoa: *Egan*-en idazten duten hauek berauek dira (bat salbu), hurrengo urtean, 1964eko lehen zenbaki berria osorik idazten dutenak.

Zenbaki berriarekin, bi urtetako parentesiaren ondoren, bizi berri eta emankorra hasiko du *Jakin*-ek, 1969ko abuztuan aldizkaria atzera debekatu arte. 1964-1969: 6 urte bakarrik, baina bizi eta aberats gertatuko direnak.

Sei urte horiek bertagotik aztertzeko, 3 aldi bereiziko genituzke, bina urtetako iraupenekoak:

- lehenengoa: 1964-1965, *Jakin* martxan jartzen da.
- bigarrena: 1966-1967, *Jakin*, aldizkaria eta ekipoa, krisian dago.
- hirugarrena: 1968-1969, bide berrian ausartki abiatzen da *Jakin*, aldizkari eta ekipa berriekin.

## 1. JAKIN berriz plazara: 1964-1965

### Zuzendaritza berria

1964eko otsailean, horrenbeste denbora itxaron ondoren, azkenean ustekabeaz bezala harrapatzen ditu jakinlariak aldizkariaren baimenak. Baimena noiz zetorkigukeenik ez, ba, jakin. (Eta, agian, etorriko zenik ere sinesten ez). Dena den, behin baimena eskutan, derrefente batetan antolatzen da lehen zenbakia, maiatzerako. Izan ere, baimenaren egunetik hiru hilabete-reko epearen barruan irten behar zuen aldizkariak kalera, lege-obligazioz. Idazle guztiak, horregatik, Arantzazukoak bertakoak dira, hamaseigarren zenbaki honetan, kanpoko laguntzak antolatzeko ez bait zegoen astirik. (Hurrengo zenbakian, berriz, idazleen jatorria oso bestelakoa da: % 28 bakarrik da Arantzazukoa, eta % 72 handik kanpokoak).

*Jakin*-en hamar urteak zirela eta, Joxe Azurmendik idatzi zuen (10, 1) «irten den bakoitzean berriro sortua» dirudiela

*Jakin*-ek. 1964ean behintzat bai. Ez dira alferrik igaro bi urte aldizkaririk gabe. Tresnarik ezak dakartzan ondorioak, bi mailatan pairatu ditugu bereziki.

*Jakin*-en talde zuzendariaren mailan lehenengo, eta batez ere hortxe beharbada, nabari da problema. *Jakin* «zaharrea» lan egindako bat bakarra dago Arantzazun, Joxe Azurmendi, eta berau ere ez luzarorako. J. M. Zabaleta eta J. M. Torrealdai estudiante gazteek ez dute *Jakin* aldizkariaren esperientziarik ez eskarmenturik. *Jakin*-en barne-tradizioak badu hemen, pertsona aldetik, halako eten (?) bat.

Bi urtetako hutsune honek idazle-mailan ere ekarri du berrikuntzarik. *Jakin*-en idazle-iturria aldatuz doa. Aurrerantzean, apaizgaiek gutxi idatziko dute, beste arrazoi askoren artean, bi hauengatik: batetik, seminarioetako barne-krisiagatik; eta bestetik, aldizkariaren geldiuonearen erruz aldizkariak kontakto eta harreman asko galdu egin dituelako: jendea aldatu egin da eta segidarik ez.

### Idazleak ere berriak

Idazleen aldetik begiratuta, urte hauetako daturik nabarmentena, beraz, Seminarioetako parte-hartzearen gutxitzea izan daiteke. Biderdian dago *Jakin* momentu honetan: Seminarioetako laguntzarik gabe, eta laikoen errelebua oraindik ziurtatu gabe. Horrek egiten du *Jakin* «Arantzazukoegi», J. Azurmendik lehenengo (21, 6) eta Zuzendaritzak berak hurrengo zenbakian (22, 4) aitortzen dutenez. Laikoen pisu espezifikoa gora doa bigarren zenbakitik bertatik hasita: bi urteotan, 1964-1965, idatzi dutenetatik, % 30 Arantzazukoak dira, % 22 bestelako apaiz, fraide zein seminarista, eta % 48 laiko.

### Gaien tratamendua

Azalez, neurritz eta tamainuz, 1961ean inprimategian ateratako aldizkariaren jarraipen hutsa da oraingo hau. Barne-egiturari dagokionez, haatik, tradizio osoarekin hausten du. Ordurarte sailetan banatua izan da beti *Jakin*. Aldi berri honetan, ostera, politika, teologia, kultura, filosofia, hizkuntza, dena nahasian dator, ordenu jakinik gabe.

Gaien aldetik, pasadizioan gaude. *Jakin* «zaharra» orain-

dik presente dago, eta «berria» sortzen ari: hizkuntz eztabaidek (gramatika, ortografia) pisu handia dute oraindik (11 artikulua bi urtetan), nahiz ez luzaroan (1967-1968 urteetan 3 lan baka-ririk daude gai beretaz); teologia eta filosofia moteltzen ari dira. Bestelako jitea hartuz doaz orain lanak: arinagoak, aktua- litateari (politiko nahiz kulturalari) lotuagoak, unean uneko ikasketen inguruan baino idazlearen interesen funtziotan egina- goak, labur esateko.

*Jakin*-ek urte horietan egindako lana ezin dugu hedatsuki azaldu hemen. Bat aipatuko dugu, nabarmena gertatu bait zen. 1965eko urtarrileko zenbakian, «Baiona'ko Biltzarraren Eraba- kiak» publikatzen du *Jakin*-ek. Eta argitara ematearekin batean, erabaki hauek betetzera behartuko ditu bertako idazleak oro:

«Baiona-ko Euskal Idazkaritza-k lan handi bat burutu du. Euskal literaturaren batasunerako urrats luzea. Beharrezkoa. Ondo edo gaizki emana? Ez dugu juzgatzen.

Dena dela, JAKIN-ek erabaki hauek guztiak onartu egiten ditu, eta bete egingo ditu. Beraz, gaurtik aurrera, datorren alean hasita, JAKIN-en lege hauek obligatu egingo dute.

JAKIN-en nahi duenak idatzi dezake, edozein euskalki ta estiloarekin. Baiña, Euskal Idazkaritzak esana JAKIN-ek bete egingo du. Horregatik, JAKIN-era etorriko diren artikulua- k arau horietara lotuko dira. Beraz, JAKIN, gure aldizkarian, idazten duena obligatuta dago lege hoen betetzera.

Hemendik aurrera, nahiz idazleak erabaki hauek gorde ez, eta artikulua- k lege hoiek alde batera utzita igorri, JAKIN-eko zuzendaritzak zuzendu egingo ditu».

Erabakia bete eta betearaziko duen organu bakarra zen ar- tean *Jakin*. Urteen alde atera die beste aldizkariei. Hauxe da askorentzat (eta guretzat) *Jakin*-en meriturik handienetako bat, eta berauxe, ziur, askok sekula barkatuko ez dioten «bekatua».

## 2. JAKIN salmentan: 1966-1967

### 10. urtemuga

Jaiotzatiko zenetik 10 urte betetzen ditu *Jakin*-ek 1966an. Urtemuga hori ospatzeko, zenbaki berezi bat publikatzen dugu koloretan, inprimategia eta dena aldatuz: Arantzazukotik Bil- boko Ellakuriarenera goaz. Gertakari honen kariaz, azaleko

argazkien sistema baztertu, eta Xabier Egañaren marrazkiekin hasten gara, urtero aldatzeko asmoz.

*Jakin*-en hazkuntz krisitzat eman ditzakegu bi urte hauek. Joan Mari Torrealdei eta Joan Joxe Olaberria eta, gero, hau beratu eta Joxe Ramon Beloki dabilta zuzendaritzan.

«Herriarekin bizitzen» hasi da *Jakin*, bere ustez behintzat. Sekula baino argiago ikusten du «herri gizonen», «euskal gazteriarren», «militanteen», «unibertsitarioen», «estudianteen» aldizkaria izan behar duela. Eta momentu horretantxe, hain zuzen, «mundu» horixe da denetan astinduen, politikan (PNV, ETA, Filipismoa, espainolismoa), sozialismoan (experientzia desberdinak), erlijioan (teologia berria, ohitura-aldaketa, seminarioen hustuketa), etab.

Problematika honen aurrean, *Jakin*-en Zuzendaritza desbordaturik aurkitzen da. Ez informaziorik ez formaziorik du aski, krisi honi buru egiteko. Auzipean dugu dena: zuzendaritzaren egitura bezala, aldizkariaren definizioa eta eginkizuna ere. Bere burua kuestionatzen eta formulazio berriaren bila eman ditu *Jakin*-ek bi editorial luze eta bilera orokor oso bat.

## JAKIN «umezurtz»

*Jakin*-ek ez du buruzagitzarik! Hona Zuzendaritzan dabilen jendearen sentiera, edo, nahiago bada, konstatazioa. «Mintza gaitezen klaroki: Gure ustez, JAKIN-ek ez du izan benetako zuzendaritzarik inprentan ateratzen hasi zenetik. Orain hiru urte zen hori! Esateko, herriarekin bizitzen hastean bertan gelditu zen JAKIN umezurtz» (22, 3).

Fraide estudiante gazte batzuzentzat, «katxarro» handiegia zen *Jakin* 1966an: «JAKINek ba du izen bat asko kostata irabazia. Eta ba du bere gain helburu eta konpromixio handi bat Herriarekin» (22, 5). «Izen», «helburu» eta «konpromixio» hauen aurrean guztiz ahul eta indarge ikusten dute beren burua estudiante gazteok: «Gure posibletasunen goitik dagon errebista» (22, 4) da *Jakin*. Exijentziak handiak eta indarrak eskas. Talde zuzendariaren ezina, bateko. Eta besteko, *Jakin*-en helburuen mamitzea dago tartean. «Deszentralizatu» eta «desklerikalizatu» egin nahi da *Jakin*, zuzendaritzan eta aldizkarian. Zuzendaritzako Joan Joxe Olaberriak honela ematen zuen «*Jakin* orain artean eraman dutenen postura aldizkariaren aurrean: Ale-



gia, JAKIN ez dela ia —ez duela izan behar— fraille eta apaizgaien kaseta soillik. Suplentzi-lana izen dela eurena, orain artekoa. Ta, heldu dela ordua, subsidiario eginkizuna esku egokietan uzteko».

Zeintzu ote dira «esku egoki» horiek, Zuzendaritzak berak «prailleen zuzendaritza kaltegarri-edo gertatu zitekeela errebis-tarentzat» pentsatzen duenean?

Ikus dezagun astiroago gertakarien haria.

Ohitura zenez, urtero kolaboratzaileen bilera ospatu ohi zuen *Jakin*-ek. 1967an ere bai, noski. Baina aurten *Jakin* birpentsatzeko gai monografikoarekin bildu zuen jendea Zuzendaritzak. Deiarri erantzunez, talde «polita» biltzen da Oñatiko Bidaurretan irailaren 10ean. Rikardo Arregi eta beste batzuekin mintzatua zen ordurako Zuzendaritza. Biler horretan, talde zuzendariaren postura ez dago «entregismo»tik urruti, amore emanda dago, aldizkaria «esku egokietan» uzteko gertu.

Zuzendaritzan zebilen jendearen azpi-arrazoiak ugariak dira, eta horien artean ez txikiak, inpotentziaren sentimendua, klerikalismoaren konplexua, «politika»ren lilura, arazo pertsonalak, etxebarneko katramilak («gaurdaiño, burukomiñak eta eragozpenak bakarrik sortu dizkigu, bai gure ixtudioetan bai gure bizimoldean» (22, 4) eta zenbait talde politikoren aldetik *Jakin*-ekiko interesa. Bat baino gehiago zebilen artean *Jakin*-ez jabetu nahian, Oñatiko bilkuran antzeman zitekeenez, eta Karlos Santamariak guk baino hobeto zekienez. Azkenean hautatu zen bidea, Zuzendaritza «kolektibo» baten antzekotzat har dezakegu, hots: lehengo zuzendaritzari Redakzio-ekipo eragile bat eranstean zaio, izen eta eginkizun hauekin: Rikardo Arregi (politika jeneralerako), Karlos Santamaria (zientzia eta pentsamendurako), Andoni Lekuona (soziologiarako), Xabier Kintana (biologia eta eboluziorako), Ibon Sarasola (literatura, poesia, zinema eta teatroarako), Jose Antonio Arana (euskal legedi eta kondairarako (25, 62).

### JAKINen eginkizuna

*Jakin*-en krisia, zuzendaritzarena adina da aldizkariarena berarena. Zein da, izan ere, *Jakin* «berria»ren eginkizuna?

10 urte bete ditu, lan handia du eginik, balantze positiboa

du. Baina aurrera begira, zer? Hamargarren urteko zenbaki berezian (21) Joxe Azurmendik egin sarrera komentatuz, R. Arregik Z. *Argia*-tik hiru eginkizun posible seinalatzen dizkio *Jakin*-i (174 zenb.): teologi aldizkaria izan daiteke, edo «euskaldun katoliko pentsamenduaren aldizkaria», edota, hirugarren aukera, «ideialogi guztietako, katoliko ala ez, jendeen arteko elkar izketarako aldizkaria».

Hiru alternatiba hauen aurrean, *Jakin*-ek ez du duda-mudarik: hirugarrena da gurea. Urte osoa igaroko du bere burua alternatiba horren argitan kuestionatzen. Azkenik, irailaren 10ean Oñatiko bileran aurkituriko formulazioarekin konformatzen bide da Zuzendaritza:

- «JAKIN'ek bere ideia bereziekin osaturiko programa serio bat presentatu behar du euskal kultura alorrean. Ez ideia zeharo determinatuekin (ba hau ez litzake posible, ezta komeni ere), baiña bai pentsamentu aski pertsonalekin. Hau guztia sinzeritatean eta egiaki egin ditekian neurrian, noski» (25, 63).
- «Eremu hontan dauka JAKIN'ek ere bere posibilidaderik handiena eta egitekorik premiazkoena: euskaltzaletasunaren une kritiko eta kezkatu huntan batzuen eta besteen lokarri bilakatuko den funtsezko giroa sortzen lan egitean» (25, 62).
- «JAKIN'ek debate edo polemikarako 'tribuna libre' antzeko izan behar du. Izan ere ba dago-ta holako zerbaiten premia egungo euskaltzaleon artean, postura zerratuak alde batera utzi, ta benetako prolemak elkarrekin eta egun argitan dialogatzen hasteko» (25, 62).

Horrela izan nahi du *Jakin*-ek «euskaldunen benetako kultura kaseta» (25, 64) eta «Herriaren iritzia libertatean formatzeko» (25, 62) tresna.

Nola harildu, baina, ideia eta asmo hauek aldizkariaren formula erabilgarri edo operatibo batetan? Horra, jadanik udazkenean, Zuzendari berriak askatu beharko duen korapiloa.

### JAKIN jadanik eritzien plataforma

Ametsak, zalantzak, asmoak, programazio-bilaketek ez diote, halere, lan praktikoari lurrik jan bi urte horietan: 8 zenbaki publikatzen ditugu, 1966an 3 eta 5 hurrengoan. Goitik dabilta asmoak: «Euskal Herriak ezagutu ahal izango du aspaldi amestu

zuen euskal kulturazko agerkaria, gure herriaren pulstua barne-  
tik neurtuko duena» (23, 2). Lan-gogoia ere goitik, urtean 5 zen-  
baki ateratzeko erabakia hartzen bait da, *Jakin*-en historian le-  
hendabizikoz (eta ez luzarorako, tamalez, urtebete soilik iraungo  
bait du erabakiak).

Ikusi dugunez, eritzien plataforma gisako zerbait izan nahi  
zuen *Jakin*-ek bere programazio berrian. Eta, egia esan, dagoe-  
neko bazen izan 1967an bertan. Urte honetakoak dira Rikardo  
Arregiren «Ezker berriak» eta Txillardegiren (Igara) «Sozialis-  
moa modan egon zan» artikulua sonatuak. Gogora ditzagun, baita,  
Rikardo Arregi beraren «Euskaltzaleen Jainkoa ill behar dugu»  
eta Joxe Azurmendiren «Zergatik eta zertarako euskaldun» ar-  
tikuluak ere, eta «Che Guevara»ri eskainitako dossierra. Majo  
astindu zituzten bazterrak denen artean.

Momentuko arazorik bizienak eta larrienak planteatzen dira  
orain *Jakin*-en orrialdeetan, eta gazteen lumarik hoberentxoenen  
bidez: J. San Martin, J. Azurmendi, J. Intxausti, X. Kintana,  
R. Arregi, J. M. Torrealdei, I. Sarasola, R. Saizarbitoria, eta  
beste.

### 3. «Etapari berri baten aurrean»: 1968-1969

#### JAKIN Donostiara

«Etapari berri baten aurrean ikusten dugu geure burua»,  
idazten du 1968ko editorialak (29, 2). Aldi berri bat. Bat gehia-  
go? Berritasunaren kontzientzia hain zoli honek, oraingoan be-  
deren, badu begien bistako frogarik:

- *Jakin* ez da gehiago «ikasleen» aldizkaria. Hasteko, 1967ko  
udazkenean, Joan Mari Torrealdei, Zarautzen irakasle, egi-  
ten da aldizkariaren kargu. *Jakin*-ek lehen aldiz du zuzendari  
iraunkor, ez-estudiante eta (nolabait esan) «profesional» bat.  
Orain, gainera, ez ikasleentzat da bereziki, eta ez ikasleek  
egina. Apaizgaien saialekua zen aldizkari hura definitiboki  
iragana da.
- Lehen aldiz ateratzen da Arantzazutik *Jakin*-en egonlekua.  
Donostian jartzen dugu Redakzioa; Zuzendaritza, lehenengo  
Zarautzen eta gero Tolosan, eta Administrazioa bakarrik  
Arantzazun.

- Lehen aldiz du *Jakin*-ek Redakzio-Kontseilu formalak.
- Aldizkariaren itxura, taxua, presentaera, barne-egitura... dena aldatzen da 1968ko lehen zenbakiarekin. Frantziako *Esprit* aldizkari ezaguna dugu begien aurrean, eredutzat.

Aldakuntza hauek denak *Jakin*-en historialdi berri baten lekuko eta fruitu dira. Adieraz dezagun gauzak nola gertatu ziren gizonen eta projektuen aldetik.

1967ko udazkenean, Joan Mari Torrealdai, *Jakin*-ez arduratzean eta lehen urratsak ematen hastean, zera ikusten du: Oñatiko bilerako Redakzio kolektibo hura «irtenbide» bat izan zela, baina ez «soluzio»; ez zen operatiboa. Ez geunden zeroan, halere. Hor zeuden K. Santamaria, R. Arregi eta beste. Hauei eskerrak, honela osatu zen *Jakin* taldea: Zuzendari: J. M. Torrealdai; Redakzio-buru: K. Santamaria; eta Redakzio-lagun: R. Arregi, Ibon Sarasola, Andoni Lekuona, Andoni Iturria, Ramuntxo Kanblong eta Piarres Xarritton. Idazle-Kontseilu koherente, ireki eta langilea izan nahi zuen honek. Hamabostero edo hilero biltzen zen Donostian. Denborak erakutsi zigun, Kontseilu handi honen barruan, beste Kontseilu txikiago, arinago eta dinamikoago baten premia zuela aldizkariak, eta horrelaxe osatu zen Zuzendariaren, Karlos Santamariaren eta Rikardo Arregiren artean.

Zuzendaritza berri honen lehen bereizgarria, lana da. Ez da barnera begira bizi, ez du bere burua gehiago kuestionatzen. Kultur aldizkari normaldu baten jitea hartu nahi du *Jakin*-ek, eta hala da izan: «laikoa» da idazleen (% 67) eta gaien aldetik, hirian kokatua dago; hona azken urteetako ametsen helmuga.

Kultur indarren eta talde politikoen onarpena gurekin genuen. Ez genuen etiketarik, milagro bat badirudi ere garai haietan. Apoiatu beharra sentitzen zuen askok. Txillardegiren eritzi honekin bat zetozkeen asko: «...gero eta aldizkari gehiago dago euskeraz (...) *Jakin* onena dan ezker, dana dala, denok batez ere «*Jakin*» indartzera joan beharko genuke, nere ustez» (1968-IV-17). Kotsentsu-giro honetan mugitzen ginen. «*Jakin* onena» zenaren usteari eta Alfabetatzearen inguruan mugitzen zen gazteriari esker, harpidedun multzo ederra biltzen dugu: mila bat harpidedunetara iritsi gara (29.aren eta 31-32 zenbaki bikoitzaren 1.200 ale ateratzeraino heldu ginen).

Arrakastaren gakoa, honetan datza: *hazaldi berria, gerraos-*

teko belaunaldia aise identifikatzen da urte hauetan *Jakin*-en egiten diren planteoekin. Bere kezka eta programen plataforma ikusten du hor. Eta izan ere hala zelakoan gaude, egungo egunetik begiratuta ere. Plazara atera zituen gaiek, tonuak, ausardiak, mamitu zituen programek eta proklamek hazaldi berriaren eta R. Arregiren marka daramate.

### «Gaurrari eta herriari lotuak»

Aldi berri honetako lehen editoriala, honela amaitzen da: «Gaurrari eta herriari lotuak egon nahi dugu». Hartzen ditugun jokaeretan bezainbat aukeratzen ditugun gaietan, atxekimendu horixe lortu nahian gabilta.

Formula berriko *Jakin* honen lana, oker handirik gabe esan dezakegu, argitara eman dituen lanen barne-balioagatik baino gehiago, hartu dituen posturengatik eta egin dituen planteoengatik neurtu beharko litzateke. Oraindik gaur egin ohi dugun hainbat planteok ez du orduko «pentsaera» gainditu; eta areago, oraingo ikusmolde askok han dute iturburua.

Rikardo Arregiren etaginez batipat, «danon aurrean eta garbitasun guztiarekin» jokatu behar genuela-eta, hasieratik bertetik ekin genion «pozik... gure asmoen berri» emateari (29, 3). Lehen zenbakiko editorialean berean, hedatsuki azaltzen dugu gure pentsaera politikaz, gizarte-arazoaz, erlijioaz, kulturaz, hizkuntzaz.

Baina *Jakin*-ek, kultur aldizkaria denez, kultur barrutian eduki nahi du intzidentziarik handiena. *Monografia oso bat* ateratzen dugu horretaz (desterruan egina eta barruan osatua), eta editorial antzo ematen dugu gure geure pentsaera. «Kulturgingintzaren planteamenduak» idazlanean ari gara espreski horretaz eta, ez gaitezen hemen luza. Bakar-bakarrik, hiruzpalau kontzeptu azpimarratu nahi ditugu, gure historialdi hau, eta agian euskal kulturaren geroko zenbait bide, ulerterrazago gerta dakizkigun.

Hitz gakoak, «planifikazioa» eta «profesionaltasuna» dira, gerora bide luzea egingo duten kontzeptuak biak. Amateurismoaren eta espontaneismoaren aurka, jende profesionala, «liberatu», «espezializatu» behar du euskal kulturak. «Gure kulturaren dena egiteko hutsa, guztia 'eginkizun'» (34, 2) bait da. Horregatixe, planketa bat sortzeko, programa egiteko ordua heldu da. Programazio honek hainbat kultur-talde begiratzen du: Eus-

kaltzaindia, Idazleen Elkarte, Ikastolak, Alfabetatzea, Argitaldariak...

Garai (eta editorial) honetakoak dira, baita, euskal kulturaren aurrerazaletasunaren eta radikaltasunaren teorizazioa, eta euskal kultura ukazio (agonia) bezala ulertzea ere: «Euskal kulturak, afirmazioa den ukazioa du sustraitzat. Horregatik bere egitekoa, kontrajartzea izanen da: erakundeei, herria; kultura filisteoari, kultura iraulgilea; kultura aristokratikoari, kultura herrikoia» (34, 4).

«Leit-motiv» gisako kontzeptu hauekin operatzen dugu urte hauetan *Jakin*-en. Aldizkarian eta bestela. Aldizkaritik kanpo ere bai, zeren talde-zuzendariaren ekina ez bait zen aldizkarian agortzen; Euskal kultura animatzeko bestelako lanik eta proiekturik ere gauzatzen bait genuen. Bi gogoratu nahi genituzke bereziki: bata, E.I.E. (Euskal Idazleen Elkarte) sortu aurretik, Idazleen Elkarte bat sortzeko aurreprojetua mamitu zuen Rikardok *Jakin*-en, «ertsiegia» zela eta, bazterreratu genuena; eta bigarrena, hementxe pentsatu genuen «Que sais-je» delakoaren antzeko projektua euskaraz, geroago *Lur* argialetxe sortu berrian gauzatu nahi izan zena.

1968-1969 urteetako zazpi zenbakietako gaien azterketak ez du aldarrikaturiko asmoen egokitasuna eta bidea gezurtatzen. Monografiaren tituluak lekuko: «Jakintza berria» (Linguistika, Aljebra, Estrukturalismoa), «Euskal Herriko iru hereje» (Baroja, Unamuno, Salaberria), «Euskera idatziaren batasuna» (Ermuako Biltzarrea), «Lehen Karlistada», «Euskal kultura», «Gaurko pentsalari bat» (Marcuse). Beste lau monografia ere martxan genituen: «Ipar Euskal Herria» (gero «Jakin Sorta»n aterea), «Europa», «Jainkoaren heriotza», «Medikuntza».

Eta halako batean, heriotza. Bi heriotza izan ditu *Jakin*-ek 1969an. Bata, Rikardo Arregirena, uztailearen 10ean, bide-istri-puz; eta bigarrena, aldizkariarena berarena, abuztuaren 29ko debekuz.

«Gaurrari eta herriari lotua» bizi nahi izan zuen *Jakin*-ek. Eta lortu zuelakoan gaude. Atxekimendu horrek ekarri dio arrakasta (euskal kulturari) eta heriotza (Madrilen). Autozentsura ez da aski izan, hikuntza «eliptikoak» ez du Administrazioa engainatu, Marcuse bere izenez aipatu ordez zenbaki osoan «M.» jartzeak ere ez.

## 1970-1976: normalizazio-bidetan

Debekuaren (1969) kontrako gorabide guztiak agortu zirenetik (1970, ekaina), *Jakin*-ek galdu du bere legezko aldizkaritasuna. Lan-planketa birpentsatu eta birmoldatu egin behar du, beraz. Egoera hau ez zen, ordea, lehenengo aldiz ezartzen ziztaiona: 1961-64etako lanak ere irakas zezakeen zerbit. Orduan bezalatsu, liburu eta bilerak landuko ote zituen, orain?

Urteen joanak, ordea, bere bidea eginda zeukan eta 1969-70etako egokiera kulturala ez zen, noski, bospasei urte lehenagokoa. Euskal Herrian, aldakuntza handiko urteak izan ziren 1964-70etako garai haiek. Jakinlari zaharretatik zenbait hasi da Unibertsitateetik itzultzen, eta eskakizun berriak dakartza. Bestalde, 1964-69etan aldizkaria komentuetxeetatik at hain egokiro kaletartu duen taldea Unibertsitateetara doa (Euskal Herritik kanpora) edo beste kultur ekintzetara sakabanatzen da. Ez da legezko aldaketa bakarrik, ba, beste baldintza asko eta garrantzizkoak dira aldatu direnak. Torrealdairen inguruan bildu ziren redakzioko lagunek (asmo berrien mintegi emankorra benetan), beste kokalekuak topatu dituzte. Kultur aniztasun zabalago batean lekutu behar zen *Jakin*-en inguruan egin zitekeen lana.

### Kojuntura berria

Argitaletxe berrien garaia da hau: *Gordailu* (1968-69), *Lur* (1969), *Irakur Sail* (1970), *Etor* (1970), *Gero* (1973), *Karda-*

*beraz* (1974), *Auspoa* (1961. Berrikuntza: 1975), etab. Joseba Intxaustik hartzen du aldizkari zenaren ardura; baina redakzio-lagunik gabe dago eta gainera, ez zituen ezagutzen apenas, aurreko aldiari lan egin zuten asko: Kintana eta Sarasola, e.b. Bestalde, ez dago eta ez da nahi seminarioetara itzultzerik: desagertu dira gazte jendez betetako seminario haiek; eliz ikastetxeetan gelditzen direnentxoak ez dira gai, ez dute adorerik, hiltzear zegoen *Jakin*-en asmoa indarberritzeko. Hala ere, multzo txiki batek erantzun ederra eman zuen (I. Beristain, J. Arregi, K. Ajouria, etab.). Hauetatik batzuk urteetan zehar luzatuko dute beren lankidetzak: J. J. Iturrioz, J. A. Aduriz, J. A. Agirretxe, J. Odriozola, etab.

Euskal kulturaren mundutxoa politikaren zurrunbiloan atzema izan da ongi, Burgosko Auziaren egunak dira. Frankismoa aurrez aurre genuen; zein ihesi, zein espetxean. Alderdi eta talde politikoen arteko ezinikusiak, errezelua, higuina, jabetu dira kulturaren lanekin nahi duten gazteen buru-bihotzez. Ideologi borrokak latzak izango dira orduantxe eta 1970. eta 1970. urteetan.

Torrealdak berak hasten du bide berria: aldizkaria ezin bada, aldizkari-liburua egingo da. Horrelaxe jaio zen *Ipar Euskal Herria* (1969). Halabeharrak akuilaturik eta 1964.aren aurretik egindakoari begiraturaz, aurkitu da lanari jarraitasuna emateko ekinbidea. Askoren lankidetzan burututako obrak eskainiko zaizkie harpidedunei. Formula honek badu alde txar bat (bizitasuna eta komunika-erraztasuna galdu egiten dira), baina gaien sakontasunak irabazi egin dezake. Azterketa monografikoa indarturik irteten da. Euskal kulturari beti ezarritako sapaia apalaren pean izanik ere, aukera bat zegoen euskarazko kulturari, edukinaren aldetik, gorakada berria emateko. Izan ere, jakinlariak ere heldutasun hobea gozatu zuten (heldutasun erlatiboa, noski). Lan beretsuan ari ziren editorial gazteak ere; elkarren lehia ere egin behar zen lan, eta, lehiaketaren barnean, *Jakin*-ek ere bere toki propioa bilatu nahirik saiatu behar zuten.

1960tik aurrera ahaleginik franko egin zuen euskararen batasunari bidea urratzeko; baina Arantzazuko Biltzarrearen ondoren (1968) betekizun horren eragile-ardura Euskaltzaindiak bere eskuetan hartu zuen, eta, alde horretatik, aski zen ordudunik aintzina Akademiaren urratsak jarraitzea. Hori izan da *Jakin*-en batasun-politika.



Kasik sinbolikoak gertatzen dira egun haietan *Jakin Sorta*-rako programaturik eman ziren lehenengo bi aleak: bi hildakori eskainitako liburuak. Lehenik, aspaldidanik Euskal Herritik urrun bizi zen olerkari bat, *Salbatore Mitxelena*, jakinlarietzat beren aurreko ahots poetiko bat izandakoa. Kontrastez, *Rikardo Arregi*, aldizkariaren aurreko isilalditik hasita, 1965-69etan redakzioan ere hain presente egon zen gizona. Biak ziren hiltze-erriak; Rikardoren hutsunea laster sentitu zen euskal kulturari, eta *Jakin*-en ere, batez ere heriotza haren eta debekuaren ondoko sakabanatzean. Torrealde bere ikasketak egitera joatean (1970), oraindik labetik atera gabeko opila da *Rikardo Arregi*, eta une batean inork ez daki zein irtenbide aurkituko zaion *Jakin*-en tradizioari.

### Egiteko berriak eta itzarokizunak

Momentu honetan argitalpenetarako banaketa bat egin zen, bi bilduma ezberdinetan: lankidegoan egindako lanak, *Jakin Sorta*; eta *Jakin Liburu Sorta*, beste editorialetako (Lur, Gero, etab.) saio-liburuaren antzera. Azkeneko honetaz ez dugu inolako berriematerik egingo, baina interesgarri da jakitea, erdizka bete izan zen asmoa oso zabala zela, hiru sailetan banatu eta bakoi-tzak bere zuzendaria zuela: 1) *Gogoeta*, 2) *Historia*, 3) *Gizartea*. Baina hildako aldizkariaren segida, esan bezala, *Jakin Sorta* deituriko bilduman daukagu.

Dena den, itzaropidea galdu aurretik, Madrilen azken ahalegin bat egitea erabaki zen, berriz ere aldizkaritasuna irabazi nahiz (1971). Karlos Santamariaren laguntza baliosarekin, Valle de los Caídos-eraino iritsi behar izan genuen. Hango Abata donostiarra zen, Luis M. Lojendio jauna. Ondoren Ministraritzabarneko bulegoetara, S. Begiristainen babesarekin goragokoengandik zerbait lortzeko asmoz. Ez alferrik: ez ziren samurtu. Izan ez ginenok izaten jarraitu beharko genuen... Legeak eta lege-gordetzailiek ez zioten *Jakin*-i lana batere erraztu.

Aldizkari-liburuak eta saio-liburuak argitara ematen hasi orduko (1969-71), berehala ikusten da ez dela bidea hain laua. Norberaren lana ez kobratu arren, harpidedunek ezin zuten jasan ezartzen zitzaizkien zama. Aldizkariak 150 pezetako harpidetza baldin bazuen, orain —liburuetan sarturik— urtekoa 800/1000 pezeta kostatzen zitzaizkien. Eta, gainera, gutxi gorabehera betiko

(hiztegi, oinarritzko obra, etab.) bestelako irtenbide bat bilatu behar zitzairen: behin eta berriz aipatzen zen talde adituen premia (1971-73).

Aldizkari-liburuei halako egin-bizkortasun bat ematearren, bizitokiz Tolosara aldatu zen zuzendaritza (1971-urtarrila-20), hurrengo urteko udazkenean (1972-iraila-27) bulego bat eratuz. Une horretan jaiotzen da, borondatezko baina egunerokoa eta iraunkorra izan den lankidetzat: lehenik Arantxa Larrearena (1971-75) eta gero Pili eta Mila Larrearena (1972tik gaurdaino). Laguntza horrekin, eta unean uneko beste askoren bulego-lan eskuzabalekin egiten da urte hauetako *Jakin*-en lana.

*Jakin* liburu-aldizkariaren redakzio finkoa, ostera, ez da bapatean elkartzen, urteak iragan ziren guztiak aterpe berean bildu arte (ik. ondoko laukia).

Oinarritzko obren asmo handia izan zen gehien atzeratu zena (hau da, orain UZEIren inguruan ikusten dena), izan ere ez bait zen erraza ideia haren formulazio juridikoa aurkitu, euskal kultur taldeei eskaini eta asmoa obratzeko bideetan jartzea. Formulazio juridikoak hilabete luzeak eraman zituen, agian aldizkari oraindik debekatuarena eta beste elkargo baten ideia nahasi egiten zirelako (1976). Aldizkariak bere legezko irtenbidea garbitu zuenean (1977), beste bigarren lan haietarako ideia instituzionala eta soziala lantzea errazagoa gertatu zen: hizkuntzaren normalizazio-planketa ahalik jende gehienaren onarpenez egin behar zenez, lantalde guztiei sarbidea irekiko zien erakundea moldatu behar zen, ez gurea bezalako talde txiki bati zegokiona. Horrela, irabazten irten ziren aldizkariaren egitekoa (1976), eta oinarritzko obren beste plangintza (1977-abuztua). Banaketa honek *Jakin* aldizkari-taldea murriztu eta mugatu badu ere, erosotasun berria ekarri diete (gure aldizkariari eta denon normalizazioari) lan-berezkuntzak eta erantzunkizunen independentziak.

Aldizkariaren ondoan sortutako beste ekintzak aipatu baldin baditugu ere (haren fruitu ere izan direlako, noski), itzul gaitzen urte hauetako aldizkari-liburura.

### **Liburu-aldizkaria: JAKIN SORTA**

Aldizkariaren ordeko bilduma honek hamar ale argitaratu zituen eta hiru zuzendari izan zituen (J. M. Torrealdei, J. In-

txausti eta P. Agirrebaltzategi). Oro har, liburuskak baino liburuak areago ziren: orotara 1.928 orrialde.

Aldi honetako lanetan Iparraldearen kezka eta ardura oso nabari da *Jakin-en* lanetan, *Ipar Euskal Herria* da, agian, taldean lan eginez eta belaunaldi gazteari zuzenduta, Iparraldeaz mintzatu zen lehenengo obra. Gure argitalpenen artean tradizio txiki baten ataria da. Bidasoaz haraindiko literaturari toki zabala eman zitzaion: Axular (hiztegia, biografia), Tartas, pastoralak aldizkariaren azken aldian bi zenbaki Iparraldeari eskainiak, 9-10. *Kristau Ikasbidea-n* ere hango euskalkiak expreski hartzen ziren gogotan.

Hiru aldizkari-liburutan egokitzen da erlijio-kezka: *Kultura eta Fedea* (1971), *Erljioa hauzipean* (1971) eta *Marx eta Jesus Europan* (1975). Lehenengo bietan liburu bakarrerako pentsatu zena, bitan eman behar izan zen, lankideak emankorregi gertatu bait ziren. Ausartzia piska batekin, esan ere esan liteke: lehenengo saio hartan eman zenaren seriotasuna eta lankide haien lan-kalitatea, hamar urte geroago, ez da oraindik euskaraz emandako erlijio-pentsamenduan haragotu. *Jakin-en* lana beste bide-tatik eraman behar zelako, puntu hartan geratu zen orduan hasitakoa.

Garai hartan, gaurregun baino minberago zegoen erlijio-arazoa gure artean, eta ikastolaren inguruan batez ere. Hauxe bait zen euskal kulturaren ingurumen biziena, gatazkarik larrienak bere baitan biltzen zituena (erlijioa, politika...). Borroka eta etsaigorik minduenak ikastolaren ingurura biltzen ziren orduan: Une batzuetan elkarrizketa ez-zezik, elkarrekin bizitzea ere ongi zaila zen orduantxe. Hamaikatxo joan-etorri kostatako liburu-aldizkaria izan zen *Gure Ikastola* (1972). Ustez, garaiko talde eta taldexken gainetik joera ezberdin eta kontrajarriak bildu nahi izan zituenez, oihartzun zabal xamarra izan zezakeen; baina, lehiakide bakoitza ondokoaren alboan agertzen zenez, nahiago izan zuen jendeak, liburua gehiegi ez zabaldu. Aurrez aurre genuenaren arrazoiak ere entzungarriak izan zitezkeela pentsatzeko arriskutik urrun gelditu nahiz ote?

Eta irakaskuntzatik, lantegi eta ekonomiara: *Kooperatibak* (1973). Geroztik ezagutu dugun baretasun eta patxadarik ez zuen orduan honek ere. Kontrajarpen eta oposizio ideologikoa oso bizirik agertzen zen: lankide batzuek ez ziren ausartu lanak beren izen-deituraz izenpetzen ere. Ia berrehun orrialdeko liburutxo hau

da, dakigunez, euskaraz kooperatibei buruz elkar-lanean idatzi den bakarra.

Aldizkari-liburuetan maiteena izan duguna beste bat izan da: *Lur eta Gizon, Euskal Herria* (1974). Lanak eman eta izerdiak atera arazi zituen honetxek. Urte t'erdi luzea ibili behar izan zuen zuzendaritzak lankide beti atzeratuen bila. Liburua, hala ere, ez zen osoa eta konplutua irten, baina Euskal Herria bere osotasunean ezagutzeko eskuliburu egoki bezala geratu da, beharbada: llaburra, trinkoa, ordenatua, argia.

(*Jakin Sorta* honetan atzeko atetik, hau da argitalpen-moldeak bortxatuta, sartu zitzaigun obra bat aipatu behar da: Txillardegiren *Euskara batua zertan den*, 1974).

### Alborako eta gorako lanak

Aldizkari-liburuaz eta beronen ondoko liburuen argitalpenaz aparte, *Jakin* taldeak zenbait alboko zeregin hartu zituen, geroenean bereganatzeko asmorik gabekoak. Izan ere —egokiera nagusi—, urte hauetan gisa berri batez eratzen ari zen taldeak, egiteko batzuk —bere gain hartu arren, momentuz— ez bait zituen *luzarorako* bere asmoen artekotzat eman.

Horrelakotzat dauzkagu, *Anaitasuna*-n eta UZEIn egin dugun lana eta, uneren batetan, jakinariren baten ardulararitza. *Anaitasuna*-tik laguntza eskatu zitzaigun, eta J. Intxausti eta Pello Ezeiza egin ziren zuzendaritzaren kargu (1973), lehenengo, eta J. M. Torrealdai berehala (1974-77). Aldizkaria berriz ere bide-raturik ikusi zenean, geure betiko lanetara itzuli ginen, *Anaitasuna*-k beti ere bere bide propioa behar zuela uste izanik. Uneko beharrianak tarteko, halaxe suertatu zelako egindako lana izan zen hau, gehienbat.

1977ko lehen hilabeteetan, aldizkaria berriro ere legezatu eta kalera atera orduko, redakzioak beste arritalpe- eta talde-lanei begiratu, zenbait galdera ditu erantzuteko: a) Nola eman-go zitzaien jarraitasuna Unibertsitaterako eta normalizaziorako asmo zaharrei? b) Zer zegoen hor *Jakin* taldeak bere gain har zezakeenik edota besteren eskutara pasa behar zenik?: Geurea, noski, *Jakin* aldizkariaren lana zen, hori zen gurea; gainerako asmo handia (lexiko-normalizazioa, Unibertsitatea) bide eta esku berrietan jarri behar zen.

Idea berria obragarri egiteko baldintzak landu ziren: a) Helburuak mugatu, b) planketa bat landu, c) erakundeari bere giza-ahalbideak bilatu, d) oinarri ekonomikoak eman, e) lan-prozedura sozialak asmatu. Horrela jaio zen UZEIren asmoa, geroztik bere bide autonomia eta beregaina duena. Esan liteke, *Jakin* bere iturburuetara itzuli zen: aldizkaria zen (1977), eta horrela, horren inguruan, sor zitezkeen kultur lan-molde berriak; baina normalizazio-eginkizunen buruhausteak beste eskuetara joan dira, eta Unibertsitateko textuliburuaren eginkizunak ere bai. UZEI bultzatzeko, beste taldeekin batera eman ditugun ahaleginek, hein batetan *Jakin*-ena bera murriztu egin dute; baina, uste dugunez, zeregin haietatik arinduta gaudenez, aldizkariaren barnea eta ingurua aberastu beharko da orain definizio berrien laguntzaz.

## **1977-1981: kultur aldizkaria**

*Jakin*-en historiako epe honen berri emateko, hiru atali begiratuko diogu: *Jakin* berriro sortu zeneko kultur giroa; *Jakin*-en jaiotzako asmoak; *Jakin*-en azterketa.

### **1. Euskal kulturaren 1976ko giroa eta JAKINen birjaiotza**

#### **1976ko euskal kultur giroa**

Franco hil ondoren (1975-11-20) eta monarkiarenpean erreforma politikoaren zantzuak sumatu orduko, euskal kulturaren berpizkunde kanpaiak jo zuen. Lehenagoko diktadura gogorrean erdi klandestinitatean bizi zen kultura, errautsetatik sugar bizitan biztera zihoala zirudien.

1976.urtea «Euskal kazetaritzaren urtea» bataiatu zuen *Zeruko Argia*-k (ikus 699 z., 1976, 3. or.). Euskal aldizkari garrantzizkoenak azal eta barne berritu ziren. *Goiz-Argi*-k egin zuen aurrena (267 z., azaroak 15, 1975). *Zeruko Argia*-k eta *Anaitasuna*-k elkarrekin egin zuten berrikuntza hori, 1976ko beren lehen zenbakiarekin.

Esperantza beraren eraginez indartzen dira Alfabetatze eta Euskalduntze Kanpainak. Ikastolak izugarri ugaltzen dira. Askatasuna eta amnistia oihukatuz, erdi meeting erdi jaialdi ziren

kantaldi haietara iritsi ezinik, zoratu beharrean dabilta kantariak Euskal Herriko zoko guztietan barrena.

Amnistia esijitzen eta borroka politikoaren ohitura berriak estreinatzen diren bitartean, euskal ikuspegiz egindako erdal prentsaren beharra sumatzen da. Zulo hauxe bete nahiez sortzen dira 1976an hiru aldizkari: apirilean, *Punto y Hora de Euskal Herria*; irailean, *Garaia* (Foruen deuseztapenaren lehen men-deurrena ospatuz, 0 zenbakia uztailaren 21ean atera zuen) eta *Berriak*.

Politika mailako berriztapenarekin batera, kultur mailakoa nabari da. Epe berriaren atarian dakus bere burua euskal kulturako militanteak. Hara nola deskribatzen dituen *Anaitasuna*-k goizalba argitsu horren seinaleak:

«Etokizun berri baten lehen egunetan ote gaude? Berritu nahia bazter guztietan, nabari da, batez ere, politikan nabarmentzen delarik. Iragana —hurbila, berrogei urtekoa; edo luzeagoa, ehun urtekoa— likidatu nahian dabil jendea. Iraganaren semea baino gehiago etorkizunaren aita izanen den hazaldi berri bat izan nahi du gaurkoak. Azken ehun urteotako ilunpetik atera berri gara» (ikus 310 z., 1976, 3 or.).

Euforia politiko hari hegoak mozteko motiborik ez zen falta. Martxoaren 3ko Gasteizko hilketak, Montejurrako maiatzaren 9koak, amnistiaren aldeko borroketan egurtuak, zaurituak eta balaz hildakoak, eskuin inkontrolatuaren azioak, torturak, hila-bete haietako gertakari aski ilun eta egiatzko ziren, demokrazia politiko formalaren beraren ibilaldia ere ez zela samurra izango antzemateko.

Kultur mailan, sekulako oihartzuna izan zuen martxoaren 27ko «24 orduak euskaraz» ekintzak. Herri Irratiak antolatatu zuten, eta euskal kulturaren inguruan hain zuzen.

Borroka politiko eta kultural honek herri euskalduna du ametsetan lehenik. Berrito *Anaitasuna*-k:

«ALFABETATZEN eta EUSKALDUNTZEN oldea Euskal Herri berria sortzen ari da; eta Euskal Herri berri hori derrigorrez izango da Euskal Herri ikasia. Euskaldun berri eta ikasiena da hein handi batetan, Euskal Herriaren etorkizuna» (ikus 311 z., 1976, 3 or.).

Euskal kulturarentzat pozgarri eta animatzailea izan zen Euskaltzaindiaren onarpen ofiziala (1976-2-26). Euskararen ba-

tasunaren eta indartzearen gidari eta aitzindari ikusten zen erakunde hori euskal kulturaren, gutxiengo eskas baten aldetik izan ezik.

Adolfo Suárez-ek *Paris-Match*-eko kazetariari egin omen zion deklarapen xeblere hura —«Euskaraz ez dago fisika nuklearra ematerik»—, iraintzat jo zuen euskal kultur jendeak. Estilo guztietako erantzun bikainik eman zitzaion, merezi bezalaxe. Ez zen txarrena izan Arantzadiko talde batek *Jakin*-en gidaritzapean atera zuen *Natur zientziak*. *Hiztegia* muturren aurrean jartzea Suárez-i eta honen kidekoei.

Giro honen galgatan, kultur aldizkariak ere beren eupada bota nahi izan zuten. *Elhuyar*-ek, 1974ko irailean sorturik, zientzi arloa hautatu zuen. Baionako *Zabal* inprimategiz ateratzen hasi zen (ikus 17 z. 1976). Eta hurrengo urtetik, *Zehatz* izenez Donostian bi hilabetekari bezala plazaratzeko erabaki ausarta hartu zuen, «gazeta zientifiko», «gizarte zientzien aldizkari», «formazio sozialaren azterketa berezitua», «euskal populuaeren eta, bereziki, proletargoaren aldeko burruka teorikoan interbentzio tresna» izateko asmoz (ikus *Zehatz* 1, 1977, aurkezpena).

## JAKINen birjaiotza

Gauzak horrela, bidezkoa zen *Jakin*-ek ere bere jatorrizko bokazioari jarraitu nahi izatea.

«*Jakin* taldeak» laister hartu zuen aldizkaria berriro ateratzeko asmoa. 1975eko eguberrietan jadanik, abenduaren 26an egindako bileran, aldizkaria ateratzea erabaki zen. Aldizkariak urratu beharko lukeen bideak nondik norakoa beharko lukeen zehazten ari ginen bitartean, arazoa aski heldua ikusi genuen *Jakin*-en berragertzearen albistea zabaltzeko. «Iturri onetik jakin izan dugunez, JAKIN aldizkaria ere ba dator, hutsune bat betetzeko asmoz», deklaratu zuen *Anaitasuna*-k otsaileko lehen zenbakiko editorialean (ikus 310 z., 1976, 3 or.).

1976ko udazkenean —juxtu jaio eta 20 urtetara— plazaratzerik izango zuela uste genuen aldizkariak. Baina legezko baimena lortzeko orduan, ustekabeko eragozpen berriak sortu ziren. Aldizkariaren halako premia ikusirik, *Jakin* izenez ezinezko bazitzaigun, beste izen batez kaleratzeko posibilitatea bera ere aztertu genuen. 1977ra arte ez zuen irteterik izan *Jakin*-ek.



## JAKIN, bere projektua lantzen

1975eko abenduaren 26an *Jakin* berragertzeko erabakia hartu baino lehenago ere, helburu hori ez zegoen ahaztuta jakindarren artean. 1975eko udaberrian egin bilera batetan aztertu zen kaleratzeko posibilitaterik ba ote zegoen. Joan Mari Torrealdaire eman zitzaion aldizkari hipotetiko horren projektua landuz joateko egitekoa.

Honek, bere ikasketei azken ukitua emateko Parisko egonaldia aprobeztatuz, maiatzean eta ekainean, barnetik ikusi nahi izan zuen Frantziako aldizkari inportante batzuen funtzionamendua. *Etudes*, *Projet*, *Esprit* eta *Presse-Actualité*-ko zuzendaritzekin hizketatu zen. Lehen eskuko informazio oso baliosoa jaso zuen. Aldizkari bakoitzaren barneko organigrama, zuzendariaren eta redakzioaren egitekoak, talde ideologiko eta politikoekiko lotura, pentsaera, zentsura, rewriting, artikulua lortzeko bidea, aldizkaria finantziatzeko ere, publikitate, eta beste hainbat arazo jakingarriri buruzko datuak bildu zituen.

Informazio guzti honetaz baliatuz, esan bezala, 1975eko Eguberrietan *Jakin* plazaratzeko asmoa hartu zenean, Torrealdaik galdeketa bat prestatu zuen, 1976ko urtarrilaren 11n, aldizkariaren projektuari, redakzio-lagunen egitekoari etabarri buruz. Galdeketa hartako 15 galderen inguruan, bilkura luze bat egin zuen «*Jakin taldeak*» 1976ko urtarrilaren 24ean.

Projektua hobeto lantzeko, galdeketa bat bidali zitzairen 14 euskal kultur laguni. Aldizkariaren neurriak (luze-zabalean eta orrialdetan), gai-moeta, tratamendua, aldizkariaren irakurlearen erretratua, barne-egitura, monografi sistema, maiztasuna etabarren eritzia eskatzen zitzairen. 12 erantzun jaso genituen. Lauk (Mikel Lasa, Xabier Apaolaza, Manex Erdozaincy eta Paulo Iztuetak) mintzatuz eman zuten beren eritzia. Zortzik (Ibon Sarasola, Andoni Sagarna, Jose Ramon Beloki, Ramuntxo Kanblong, Jose Luis Lizundia, Juan San Martin, Karlos Santamaria eta Beñat Arrizabalagak) idatziz egin zuten.

Informazio eta eritzi guztiokin, eta beste hizkuntzetako aldizkariak aztertuz jasotakoarekin, 1976an egin bileretan erabakiak lantzen hasi zen redakzioa. Neurriak, azala, aldizkariaren sailak, hauen izenburuak, monografi sistema, zabalkundea, finantziaketa, publikitate, lehen zenbakietako gaiak eta beste mila zehaztasun finkatu eta erabaki arte.

## 2. JAKINen asmoak

Begira dezagun nola ikusten zuen *Jakin*-ek bere burua birjaio zenean.

### Non kokatzen da JAKIN?

«Liburuen eta astekarien arteko hutsune bat betetzera» zertorrela uste zuen *Jakin*-ek (ikus 1, 1977, 3). Zuzendariak berak adierazten zion luzeago *Zeruko Argia*-ri:

«Euskal Herriko kulturaren mugimenduak behar duen dinamika eta bizitasuna aditzera emateko, liburua ez da gauza... Geldiegia, astunegia, indibidualgia da aldizkariaren dinamika-rekin aldezturik. Eta gaien eta ikuspegien pluraltasunagatik ere, liburua baino aberatsagoa, irekiagoa, biziagoa da aldizkaria.

Astekariak ere, ezin dio berak bakarrik herri baten kultur mugimenduari erantzun bidezkorik eman. Arinegia, gertakari igarokorrari lotuegia, albistearen azkartasunak eta gaurkotasun hurbil eta galezinaren axolak determinatuegia da astekaria kultura baten gorabeherak behar adinbat balioztatzeke.

Bien arteko bezala edo, eta bien alde onekin, honen arintasun eta bizitasunarekin eta haren seriotasun eta zientzizkotasunarekin nahi dugu JAKIN» (Ikus 724 z., 1977, 29 or.).

### Zer da JAKIN?

«Kultur aldizkaria da JAKIN» zioen *Jakin*-ek, birjaiotzeko unean (ikus 1, 1977, 7).

Definizio horrekin, batetik, «euskal kultur mugimenduaren azterbide eta eragile» (*ibid.* 3 or.) izan nahia adierazten da. Bestetik, bere burua horrela mugatzerakoan, zentzu guztiz zabal eta irekian ulertzen du *Jakin*-ek kultura hitza.

«Kulturaz, herri baten biziera, lana, sentiera, pentsaera, jakitatea, jokaera, sentikortasuna ulertzen dugu. Ez du *Jakin* sail, eremu edo ikuspegi batek soilik bereizten. Sailak eta eremuak oro (soziologia, ekonomia, deretxoa, filosofia, erlijioa, zientzia, literatura, etc.) erabil genitzake; eta ikuspegi desberdinetatik begiraturik erabiliko ditugu. Kultur-, pentsamendu-, eta saio-aldizkari kritikoa izanen da *Jakin*» (*ibid.* 7 or.).

## Zeinentzako da JAKIN?

*Jakin*-ek ez du uste kultur arloan lanean diharduten militantentzat bakarrik denik. Pretentsio zabalagorik badu. Bere asmotan,

«lan tresna bat da... euskal kultur eta politik ekintzaileentzat, unibertsitarientzat, alfabetatzaileentzat, irakasleentzat, idazleentzat, kultur-eragileentzat, kazetariantzat. Emango dituen azterketengatik, sintesiengatik, ikuspegiengatik eta izango duen seriotasunagatik, gaurkotasunagatik, orokortasunagatik, onuragarri dakioko euskal langintzan dabilen edozeini» (*ibid.*).

## Zein gai?

Euskal Herritik eta Euskal Herriari begira pentsatutako aldizkari batek herri honen arazoak ditu aurrenik, noski, burutan. Baina beste herri eta kulturei begiak eta bihotza zabalik egin nahi du hori. Euskal kulturaren eta beste kulturen artean dialektika aberasgarri bat sortzeko eran.

«Euskal Herriko eta kultura unibertsaleko bide berriak, arazo biziak behin eta berriz tratatuko ditugu. Euskal kultura lehenbaitlehen kultura modernu bilaka dadin, eta kultura unibertsalak euskal kulturaren berezitasuna onar dezan» (*ibid.*).

## Zein euskara?

*Jakin*-ek, bere sorreratik, euskararentzat kultur eremu guztiak irabazteko egitekoaren alde jokatu du. «Euskara kaletartu eta kultura osoa —maila eta mueta orotako jakitekoekin— euskalduntzearen alde» (*ibid.* 6 or.).

Kultura osoa euskalduntzea, ordea, gaurko baldintzetan behintzat, ez da posible hizkuntzaren, euskararen, batasun dinamikari eutsiz ez bada. Bide hori urratuz 1956az geroztik eman ziren urratsetan, han zegoen *Jakin*. Eta hor dago gaur ere Euskaltzaindiak hartu dituen erabakiak, eta har ditzanak ere, zintzo jarraitzeko asmoz (*ibid.* 6-7; eta 8, 1978, 11-13).

## Zein lotura eta muga izango ditu?

Honez gero ez du inor engainatzen ezinezkoa den independentzi aitortzarik sutsuenak. Hala ere, zabaltasun, irekitasun eta

pluraltasun bokazioa duela uste du *Jakin*-ek. Bidez bide frogatzekoa izango da hori, baina ez dago sobran berriz aipatzea. Egoki adierazten zuen Torrealdaik arestian gogoratu ditugun *Zeruko Argia*-ri esandakoetan:

«Aldizkari aske eta independente izan nahi duen honek, pluraltasunean (eritzien eta idazleen aldetik) erabiliko ditu gaiak, pentsaera ireki, kritikoa, euskaltzale eta aurrerazale baten gidaritzapean bete, euskal kulturbidean nolabait bederen, bide-markatzaile izan nahi luke JAKINEk» (ikus 724 z., 29 or.).

Beraz, *Jakin*-ek ez du inongo eta inolako nagusiren kortejatzaile izan nahi. Ez du gorte-bokaziorik. Ez bufoi barreragile ez filosofo txalojotzaile edo —hartzaile izatekorik.

### Zein barne-egitura?

Aldizkariaren barne-egiturak badu, noski, zerikusirik haren asmo nagusiekin. *Jakin*-ek oso garbi ikusi zuen, bada, aldizkaria ezin zitekeela artikuluen biltegi edo almatzen izan. Edozer eta edozelan ametitzen duen jostunaren kaxoi.

Estrukturatzeko biderik egokiena, monografiaren formula iruditu zitzaion *Jakin*-i. Zerbaki bakoitza gai baten inguruan zentratzea. Gai horri begiratzen zaio alderdi ezberdinetatik. Dossier honen antolaketa, kontseilari baten laguntzaz egingo da. Zerbakiaren erdia-edo ikusten zen neurri egokia monografiarentzat. Mundu zabaleko edo Euskal Herri txiki honetako gaiak erabil daitezke. Monografiaren asmoa, batipat, informazio ahalik objektibo eta osoena eskaintzea da.

Monografiako artikulua bakoitzari, laburpena egingo zaio espainolez eta frantsesez. Hori, euskal lanek gaur dituzten mugak gainditzeko asmotan.

«Gure azterketa-moduari begiratzeko, kanpokoek ere leihotipi bat, besterik ez bada, ukan dezaten; eta, batez ere, gainontzeko kultur minoriekin, nolabait bederen, harreman-modu bat sortu nahirik» (1, 3).

Dossierarekin batera beste sailok joango dira edo joan daitezke: 1) *Gure eritziz* (editorialak); 2) *Orain eta hemen*: unean uneko gai arin, bizi, biperdun eta laburrez osatua; 3) *Gaiak*: artikulua sakonagoak gai librean, eta elkarren arteko loturarik gabe ametitzen dituen; 4) *...hainbat aburu*: pentsaera

desberdinetako idazlan eta eritziak; 5) *Kultur bideetan*: zenbait talde, mugimendu eta erakunderen aurkezpena egiteko; 6) *Liburuak*: liburuen kritika eta berriematea; 7) *Gutunak*; 8) *Agiriak*; 9) *Oharrak*.

## Nola funtzionatzen du JAKINek?

Aldizkariaren jaiotzak aldaketa garrantzizkoak ekarri zituen «Jakín taldea»ren baitara. 1977ko abuztuan, martxan jarri zuen UZEI projektua, Joseba Intxaustiren zuzendaritzapean. Eta instituzio honetara pasa zen «Jakín taldea»k esku artean zekarren hiztegi gintza osoa. Bide batez, liburugintza ere moteldu egin zen. Geroztik, batez ere aldizkariari lotu zaio «Jakín taldea».

Egoera berri honi erantzun nahian, *Jakin*-en ahalegina bi zentzutan desarroilatu da: azpiegitura segurtatzera eta funtzionaketa bizkortzera. Eta gaur egun, bost urteren buruan, bai bulego aldetik, bai langile aldetik, eta berdin Zuzendaritzaren eta lankidetzaren sistemen aldetik, inoiz baino finkatuago eta lortuago dago *Jakin*. Zenbait urrats eman ahal izan dugu horretarako:

- *Jakin* taldea elkaturik bizi da orain Donostian. Frantziako *Etudes* eta *Projet* aldizkariak egin ohi dutenaren arabera, eta J. Zaitetik proposatu izan zuenaren antzera. Etxebizitza batetan bizi gara Joseba Intxausti, Joxe Azurmendi, Paulo Agirrebaltzategi, Joan Mari Torrealdai, Pello Huizi, Manolo Pagola eta (laister) Jose Antonio Aduriz.
- 1969az geroztik Tolosan genuen egonlekua utziz, 1978ko maiatzean Donostiako Ategorrieta hiribidean jartzen ditugu bulegoak: Zuzendaritza, Redakzioa, Idazkaritza eta Administrazioa, dena batean. Idazkaritza eta Administrazioa hiru lagun artean daramate, hiruen artean eguneko 11 ordu sartuz. Zuzendaritza mailan pertsona bat bakarra dago *full time*, horretara emana denbora osoan. Baina ez hau eta ez haiek bizi dira aldizkaritik. Aldizkariak «bere burua» ordaintzen du, ez beste inor.
- Zenbakieroko funtzionaketari begira, makineria astunetik libratzera jo dugu hasieratik bertatik. Erabaki horretarako bi faktore izan ditugu kontutan: beste zenbait aldizkariaren esperientzia, eta geure aldizkariaren xedea. Izan ere, aldizkari ireki eta plataforma gisan ulertzen badugu *Jakin*, Re-

dakzio fijo baten lana gutxitu eta arindu egin behar genuen, eta kanpoko aditu eta idazleen lankidetzaz baliatu. Eta horixe da egiten duguna. Monografia bat eratzeko orduan, adibidez, gaia ezagutzen duen batengana jo ohi dugu, honekin gaia sailkatu eta egituratu, eta, gero, espezialistekin lan-talde bat eratu. Hauen emaitza, bere horretan agertzen da *Jakin-en* orrietan. Zuzendaritzaren lana, sarri, koordinaketarena da beste ezer baino gehiago.

### 3. JAKINen hogeitaz zenbakiak

Asmoak asmo, *Jakin-ek* bere bigarren aldiko bost urteotan hogeitaz zenbaki atera ditu, gure artean sarri ohi ez den garaitasunez atera ere. Azterketa orokor honetan, hiru puntu hauei so egingo diegu: aldizkariaren itxurari, idazleei, eta bereziki gaiei.

#### JAKINen itxura

Bigarren aldi honetako aldizkariaren itxura, lau urtetan gorde da aldatu gabe. Baina 1981.a, *Jakin-en* sorrerako zilar ezteietako urtea izanik, egokia iruditu zitzaigun aldaketa zenbait egitea. Neurriak lehen bezala gorderik, azala erabat berritu da. Eta barnean ere, munta desberdinetako hobekuntzak egin dira, irakurleari apainagoa, atseginagoa, arinagoa eta irakurterrazagoa gerta dakion aldizkaria.

#### JAKINeko idazleak

Gure karkuluak zuzenak badira, 134 idazlek partehartu du *Jakin-en* orrialdeetan bost urte honetan. Andana luzea, zalantzarik gabe, kontu eginik idazle horiek desberdinak direla; alegia, izenordekoak ez ditugula horietan kontaktzen, ez eta itzultzaile soilak ere.

Idazle-zerrenda hain luzearen aberastasunaren arrazoia, monografi formula bera da agian. Dossierrak antolatzeke, gai bakoitza gertutik ezagutzen dutenei deitzen bait zaie. Horregatik ere, askoz gutiago dira zerrenda horretan maiz idazten dutenak. Batzuek erdaraz idazten dituzte beren lanak, euskararik ez dakitelako edo idazteke beste ez direlako behintzat.

## JAKINeko gaiak

Azterketa honen daturik garrantzizkoenak, gaiari buruzkoak dira. Horregatik, toki gehiago emango diogu, aldizkariaren ohizko sailak banan-banan igaroz.

### Gure eritziz

Sail honetan, bi epe bereiz daitezke. Lehenengo bederatziz zenbakietan, 7.ean izan ezik, ematen du *Jakin*-ek bere eritzia. Gainerako hamaika zenbakietan ez da behin bakarrik ere ematen eritzirik. Emandako eritziak, bi ez besteak, zenbakiaren gai monografikoaren inguruan ematen dira.

### Gai monografikoak

*Jakin*-en asmoa, urtean hiru zenbaki monografiko eta bat gai soltezt egina ateratzea izan da. «Urteko hirugarren zenbakia, uda sasoinan agertzen dela eta, gainerakoak baino arinxeagoa nahi genuke» (7 z., 1978, 3 or.). Asmo hori, ordea, bi urtetan bakarrik bete du: batez ere, zenbaki bikoitzak emanez, zenbaki hauei lekua jan egin dielako.

Oro har, erabilitako gai monografikoak 14 dira; eta horiekin osatutako zenbakiak, 18. Beraz, 4 gairekin 8 zenbakietarako materiala sortu da.

Gaiok zertxobait aztertuz, bi multzo txit desberdin egin ditzaitez: a) Euskal Herriazkoa: 11 gai; b) Euskal Herriaz kanpoko arazoena: 3 gai.

— Lehen multzoko gaiekin 15 zenbaki antolatu dira. Gaiok bitan taldeka daitezke: a) Euskal Herriaren bizitzako arazo zenbait: 8 gai, 10 zenbakitan; b) Euskal Herriko lurraldeak: 3 gai, 5 zenbakitan. Aukeratutako arazoek, batzuk gehiago besteak guxtiago, gaurkotasanak sortu ohi duen interesa dute, berez dutenaz gain. Erabilitako zortzi arazo hauek, gai sozial, politiko, kulturak dira: unibertsitatea, autonomi estatutua, kanta berria, ekologia, medikuntza, bertsolaritza, langabezia, elebitasuna ikastolan.

— Euskal Herriaz kanpoko gai monografikoak 3 dira. Nazio ukatuak European, Filosofo berriak eta Nazio-arazoa Soviet Bata-sunean. Euskal herriaz kanpoko gai monografikoren bat erabili nahi luke urtero *Jakin*-ek. Bost urtetatik hirutan bakarrik lortu du hori burutzea. Eta hiruetatik bitan, bistan dago zein interes

izan dezakeen euskal irakurleak Europako eta Soviet Batasuneko minoria eta nazioen arazoari hurbiltzen zaionean. «Filosofo berriak» da, beharbada, urruntxeago gelditzen den gai bakarra.

Monografi gaiak aukeratzeko, gaiaren interesari, gaurkotasunari, prestatzeko ahalmenari eta erraztasunari begiratzen zaio bereziki. Gaiaren berri dakienaren kontseilaritza erabiltzeaz gain, gaiaren zenbait alderdi gertutik ezagutzen dutenen lankidetzaz baliatu nahi izan da. Adibidez, Euskal Herriko lurraldeak (Nafarroa, Ipar Euskal Herria eta Araba) gai bezala erabiltzerakoan, tokian tokiko jendea, edo hango informazioa izateko motiborik duena bildu dugu. Jokabide hori jarraitu beharra ikusi dugu objektibitatearen mesedetan, diru eta denbora asko jan badigu ere, espezialista euskaldunak bilatzea ez bait da beti samurra.

Dossier bat ikuspegi eta gaiaren atal desberdinen oreka gordez antolatzea eta prestatzea samurra ez bada, zailagoa da aldizkariak alde aurretik jarritako neurritan sartzea. Informazioa erraz ugaltzen da. Monografiari gutxi gorabehera zenbakiaren erdia eskaintzea erabaki izan arren, gehienetan aise pasa da neurri hori. Eta lau bider, zenbaki bikoitza atera zaigu (ikus 9-10, 14-15, 17-18, 19-20).

### Artikulu solteak, Gaiak, ...hainbat aburu

Batera kontsideratuko ditugu monografiarik gabeko zenbakietako gai nagusiak eta *Gaiak* eta ...*hainbat aburu* sailetakoko idazlanak.

Itxura eta edukin ezberdinetako lanak dira sail hauetakoak. Piska bat behartuz bada ere, honela sailka genitzake gaiok: Euskal Herriko ekonomiaz, administrazioaz, komunikabideetaz, zerbitzu publikoez eta, batez ere, politikaz, 12 lan kontatu ditugu. Euskal kulturaren saillean (hizkuntza, aldizkariaren azterketa, literatura, bertsoaritza, elebitasuna), 10. gai. Euskal pertsonaien saillean, 7; eta kanpokoetan, 4. Minoriez, hizkuntza eta politikaz, 4. Beste gaiak, 2.

### Orain eta Hemen

Artikulu labur hauek ugariak dira hogeitazentzen. 105 kontatu behar izan ditugu. Denetik dago pupurri bixi-bixi horretan. Edozein gertaerari, esaldi, etxeko nahiz kanpoko —politika, kultura, kirol, erlijio, zientzia eta beste edozein arlotan— aski da punta atera eta gogoeta pare bat egiteko.



## Euskal liburuak

*Jakin*-ek, kultur aldizkaria denez, arreta handiz zaindu du sail hau. Euskal liburuaren informazioa, azterketa eta kritika egin nahi izan du.

Informazioa, batez ere, Joan Mari Torrealdaik urtero eman ohi duen euskal liburuaren eta euskal gaietarako buruzko erdal liburuaren zerrendan, eta honen analisisiko datuetan dago. Baita editorialek bidali ohi dizkiguten liburuen berriarekin ere.

Azterketa-kritika, lehen zenbakietan, Ibon Sarasolaren eskutik egiten zen. Gerora, beste aztertzaile gazteagoek ekin diote kritika-lanari. Denen artean, Jon Kortazar da lanik gehiena egindakoa.

## Kultur bideetan

Euskalduntze-alfabetatze mugimendu eta taldeen berri eman da sail honetan. Badago gertakizun kultural nagusi batzuri buruzko gogoeta sakonik ere.

## Agiriak

Agertutako agiriak, bi sailetan sartzen dira: a) Minorien eta herri zapaldu eta kolonizatuen aldekoak; b) Euskaltzaindiak euskararen batasunaren inguruan hartutako erabakiak.

## Gutunak

Sail honek ere badu bere garrantzia, idazlearen eta irakurlearen arteko dialektika eta zentzu kritikoa bizkortzeko. Hamaika zenbakitan ez dator gutunik. Beste bederatzietan 12 gutun kontabilizatu ditugu: normala denez, tonu eta umore desberdinetakoak.

Gaiak



## Bilakaera ideologikoa

Historiaren dinamika aberatsa eskematara biltzea arrisku-tua omen da. Baina, bestalde, historiaren higidura ulergarriagoa egiteko beharrezkoa da horren hari nagusiak nabarmentzea, nahiz eta hainbat xehetasun galdu. Kontuan eduki behar dena zera da: historiari aurretik asmatu-rik eskemaren bat ez ezartzea eta historiak berak ematen duena bilatzea. Horixe egiteko asmoa dugu.

Ideologia hitza oso nahaspilatua da; hemen haxe adierazten du: gizarte-projektua bideratzeko zera kulturazkoa, sozio-ekonomikoa eta politikoa ulertzeko modua; erlijiozkoa ere barne dela.

*Jakin*-en oinarrizko pentsaerak bilakaera nabarmena izan du hogeitabost urte hauetan. Hala ere, batasun funtsezkoa bilakaera bezain nabarmena dela ikusiko dugu, aldizkariak izan dituen etenaldi historiko guztien azpitik. Izan ere, legezko etenaldi horiek ez dute aldizkariaren batasun eta nortasun historikoa hausten. Hiru bide-ardatz nagusi eta oinarrizkori etengabe utsi die; hauek dira:

- *Euskara*, euskal kulturaren eta Herriaren funtsezko elementua da; euskara gaurkotua, batua, kaletartua, normaldua eta kultur alor guztietara zabaldua.
- *Abertzaletasun* kulturala, definizio politiko eta sozial zehatzik gabea, baina Euskal Herria bere osotasunean hartzen duena.
- *Humanismo erlijiozkoa*, kristautasunari atxekia.

Hiru ardatz finko hauen gainean egiten du bide *Jakin*-ek. Egia esan, funtsezko puntu hauek ez dira inola ere hasieratik azkeneraino erabat mugatuak, lortuak eta estatikoak agertzen; alderantziz, etengabe landuz, zehaztuz eta ñabardura berriez jantziz doaz historian zehar; baina funtsean ardatz nagusi horien gain gauzatzen da *Jakin*-en historiazko batasuna —eta bilakaera—, oinarritzko pentsakerari dagokionez.

*Jakin*-en bilakaera «ideologikoa» ez dago kanpotik kontrolatua eta gidatua; nolabait berezkoa eta barrutikakoa izan da; edota, neurri handi batez, Euskal Herriak berak eraman duen eboluzioaren araberakoa. Bestalde, zentsura estatalaren muga estuetan jokatu behar izan du *Jakin*-ek; nabarmena eta explizittoa gertatzen da zentsura hori, bi aldiz aldizkaria legez kanpo uzterainokoa. Elizaren aldetik, berriz, *Jakin*-ek ez du gainetikako zentsura-problemarik izan. Egia da, Estatua bera gertatzen zela sarritan dogma eta moral katolikoaren zaintzaile zorrotzena, 1965ean, Gipuzkoako Informazio eta Turismoko Ordezkeriak eginiko gutun honetan nabarmentzen den bezala: «El criterio es claro: Se puede publicar todo lo que no atente a los principios fundamentales del Estado español, incluidos entre éstos, claro está, el Dogma, la Moral y las buenas costumbres».

Biologia eta ideologia ez doaz beti lotuta, baina sarritan zerikusi handia dute; *Jakin*-en historian bateratsu doazela dirudi, aldizkaria organismo biziarekin alderatzen baldin badugu. Hiru aro biologiko-ideologiko nagusi nabari dira historia horretan: aldizkariak badu bere adoleszentzia kulturala, «klerikalismo» aurrerazalearekin batera; badu bere gaztaroa, nolabaiteko «populismo» argitsua bereizgarri duena; eta badu bere heltzaroa, ideologi mailan sozialismo gizatiar-kritiko modukoren bat nabari duena. Hiru biziataro aski bereizgarri, kultur biologiarren eta ideologiaren aldetik, eta oso ondo bereiziak, aldizkaria debekaturik egon zeneko bi etenaldien arabera.

Debekuzko etenaldi bakoitzaren ondoren eta hurrengo biziatarorako igaroaldi bezala, bi krisialdi gisako gertatzen dira; aurrena, aldizkaria adoleszentiatik gaztarora daramana, eta bigarrena, gaztarotik heltzarora daramana.

Hiru aldetatik azter daiteke *Jakin* aldizkariaren ideologiazko bilakaera: a) Egitura eta sailkapenari begiratuz; b) erabiltzen diren gaiak eta hauek azaltzeko modua kontuan hartuz; c) editorialak estudiatuz. Hauek dira garrantzizkoenak, zalantzarik gabe.

Editorialen artean, berriz, hiru eratakoak bereiz daitezke *Jakin*-en historian: batzuk poetikoak eta pentsabide garrantzikorik emateko asmo gabekoak dira; beste batzu gaiaren aurkezpen hutsa edota puntu konkreturen bati buruz aldizkariaren eritzia ematen dutenak; azkenik, badira hirugarren batzu, aldizkariaren historian oso garrantzizkoak, honen une inportanteetan, zuzendaritzaren pentsabide eta jokabidea orokorki edo ematen dutenak. Batez ere hauetan aurki genitzake aipaturiko hiru bizitzaroak ideologi aldetik definiturik.

### 1. Adoleszentzia: «Klerikalismo» aurrerazalea

Lehen hamabost zenbakiak sartzen dira bizitzaro honetan.

Tituluko hitzek ez dute adiera gaiztorik: ez «klerikalismoak», ez eta «adoleszentziak» ere. Garai honetako aldizkariaren pentsabide-jokabideak nolabait adierazteko balio dute, inolako gaitzespenik gabe, inongo gutxiespenik gabe.

Arantzazun jaiotzen da *Jakin* aldizkaria. Eliza berria inauguratzeaz dago orduan. Iganderoko peregrinazioak handituz doaz; eta urteroko gazteen (mutilen eta nesken) gau-ibilaldiak benetako gertakari erlijiozko eta sozial bihurtu dira. Euskal Herriko Seminarioak, berriz, bete-betean daude; eta, urtero, ehundaka apaiz berri ematen dituzte. Hemengo Elizaren triumfalismo instituzionalaren garaian jaioko da, beraz, *Jakin* 1956an. Mesianismo profetikoaren arnasa botatzen du *Jakin*-ek lehen urte hauetan.

Baina Euskal Herriak —eta horren barnean beren buruak euskaldun ikusten dituzten kristauak ere: apaizek, apaizgaiek eta laikoek— herriaren, kulturaren eta hizkuntzaren zapalkuntzaren sufrimendua daramate barruan. Horregatik Eliza instituzionalaren triumfalismoari hainbat eta hainbat eliztarren profetismo kritikoa eta protesta kontrajartzen zaizkio. Eta bietatik, mesianismo profetikoaren antzeko zerbait sortzen da euskal kultura landu nahi duten apaiz eta apaizgaien artean. Honetatixe biziko da, neurri handi batez, *Jakin* aldizkaria bere lehen urteotan.

Lehen editorialean ematen ditu aldizkariak bere asmoen eta textuinguruaren lerro nagusiak. Apaizgai eta fraidegaien elkartasuna lantzeko sortzen da. Asmo hau behin eta berriro errepikatuko da ondorengo zenbakietan ere. Zalantzarik ez dago, alde honetatik kasta-kutsurik baduela *Jakin*-ek lehen bizitzaro hone-

tan. Hala ere, honegatik bakarrik ez litzateke aldizkaria klerikala izan dela esaterik egongo. Baina aldizkariaren parterik handiena teologia-filosofiek hartzen dute, Aitasantuaren Hitza barne. Seminarioen arteko lotura bi ardatz huetan finkatzen da: «Euskera maitea» eta erlijioa.

Egia esan, *Jakin*-ek haseratik ageri du bokazio moduko bat: euskal kulturari eragitekoa eta mundu horretan lanean ari direnak elkarganatzekoa eta koordinatzekoa. Eta lehen urte haietan, ez zuen beste biderik, seminarioetako indarrak elkartu besterik, ikasleen eta gazteen artean lana egitekotan behintzat.

Eta 11. zenbakia orduko, seminarioetatik irten beharra nabari da, eta gaiak ere zabaldu beharra: teologia-filosofiez gain, *Jakin*-ek ekonomia, medikuntza eta zuzenbidea ere landu beharra dauka euskararen aldetik. Eta Seminarioetatik kanpoko eta apaizjende ez diren batzu ere partehartzen hasten dira aldizkarian; oraindik ere salbuespen gisa, ordea. Badirudi, irekitze hau ez dela aldizkariaren beraren mundua eta oinarri soziala zabaltearren, eta bai euskarak kultur barruti guztietara iritsi behar duelako.

Izan ere, lehen bizitzaro honetan —eta gerora ere bai— nagusia du *Jakin*-ek asmo hori. Lehen editorialean, «euserkeri txertaturiko mentua» bezala definitzen du aldizkariak bere burua. Eta bere helburutzat dauka euskara kultur hizkuntza hiritar bihurtzea eta kultur sail guztietara helaraztea: ezezagun dituen bidetxigorretara eta Unibertsitate edo «Ikastetxe nagusi»ra ere bai, explizitoki adierazten denez.

Bizitzaro honen azken aldera, larriagoa gertatzen zaio aldizkariari bere mundu klerikala hautsi eta kanpora zabaldu beharra: 14. zenbakian (1961), ordura arteko eskema (teologia-filosofien sailean oinarriturikoa) aldatu egiten da; bereziki *Aitasantuaren Hitza* saila desagertu egiten da.

*Jakin* aldizkariaren jarrera sozio-politiko eta ideologikoa kristau-demokraziaren aldera makurtzen da, eta alde honetatik aurrerazalea gertatzen. Nabarmena da Iñaki Bereziartuaren «Kristau Demokrazia» izeneko artikulua (6, 1958, 54-63). Hasiera hasieratik, diktaduren eta nazi-faxismoen kontrako burruketan aintzindari bezala jartzen ditu alderdi kristau-demokratak; baina bai eta usteltzen ari diren demokrazia liberalen ordezkio bezala ere, komunismoari aurka egiteko momentuan. Baina kristau

demokrazia ez da klerikalismo politikoarekin nahasi behar, auto-rearen ustez. Kristau demokraziaren pentsabide politikoa azaltzean, askatasunaren defentsa eta herriagandiko agintea nabarmentzen ditu; haren pentsabide ekonomikoa azaltzean, berriz, norberekerian oinarrituriko liberalismo kapitalistaren kontrako-tzat jartzen du. Nahiko baikor agertzen da autorea kristau demokraziaren etorkizunari buruz, eta Leon XIII.aren hitz hauekin bukatzen du artikulua: «Demokrazia egiz kristaua baldin ba da, erriari zoriona, aurrerapena eta pakea emango dio etorkizunak».

Arazo sozialei buruz artikulua dexente irakur daiteke urte hauetako zenbakietan. Elizaren irakaspén sozial ofizialaren oihartzun dira gehienak, eta Aitasantuaren Entziklikak etengabe aipatzen dituzte. Ikuspegi moralista nabarmentzen da, humanismo paternal batez jantzia. Ikuspegi honen izenean, hain zuzen ere, Elizak eta bereziki apaizak gizarte-arazoetan partehartzea defenditzen da. Norberekoikeriaz kutsaturiko sistema liberala sarritan kondenatzen baldin bada ere, sarritan agertzen da marxismoaren —eta komunismoaren— kontrako burruka ere, batzutan gerra hotzaren kutsua hartzen duena.

Europaren batasunarekiko pentsabidea behin baino gehiagotan agertzen da *Jakin*-en zenbakietan. I. Bereziartuaren aipaturiko artikuluan bertan, alderdi kristau-demokratak jartzen dira batasun horren bultzatzaile nagusi bezala. Baina bada beste artikulua bat, Saitzatar Fernandorena, «Europaren batasuna» titulu daramana, hain zuzen ere (11, 1960, 66-70).

Gogoeta moralistekin hasten da, batasun hori justiziaren barruan egin behar dela adieraziz. Europaren batasunak, auto-rearen eritziz, ekonomikoaz eta militarraz gain, Estatuen arteko laguntzarako behar du izan, hau da, harremanak sendotzeko. Europa batuak —eta autoreak, dirudienez, Estatuen arteko batasuna bezala ulertzen du— ez ditu inola ere herri bakoitzaren kultura, hizkuntza, arraza, ohiturak eta legeak desegin behar. Agian, oso zeharka baldin bada ere, Europako Herri ukatuen defentsa ere giten ari da.

Artikulua, kristautasunak eta bereziki Aitasantuek Europa-ren batasunaz diotena azalduz bukatzen da. Elizarentzat bidezkoa eta txalogarria da batasun hori: izan ere, gizarteko eta herrien arteko gorrotoak desegiteko egokitzat ikusten da, bai eta europar kristautasuna sendotzeko ere.

Lehen pausoak ematen ari zen Europaren batasuna, inolako kritikarik gabe, positibotzat eta ontzat ematen du *Jakin*-ek.

Bizitzaro honetako bidea laburbilduz, eta eman dugun titulua azalduz, klerikalismo aurrerazale edo progresista bezala definituko genuke *Jakin*-en urte hauetako ideologia. Klerikalismoa esaten dugu, bi zentzutan batez ere: kleroa, eta bereziki apaizgaiak, gertatzen direlako, gertatzez, euskal kulturaren eta euskararen aurrerabidean indarririk eratuena eta prestatuena; eta hierarkia hartzen delako hala nahita pentsabide sozialaren eta politikoaren oinarri eta azken erabakitzaile bezala. Baina neurri on batez aurrerazalea eta irekia gertatzen da klerikalismo hori, bai euskarari, bai kulturari eta bai Elizaren jokabideei dagokienez.

Bestalde, adoleszentiaren jokabidea nabarmentzen da aldizkariaren arduradunengan. Berriro esanik, ez da adiera okerretik hartu behar hitz hori; esangura kultural hutsa du. Zenbait seinale nabarmen genezake esaten duguna azaltzeko: alde batetik, seminarioen arteko aldizkari bezala planteatzeak berak, gaxteak adiskideen artean babesteko duen joera adierazten du; honexegatik, zuzendariak behin eta berriro agertzen dute beren harri-dura —eta poza— kanpokoren bat edo beste idazle bezala aldizkariara hurbildu delako. Azkenik, adoleszentzia kulturalaren bereizgarritzat hartu behar dugu, arduradunek behin baino gehiagotan agertzen duten mirespen inozentea, beren eskuetatik ateratako fruitua —aldizkaria— ikustean eta irakurleei eskaintzean.

15. zenbakia da aldizkariaren bizitzaro honetako azkena. Eta editorialean bertan formulatzen da hau, asmo nagusi eta oinarrizko bezala: «Leenari begira, geroari ekin». Kulturgintzari dagokio bereziki asmo hau.

Eta bi urte luzeren ondoren aurrerazaletasunaren eta irekitasunaren asmoa hartuko du aldizkariak, adoleszentzia gainditu eta gaztaroan sartu aurretik. Honela dio: «Guk ere leengo erri zaararen arnasez mamitu nai ditugu oraingo biziera eta kultura berriok»; eta geroxeago: «nortasun-berritu nai dugu gure euskal-erri zaarra gaurko munduaren pentsakera, bizimodua eta bizkortasunez» (16, 1964).

Aurrera begiratzeak, atek irekitzeak eta etorkizun kultural berriari ekiteak: hauek markatuko dute bizitzaro berrirako



urratsa. 1964-1967 urteetan luzatzen da bi bizitzaroen tarte hau, lehen krisialdi bezala har daitekeena, eta 16-28 zenbakietan konkretatzen dena.

Seminarioetatik kanpora irtetea da kezkarik nagusiena; bi zenbakitan azaltzen da arazo hau: 21.ean, Joxe Azurmendik «10 Urte» izenez ematen duen artikuluan eta batez ere 22. zenbakiko editorialean.

*Jakin* Arantzazukoegia dela salatzen eta sakristi kutsua kendu behar zaiola oihukatzen du Azurmendik. Euskal kultura izango da funtsean aldizkariaren gaia; teologiak bere lekua izango du, baina sakristi usainik gabeko teologiak.

Euskal gazteriaren aldizkaria bihurtu nahi du *Jakin*-ek. Eta 23. zenbakiko editorialean dioenez, idazleak herrira begiratu behar du, idazten ari denean.

Izatez, kanpoko idazle ugari —apaizjendea ez dena, alegia— hasten da agertzen krisialdi honetan. Berau ulertzeko, bereziki garrantzizkoa da 22. zenbakiko editoriala, «Zuzendaritza billa» deritzana. Aldizkariaren arduradunak oso jabeturik daude 1964etik aurrera gertatzen ari den pentsabide-jokabideen aldatzeaz. Areago, badirudi oso oharturik bultzatu dutela bilakaera hori: teologi eta filosofi aldizkaria zena, euskal gazteriaren aldizkari bihurtzea, alegia. Aurrerantzean pentsakera orok du lekurik aldizkarian, dio editorialak; horrek ez dauka dagoeneko fraideena izaterik, gazteriarena izan nahi baldin bada.

Hala ere, zuzendaritzak fraideen eskuetan irauten du oraindik; edota, editorialak berak aitortzen duenez, zuzendaritza-gabeziak irauten du fraideen eskuetan; eta editorial osoa da, euskal idazle guztien erantzukizunari deia. Beste zuzendaritza bat behar du...

Eritzi guztiei irekia izan nahi du *Jakin*-ek; gertatzez, ordea, «euskaldun katoliko pentsamentuaren aldizkaria da gaurkoz», Rikardo Arregik dioenez (22, 1966, 2). Beste bi joeren artean erdikoa bezala ikusten du hori Arregik. Editorialak berak ez du hainbesteko definiziorik eman nahi; laikoei eta horiek ekarriko dituzten gai eta pentsakera berriei irekia behar duela esaten du soilik: «Pentsakera oroek (sic) dute leku errebestan». Baina irekitasunak eta haniztasunak ez dute esan nahi zenbaki bakoitzak edonondik pilaturiko artikulua-multzo izan behar duenik. Zuzendaritza —eta «redakzio-taldea»— eskatzen bada, zenbaki bakoitzari gaiaren aldetik gorputz bat emateko asmotan da: «pentsakera-

-batasuna eta armonia» (22, 1966, 5). Zalantzarik ez dago, hemen «pentsakera-batasuna» esaten denean, zerbakiak gaiaren aldetik gidatua izan behar duela adierazi nahi dela.

Krisialdian dago, beraz, Jakin urte hauetan; bere irekipenak sorturiko krisia, seguru asko. Agian gogoratu beharra dago, Vatikanoko II. Kontzilioaren garaian gaudela, horrek katolikoengan eta bereziki apaizengan izan zuen astindua eta guzti.

1964etik bertatik hasita, nabaria da artikuluetan ere lan-kideen pentsabide-aldaketa. Horren adierazle dira García Chasco-ren Entziklika sozialei buruzko azterketa kritikoa (16. zenbakian) eta Joxe Azurmendiren «Asi gaitezen komunismoarekin elkarrizketan» artikulua (16. zenbakian, hau ere). Katolikoan aldetik elkarrizketa hori politikaren mailan lantzea nabarmentzen da «Katolikoaren egintza politikan» artikuluan ere (16. zenb). Honelako elkarrizketaren kontra, hain zuzen, laister eroriko da zentsura estatalaren kondena: «...la improcedencia de determinados 'diálogos' que sólo buscan hacer el juego al comunismo y a sus compañeros de viaje».

Elkarrizketa da ideiburua, 18. zenbakiko editorialean aitortzen den bezala; eta horrek pentsabide kritikoa eta objektiboa eskatzen du, eta pentsabide apologetikoa, Aitasantuen aipuetan agortzen dena, uxatzea.

Sozialismoaren eta sistema komunistaren ezagutza objektiboa eman nahia nabari da urte hauetan, hainbat artikulutan —aparte 19. zenbakiko editorialeko gaitzespena—. Bestalde, kristautasunaren edo kristauen pentsabide eta jokabideen —eta sarritan honekin loturik joaten den sistema liberalaren— kritika errepikatzen da behin baino gehiagotan, lehenagoko dogmatismoa hautsiz, eta elkarrizketarako autokritikaren beharra adieraziz. 1967ko zenbakietan bere gailurrera iristen da pentsabide-jokabide hau; hona hemen artikuluen tituluak: «Euskaltzaleen Jainkoa ill behar dugu» (Rikardo Arregi, 27-28 zenbakietan); «Gaurko marxismoa erlijioaren aurrean» (Joxe Azurmendi, 26. zenbakian); «Sozialismoa modan dago» (Rikardo Arregi, 24.ean); «Ezkertar berriak» (Rikardo Arregi, 25.ean); «Marxismoa modan egon zen» (Igara, «Txillardegi», 26.ean). 27. zenbakiko editoriala ere, Che Guevarari buruzkoa, bide beretik doa. Artikulu hauek gehienek eztabaida zorrotzak sortuko dituzte. Baina batez ere, ondoko urteetako *Jakin*-en bizitzaro berria aldarrikatzen eta irekitzen dute.

Urte hauetan, azkenik, maila teoriko, apologetiko eta dogmatikotik gogarte konkretura (Euskal Herriari lotuagora), kritikora eta irekiagora pasatzen da aldizkaria. Horrekin batera, artikulua gehienetan gehiago nabarmentzen da norberaren pentsaera, eta ez Eliz hierarkiaren oihartzuna. Hitz laburretan, urte hauetan aldizkariak ireki egin du bere burua bi aldetara: lankidegoaren eta irakurleagoaren aldera, eta ideologia berrien aldera: sozialismora, estrukturalismora eta existentzialismora bereziki. Honela, ideologiaren mundua zabaldu egiten da *Jakin*-en, eta hau konkretuki zenbait artikulutan nabarmentzen da.

## 2. Gaztaroa: «Populismo» argitsua

Bigarren bizitzaroa motzagoa da: bizpahiru urtetakoa (1968-1970). 29-35 zenbakiak eta ondorengo *Jakin Sorta*-ko lehen hiru zenbakietan irekitzen da urte hauetako bidea. Baina, lehen esan dugun bezala, aurreko zenbakietan irekitzen hasia zen; eta urte haietako zenbait artikuluk 1968ko maiatzaren inguruko gaiak aurreratu zituen nolabait.

Editorial garrantziko batekin hasten da aro berria: 29. zenbakian, ondorengo bidea markatu nahi duenarekin. Titulurik gabe doa; baina *Jakin*-en alderdi ideologiko ezberdinak biltzen ditu. Gero, ondoko zenbakietan, arazo konkretuagoei buruz, tituludun editorialetan bere eritzia emango du aldizkariak, gehienetan zenbakiko gai nagusiaren arabera; izan ere, aro berri honetan, gai nagusien inguruan zentratzen du zuzendaritzak aldizkaria. Lehenagotik adierazia zuten arduradunek, ideologi mailan eta artikuluetan aldizkaria gidatu beharra eta homogenoagoa bihurtu beharra, elkarrizketa eta eritzi ezberdin eta guzti, artikulua-multzo eta pilatuen itxura kenduko zuena.

Aipaturiko editorialean, hain zuzen, ordura arte egindako bidetaren segida bezala azaltzen du aldizkariak bere burua. Ez dago hautsi nahirik. Horregatik, betiko puntuak berretsiz hasten da: euskararen kulturaren alor guztietara heldu beharra, euskararen batasuna. Baina, bestalde, «Etapari berri baten aurrean ikusten dugu geure burua», dio editorialak; eta etorkizun horri begiratu nahi dio bereziki: «Bere buruaren jabe den edonori eska dakiok bere geroaren berri, alegia, bere asmo eta xedeena. Aldizkariari ere beste horrenbeste». Eta aurrez-aurre heltzen die arazo ezberdinei: politiko-sozialari, nazionalari, erlijioari, kulturari, hizkuntzari.

- a) Inperialismoaren eta kolonialismoaren kontrako eta herrien eskubideen aldeko oihua egiten du.
- b) «Ezker berria»ren aldeko eta sozialismoaz kezkatuta agertzen da: «...arretaz begiratzen diogu mundu sozialistaren eboluzioari». Frantziako 1968.eko mugimendua-  
ren giroa ikusten da hemen.
- c) Europaren eta Espainiaren mailan, federalismoa eskatzen du.
- d) Euskal Herriari buruz, «munizipio-ekintza»ren eta integrazio sozial «sanoaren» beharra ikusten du. Oso beldurrez formulatzen du noski Euskal Herriarekiko ikuspegia. (Zentsuraren beldurrez, seguruenik).
- e) Erlijioari dagokionez: erlijio gizatiarraren eta kristautasunaren eta jainkogabeen arteko elkarrizketaren defendatzailea da. Aurrera begira, Kontzilio berri bati bideak irekitzen saiatuko omen da aldizkaria. Beraz, aurrekoa nolabait gaindituzat hartzen du.
- f) Kulturari begira, hiru puntu aitortzen ditu: irekitasuna, gaurko korronteei eta alor guztiei buruz; euskal kulturaren europartasuna; kultura herritarra, herri-jakintza eragin beharra, herrietako kultur bizitza bizkortzeko asmoa. «Gaurrari eta herriari lotuak egon nahi dugu», dio editorialak.
- g) Euskara batuaren eta trebatuaren beharra aldarrikatzen du.

Programa aski definitua. Asmo guzti horiek aurrera eramateko kanpoko idazkontseilua sortzen du *Jakin*-ek, nahiz eta zuzendaria fraidea izan aurrerantzean ere. Kontseilu horrek markatuko du aldizkariaren aurrerabidea, gaien eta ideologiaren aldetik. Eta seguruenik nahiko zintzo atxekitzen zaie bere lehen asmoei, aukeraturiko gai nagusiei eta hainbat artikuluri begiratzen bazaie.

Kolonialismoa (mundu kapitalistako nahiz sozialistakoa) zorrotz kondenatzen du aldizkariak, bereziki Hegoamerikari eta Txekoslobakiari begira. Eliza hierarkikoari buruz, jarrera kritikoa agertzen da behin baino gehiagotan: «*Humanae Vitae*» Entziklika etab. direla tarteko, batez ere. Sozialismoari hurbildu nahia nabarmentzen da, Frantziako komunisten eta sozialisten agiria argitaratuz eta 34. zenbakia osorik Marcuse-ri eskainiz... Ezker berriaren eta Frantziako 1968ko maiatzaren erakarmena

nonbait. Alde honetatik, Elizaren berrikuntza eskatzen den bezala, marxismoaren ekarrien baliagarritasuna ere aipatzen da; baina marxismoarekiko urruntasuna ere aitortuz, A. Oiartzabalen «Euskal Gaztedia tunel ilun baten» izeneko artikuluan, e.b. (33. zenb.).

34. zenbakiak euskal kultura du gai nagusia. Sarreran, euskal kulturaren plangintzaren premia nabarmentzen da. Plangintza horri dagokionez, bereziki euskal Unibertsitatea eta euskal liburugintza planifikatu beharra aipatzen du. Amateurismoa bazterturik, euskal kultur indarren organizazioa eta profesionaltasuna aurrera eraman beharra dago, euskara bera salbatuko bada. Izan ere, editorial osoa oihu larri bat besterik ez da: «Euskal kultura agonian dago». Eta zalantzarik gabe, euskal kulturatzat euskarazko kultura hartzen da: hizkuntza —euskara— funtsezkoa da. Hiltzori horretatik datoz gaurko kultur burrukaren bereizgarriak: aurrerakoia eta radikala izan beharra, alegia.

Ofizialtasunik gabeko eta erakunde ofizialek ukaturiko euskal kulturaren aurrean, aldizkariak zera kontrajartzen du: «Erakundeei herria; kultura filisteoari, kultura iraulgilea; kultura aristokratikoari, kultura herrikoia». Herria, beraz, erakunde ofizialen eta aristokraziaren kontra; baina berehala herrikoitasuna eta herrikoikeria bereizi nahi ditu aldizkariak. Hitz batez, herrikoitasun —populismo— argitsua defendatzen du *Jakin*-ek euskal kulturarentzat.

Idea hori zehazteko eta gauzatzeko, zera proposatzen du: herri-erakundeak indartzea. «Kultura herritartu egin behar da. Ta, horretarako, lotura izango diran tarteko egiturak sortu eta ugaritu egin behar dira». Egitura hauen artean ikusten ditu: ikastola, alfabetatzearen erakundea, kulturizazioarekin loturik joan beharko lukeena eta euskalduntzearean bidetik zabaldu egin behar dena.

Baina *Jakin*-en kulturazko herrikoitasun-herritartasunak beste adierarik ere badu: a) Paternalismoaren eta inperialismoaren kontra burrukatzen da herri-kultura, bere nortasuna eta duintasuna eta autonomia baieztatzeko; b) Euskal kultura herritarrak Euskal Herri osoaren batasuna adierazten du, Añamendiko mugak gaindituz. Areago, J. L. Lizundiak, oraingoz, euskal jakobinismoaren premia nabarmentzen du, probintzialkeria gaindituz. Hala ere, euskal zentralismoaren ideia honek ez du aurrerabide handirik ukango aldizkarian; bota ere, nota labur batetan bota

bait zuen J. L. Lizundiak. Baina, bestalde, Euskal Herriaren batasuna da *Jakin*-en obsesioa: hortik dator, neurri handi batean, euskararen batasunaren aldeko burruka eta Euskal Herriko herrialde guztiak ezagutarazi nahia, bereziki Ipar Euskal Herria hegoaldekoei (1969an «*Jakin* sorta, 1» osorik eskaintzen zaio Iparraldeari, eta bertako sarreran Euskal Herriaren batasunaren kantua kantatzen da).

Europari dagokionez, aro honetan beste hurbilketa bat egi- ten du aldizkariak: Europaren batasunak berak baino gehiago kezkatzen du Euskal Herriak Europan behar duen lekuak. 1965ean *Jakin*-ek argitaratua zuen liburu bat ere, «Europa» ti- tulua zeramana. Hango hitzaurrean Joxe Azurmendik deklaritzen zuenez, «Europa-n bizi gera eta europearrak gera» (6. or.). Baina —eta haxe da bizitzaro honetako bigarren bereizgarria Europari buruzko pentsakeran—, Europaren batasun modu horren kritikatzaila agertzen da *Jakin*. Sarreran bertan, ukatu egiten da ekonomiazko edo politikazko batasun hutsa izango lukeen Europa; gizonen eta herrien eskubideak zaintzeko eta fin- katzeko nahi da Europaren batasuna. Era berean, Jean Louis Davant-ek kontradizioz beterik ikusten du Europaren batasun- bidea bere «Laborantza eta "seien" arteko Europa» artikuluan (22, 1966). Bestalde, Europa barruko minorien arazoa nabar- mentzen hasten da *Jakin*-en bidean: aipaturiko liburuan badago artikulua bat B. Kapanagarena, «Minorien izkuntza eta kulturak Europa alkartuan» izenekoa. Aipatzekoa da, baita ere, Zabala- tar Pello Marik 1964ean idatziriko artikulua: «Europaren ba- tasuna 1700'ean» (16. zenb., 89-96). Garai hartan idatziriko li- buru baten aurkezpen arina besterik ez da; geroagoko zenbaki batetan artikulua honi egindako kritikan, bertiz, zera esaten da: Liburu osoa laburtu baino hobe zukeela minorien arazoari buruz zekarrena azaltzea.

*Jakin*-en bizitzaro honen aintzindari bezala Rikardo Arregi agertzen zaigu, aurreko krisialdian egindako lanen eta jaulkitako ideien bidez; Rikardo bera izan zuen aldizkariak aro honetako eragilerik nagusienetakoa. Eta, bera hil ondoren, berari eskaini zion aldizkariak aro honetako azken zenbakia, omenaldi bezala edo.

Gaztaroarekin alderatu dugu aldizkariaren bizitzaro hau. Nabarmenak ditu, izatez, gaztearen bereizgarriak: lagunartea (lankidegoarena eta irakurleriarena) zabaldu nahia; horrekin ba- tera, agresibitate kulturala nabarmentzen da, alor guztiak harra-

patzeko eta zirkulu ideologiko eta kultural guztietara bideak irekitzeko. Konplexurik gabe eta ausart agertzen da *Jakin* bere bizitzaro honetan: edozein gazte ausart bezala!

Bigarren aldiz, administrazio estatalak debekatu egiten du aldizkaria 1969an. Idaz-kontseilua desegin egiten da, eta *Jakin*, berriro ere, fraideen eskuetan gelditzen da, orain aldizkaririk gabe. Liburugintzari heltzen dio.

Honela, 1971-1977 bitartean beste igaroaldi bat mamitzen du *Jakin*-ek, zeinetan liburu mordoxka argitaratzen bait du. Hiru gai nagusitzen dira liburugintza honetan: kultur eta ideologi kritika; Euskal Herria eta euskara; erlijioa. Batez ere erlijiozko gaia nabarmentzen da, bai liburuen tituluei begiratuz, bai eta bestelako tituluak dituzten liburuetako zenbait kapituluri begiratuz.

Erljiozko eta ideologiazko kritizismoa eta aurrerakoitasuna: bi bereizgarri hauen bidez definienez gero garai honetako *Jakin*-en pentsabidea eta jokabidea. Baina aski neurtuak agertzen dira kritizismoa nahiz aurrerakoitasuna.

Garai honetan ez dago jarrera ideologiko, politiko eta sozio-ekonomikoari buruzko deklarazio edo aurkezpen global eta esplizitorik. Baina behin baino gehiagotan, batez ere lankidetzako «*Jakin Sorta*»n, nabari dira euskal gizartean dabilzan burruka ideologikoak.

### 3. Heltzaroa: «Sozialismo» gizatiar-kritikoa

Hirugarren bizitzaro nagusia, aldizkaria berriro legeztatzean hasten da (1977an). Bost urte bete-beteak eta 20 zenbaki mar-dul, hainbat gai sakonki azaltzen dituztenak.

Editorial batekin hasten da bizitzaro hau: «*Jakin*, hogeitau urte geroago» du titulua. Hogeitau urtetako historia gogorarazten du laburki, alde batetik, eta etorkizunerako asmoak azaltzen, bestetik. Editorialak ez du printzipio ideologikoen aldarrikapena izan nahi, eta bai aldizkariaren hiru dimentsiotako programaren definizioa: a) *Aldizkariaren alorrari* dagokionez, kultur aldizkaria izango da, kulturaren sail eta eremu guztiak kritikoki erabi-

liko dituen; b) *Aldizkariaren base sozialari* dagokionez, lan-tresna izan nahi du euskal langintzan dabilen edonorentzat; c) *Aldizkariaren ingurune kulturazkoari* dagokionez, berriz, Euskal Herrian errotuko da eta Euskal Herriari begira abiatuko, «euskal kultura, lehenbaitlehen kultura modernu bilaka dadin, eta kultura unibertsalak euskal kulturaren berezitasuna onar dezan».

Oinarri programatiko hauetan, *Jakin*-en bide berriaren berezitasun bat nabarmentzen da: ikuspegiaren zabala... Eta ez dirudi hori kalkulu enpresarial hutsa denik, eta bai *Jakin* taldearen pentsabidearen oinarrian dagoen funtsezko jarrera eta asmoa. Honetarako lankidetzaren egiturapena ere aldatu egiten da: *Jakin*-ek bere idaz-kontseilu gisako bat edukiko du; baina zenbaki bakoitzeko gai nagusia eta zentratua programatzeko eta idazteko, bakoitzean adituen taldea eratuko da, gehienetan idaz-kontseilutik erabat kanpokoia izango dena.

Koordenatu programatiko haiek ematean, hiru puntu ideologiko —edo ideologi gisako— aipaturik sumatzen ditugu: a) *Zer da kultura?* «Kulturaz, herri baten biziera, lana, sentiera, pentsaera, jakitatea, jokaera, sentikortasuna ulertzen dugu»... Kulturazko kontzeptu etnikoa, beraz. b) *Zer da Euskal Herria?* «1960az geroztik herri honek sortu eta bereganatu duen dinamika berriaren joerak eta ikuspegiak bezala ekarriak, haintzat eta ontzat emanik abiatzen gara»... Baieztapen hau oso abstraktua izanik ere, zera sumatzen dugu: ezker abertzalearen abertzaletasuna eta sozialismoa lotzearen dinamikaz ari dela; batez ere, geroagoko zenbakietan etorriko diren baieztapenen bidez argitu nahi badugu hasierako asmo hau. c) *Euskal kultura ala kultura unibertsala?* «Ala» horren kontrakoa da *Jakin*: ez du inola ere bien arteko kontrakotasunik ikusten; euskal kulturak berak, berbera izanik, kultura unibertsalerako bidea irekitzen du. Kultura etnikoak unibertsaltasunaren dinamika darama bere baitan, eta dinamika hori indartu egin behar du. Bide honetatik, *Jakin*-ek zenbaki bakoitzeko monografiako artikuluen laburpenak frantsesez eta gaztelaniaz ematen ditu. Eta monografien gai gehienak bereziki Euskal Herriari badagozkio ere, nabari da gogorik, bestelako gai monografikoen, zenbaki librean eta lankidetzaren irekien bidez, «euskal kultura»ren eta «kultura unibertsala»ren arteko lotura egiteko.

*Jakin*-en bizitzaro honetako ideologiaren konkretatzea zenbaki monografikoetako editorialen bidez egiten da batez ere.



Hamar honelako editorial eman ditu *Jakin*-ek azken bost urteotan: hobeto esanik, horietako lehen hiru urteetan, beste bietan ez bait du editorialik eman, bere pentsabide-jokabideak ongi argituak balitu bezala.

Bost kapitulutara bil genezake azken urteotako *Jakin*-en ideologia: 1. Euskal Herria; 2. Euskal kultura; 3. Europan; 4. Sozialismoa; 5. Estatua eta boterea.

## Euskal Herria

Bigarren zenbakiko editoriala Euskal Herriaren naziotasuna baieztatuz hasten da: Euskal Herria herria, etnia, *nazioa* da. Etnia-nazioa, estatu-nazioaren kontra... Eta hirugarren zenbakian ere pentsabide honixe heltzen dio, Autonomi Estatutuari buruzko editorialean.

Naziotasun horri dario burujabetasuna: «Euskal Herria, eta nahiago bada, euskal Herrialde bakoitza, soberani unitate bat da» (3, 1977). Horregatik Estatutua, autonomi formula politiko eta tekniko bezala, baliagarria izan daiteke oraingoz, baina benetako arazoa soberania segurtatzea eta horren araberrako politika eramatea da: hori ez da negoziagai: «Euskal nazioa eta beronen soberania ez da negoziatzen» (3, 1977). Aldizkariak onartzen du Autonomi Estatutuaren bidea, epe laburrerako eta lehen urrats bezala eta baldintza gutxienekoak betetzen baditu —ar-tean 1977an gaude, eta ez jakin zein Estatutu-modu etorriko zen gero—. Euskal Herriaren jatorrizko eskubidea, ordea, ez da agortzen «goitik eman diezaguketen Autonomi Estatuturen batetan» (3, 1977).

Euskal Herria bere osotasunean eta batasunean hartzen du *Jakin*-ek. Batasun hori aldarrikatzen du Ipar Euskal Herriari eskainitako lehen zenbakiaren editorialean (9, 1979) eta Nafarroari eskainitakoan (6, 1978). Mugaren bi aldeetan dago Euskal Herria, eta honetaz gero eta jabeagotu eta horren arabera zintzoago jokatu beharra dauka abertzaleak, batasuna alderdi guztietatik landuz, mamituz eta instituzionalduz. Nafarroari buruzko zenbakian, berriro ere, Euskal Herri osoaren batasuna aldarrikatzeko idazten da editoriala: Nafarroak eta beste herrialdeek Herri bat bakarra osatzen dute; Nafarroa, berriz, denen ama da. Nafarroarik gabeko Euskal Herriaren askatasun-bidearen kontra agortzen da tinko aldizkaria: «Euskal Herria osoan askatuko da,

ala ez da askatuko» (6, 1978). Eta honela bukatzen da editoriala: «Guretzat, benetan, Nafarroa ez da negoziagai! Horregatik, Euskal Herri osoaren baterakuntza eta askatasuna, hemendik bertatik egiten den politikaz nazional, herritar, autonomo eta abertzaleatik datozela uste dugu».

Nola ulertu batasun hori? Ez da aldizkarian zehazten; dena dela, herrialde bakoitzari bere nortasuna aitortzen dio *Jakin*-ek: explizitoki Ipar Euskal Herriari dagokionez, eta implizitoki beste herrialdeei dagokienez, bakoitzari zenbaki berezi bana eskaintzen dienez. Hala ere, probintzialkeriatik oso urruti dabil *Jakin*.

Joera politikoari dagokionez, *Jakin* abertzaleen munduan kokatzen da: areago, azken hogeitau urteetan indartu den «abertzaletasun berria»ren munduan, gehiago zehaztu gabe, printzipioz behintzat. «1960az geroztik herri honek sortu eta bereganatu duen dinamika berriaren joerak eta ikuspegiak bezala ekarriak, haintzat eta ontzat emanik abiatzen gara» (1, 1977, 7). «Abertzaletasun berria», «dinamika berria»: zer dira? Arazo nazionala eta sozio-ekonomikoa batean ikustea da, batberatzat hartu gabe, ordea, edota bata bestearen menpe jarri gabe. «Herria ez da kultur "komunio" ideal hutsa. Gizarteak bizi dituen gatazka eta tirabira sozio-ekonomiko guztien tartean bizi da kultura, eta herria. Herriaren kultura ezin daiteke gizarteko gatazka sozio-ekonomikoen estaltzailatzat har. Klase gainhartzaileen kultura gainhartzaileak herriaren kultura ukatzen du, haien monopolio bihurtuaz edo» (2, 1977, 6).

Hor printzipiozko baieztapen bezala ematen dena, Nafarroari buruzko zenbakiko editorialean konkretuago erabiltzen da, herrialde horren historia eta oraingo egoera interpretatzean: hau da, «Nafarroa zentralismoaren merkantzia politikoa bezala eta jauntxo modernoen feudo ekonomikoa bezala»: biak batean hartuz interpretatzen da Nafarroaren egoera. Oraindik argiago formulatzen da 2. zenbakiko editorialean, «Herrien iraultza» izendaturikoan: «Langileriaren eta Herrien burruka gaur batera doaz»; eta Europa mailan esaten den hau, Euskal Herriari dagokio bereziki: «Baina Euskal Herriak ezin du bakarrik lortu askatasun nazionala eta soziala» (2, 1977, 7); izan ere, iraultzak alderdi sozio-ekonomikoa eta etniko-kulturala batu eta elkartu egiten bait ditu (ik. 8. or.).

Bide honetatik, azken hogeitau urteotan gorpuztuz joan den «ezker abertzalearen munduan kokatzen da *Jakin*, bere iraul-

tzarekiko erreferentzia eta guzti: Abertzaletasun «iraultzaile» hau, ordea, ez dago gure aldizkarian aski zehazturik eta sistematikoki sakondurik.

## Euskal kultura

Hiru puntutara bil daiteke *Jakin*-en bizitzaro honetako euskal kulturari buruzko pentsaera: a) Euskal kulturak euskaraz izan behar du; b) Euskal kultura eta kultura unibertsala ez dira kontrako, alderantziz baizik; c) Euskal kulturgintzak oinarriko kultur taldeen eta erakundeen arteko organizazio eta burruka eskatzen ditu.

*Jakin*-entzat argi dago betidanik, gaurko kultura unibertsal osoa hartu behar duela euskarak; baina hori bezain argi dago euskal kulturak euskalduna izan behar duela. Aldizkariaren barruan eztabaidatu ere ez da egiten puntu hau; nabaritzat ematen da. Baieztapen horretatik bizi izan da *Jakin* azken aldi honetan ere, eta inolako editorialetan behintzat explizitatu beharrik ez du ikusi; baina zenbait artikulutan, bereziki euskal Unibersitateari dagozkionetan, behin baino gehiagotan agertzen da arazoa.

Euskal kultura eta kultura unibertsala ez dira kontrakoak; alderantziz, euskal kulturaren berezitasuna baieztatzean, Kultura unibertsalari dei egiten zaio, «kultura unibertsalak euskal kulturaren berezitasuna onar dezan» (1, 1977, 7). Bi erataria ulertzen da euskal kulturaren unibertsaltasuna: alde batetik, unibertsala izan behar du, kultura unibertsalaren alor eta maila guztiak azaltzeko euskara bera gauza izanez —esangura horixe dauka 1. zenbakian Euskal Unibertsitatea eskatzeak ere—; eta bestetik, bere berezitasuna gordeaz, munduko kulturari bere ekarria egitea: «Gizon horien [ospetsuen] unibertsaltasuna ezezik, Euskal Herriarena, euskal gizon guztiena eta euskal kulturarena baieztatzeke eta agertzeko, bere Unibertsitatea eskatzen du, benetan euskal Unibertsitate batetatik gure jakintsuek, artistek eta herri osoak beren irekitasuna eta unibertsaltasuna nabari dezaten» (1, 1977, 9).

Hirugarren, euskal kulturgintzaren organizatu beharra aldarrikatzen da, espontaneismoa eta dispertsioa gainditzeko. Lehenagotik, *Jakin*-ek eskatua zuen profesionaltasuna, amateurismo kulturala gaindituko zuena. Orain, berriz, kultur indarren bate-

rakuntza eskatzen du. Hau eskatzean (1977an), artean euskal kulturak ez du ofizialtasunik ez ministraritarik. *Jakin*-ek erresistentzia kulturealean planteatzen du organizazioaren premia; baina ez uneko politikagatik bakarrik, eta bai kulturgintza osoa oinarritik gora egitekotzat ikusten duelako, eta ez goitik behera datorren mugimendu ezarria edo gidatua bezala. Euskal Unibertsitatea bera, erresistentzi lan horretan eta behetik gorako egin-kizun bezala ikusten du; horretarako, eta konkretatuz, *Euskal Kultur Batzarrea* eskatzen du: «Euskal Kultur Batzarrea sortu behar dela uste dugu, euskal kulturaren politika eta egitarau zehatz baten barnean eta bidetatik, kulturgintza bateratu bat eraman dezagun kulturgizon, talde, elkarte eta instituzio guztiok» (1, 1977, 10). Eta batzarre horren ondorio bezala, «Euskal Unibertsitatearen Batzordea»ren beharra aldarrikatzen du, Unibertsitate hori egoki bideratuko bada.

Azkenik, kulturazko askatasunaren aldekoa agertzen da *Jakin*, bereziki prentsari dagokionez: «...prentsaren askatasun osoaren alde gaude» (2, 1977, 10). Euskal Unibertsitatearen beraren eskabideak, Herri zapalduen kultura herritarrek, kultura eta Unibertsitatea gainhartzailen aldetik jasaten duten zapalkuntzaren ukapena izan nahi du, «munduko kultura guztiak eta herri kulturak bereziki onhartuko eta bultzatuko dituen Unibertsitatea» baieztatuz (1, 1977, 9). Kulturaren askatasuna beti ere.

## Europa

Europaren arazoa, editorial mailan 1977ko 2. zenbakian azaltzen da bereziki, «Nazio ukatuak Europan» izenekoan. Baina ondorengo zenbakietan ere agertzen da agertu: «Autonomia Europan» (3, 1977), etab. Euskal Herriaren askatasun sozial eta nazionalaren arazoa Europarenean kokatzen da batez ere.

Herrien Europa eta ez Estatuena, aldarrikatzen du *Jakin*-ek. Areago, Estatuena Europa merkatala desegitetik —krisian bait dago horrelako europar batasun ekonomikoa—, etorriko da Herrien Europa soziala: «Europako Estatuena monolitismoaren lehertzapenak esperantza berriak sortu ditu Europako Herrientzat, "Herrien Europarentzat"» (2, 1977, 7); baina jarraian hau eranstean du: «...Europa politiko berri hau, sistema sozio-ekonomiko sozialista batetan bakarrik etor daiteke».

Hona hemen Europari buruzko bi baieztapenak batera for-

mulaturik: *Herri-en Europa sozialista, Estatu-en Europa kapitalistaren* kontra: «Estatu-arte-ko kapitalismoaren aurka, herri-arte-ko sozialismoa» (2, 1977, 7).

Euskal Herriari buruz azaldu den pentsaera berbera agertzen da hemen ere: hau da, askatasun nazionala eta soziala ezin daitezke bereiz, bakoitzak bere berezitasuna baldin badu ere: «Langileriaren eta Herrien burruka gaur batera doaz» (2, 1977, 7). Hala ere, *Jakin*-entzat sozialismoa ez da berez arazo nazionalaren konponbidea; horregatik, bere kontrapuntu kritikoa eta eszeptikoa jartzen du 13. zenbakian, Soviet Batasuneko nazio-arazoaren irtenbidea aztertzen duenean.

Optimismoz ikusten du Europaren prozesua: «Herrien —Et-nien— ordua iritsi da Europan». Hala ere, Herri ukatuen iraultza europar hau aurrera eramateko, beraien elkartasuna eta batasuna eskatzen ditu editorialaren hasieran eta bukaeran. Eta ideia bera errepikatu eta finkatu nahi da, honetaz CIEMENek emaniko agiria argitaratzean (11, 1979, 82-83).

Eta esperantzaz oihukatzen du hurrengo zenbakian: «Herrien Europa da etorkizuneko Europa. Eta Herrien Europa horretan, Euskal Herriak, dagokion bere lekua behar du, izango du. Euskal Herri osoak, Hegoaldeak eta Iparraldeak batera» (3, 1977, 6).

## Sozialismoa

*Jakin*-ek ez du sozialismoaren aldeko aitorten edo deklarazio orokorrik egin. Hala ere, zenbait arazo nagusiren interpretazioan sozialismora hurbiltzen da, eta behin baino gehiagotan esplizitoki makurtzen da sozialismoaren aldera, oso definiturik agertzen ez badu ere. Dena dela, sozialismo hori gehienetan *askatasuna* kontzeptuarekin batera doa eta sozialismo *iraultzaile* bezala interpretatzen da.

Lehen aipatua dugu, ezker abertzalearen dinamikan kokatzen duela Aldizkariak bere burua: bereziki, askatasun nazionala eta askatasun soziala bereizteaz jotzen ditu. Era berean kultura interpretatzean, klase-burruka kontutuan eduki beharra nabarmentzen du (ik. 2, 1977, 6). Baina klasea eta herria kontzeptuak oso hurbilekoak dira *Jakin*-entzat: eta kultur iraultza aipatzean, gogotanago du kultura herritar zapaldua eta ukatua, zuzenean klase-kultura baino (ik. 1, 1977, 9).

Nafarroaren arazoa aztertzean, esan denez (6, 1978, 5-9), klase-eskema sozio-ekonomikoez baliatzen da, zentralismoaren eta nafarrismoaren lotura eta sustrai ekonomikoa nabarmendu nahian.

Bi puntutan hartzen du *Jakin*-ek explizitoki sozialismoaren aldeko eta kapitalismoaren kontrako jarrera: Herrien Europari dagokionez (2, 1977, 7-8) eta Ekologiari dagokionez (5, 1977, 7-8).

Lehen ere aipatu dugu textu hau: «Europa politiko berri hau [Herriena] sistema sozio-politiko sozialista batetan bakarrik etor daiteke» (7. or.); izatez, «Europa kapitalista eta estatalista» berdindu egiten ditu.

Arazo ekologikoaren funtsa, berriz, gizarte-sisteman, Mendebaleko zibilizazio-ereduan bertan aurkitzen du. Eta hona zein ondorio ateratzen duen: «Kapitalismoa eta ekologia elkargaitzak dira» (7. or.).

Baina berehala dakarkio bere ukitu kritikoa sozialismoari puntu honetan: horrek ere ekologiaren arazoa maila tekniko hutsean ipintzeko arriskua du, benetan aldarrikatzen duen gizarte-eredu berrian integratzen ez badu gizakiaren eta izadiaren arteko harremana ere.

Era berean, Herrien Europa sozialistaren aldeko jarrerari *Jakin*-ek berak ipintzen dio kritikaren kontrapuntua, lehen aipatu dugun bezala. Botere sozialistari buruzko filosofo berrien kritika ere, neurri handi batez, bere egiten du *Jakin*-ek.

Jarrera kritiko honetaz gain, aldizkariak ez du eskema sozialista sistematiko eta garbirik, kulturari, gizarteari, Euskal Herriari edo bestelako arazoei buruzko azterketan; baina zalantzarik gabe, gizarte berri sozialistarekiko kidesuna eta hurbiltasuna zintzoki agertzen du *Jakin*-ek. Alde batetik, kidesun eta hurbilteta kritikoa izan nahi du; eta bestetik, humanismoz beteriko sozialismo gizatiar bezala agertzen da. Azkenean, ekologi arazoaren azpian gizakia dago, eta, hori konpontzeko, sistema kapitalista nahiz sozialistaren funtsean humanismoa aldarrikatzen da.

Sozialismo kritiko-gizatiar hau nabarmenagoa gertatzen da, behin eta berriro *Jakin*-en editorialetan *herriaren* kontzientziari eta *basearen* eraginari, indarrari eta burrukari ematen zaion garrantziari begiratuz. Herriari eta baseari deia, ia etengabea da *Jakin*-

-en zenbakietan. Horien argitan argitu behar da aldizkariaren sozialismorako joera ere.

### **Estatua eta boterea**

Estatuaren kontrako joera eta estatalismoaren kontrako burruka ere etengabeak dira azken urteotako *Jakin* aldizkarian. Gutxienik ere, konfiantzarik eza sortzen dio Estatuak euskal abertzaleari. Izan ere, bitan banatu eta mendetan zehar menperatu duten bi Estatu indartsuren artean (barruan) ikusten du Euskal Herria. Horregatik ere, antiestatalista da *Jakin* Europaren batasunari begira.

Alde batetik, Estatuaren boterea eta ofizialtasuna etsaiak ditu euskaldunak, horrek bere hizkuntza, kultura eta herria onartzen eta babesten ez dituelako —burrukatzan dituelako—. Horregatik, Euskal Unibertsitatea, Unibertsitate estatal eta ofizialaren kontrako bezala agertzen da, neurri handi batez, herriak bere burrukaz eta bere indarrak elkarganatu eta organizatu lortu beharrekoa. Era berean, Estatutua, Estatuak amoremandako instituzionalpena den neurrian eta ez Euskal Herriaren burujabetasunaren baieztapena eta ondorioa, erlatiboturik eta indargeturik gelditzen da.

Bestalde, Estatuagandik datorren edozein neurrik ez dio atxepinik merezi. Zentsurari buruzko editorialean —«Damoklesen ezpata» (2, 1977, 9-11)—, demokraziako arrazoinez gain, *Jakin*-ek berak eta Euskal Herri osoak Estatu diktatorial baten menpean jasan izan duten zapalkuntzaren esperientzia garratza eta mingarria nabari da; eta horrekiko ukapena sumatzen da azpian.

Baina Estatuarekiko jarreraren funtsean, botereari eta bereziki botere estatalari buruzko jarrera dago. Explizitoki anarkismoaren kontrako agertzen da *Jakin* (2, 1977, 7); bestalde, ordea, Filosofo berriek botereari buruz egiten duten kritika oso aintzakotzat hartzen du aldizkariak: «...filosofo berriek zerbitzu ederra egin diezagukete, boterearen arazoa berriro eta sakonki planteaziz, eta honen berezko mekanismo zanpatzaileak larru gorri gorritan agertuz» (8, 1978, 8).

Aldizkariak, autore horien kontra, zera uste du, boterea gauzatzen duten erregimen ezberdinak ondo bereizi beharra da goela, eta ez denak zorro berera sartu. Estatu denak ez dira berdinak, nahiz eta denak boterearen administrariak izan.

Eta hemendik bi ondorio ateratzen ditu: a) Boterearen kritikaren eta askatasunaren izenean erlatibotu beharrean izanik ere, beharrezkoa da euskal botere-sistema sortzea eta finkatzea: hau da, beharrezkoak ditugu euskal erakunde politikoak; b) askatasun-esperantzari eutsiz, horren aldeko burrukari ere eutsi beharra dago.

Eta berriro ere, boteredunen aurrez aurre, boteregabeko bauseari dei eginez eta baseko lana aldarrikatuz bukatzen du editorial hau *Jakin*-ek (ik. 8, 1978, 9).

Hirugarren bizitzaro honetan —heltzaroan—, *Jakin* saiatu da, alde batetik, bere lekune ideologiko eta kultural berezia lantzen eta mamitzen, euskal kultur munduan gertatu den ezberdintzapenaren barruan. Horren arabera, bere oinarri soziala ere eraturaz joan da, euskal gizarte osoa bereganatzeko asmorik edo usterik gabe. Bere lekune horretatik harreman zabalak izan ditu, eta bere egia ematen saiatu da, monopolioaren bila ibili gabe. Guzti hau, hain zuzen, har daiteke aldizkariaren heldutasunaren adierazgarritzat, gaiak erabiltzeko eta aldizkaria bera egiteko moduz gain.

### Laburbilduz

Hogeitabost urtetan euskal kulturaren lana egiteko modu bat, bide bat ireki du *Jakin*-ek. Horren azpian funtsezko ardatz batzu: Euskara eta euskarazko kultura, Euskal Herria eta abertzaletasuna, pentsaera humanista eta erlijiozkoa... Eta ardatz hauen gainean, bere pentsabide kulturala, sozio-politikoa eta erlijiozkoa emanaz joan da bizitzaro bakoitzean: bere «ideologia», nahi baldin bada.

Baina *Jakin*-en «ideologiak» ez du inoiz doktrina-gorputz sistematikoaren eta definituaren itxurarik. Aldizkaria ez zen ideologia konkreturen baten izenean sortu, eta bai euskararen eta euskarazko kulturaren izenean. Horregatik inoiz ez du aukera ideologiko konkretu, zehaztu eta sistematiko baten batera bere burua mugatu. Aldika-aldika oinarritzko pentsabide baten elementuak eman ditu, aldizkaria bera Euskal Herriko eta Europako gorabehera ideologiko, sozial, politiko eta kulturalen barnean situatzeko.

Joera batzu markatu ditu, sinpatia batzu adierazi ditu, kidesatasun batzu aitortu ditu, azterbide batzu erabili ditu: hitz batez,



bide bat seinalatu du, ideologia mailan ere. Ez du sistema monolitikorik definitu. Eta bide horren inguruan ideologi haniztasuna onartu du; sarritan kontrako pentsabideak ere onartuz, elkarrizketaren izenean eta Euskal Herriko ideologiazko gorabehera aberatsen tartean.

Hauxe agertzen digute aurreko orrialde horiek.

## Kulturgintzaren planteamenduak

Derrota militarrek euskaldunak zanpatuta utzi bazituen, esperantzak ez zituzten halere galdu: noragabe eta galdurik aliatuen «traizioak» utziko ditu 1950 aldera (ikus historiako partea). Eta gero, 39tik 49ra arte ezer ez egon ondoren, kultura mogitzen hasten denean, abertzaleen indarrak politikatik kulturgintzara bideratu balira bezala da. Aldizkarigintzara hain zuzen: 1950ean *Euzko-Gogoa* sortu da Guatemalan; 1953an eta 1954ean *Anaitasuna* (bizkaierazkoa) Bilbon, *Zeruko Argia* Iruñean, *Othoizlari* Beloken: respective frantziskotar, kaputxino eta beneditarrenak; Donostian 1954etik aurrera euskara hutsean ari da *Egan*. 1956an berrasten da *Euskera* (Euskaltzaindiarena) eta sortzen da *Jakin* Arantzazun... Hurrengo urteetan aldizkari gehiagok jarraituko du.

Euskal Herri derrotatuan begien bistan zegoen euskarazko kulturgintzaren zentzu politikoa, abertzalea. Hots, sorterriaren berregilea eta defendatzailea. Euskal instituzio politiko eta sozialak desegin eta, frankismoak ez du aski oraindik: euskal nazioa bera suntsitu nahi du behin eta betiko. Hizkuntza desagertarazi nakiko du batez ere.

Instituzioen berreskurapenik posible ez denez gero, aliatuen «traizioarekin» abertzaleak beren borrokaren perspektibak eta esperantzak galduta daudenez gero, nazioa behintzat bere integritatean salbatu nahiko da, politika mailan borroka luze batarako prestatuz, kondizio hobeen zain. Instituzioak salbatzerik ez badago, salba dezagun behintzat nazioa. Euskara. Jelkideak

izango dira *Jakin*-en lehenengo laguntzaileak, moralki nahiz materialki.

Desesperantza politikoaren gau ilunean biztu den erreakzio kulturean sortu da, beraz, *Jakin*. Zein zen, *Jakin*-ek zekarren planteamendua? Non situatzen zen, edo non hartzen zuen leku euskal kulturgintzaren barruan?

Kulturgintza idatziaren bi eremu arruntak hartzen baditugu, liburugintza eta aldizkariagintza alegia, esan beharra dago, *Jakin* sortu zenean, liburugintzak oraino apenas hartu zuela indarririk (zentsura eta ez dago zergatik aipa). 1956. urtean hogeit eta bat liburu eta liburuska eman ziren euskaraz argitara<sup>1</sup>; baina lau bakarrik dira berriak eta orijinalak: A. Goiriaren *Fatima'ko Ama Birjina*, I. Manzisidorren *Gure Patroi Aundia* eta G. Eppherrenen *Haurren lehen katichima*, erlijio liburuak hirurak; gramatika bat laugarrena: L. Villasante, *Euskal Gramatika Ilabur eta Idazleen Pusketa autatuak*. Ideia bat eman lezake, zertan zen orduko liburugintza.

Besterik da, aldizkarietan ikusten duguna: *Euzko-Gogoa* eta *Egan* bixi-bixi ari dira. Euskal literaturako sinadura sonatuenak beraiek biltzen dituzte momentuan. Horiek dira jakinlarion ikas-tegi, eredu, argi, bultzagile eta dena (Orixe, Zaitegi, Andima, etab.; M. Lekuona, L. Mitxelena, A. Irigaray, etab.). *Jakin*-ek beti aitortu du eta sekula ez du halere aski aitortuko, *Euzko-Gogoa*-rekin eta *Egan*-ekin duen zorra. Bi aldizkari horien aipamenaz hasi beharko du *Jakin*-en edozein historiak. *Euzko-Gogoa* eta *Egan*, ordea, ez ziren bi aldizkari desberdin eta egoera desberdinetakoak bakarrik (bata kanpoan, bestea barnean; bata agerikoa, erdi-klandestino bestea, etab.): bi mundu ziren.

Aldizkari bion artean *Jakin*-ek hasieretan *Euzko-Gogoa*-ri gehiago jarraitzen zion, *Egan*-i baino. H.d., Orixerri eta Zaitegiri azken finean. Orixerri, idazle bezala eta baita, zergatik ez, pentsatzaile bezala ere; Zaitegiri, plangile bezala, baina idazle bezala ere bai. *Jakin*-en lehen zenbakian bertan elkarriketa kasi programatiko bat dator Zaitegirekin. Seinalagarria, baita, nola aurreneko bost zenbakietan eskaintzak Azkueri, Orixerri, etab. egiten diren; hamargarreneraino ez, esate baterako, *Egan*-eko jendearekin askoz lotuago zegoen «Euskaltzaindiari»: hain zuzen *Jakin*-en sortzaile-zuzendari ekipoari agur esaten zion eta «Illobira bultzaka» artikulua argitara ematen zuen bederatziga-

rren zenbakiaren ondoren (1959). *Jakin*-en ekipo berri batek Zuzendaritza hartu zuenean, beraz.

*Euzko-Gogoa*-ren hobespen honetarako arrazoiak desberdinak ziren. Gure begiotan egiaz kategoria haundiko aldizkaria, eta ez jakinlarion begiotan bakarrik, *Euzko-Gogoa* zen orduan: izen sonatuengatik batik-bat (Orixe!); baina baita erbestetik eta klandestinoki zetorrelako ere, erresistentzia heroikoaren eta kontzesiorik gabeko borrokaren sinbolo gisa (*Egan* ez ote zen dikta-durarekin eta «etsaiekin» —Arrue, etc.— konpromisu bat egi-tearen eta kolaboratzearen produktua, zapaltzaileei aurpegia gar-bitzen ziena?); beste inon irakurtzerik ez zegoen gauzak irakur zitezkeelako han, «Euskadi» hitza besterik ez bazen ere, etab. Giroak egiten zuena.

Beste hau arrazoi sakonagoa zen apika, inkontzienteagoa izan arren: jakinlarien projektua, euskal kulturgintzaren burutaera, azkenean haien ikasketak eta mentalitatea bera, gertuago zebilzkiola orduan *Euzko-Gogoa*-ri, *Egan*-i baino, bai kulturatzat zer hartzen eta lantzen genuenaren aldetik eta bai egin nahi genuen euskara moduaren aldetik. Ez al ziren eliz ikasketak eginak *Euzko-Gogoa*-ko maisu haiek guztiak, gu bezalaxe?... Bira-keta 1959an etorriko da *Egan* aldera: eta berriro lotuta joango dira hemen ere bi alderdiak, kulturgintzaren kontzepzioarena eta euskara garbi/mordoiloena alegia.

### **Bi kulturgintza eredu: Euzko-Gogoa / Egan**

Beti ere *Jakin*-en historia egiten aritzeak ezartzen digun ikusmoldean egiten dizugu eskematxo bikoitx hau, gauzak berak bestela hagitz konplexuagoak izan arren.

Lehenengo kulturgintza eredua, nolabait egin behar eta, «jesuiten eskola» deituko dugu. Gerra aurrean hasi eta *Euzko-Gogoa* hil arte gutxienez, Pizkundearen barruan, hau da se-guruenik euskal kulturgintzan talde gisa diharduen eta nolabait «eskola» bezala kontsidera genezakeen talde (beren planteamen-duetan) aski homogeen inportanteena: Olabide, Estefania, Ori-xe, Lauaxeta, Zaitegi, Andima Ibinagabeitia, (Gaizka Barandia-ran), jesuitak edo jesuitetan eskolatuak, beraz.

Talde honek hasieratik bertatik (gerra aurretik jadanik), *euskara kultu* eta landu baten bila ekin dio (1), hizkuntza lan-

duaren eredutzat batez ere *klasiko greko-latinoak* harturik (2), eta klasikoen *itzulpenetan* gailendu da bereziki (3). H.d., Pizkundeak euskara landu nahi bazuen eta kultur mailara jaso —Lizardik, adibidez, «baserriz landa nai aunat ager/arazi» eta «izkuntza larrekoa /, nai aunat ere noranaikoa» esaten bazuen bere *Eusko bidaxtiarena* poesian—, eskola honek beste horrenbeste nahi du: euskara kultu eta landuaren eredu eta neurri, ostera, klasiko greko-latinoak dira horientzat. Ez hizkuntza aldetik bakarrik, pentsamendu heinean ere baino. «Zer joera artu bear dugun —idazten zuen Orixek— garbi aski oartu gara euskaldunek: ez goaz oker. Alare itz bi eratzikiko ditut, nongo literaturaren antzera ari bear dugun esateko... Aspaldiko errien literatura, baitipat Greziko artu bear ginuke ikasbidetako: *vos exemplaria graeca*... Erri aien biziera ta izkera gurearen antzeko baitziren, eta aiek beren literatura ederra sortu baitzuten» (*Euskal literaturaren atze edo edesti laburra*). «Orati'ren lagun naukozu», aitortzen zuen halaber Lauaxetak. Eta ikus, luze asko, Zaitegiren hitzaurrea in *Platon'eneko atarian*.

Eskola honek itzulpenik franko eman digu: Homero, Virgilio, Platon, Sofokles, Biblia, San Agustin, Urte guziko Meza-Bezperak... Eta eskola honetako jendearen eskuetan zegoen *Euzko-Gogoa*.

«Herri oso bat itzultzaile bihurtzeak baditu bere arriskuak, ongi agerikoak gainera», osteratzen zuen L. Mitxelenak *Egan-etik (Asaba zaharren baratza, 1960)*. «Literatura baten loraldietan itzulpenak berez datoz, gorputzaren ondoren isatsa datotzen bezala. Isatsa horratik ez da gorputza; ez da gorputzarentzat kalte gehiegirik gabe motz daitekeen eraskin luzea edo laburra besterik».

Euskara kultur mailara jasotzeko, itzulpenetara baino gehiago kreaioetara jo behar da, Mitxelenaren ustez; eta Greziara baino gehiago geure kaleetara. «Larre-hizkuntza dena kale-hizkuntza bihur dedin, hain maite dugun garo-usaina —norbaitek gorotz-usaina esango luke— zertxobait galtzea nahitaezkoa izango du». «Eta euskara biziko baldin bada (...), gure herrietako biziera nahasia euskaraz jarri behar nahi ta ez: gaurko ezinegona, bizibeharra eta ezinbizia, handinahia, diru-gosea, maitasun-gorrotok; gaurko gizonen ametsak, zuhur edo zoro; ezerezaren gau beltzean —hiltzeko sortua—, nondik datorren eta zertarako den ez dakienak daraman huskeriazko ibilera galdua eta bera baino goragoko zerbaiten alde gizona bere buruari uko egitera

behartzen duen indar izkutua. Eta goazen lehen bait lehen Lizardik bere maitearekin amets-bideetan barrena egin zuen bidualdi luzea berritzera» (*Euskal literaturaren etorkizuna*, 1950).

Ez da dudarik: *Egan*-en euskal kulturgintzaren beste projektu bat zegoen. Bi ereduok hitz sinple banarekin karakterizatzeotan, klasizitate/modernitate kontzeptuen kontrasteaz egin genezake.

Mitxelenaren hitzetan («ezerezaren gau beltzean...») ongi ikusten da, zein filosofiatatik mintzo zaigun: aristotelismo eta platonismotik ez, baino orduan puri-puri zegoen existentzialismotik. Mitxelenak euskara kaleratzera hotsegiten zuen eta orduan horixe zen kalean zebilena. Bide horretatik etorri ziren Txillardegiren lehenengo nobelak... Seminarioetan, ordea, askoz estudio gehiago eskaintzen zitzaien klasiko greko-latinoei, literatura eta filosofia modernoei baino. Jakinlariak beste planeta batetan bizi ziren oraindik<sup>2</sup>.

*Egan*-enak ez bezala, *Euzko-Gogoa*-ren eta *Jakin*-en iturburuak eliz ikastetxeetan daude: esplikaziorik aski bai bait da, *Jakin* zergatik *Euzko-Gogoa*-ri atxekiago hasi zen.

## Kultur aldizkari bokazioa

*Jakin*-en barruan kulturgintzaren planteamenduak izan duen historia eta hango gorabeherak azaldu aurretik, oinarritzko konstante bat azpimarkatu behar da historia guztian: *Jakin*, bere historian zehar, aldizkaria, liburu argitaldaria, ekipoa, «mogi-mendua», izan (omen) da; baina oso garbi eduki du eta agertu du *Jakin*-ek beti bere kultur aldizkaritarako bokazioa beste ezeren aurretik.

*Jakin*-en lehen zenbakiak honela adierazten digu aldizkari berriaren bokazioa: «Zaarra dugu izkuntza, ta basatia. Egun, artzain ta ikazkiñen mintazia soilik. Egun-egungo jokabide-mailetatik at dugu euskera. Kultur-mentua, onatx zuk eta nik txerta diogun bizigarri berezia. Nik bezin ondo dakizu: gure euskera kultur-yoera ta kultur-ats guzi-guzietan murgil ez bitartean, aizea crrazten atí gera» (I, 1).

Eta: «Edertu dezagun geure izkuntza. Egungo arazoetara egokitu. Saia gaitezen edotariko gai ta arazo euskeraz erabiltzen.

Tamala bait da naiz erriari, naiz gizartean, euskeraz jardutean, kirtenkeria edo ikullu-gaietara jo bear izatea!» (1, 3). «Garosuaiz gañera, jakintz-usaia bear du euskerak», oneritziko diote bigarren zenbakian Donostiako apaizgaiek (2, 175).

Hau zen, beraz, 1956ko *Jakin*-en sortzaileen asmoa. 1959an Zuzendaritza aldatzen da, asmoak ere bai neurri batetan, ikusiko dugunez. Kultur aldizkari izateko bokazioari buruz, ordea, lehengoan jarraitzen da: «Eraikilleak ba-dijoaz. Lemazain berriak etorri. Baina orok, lur berri bilatzaile izanik, amets bat dute lagun: euskera gurea, oraindik ezezagun ditun bidetxigorrak zear eraman. Abenda kezakak lur berriak nai ditu, lar egona baita lurrari, lur berdiñari, olerki lurrari, itsatsia» (9,4).

1966an, hamar urteak betetzen dituenean, *Jakin*-ek berriro adierazten du: «*Jakin*-en xede nagusia euskerari eta Euskal Herriari laguntzea da, euskerazko kultura gorpuzten (ez baita herririk hizkuntzarik gabe). Bidezko da Euskal Herrian edozein kultura-gai euskeraz ematea, beste Europa-ko eta munduko edozein erresumatan bezala» (23, 2-3).

Urteotan, halere, auzitan dabil *Jakin*-en kontzepzioa (1966/1967). Apaizgaiek utzi egin nahi dute aldizkaria. Atera beharra dago Arantzazutik eta elizgizonen eskuetatik. Krisiaren arazoia, baina, hain zuzen *Jakin*-ek kultur aldizkari izaten jarraitu beharra eta ordura arteko Zuzendaritzaren horretarako ezintasuna izango da. Espreski azal guztietan ezarriko da: «*Jakin* aldizkariaren xedea euskerari laguntzea da, euskerazko kultura egiten saiatzea».

Bi eztabaida urteren buruan, 1968an formula berri bat asmatzen zaio aldizkariari. Zuzendaritza, redakzio ekipoa, aldizkariaren barne egitura eta formatoa, dena aldatu da. Kultur aldizkari izateko bokazioan da berriro, non ez den ezer aldatu: «Ibilli dabillanak bakarrik daki bidearen berri. Ta zerbait badakigunez, ez Unamunok eta ez bestek, ez dutela arrazoirik, frogatu nahi dugu, konbentziturik baigaude euskera eta kultura ez direla etsai» (29, 2).

Debekua eta *Jakin* sorta itxura disimulatuko urteak datoz gero (1969-1976). *Jakin*-ek urteotan erdi liburu eta erdi aldizkari bezala jarraitu behar izan zuen. Liburugintzari ere lotu zitzaion *Jakin* urteotan, Editorial edo Argitaletxe bihurtuz. Baina guretzat ez zegoen zalantzarik horretan: *Jakin*-en berezko bo-

kazioa kultur aldizkaria izatea zen. Ez, argialetxe edo liburugile izatea. Diktadorea hil eta berehala, liburugintza utzi eta *Jakin* berriro agertzen da bere bokazioari dagokion forma propioan: kultur aldizkari bezala. Gaur arte. «1977aren atalburu honetan, gure jatorrizko langintzari heltzen diogu: aldizkariari... Kultur aldizkaria da *Jakin*. Kulturaz, herri baten biziera, lana, sentiera, pentsaera, jakitatea, jokaera, sentikortasuna ulertzen dugu». Eta: «Euskal Herriko eta kultura unibertsaleko bide berriak, arazo biziak behin eta berriz tratatuko ditugu. Euskal kultura, lehenbaitlehen kultura modernu bilaka dadin, eta kultura unibertsalak euskal kulturaren berezitasuna onar dezan» (1, —big. aldia—, 1977, 7).

### **Hasiera nahasiak: kulturgintzaren problematika**

Kultura eta kulturgintza termino ekibokoak dira. Adiera desberdin ugaritakoak. *Jakin* «kultur» aldizkaria dela esaten bada, ez da objektuaren edo gaien mugaketarik aldeztu aurretik egitearren (kultura erlijioari edo politikari kontrajarriaz, adibidez: kultur gaiak erabiliko lituzkeena, eta ez politikoak, etab.). Edozein gairen trataera modu berezi bat eta maila bat da «kultura» hitz horrekin nolabait adierazi nahi dena; kontzeptuaren zentzu garbi, zehatza, *Jakin*-ek definitu ez, baino praxian erakutsi egin beharko bait du.

Orain, kulturtasuna modu horretan ulerturik, *gaien trataera* xumeari, arruntari, edo periodistikoari esate baterako, oposaturik alegia, badirudi, lehenengotik, Euskal Herrian ere kultur aldizkari batek beste gabe legitimitaturik leukakeela bere burua. Kultur aldizkari batek ez lukeela problema izan behar. Nola itxurak enganatu egiten duen, ordea, eta 1956an behintzat euskal kultur aldizkari baten projektua problematikoa zen, berehalaxe ohartzen dugu. Lehenengo zenbakian Imanol Urbietaren elkarriketa bat daukagu Zaitegirekin:

- ...Labur: erriak ulertu ezin dezaken euskera zertarako lantzen ari gera?
- (Zaitegik) Etorkizunerako lanean ari gerala derizkiot. Euskal-erria burutik sendatu bearrean gaudede, ez oñetatik. Yakin-gizon, lege-gizon ta aundi-kiek onda digute euskera. Aundiki ta gizon ikasi



asko dituzketzu egun euskera ikasi irrikaz. Ez ordea kondairan barrena ta orain gutxi ere. Odol garbitasunaren ardurua aundia zuten gure aintzinako aundiki ta lege-gizonek, etzuten ordea onelako ajolarik azaldu euskeraren garbitasun ta iraupenerako. Aurrakako asko sortu zitzaizkion Lizardi'ri (g.b.) bere aldian, onda-bidetik abia zela esanez... Orduko olerki uler-ezinezko aiek, nork, ikasietan bederen, ez ditu egun aisa ulertzen ta atseginenez miazkatzen? Lege-gizonei, gizon ikasiei, aundikiei, lan-sail guzietariko teknikoei euskera mamitua eman bear diegu, gero bakoitzak bere sailean landu dezan eta zernaitarako gai egin. «Cura cerebrum»: auxen zan Jon Huarte sendagille-philosophilariaren leloa senda-gaietan, «senda lenik burua» (1, 90-91).

Horra, bada, komeria: gaur, baina biharkoentzat idatzi... Eta komeriaren berri geuk inork bezain ongi, edo zerbait hobeto, jakingo ez bagenu bezala, harrez gero maiz-sarri tokatu zaigu horrelakoak entzun beharra: «zuek biharkoentzat ari zarete idazten!», «prestijioari begirutzen diozute zuek, ez oraingo eta zinezko premiei», etab. Zer erantzungo dizu *Jakin*-ek, ipuin zahar horiek inpresionatzeko, hogeit eta bost urtetan askotxo ikusia eta ikasia dela baino?

Nahitaez da problema, eskola gabeko herri batetan kultur aldizkariak egitea. Problema da eta ez dauka ez izaterik.

Ikus dezagun, aurreneko jakinlariei nola presentatzen zitzaaien arazo hau.

### «Goi maila»

*Jakin*-ek, bereziki sortu berritan, apaizgai euskaltzaleen edozeintsu lan mota onartzen zuen, aurretik aldizkaria programatu gabe («artikulu zakua»). Lan gehienak apaizgaien ikasgaietako tipikoen zirela, csan genezake. Gaiei ematen zitzaaien tratamendua ere bai. Askotan, geure ikastaroetan egin behar izaten genituen lanak, izaten ziren, *Jakin*-en argitaratzen zirenak. (Bestela erdaraz egingo genituzkeen lanak, euskaraz egin genitzakeen horrela). Ez zen posible Seminarioetako aldizkari baten beste kontzepziorik. Gogora bedi, euskara, Seminarioetan beretan, ge-

hienez ere hobby «toleratu» bat zela orduan; gaizki ikusia maizago.

Egun-egungo gaiak eta tratamendu bizia, nahi zuen *Jakin*-ek, berak zioenez. Aldizkari «bizi, sakon, arazodun»a izan nahi zuen (1, 2). «Gaiak berak ere irakur-miña sor dezala» (*ibid.*): ez zuen, beraz, «euskaraz zegoelako» irakurtua izan nahi. Gero, ordea, «denon arlo dugu aldizkari au goi-maillatara jasoaraztea ta gero ta gallur gorenagoak gaintzea» (2, 7). Eta, azkenik, «edotarikoko gai ta arazo euskeraz erabiltzen» (1, 3) ahalegindu nahi zuen. Lan zaila, gure literatur tradizio txiroaren oinarriak beste gabe; eta zailagoa, kolaboratzaile denak eskola-milieu berdin-berdinekoak zirela, kontu egiten bada.

58ko bileran, jadanik, artikulu askoren elkorra, eskolastika usaina, bihurria, etab. salatzen zen (7, 104). Ez da erraza, ez, «goi mailakoa» eta une berean bixi eta arina izaten asmatzea. Gaur arte, *Jakin*-ek elkor samar izaten jarraituko du, nahiz bilera hartan bertan behin eta birritan gogoratu, «ensaio tankera litzake egokiago» (106) eta «eskolastika-azalketa alde bat utzirik, ensaio-tankera da gai sakonak atsegiñez erabiltzeko modurik egokiena» (107). Euskal saioa, ordea, oraindik ez da asmatu.

Unibertsaltasunik eta arintasunik lortu ezin bazuen, goi maila bai, oso goiko maila lortzen zizun *Jakin*-ek... Horixe goratzen zioten lagunak: goi maila (goitasun horiek baino gauza erlatiboagorik ez dago, izan ere). «Euskeraz orainaldi ontararte ikutu ez ditugun jardun goitarrak», aurkitzen zituen han Etxaidek (6, 101). Orixek: «Nik gaur Arantzazu Euskal-Universidade baten asiera bezala ikusten dut, eta ez kaxkarra, bere Revista eder eta guzti» (5, 90).

Egia esan, euskal eskolaren eta, nahi baduzu, baita Unibertsitatearen ideiak ere, beti arduratu du *Jakin* (ik., adibidez, 13, 1). Baina Euskal Unibertsitatea bera izateko ametsik, urrundik ere ez du izan gaurdaino, bestela amets bitxirik franko egin izan arren bere denboran... Aldizkaria izan nahi zuen eta beste ezer ez. Baina hori bai: kultur aldizkaria eta «goi mailakoa»! Goi mailakoa izateak, ordea, ikusi diogu Zaitegiri, korapilo gogorak dauzka: oraingoentzat ala gerokoentzat idazten da «goi mailan»? *Jakin*-en sortzaileak berak berdin nahasten zituen dilema honek:

«Batzuen ustez, irakurleari begiratu bear dio geienbat YA-

KIN'ek. Zenbait irakurlek, berriz, ez dute euskera bear bezela ezagutzen. Ez daude, gaiñera, jakintza-gaietan iaioituak. Eta askotan, naiago dituzte gauza atsegiñak, lan ariñak eta adierrezak, gai sakonak baiño.

Beste batzuen ustez, berriz, YAKIN'ek ez luke bere goi-mailla ortatik jetxi bear. YAKIN'en jomuga ez da irakurlearentzat izatea bakarrik; euskera jakintzarako bideak irikitzea ere YAKIN'en asmo nagusienetan jarri bear da. Egia da, irakurleren bearra dauka euskerak, eta irakurleak ugaritzeko biderik egokiena gai ariñak idaztea da. Baiña ez da ori guztia. Euskera ez dago jakintza-gaiak erabiltzeko landua, eta tajutu egin bear da orretarako. Arazo au, berriz, YAKIN'en muin-muiñekoa da. Ala jende xearentzat bakarrik nai dugu euskera? Jakintzan barrera sartu nai badugu, jakintza-lanen bearra dago naitaez; baita lan oiek elkor xamarrek izango badira ere, eta irakurle batzuen atsegiñetatik kanpora egonda ere. Egiteko aundia dute taju ontako lanak YAKIN'en, eta ez dago ondo zokoratzea. Gaiñera, irakurleak ugaritzekotan bakarrik, or zegoan EGAN jator askoa; eta etzeukan zertan sorturik YAKIN'ek. Gure aldizkari onek, ba, eskoladunentzako eta euskeraz trebatuentzako izan bear du, batez ere» (7, 104-105).

Oinarritzkoa textu hauxe, jakinlariak hasiera haietan kultur-gintza nola planteatzen zuten ikusteko; beren aldizkaria, *Egan*-en aldean esaterako, nola bururutzen zuten ikusteko halaber. Bi jarrerara dago (eta, era berean, bi euskara modu desberdin nabariko diezu idazleei aldizkari barnean): «batak irakurleari begiratzen dio eta oiek ugaritu nai ditu. Bigarrenak, berriz, euskerari begiratzen dio, eta ori prestatu nai du, jakintzaren saillak ere euskeraren mende jarri aal izateko» (*ibid.*).

Dilema honetan, «euskara landu beharraren» tesia nagusitu zen. «Beti saiatu bear da gauzak jakingarri egiten, eta geiago auetan; baiña naiz elkortxoak izan, ba-dute beren egitekoa euskera-kontutan jakintza-lan oiek. Bear bada, ez dute fruturik emango bertan bera; oien tankerako lanak egin nai ditzagunean, ordea, laguntza ederra egin dezaigukete. Gerorako, berriz, balio aundia izan oi dute, askotan, lan mamitsu elkor xamar oiek, beste arin atsegintsuek baino» (*ibid.*, 105-106).

Egungo irakurleari bitxiak irudituko zaizkio seguruenik alternatiba horiek. Ez da alferrik pasa hogeai eta bost urte. Dena dela, gauza horrelaxe presentatzen zitzaizkion, gerra ostean kul-

turgintzari ekin nahi zion belaunaldi gazteari. Nolatan hori? Oso sinple: aldizkari kultural bat euskaraz egin nahi izatearen eta irakurleei begiratzearen artean, badakigu gaur, ez dago berez inolako dilemarik eta kontraesanik; baina badago, eta ez txikia, aldizkari kulturala zenbait euskara modutan egin nahi izanez gero. Hasieretako jakinlari «euskara landuzale» haiei, ordea, burutik pasa ere ez bide zitzaien egiten, euskara «garbia» besterik landu zitekeenik. Eta euskara «garbiaren» eta irakurleak ugaritzearen artean, bai, dilema latza dago, «goi maila» famatu horretan batez ere.

### Euskara edozein gaitarako trebatu

Kulturgintzaren planteamendu honetan, euskara lantzeak du lehentasuna. Esan, bai, esango da, gai interesgarriak behar dira, etc. Baina gogoetak ez dira alde horretatik desarrolatu, hizkuntzarenetik baino; eta, bestalde, horixe bera ere ez dago aldizkariaren, edo irakurleriaren, ikuspegitik esanda, euskara edozein gaitan trebatzearen perspektiban baizik.

Eta «artzain ta ikazkiñen» euskara «basati» hau, «egun-egungo jokabide-mailletatik at dugu(na)», nola bihur liteke tresna baliagarri «kultur-yoera ta kultur-ats guzi-guzietan» (1, 1)?

(*Batasuna*). Jakinlariok urtero egiten genizun gure bilera, aldizkariaren arazo larrienak elkarrekin eztabaidatzeko eta erabakitzeko. 1957ko irailean («agorrean») egin zen aurrenekoa (hiru lehenengo zenbakien esperentziarekin beraz). Eta kuriosoena zera da: lehenengo bilera honetan bertan, jakinlarion arazo nagusia, batasunarena izan zela. Erabaki gehienak eta garrantzitsuenak ere batasunaz izan ziren, *Jakin-en* historian hartu ziren lehenengo erabakiak (4, 85-93).

Egiaz, fenomeno honetan, ez deus harrigarririk eta ez kuriosorik dago, ongi begiratuta. *Jakin-en*, gipuzkoarrek eta bizkaitarrek, nafarrek eta lapurtarrek idazten genuen; Arantzazuko frantziskotarrek eta Belokeko nahiz Lazkaoko beneditarrek, Salamankako salesianoek eta Begoñako karmeldarrek, pasiotarrek eta laterandarrek, jesuitek eta sakramentinoek... Oso ikastetxe desberdinetako jendeak. Sekulako anarkia sortzen zen, euskaldi bakoitzekoak ezezen, Seminario eta ikastetxe bakoitzekoak ere maiz bakoitza bere modura ari baginen. Batasun minimo bat

lortu behar laster baino lasterrago, aldizkariak itxura puxka-puxka bat izango bazuen!

Beharbada anarkia ere aurretik etxean inon baino gehiago ikusi duelako (7, 103), hainbat kartsuago jokatu du gero *Jakin*-ek beti batasunaren alde. Batasuna ez da, orain batzuek dioten eran, hizkuntzalariek asmatua eta idazleei inposatua. Idazleon premiek eta larriek inposatua eta hizkuntzalariek jakintzaren arabera ahalik hobekien moldatua da. Behar horrengatixe, *Jakin*-en batzarrak (ez Zuzendaritzak!), 1957an bere erabakiak aldizkariaren barruan inposatu eta behartu zituen bezalaxe (4, 89: «*Yakin*'en idatzi bear dutenek ola idatzi bearko dute»), 1964ean Baionako erabakiak ere onartaraziko dizkie bere lankideei (18, 20: «datorren alean hasita, *Jakin*-en lege hauek obligatu egingo dute») eta, azkenik, Euskaltzaindiaren Arantzazuko erabakietara (1968) jarriko da erabat.

(*Normalizazioa*). Orain euskararen normalizazio edo normalpen esan ohi diogun arazoa ere, *Jakin*-en aurren-aurreneko bileran bertan aurkitzen dugu, batasunaren arazoarekin batera. «Idazkera batutzea ez da aski. Au baño aundiagoa da, eta kultur-iztegia ere batu egin bear da» (4, 89). Arazo honek ere jakinlarien bilera guztiak enplegatuko ditu handik aurrera. Lehenengo bileran jadanik kultur hitzen fitxategi bat egiten hastea erabaki genuen: «Lenengo bide errexena, norberak idazten dituan lanetan erabillitako kultur-itzak bildu eta artikuluekin batera Arantzazu'ra bidali *Yakin*'en izenean. Beste bide bat, kultur-iztegi arazoan eginda dagon lana bildu eta, besteak bezalaxe, fitxetan *Yakin*'en zuzendegira bidali. Ortarako zenbait liburu zar eta berri banatu ziran yakinlarion artean, baita an etzeudenen artean ere. Fitxa auek GUTXIENEZ urteko iru aldiz bidali bear dira, *Yakin*'erako artikulua bialtzen diranean» (4, 90). Historikoki, fitxa biltze lan hau ez da *Jakin*-en eta Arantzazun sortua: Donostiako apaizgaiek hasi zuten (2, 178) eta gero hartu zuen *Jakin*-ek bere gain eta zabaldu, lankidetza Seminario guttietan organizatuz.

Jakinlariontzat buruhauste larrienetakoa zen hau eta hurrengo urtean (1958) beste bide bat eztabaidatu zen, Aita Onaindiaren aholkuari jarraiki: «komeni litzake, guztion artean, teologi eta filosofi-iztegitxo bat osatzea: orretarako, erderaz edo late-raz, izen-zerrenda aundi-aundi bat egin, izen oiek zerbait azaldu-rik, eta gure Orixe maixuari bialtzea egoki litzazueke» (4, 110). Bitartean, ordea, istilu batzuk sortuak ziren *Jakin*-en «orixis-

moari» buruz hain zuzen. Horren ordez, 1959ko batzarrak beste hau erabaki zizun: «gaurrarte YAKIN'en agertu izan dan kultur-terminologi osoa bildu eta Orixe'ri bialtzea» (10, 82). Fitxategiak osatu ziren, eta zerrenda osoa Orixeri bidali. Baina metodo honek ez zuen fruitu askorik eman. Orixe ezin zuelako erantzun jakinlariek behar zuten neurrian (ik. 14, 30-34), aisa uler daitekeenez; eta, baita metodoa bera seguruenik oso zuzena ez delako ere. Orixe, gainera, hil egin zen handik gutxira.

Halere esperentziok guziz probetxugarri izango dira gero UZEI projektua bururatzen denean (1977). *Jakin*-en hogeí urte lehenago hasitako kultur hitzen fitxategiak hara pasako dira, esate baterako.

(*Textugintza*). Arazo guztiok elkarri lotuta doaz. Garbi ala mordoilo, hitzen arazoak hiztegienera garamatza, eta kultur hitzen eta hiztegien arazoak zuzen-zuzen textuenera, hitzak airean galduta ikusten ez baditugu behintzat, textuan erabilia baino. Horrela, aldizkariarekin batera eta paralerroki beste barruti bat landu beharra ezagutu zen: textuena. «Beste zera bat ere erabilli genduan gure artean —berri ematen digu F. Mendizabalek 1957ko bileraren kronikan—. Yakinlarion artean ale bereziak eta jakintza-liburuak nola eratu, alegia. Bat edo beste baditugu bidean, eta Jainkoak lagun, datorren urtetik asiko gera oietako batzuk argitaratzen. Eginda bezela auek dauzkagu: 'Lourdes', Lourdes'i buruz dauden arazoak zazpi artikuluko sorta batean bildurik. 'Maria', mariztiko [mariologiako] arazo nagusienak amar artikuluko sorta batean bildurik. Urrengo urterako 'Ikurtunak', edo zazpi sakramentuak, bakoitza artikuluko batean zeaztuaz. Au ere nortzuk egin erabakita dago (...) Era ontara, urte gutxi barru euskeraz genituzke teologi, filosofi eta olakoak» (4, 90).

Zenbaki monografikoen ideia —debekuaren aurretik bat bakarera aterako da modu horretan, zazpigarrena— 68tik aurrera lortuko dugu gauzatzea, harrez geroko *Jakin*-en forma normala hori bilakatuz, ordura arteko «artikulu zakuaren» ordez. Textugintzaren ideiak, aldiz, bide zailagoa ibili beharko du. Egin ziren texturen batzuk, egin. Baina horrela egindako textuen balioa dudagarri samarra gertatu zen... *Jakin*-ek ez zuen halere amore eman. 1960ko otsailean berriro deika ari da:

«SUJERENTZI BAT. — Ametsa bada ere, egin dezagun biar etzi gure eskolak berpizturik agertuko zaiz-

kigula (...): ez dugu textorik izango (...). Ona sujerentzi bat: Arantzazun aurten (adibidez jartzen dut) teologilariok De Verbo Incarnato, Mariologia... ikasten ari gera. Gure artean mordoxka bat biltzen gera eta erabaki auxe artzen dugu: bakoitzak artu dezagun gai bat, tesi bat, gauza txikia, laburra; urtean barrena ikasi eta sakondu gai ori eta azkenez euskeraz eman (...). Teologoak eta filosofoak bear ditugu batez ere. Gauza au zuzen eramateko onela ordenatu bear: nai duten guztiak (etxe bakoitzean pentsa lendabizi zer egin) ona idatzi zer autatzen duten eta berealaxe erantzungo zaie, beste inork gai ori artu duen edo ez» (*Yakin'en geigarri*, otsaila 1960, 3).

Eta aurreko eskarmentuak zerbait otzanduta: «Lan auekin gaur-gaur ez dugu texto bat osatuko, baiña biar lan ori egin bear duanak bideak irikita izango ditu» (*ibid.*, 4, 13), zenbakiaren editorialak asmo bera aldarrikatzen dizu berriro.

Asmo zail honi gutxiena uste zitekeen aldetik etorri zitzaion laguntza: 61ean Administrazioak bi urtetako isilaldira behartu zigun *Jakin*. Aldizkaria egin ezinak textu edo liburugintza erraztu zigun: ordukoak dituzu *Filosofiaren kondaira* (baina 1960ko batzarrak erabakia egitea: lehen liburukia bakarrik eman da argitara), «Iraultzaren teoria» (argitara gabekoa), *Europa*, eta beste lanen batzuk («Afrika», egina, baina argitara gabe orobat). *Jakin*-ek argitara zuen baita Villasanteren *Kristau Fedearen Sustraiak*. *Jainkoa*, 1962. Berriro aldizkarira itzuli ahal izan orduko (1964) ahuldu zen, haatik, textugintzarako gogo. Hurrengo debekuarekin (1969-1976) oso antzeko zerbait gertatu bait zitzaigun.

Fitxategiak gora ala behera eta textuak behera ala gora, hizkuntzaren arazoak (batasuna, normalpena) soluzio gabe jarraitzen zuen beti ere eta, urteak joan urteak etorri, jakinlariak hizkuntzarekin borrokan eman behar izaten zituen bere indar hoberenak. 1968an, oraindik «gaurko munduari egokituriko hiztegi batzuk zaizkigula beharrezko idazleori: egiteko daude», protestatzen zuen editorialak (29, 2). «Gaurkotasunean jabeturiko hiztegi modernu bat ere behar dugu» (*ibid.*, 6). Azkenean, hogeitau urtetako esperimantuon buruan, hiztegi gintza teknikoari seriozki ekin beharra ikusten zuen *Jakin*-ek eta «*Jakin Hiztegien*» projektua jarri zuen martxan. Eta handik, gero, UZEI etorri da.

Konklusio modura: *Jakin*-en sortzaileei aitortza hauxe eta omenaldi hau zor diegu: kulturgintzaren arazoa aldebakarkiegi ulertzen bazuten ere, kasi hizkuntzaren lantze arazo soil bezala, hizkuntzaren arazoan harrigarria da, zein garbi ikusten zituzten, ordurako, konexio guzti hauek. Zein garbi zeukaten eginda alde honetatik planteamendua. Denborak ez du haien ideiak desarroilatu eta praktikara eramanez besterik egingo.

### 1959ko eztabaidak: garbi/mordoilo

*Jakin*, kulturgintzaren bere planteamenduetan, inoiz aritu izan da orokarkiago (batasuna, Unibertsitatea, elebitasuna ikastolatan, etab.), baina jeneralean bere kulturgintzarenak izan dira, kultur aldizkari bati dagozkionak, egin dituen planteamenduak. Bere kulturgintzaren maila honetan, esan daiteke *Jakin*-en aldakuntza haundia 1968an eman zela. Handik honakoa *Jakin* «berria» baldin bada, aurrekoari «zaharra» esan geniezaioke: Seminarioetako *Jakin* alegia. *Jakin* zaharraren historian, aldiz, *Euzko-Gogoa*-ren gisako aldizkaritatik *Egan*-en gisakotara, *cum mica salis*, 1959an eragin zen orientazio biraketa. 1959a urte gurutzial bat izan dugu, beraz, *Jakin*-en barne historiatxoan.

Irakurlea adi-adi egon beharko zaio, aldizkariaren axaleko kanbioen azpian, historia sakonari. Zenbat zalantza eta eztabaida, kanbio txiki baten azpian! Sortu zenean (aurreneko hiru zenbakietan) sail hauekin zetorren *Jakin*: 1) Teologi Saila, 2) Filosofi Saila, 3) Kultur Saila, 4) Antze ta Elerti, 5) Sasaki-naski, 6) Elkar-izketa. Zer non sartzen den, nolana ere, erne ibili behar: kultur sailean, deskuidatzen bazara, igoal aurkituko dituzu artikuluak Meza santuaz. Oro har, lehenengo hiru zenbakietan teologi ikasleen teologi aldizkari bat nabari da garbi-garbi.

4. zenbakiak (1957) formatoa eta presentaera aldatu zituen, baita barnean sailkapen modua ere: 1) Teologi-Filosofi Saila, 2) Kultura-Iakintza-Antze, 3) Elkar Izketa. Esan dugu gorago nola *Jakin*-en bi joera borrokan zebiltzan. Horretara, birmoldaketa hau konpromisu bat zen bi joeren artean: «Bi sailletan erdibitu diteke aldizkaria: lenengoan, **TEOLOGI-FILOSOFI-SAILA**, eta bestean, **KULTURA-JAKINTZA-ANTZE** eta **ELKAR IZKETA**. Beste itzetan esanda, gai larriak eta gai arriñagoak. Bigarren sail ori batez ere irakurleari begira legoke (...). Eus-



kerari ere lagundu egin bear zaio, ordea, jakintza-sailletan barna, eta egoki askoa da ortarako **TEOLOGI-FILOSOFI-SAILLA**» (7, 105). Eztabaida batzuen ondoren, *Jakin*-ek poesiak argitaratzeari betiko utzi egin bait dio, aldizkaria bi zati haundi horietan geratzen da zatiturik. De fakto sail beteenak Teologi-Filosofiakoa eta Elkar-izketakoa izango dira, beste Kultura-Jakintza-Antze hura eskasago dabilela. Konprenigarria, batetan euskara lantzen bait da; bestean, aldiz, euskarari buruzkoak bait dira elkarrizketa gehienak. Hizkuntzaren inguruan dabilta beti kezka nagusiak. Gauza bitxi bat: Teologi-Filosofi sailean, zazpi Autore desberdinetatik, Arantzazukoa bat bakarra ez da (berdin gertatzen da 3. zenbakian ere). Jeneralean Arantzazukoek oso teologia gutxi idatzi dute *Jakin*-en; filosofia gehiago; gehiena kultur arazoetatik joango dira.

Izan ere, lehenengo zenbakia agertu zenean, sortzaileek espreski esaten zuten, ez zutela modu hartakoa nahi aldizkaria, baina «biziagoa, egungoagoa». Alferrik, ordea. Lankideak teologi eta filosofi ikasleen artetik heldu ziren eta beren ikasgaietako gaiekin heldu ere. Arintzea, sailak ekilibratzea, etab., Arantzazukoen esku geratzen zen. Ez 1957ko sailkapen moduaren aldakuntzak eta ez 1958ko bilerako «eskolastizismoaren» kritikek lortu zuten errealitate hau aldaraztea. Seminarioek orduan eman zezaketen guzia horixe zen zalantza gabe. Alferrik zen gehiago eskatzea.

*Jakin*, bada, ez zen sortzaileek amets egin zutena: gaiak interesgarriak, etab. Gehiago zen, gaien aldetik, ikastaroetako lan eta akademiaren organoa; euskararen aldetik, Orixe eta Zaitegiren jarraitun enpeinatuenen esperimentalekua. Baina kontua da, puntu honetan sortzaileek seguruenik ez zeuzkatela ideiak oso garbi, zer nahi zuten. Alde batetik, beren asmoa Euskal Herriko apaizgaiak elkarganatzea eta lan batetaratzea zen; bestetik kultur aldizkari bixi bat nahi zuten. Agian biak nahiaz kontradizio bat nahi bait da.

Antzeko zerbait gertatzen zen euskara trebatzearen planteamenduan. Batetik hizkuntza moderno-moderno bat nahi da, egungo arazo guzietan airoso erabiltzeko modukoa; bestetik, baina, hizkuntza modernizatzeke, Jesukristo baino lau edo bost mende lehenagoko Platon edo Aristotelaren arabera euskara «garbi» bat lantzen ahalegintzen da... Nola modernizatu euskara, klasiko greko-latinoak eredu hartuta?

Dena dela, 56tik 58ra *Jakin-en* xede nagusia *euskara lantzea* izan da (zein erizpide modurekin, ikus bedi euskararen kapituluaren xehekiago). 59an horixe kondenatuz erasoko dio Joseba Intxaustik «Illobira bultzaka» artikuluan.

Intxaustik, Zuzendaritzara heldu bezain laster, beste orientazio bat ezarri nahi izan dio aldizkariari. Asmo horrekin idatzita, «Illobira bultzaka» (9, 83-88) garbizalekeriaren jipoi izugarri bat besterik ez da funtsean. «Euskal idazle: IXIL ZAITE, zure euskera odeitarrez, euskal irakurleak urritu, ta gure izkuntzari semeak kentzen saiatu nai baduzu. Arren!». Azpian zegoena, kulturagintzaren beste kontzepzio bat zen. Eta horregatik hizkuntzaren beste ikusmolde bat. Kulturagintzaren bi kontzepzio hauek, momentu hartan, *Euzko-Gogoa*-n eta *Egan*-en ageri zitzaizkigun nolabait inkarnaturik. Baina bidegabezkoa litzateke bi horiekin erabat berdintzea. Edonola ere, bi kontzepzioak, orduan egiten genuen modu honetan kontrasta genitzake: 1) kontzepzio bat euskara lantzearena eta trebatzearena da, euskal kultura egiteko, eta 2) bestea, kultura egitearena, baina euskaraz. Batentzat helburua da euskara lantzea; helburu bezala tratatzen du. Bestentzat euskara ez da helpide, tresna, besterik. Intxaustik bigarren perspektiba honetan arrazonatzen du:

- Hizkuntzak ez du balio absoluturik: ez dago hura lantzen aritzerik, landuaren landuz irakurleak urrituz (jauregi eder, garbi bat egin eta jendea kanpora bota).
- Hizkuntzak lehenengo gizonaren zerbitzari izan behar du, gero nazioarena (ezaugarri edo berezgarri nazional, garbizaleen ideia zen bezala). Ez daukagu, erromantizismoz edo abertzalekeriaz, gero gizonarentzat praktikotasunik ez duen euskara garbi, baina inutil bat lantzen ibiltzerik.
- Kultura nahi badugu, kultura ez da egiten euskaltzaleen ghetto txikiarentzat idatziz, irakurleak ugarituz baino. Kultura izatea ez da liburuak izatea, irakurleak izatea baino.
- Beraz, *Jakin*-ek «gaiak GAURKOAK eta euskera ERREZ-ERREZA» behar du (9, 86).
- «Laburturik: kultura bear dugu; ontarako irakurle ugari bear ditugu, ta ez dago irakurleak ugaritzerik, zenbait idazleen euskera-bidez» (*ibid.*, 88).

Aparteko ezer ez, gaurkoontzat bederen. Txokagarria zen, nahi baduzu, Zuzendaritza zahararentzako berriaren agur hitzak lehen orrietan irakurtzea (9, 4) eta justu zenbaki berean, azken aldera, artikulua hau irakurtzea. Gainera, jakinlarien aurreko bileren oroipena oraindik bizi zegoen, bi joeren arteko beren borrokekin (ik. 10, 81). Eta artikulua honek argi eta garbi alderdi hartzen zuen batzarraren eztabaidetan. Halere ez zuen sortuko sortu zuen eskandalua, artikulua *Jakin*-en agertu eta berehalaxe 1959ko apirilaren 2ko «Euskaltzaindiaren Agiria euskal-itzei buruz» etorri ez balitz (alegia, «aingeru», «alkate», etab. euskal hitz jatorrak direla).

Agiri honen inguruan ikaragarritzko eztabaidak altxatu ziren. Orixe arras kontra zegoen eta sekulako suan sartu zen polemikan. Erabakia eta, azkenean, Euskaltzaindia bera botatzen zituen hankaz gora. *Jakin*-ek, hurrengo zenbakian, letra haundiz «Euskaltzaindiari» egiten zion eskaintza: «Gidari zaitugu...», etab. (10, 31). Orixe berehala kritikatu egingo zuen eskaintza hori ere (11, 81-83). Gerxeago, Intxausti eta Orixe polemika filosofiko batetan nahastu zirenean, itxuraz gorabehera guziokin zerikusirik gabeko arazo metafisiko batetan, baina barenan hau dena konplikaturatuta zegoela, zeruak eta lurak nahaspilatu ziren azkenerako: Euskaltzaindi zaharra eta berria (Orixe: Akademia hila eta bigarren Akademia), euskara garbia eta mordoiloa, gerra aurreko eta ondoko Autoreak, klasikoak, *Karmel* eta *Arnas*, *Euskera* eta *Jakin* eta *Jakin-en gehigarria*, Orixe eta Orixeren Autoritatea, Txillardegiri (lehenago *Jakin-en* Bastarririkin polemika zakarra izandakoa: 5, 99-102; 6, 85-93 eta 94-98; orain atzera Orixe ez bigunago eraso: *Yakin-en geigarri* I, 5-6, 1960, 5-7)... *Egan*-etik Mitxelena tartean sartu zen *Asaba zaarren baratza* artikuluekin (*Egan*, 3/6, 1960, 121-134). Gainera Mitxelenaren artikulua horretan Orixeren kritikarik ez zen falta<sup>3</sup>. Eta bitartean Intxaustik hartutako mailuari eragiten jarraitzen zuen (10, 72-74; 11, 86-91; 12, 81-86). Ohargarria: *Jakin*-ek ez du eta ez zuen elkarriketarik publikatu ohi. Baina lehenengo zenbakian interbista bat egiten zaion bezala Zaitzegiri, 12.ean Intxaustik beste bat Txillardegiri egin zion. Bietan, elkarriketa, momentuko *Jakin*-en orientazioa azaltzeko erabiltzen da... Sintoma baten antzera, agonia penagarri baten buruan, *Euzko-Gogo*a eztabaida honen erdian isildu zen betiko.

Nola izan dira 68 eta gerozko istiluak batasunaren inguruan? Agian ez hainbeste, baina 59an ere horrelatsu izan zen. Eztabaida

haiek urteetan luzatu ziren gero. Hein batetan, gaur arte: gerra osteko Euskaltzaindia ez dela egiazkoa, etab. esamesak, adibidez, guziz ez bait dira oraino itzali.

59/60 inguru horretan ikusi genuen garbi/mordoilo auzia-  
ren gailurra. Baina etorri, lehendik zetorren (ik. honi buruz  
historiako lehen parte). Alderatzen badugu orain «Illobira bul-  
tzaka», esaterako, Mitxelenak hainbat artikulutan azaldutako  
ideiekin, garbi ageri da, Intxausti bere filipikarekin esatera ze-  
torrena, funtsean ez zela ikaragarri berria, zenbait sektoretan  
behintzat. Jakinlarien artean zen berria, ordea, planteamolde  
hori. Berria ezezik, eskandalagarria eta mingarria. Batez ere  
Orixe tartean gertatu zelako. Orixek miresle inkondizional asko  
zuen elizgizon euskaltzaleen eta jakinlarien artean. Ez bedi ahaztu  
*Jakin*-ek berak nola lehentxeago agurtzen zuen:

Zure nortasun biran zeure balioa:  
jakintsu, sakon, urten, edonorakoa.  
Euskaldunen poeta bein da betikoa (!),  
gizaldiak ikusi nai eben lakoa, etab. (5, 4).

Ezin luza gintezke gehiago —horretarako lekua hau ez  
delako ere— eztabaida horien azalpenean. Neurri haundi bate-  
tan, *Jakin*-etik kanpora desarroilatu ziren. Bakarrik, oinarriz-  
koak izan zirela, esan behar, hazaldi gazte eliztarrarentzat batik  
bat (Txillardegik eta lehenago hartua bait zuten beren bidea),  
eta *Jakin*-entzat bereziki: orientazio berri bat eman zuten, gure  
kulturgintzari ustegabeko posibilitateak irekiaz eta egundoko  
bultzada emanaz. Belaunaldien arteko haustura famatu hori,  
politika utzi eta kultur mailan, hementxe eman zela, esan ge-  
nezake, lehenengo aldiz, globalki samar behintzat. Biraketa ra-  
dikal bat gure planteamoldeetan. Konkretuan, guretzat, Orixe  
bai/Orixe ez, planteatzen zitzaigun arazoa une hartan. Eta esan  
beharra daukagu, aitortu eta eskertu beharra alegia, bi pertso-  
naren influentzia izan zela batez ere *Jakin*-en erabakiorra: Mitxe-  
lenarena eta Txillardegirena. *Jakin*-ekoak propioki izan gabe,  
*Jakin*-en historia erabaki zuten.

### **Kulturgintzaren teorizapena: filosofia berri bat**

Pasa dira tximistak eta trumoiak. *Jakin*-en badirudi ezer ez  
dela aldatu halere. Azalean, bai; orain arte «Teologiarren Yar-

dunak» esaten zuen tokian, orain (1960) «Kultura Jardunak» ipintzen du. Barruan ere agian zertxobait gehiago begiratzen zaio orain filosofia modernoari (Ortega y Gasset, Bergson, Schopenhauer, Russell) edo literatura mundialeko idazle haundiei (Ibsen, Txejov, Bernanos); baina, oro har, *Jakin* lehengo berdintsu dator. Jakinlariak beren fitxak egiten jarraitzen dute, beren Teresa deuna ikasten eta Gorputz Mistikoaz idazten. Urteko bilera egiten denean, batzarrak kultur hitzen zerrenda Orixeri bidaltzea erabakitzen du (10, 82). Hemen ez da ezer pasa.

Taldeek, izan ere, geldiro erreakzionatzen dute. Bestela ere beharbada ezinbestezkoa izango genuen luzarora eboluzio hau: *Euzko-Gogoa* hilda (1960), *Orixe* hilda (1961), *Egan* bere prestijioaren gailurrean, idazle gazteen bultzada bortitza (Mirande, Txillardegi, Aresti, etab.), nahikoa faktore zen, *Jakin* bide berrietaratzeko. Dena dela, aurreko urte guzietan ez bezala, 1960an *Jakin*-en bilerak, lehenengo aldiz, garbi/mordoilo arazoa ez zuen aipatu ere egin nahi izan... Filosofia berriak hizkuntza ez absolutizatzea eskatzen zuen! Irakurleen artean inkesta bat hasi zuen, ordea, Zuzendaritzak, haien gustuak eta joerak ezagutzeko.

Kulturgintzaren planteamendu berri bat, izpiritu berri bat gutxienez, hasia zen eragiten:

- Irakurleen beharra azpimarkatuko da behin eta berriro (*Jakin* 400 irakurletara iritsia zen, asko iruditzen bait zitzaizkigun).
- Eta artikulu erraz eta laburren beharra.
- Zinez kultur aldizkaria izatekotan *Jakin*-ek ez daukala apaizgaiena soil izaterik, planteatuko da. Eta 1960an, lehen aldiz hau ere, laikoen kolaborantza eskatzen da (11, 3-4: *Ateak zabalik*), ondoko urteetan errepikatuko den eskabidea (*Yakin'en geigarri*, 1, 4; *Jakin*, 15, 39; 22, 4...).
- Goraki aitortuko da Euskaltzaindiarekiko atxekitasuna eta Euskaltzaindiari laguntzeko gogoia.

Eztabaida urte horietan biziki ugaritu ziren euskarari buruzko artikuluak. Hain zuzen «kritikuek» salatzen zuten gauza bat horixe zen: euskal kultura batez ere euskarari buruzko monomania izatea. Bestetik, ordea, artikuluok arbuiatzea ez zen

egoki. 1960an «Yakintxo» edo *Yakin'en geigarri* bat sortu zen, orritxo inprimatu batzuk, informazioari eta eztabaiden mar-txari hobeto jarraitzeko, *Jakin* ateratzen ez zen hil guzietan argitaratzeko asmoz (gero lau bakarrik atera ziren). Bide bat zen, baita, euskarari buruzko arazoak, «gramatikoak», *Jakin*-etik desbideratzeko, izpiritu berriaren arabera. Gramatikarekin en-plegatzen zirenen kasi mespretxu batetara helduko zaigu *Jakin*: «Euskal kultura mailla aurkitzen dan egoeran, gure setari milla aldiz bidezkoago derizkiogu, euskal hizkuntzalariak oraindik *tzaz* eta beste zenbait arinkerietan dabiltzan bitartean» (23, 3; or-duko eztabaida bat zen «*tzaz*»en hori).

Artikulu interesgarri eta laburren doktrina ere «Yakintxo» honetan esperimentatu zen. Interesgarria, orduan hain biziki in-teresgarri zer iruditzen zitzaigun, ikustea da:

- Laikoen premia euskal kulturaren eta, zehazkiago, *Jakin*-en.
- Euskaltzaindiari eman beharrezko laguntza.
- Gure kulturgintza Europara begira orientatu be-harra.
- Eritzi publiko librerako eskubidearen errebindika-pena pertsona eta herri ororentzat (bestela ezin ze-nez gero, Aita Santuaren textuen bidez egiten zen errebindikapen hori).

Guzi honek ez du, seguruen, beste baliorik egun, orduko gogoia agertzea baino, kulturgintza egiaz moderno bat egiteko: Euskal Herriaren borrokarekin uztartua, hasia bait zen borroka hori indartzen (ez du beste sentidorik eritzi askatasunaren erre-bindikapen horrek); Euskaltzaindiaren inguru eraikia hizkuntza aldetik; Europara begira...

Europa! Europa bihurtu zen egun haietako gure hitz magi-koa (politikan ere... Eta *Jakin* hasia dugu dimentsio politiko bat hartzen). Europa demokratikoa batasun bidean abiatua da, etorkizun distiratsu bati begira: Merkatu Batua, etc. Itxaropen haundiak. Guk, inbiria haundiak. «Ha llegado la hora de poner en marcha a Europa», esango digu Jose Antonio Agirrek berak (1958, *Gabonetako mandatua*). Eta, halere, bai, puntu pole-mikoa zen hori ere orduan... Ikus dezagun nola.

Alde batetik, denek ez zituztela beren itxaropenak European jartzten, esan behar da (1959an sortu zen ETA hain zuzen).

Bestetik, industriaren eta ekonomismoaren urteak zirela frankismoarentzat (1957-1959, Estabilizazio Plana): «Europaren pare» jartzeak hango konfort maila lortzea esan nahiko bait du. Euskal Herrian, aldiz, erreakzio «izpiritualista» bat sortzen da, (diru) materialismo haren arbuio gisa, existentzialismoak inspiratuta hein batetan. Giro honetan (eta Mirandek aspaldian predikatzen duen Europa demokratiko eta kristauaren ukoa kontatu gabe), «Europa»ren uko modu desberdinak dauzkagu Euskal Herrian: tradizionala lehenengoa, kultura moderno orren uko gisa (Orixe); existentzialismoaren uko bezala espreskiago bigarrena; eta, hirugarren, budismo gisa bat ere bai, Europa teknikarekin eta arrazionalismoarekin berdintzen eta arbuizatzen duena. Hau ez da gorabehera horiek denak xehekiago azaltzeko lekua, *Jakin*-en historiara etorri behar dugu eta. Baina ikus bitez, esaterako, L. Mitxelenaen erreseina *Peru Leartzakori* (*Egan* 1/2, 1960, 101-106) eta «Europa eta gu» atala in *Asaba zaarren baratza* (*Egan* 3/6, 1960, 121-134). Europa, beraz, problema da.

*Jakin*-ek, aldiz, Europara deitzen du behin eta berriro (*Yakin-en geigarri* I, 3-4, 1960, 1-2; *Jakin* 21, 2; 29, 5, etab.). Zein Europatara? Llabur-llabur, zentzua hauxe da: ez daukagula, kultura eta filosofia modernoan ihesi, baserrian anparatzerik («baserria ez da euskal geroaren zuzendari izango»), ezta aspaldiko filosofietan ere («joan diren mendeeri geiegi begiratu gabe, goazen gaurko gaur onek zer eskintzen digun ikuster»). Kultura europar modernoan onartu beharra daukagula («Unibertsidade... bat bear dugu»); European ez daukagula etsaia ikusterik: «Benetako Europa kulturaduna ez diteke gure etsai izan, gure salbatazailerik». Konklusioa, beraz, hauxe zen Intxaustirentzat —berriz ere bera bait zen jakinlarien bozeramaile—: «Europarekin garaipenera edo bera gabe ondamedira».

Kulturgintzaren teorizazio arruntzia da oraindik. Laikoen beharra, Europara begira ihardutea, etab., oso printzipio orokorak besterik ez dira. Halere, beren orokartasunean, zer proposatzen den baino gehiago, zer borrokatzen den, erakusten digute. 1959tik aurrera *Jakin*, poliki-poliki, erabat aldatuko zaigu, hasieretako harekin antzik ere ez izateraino: kultur aldizkari izateko bere bokazioan ez bada.

1961ean inprentaz hasiko da ateratzen. Ez da urtebete *Jakin*-en azalean jatorrizko «Teologilarien Yardunak» kendu eta «Kultura Jardunak» ezarri zela. Hori ere kendu eta «Euskal

Gazteria kultura bideetan» irakurriko duzu orain. Definizio berri bila dabil *Jakin*. Debekuaren ondoren, 1964ean berriro ekiten dionean, beti eduki dituen sailak ere kendu egiten dira, arintasun eta bixitasun bila... «Neretzat, askozaz ere biziago, interestunago eta batez ere batuago agertu da (Jakin) bigarren aldi onetan», komentatzen zigun L. Mitxelenak (17, 70). Bai: 17. zenbaki horretakoxe lankideak ikustea aski da, esate baterako, egin den diferentzia erreparatzeko: hogeitau lankidetatik, eliz ikastetxeetakoak sei bakarrik dira. 1966an, *Jakin*-en hamar urtegarreneko zenbakian (21), Zuzendaria bera aparte —Aranztazukoa— ez dator lankide bat bakarra eliz ikastetxeetatik.

### **Kulturgintzaren teorizapena: programa berri bat**

*Jakin* ez zen iritsi programazio berri batetara. Baina, filosofia berriari zegokionez, printzipio arrunt hutsetan ere ez zen geratu. Programa berriztatzearen aldetik ere lehenengo aldiz egin zuen planteamendu orokar bat (hasieretako seminarista guzien elkarlan asmoak aparte), merezi bait du llaburki gogoratzea.

Kolaboratzaileetat: laikoak bilatzen dira, esan bezala. Lehenengotik orokarki: laiko eskolatuak, beste gabe. Geroxeago ikasle unibertsitariak (eta haiekiko harremanak antolatzen dira: Bartzelonan, etab.).

Zabalkundea eta propaganda, etab., antolatzen dira zerbait.

Munta haundiagoa duena guretzat, gaiei buruz egin da gogoeta sakonena, nahiz hemen ere ez iritsi gero programazio batetara. Tematika berriztatzea de fakto lortuko da hein batetan halere.

«Illobira bultzaka»n bertan, euskal kulturgintza praktikotasunari begira orientatzea eskatzen zen: «Jakintza-literaturak eguneroko gizonaren bearrak osatu nai ditu; literatura-sailla, ordea, edertasunari begira lilluratzen da. Ura praktikua da, au interregabea. Eta ez dago zer esanik: gizonak, geroz ta geiago, praktikutasuna nai du lehenen». «Deretxua, Mediziña, Filosofia...», auek praktiku izan nai dute, gizonaren bearrak aseaz» (9, 84). Gainera, lehenik estamentu horiek jarri behar ditugu



euskaraz mintzaten, jende xeheak mimetismoz horien antzera jokatu ohi bait du.

Ikuspideekin kontsekuente, 11. zenbakiak lege-gizonen, medikuen, ekonomisten kolaborantza eskatzen zuen... Programatxo bat edo, bazegoen beraz. Baina konkretatu gabe. Eta horretan geratu zen. 1967ko bilera ahaleginduko da konkretatzen.

Gorabehera guziotan, polemika artean bait gabilta oraindik, gogora dezagun Intxaustiren ideia hauetxeekin nola geroxeago Krutwigek *Euskararen ethorkizuna* publikatzen zuen *Egan-en* (*Egan* 1/3, 1962, 19-33): «Okzitaniako hizkuntza Kultur modernoaren hizkuntza bat denz iujatzeko Mistralek baino gehiago teknikalarietarik eta natur-iakintzalariek egin dezaketek». Gogoratzen badugu, nolana ere, euskaltzaleek eta idazle gazteek zein erraz jotzen zuten orduan poesia (askotan oso merkea) egitera, ulergarriago egiten zaizkigu kulturgintza rigorosoago baten planteamenduok.

### Talde lanak antolatu

Kulturgintzaren planteamenduei gagozkiela, beharbada *Jakin-en* aportazio inportante bat, programazioa bezain inportantea, ekipoaren ideia eta errealitatea da. Elkarlanarena.

Kulturgintzan lan egin liteke indibidualki ere (azken-azkenean beti indibiduala geratzen da kultur lana). *Jakin-ek* beti ekipoa bilatzen du: «Yakin beste asmo sendo ta bearrezko baten lorbide ere dugu. Zeatz adierazi: apaiz ta praille gaien elkartasuna. Ar-emanak estutu; ertsiago elkartu; gertuagotik elkar ezagutu; gogo bateko biurtu» (1, 1).

Asmo hau konplitu egin zuen *Jakin-ek*, seminaristen aldizkari izateari utzi zion arte behintzat. Gaur-egun euskal kulturgintzan dabilen jende asko da ekipo (harrobi) hartatik atera. Planteamendu honen garrantzia Zaitegik ondo igarri zuen: «zuek zerate gure eredu: emen gabilta gu ezertarako batu eziñik» (2, 171).

59ko iskanbilen ondoren laikoak bildu nahiko dira ekipoan. «Errebista bere xedetik aldendu gabe, jakitunok gera elkar-batu bear degunok (...). Danok batean egin bear dugu lan, bai praille eta apaizgaiak, bai gizartean bizi diran eskoladunak

(*Yakin'en geigarri* I, 1). Lehen isilaldiko bi urte haietan, eki-poak salbatu zuen *Jakin*: aldizkaririk ez zegoen, baina ekipoa bai. Eta ekipoak urtero bezalaxe bilerak egiten, fitxak biltzen, kulturgintzako arazoak eztabaidatzen, liburuak prestatzen, jarraitzen zuen. Orain, gainera, jakinlari laiko dextenterekin.

*Jakin* posible egin duena, ekipoa izan da. Horrela bakarrik izan du posible 64ean erreberiturik berragertzea. 1977an berdin berriro. Eta horrela bakarrik izan du posible bakarka ezingo zukeen mila lan aurrera eramatea: fitxak biltzeko ekipoak, textuak prestatzeko ekipoak, etab., han-hemen sakabanatuta.

### 1967: krisia (?)

#### Jakin laikoentzat

Aspaldian esaten zuen *Jakin-ek*, esan, «urietan dago euskeraren etorkizuna» (6, 3), 59ko eztabaiden aurretik ere. Baina, orain, *Jakin* bera eta haren planteamenduak aldatu direnaz gainera, sortu zeneko 1956 hartan baino arras bestelako inguruan mugitu beharko du *Jakin-ek*. Eta adaptazioak buruhausteren batzuk emango ditu.

Bitartean Euskal Herria zeharo aldatu bait da. Ez gara, berriz ere, alderdi honetan luzatuko (historia politikoaren azken aldiko edozein liburutan begiratzea dago). Hauxe bakarrik: ETA gogor ari da eta haren EAJ/PNVrekiko konfrontazioa, 66an, biek Aberri Eguna alde banatatik konbokatzeraino doa (abertzaletasunaren mundua ez da bat eta bakarra, kontradiktorioa baino); grebak (Bandas); sindikatuetakoa juradu eta enlaze hauteskundeak direla eta, istilu gorriak berriro; are gorriagoak, geroxeago, ETArekin beraren barruan «felipismoaren» borroka eta lehenengo espulsioko gertatzen direnean... Gorabehera guziok inpakto haundia dute Seminarioetan: laster hasiko da Seminarioen hustuketa haundia! *Jakin*, ordea, zebilen bideak harrapatu du, esan ohi denez: laikoek sartu behar zutela, esaten zen; munduan sartu behar zuela *Jakin-ek*. Baina «mundu» hura ez zen batere erraza *Jakin-entzat*. Etorri ziren laikoak, etorri, eta problematika berri eta nahasi batekin etorri ziren.

*Jakin* desbordatuta geratu zen, egoera sozial, kultural eta politiko honen aurrean. Arantzazutik, eta orduko medioekin, ez zegoen behar bezala erantzuterik. Urte gutxitan, laikoen pisu espezifikoak nagusitu egin da *Jakin-en* barruan. Ez da, jadanik,

apaizgaien aldizkari bat eta ez dauka zentzurik Zuzendaritza Seminario batetatik eramateak. «Ez da gaurko burutazioa guretzat —aitortzen du 22. zenbakiko *Zuzendaritza billa* editorialak—, prailleen zuzendaritza kaltegarri-edo gertatu zitekeala errebistarentzat. Praille eta apaizgaiek bete zuten beren eginbeharra estrinako etapa hartan. Ta aspertu gara oraintxe esaten *Jakin* ez dela prailleen aldizkari bat gehiago. Areago, konbentziturik gaude, Arantzazutasuna ta praille usaia soinean dituen bitartean, *Jakin* ez dela izango euskal gazteriarren kaseta» (22, 4).

Kargu egin nahi zezan laiko taldearen esku uzten zen aldizkaria. «Ez pentsa praille ixtudianteok aparteko interesik daukagunik gure posibletasunen goitik dagon errebista bat zuzentzeko. Gaurdaño, burukomiñak eta eragozpenak bakarrik sortu dizkigu, bai gure ixtudioetan bai gure bizimoldean» (22, 4). Baina talderen batzuei eskaini bazitzaien, eskaini, «jendeak ez du konpromixorik nai. Horregatik, bati eta besteari egiñiko deiak papel saskian dute atsedean» (*ibid.*).

Urtero bezala, 67an jakinlariak beren batzarrean bildu ziren. Zuzendaritzak «beste puntutxo bat ere hasieratik argitzea prexixio zela, adierazi zuen. Hain zuzen: *Jakin orain artean eraman dutenen postura aldizkariaren aurrean*. Alegia, *Jakin* ez dela ia —ez duela izan behar— fraile ta apaizgaien kaseta soilik. Suplentzi-lana izan dela eurena, orain artekoa. Ta, heldu dela ordua subsidiario eginkizuna esku egokietan uzteko» (25, 61). «Zuzendaritzak argi aitortu zuen bere eziña aldizkariaren programazio berria itxuraz aurrera ateratzeko» (*ibid.*, 63).

Redakzio ekipo bat hautatu zen orduan, egitura —hots, Zuzendaritza sistema— hoberik aurkitu arte Zuzendaritza gisa arituko zena (Karlos Santamaria, Rikardo Arregi, Andoni Lekuona, Xabier Kintana, Ibon Sarasola, Jose Antonio Arana). De fakto sistema «kolektibista» honek ez zuen sekula funtzionatuko. Urtearen bukaeran Arantzazuk eta Arantzazuko ikasleek utzi egin zuten aldizkaria, esan bezala. Agudo eta larri, irtenbide bat aurkitu behar izan zitzaion aldizkariari.

Zein zen jende honen euskal kulturgintzaren planteamendua (*Jakin-en*)?, galdetuko du irakurleak. Hona hemen:

«*Jakin-en* xede nagusia euskerari eta Euskal Herriari laguntzea da, euskerazko kultura gorpuzten (ez baita herririk hizkuntzarik gabe). Bidezko da Euskal Herrian

edozein kultura gai euskeraz ematea, beste Europa-ko eta munduko edozein erresumetan bezala (...). Euskera gihartsua nahi dugu, baina euskera xede egin gabe, ta bai euskal kultura (...). Euskal ikasleok —unibertsitario, militante, apaizgai, praillegai, tabar— gartsuki erantzun bear diogu gaurkoz *Jakin*-ek, ez bestek, egiten duan euskal kultura intelektuala urratze lanbide oni.— Komeni da ta saiatuko gera, ahal dan neurrian noski, azterketak egiten: batez ere soziologiazkoak, literatura, erlijioa, ekonomia, politika, Herriaren egoera, tabar, beti alderdikierietaz kanpo gizonaren osotasunari begiratzen diogula» (23, 2-3).

Funtsean ez da egiten besterik, 59an hartutako orientazioaren azken konklusioak atera baino. Polliki-polliki esplizitatu da prozesua bere azkeneraino. *Jakin*-entzat aro berri bat hasten da.

### 1968: *Jakin* «berria»

1968an Joan Mari Torreldaik hartu zuen berriro (bigarren aldiz) *Jakin*-en zuzendaritza, Karlos Santamaria eta Rikardo Arregiren laguntza guziz baliosarekin. Berritasunak nabarmenak dira. Konparazio bat axial-axaletik egin liteke:

1956/1967

Seminarioetakoa  
teologiko-filosofikoa  
«artikulu zakua».

1968/1981

Seminarioetatik kanpokoa  
kultura orokarrekoa  
monografikoa.

Ikustea dago zeintzuk diren gai monografikoak: Jakintza berria, Euskal Herriko hiru hereje, etab. Eta egileak: Igara (Txillardeggi), L. Mitxelena, K. Santamaria, A. Iturria, M. Pelay Orozko, J. San Martin... Nota laburretako lankideak ostera: A. Lekuona, Ibon Sarasola, J. M. Torreldai, Rikardo Arregi, Xabier Lete...

«Etapari berri baten aurrean ikusten dugu geure burua —ager-tzen zuen Editorialak—. Lehena ez dugu ukatzen, baiña oraiña aztertu nahi dugu eta etorkizuna gauzatu» (29, 2). *Jakin* berriaren asmoak eta proiektuak azaltzen dira gero, kulturgintzaren plangintza eta gogoeta franko konkretuak oraingoan (ik. bila-kaera ideologikoaren atala).

## Plangintza bila

Gogora dezagun. 68 aldera, *Jakin*-era jende berria heldu deanean, «iraultza» politikoa martxan doa. Mugimendu politikoaren aldean, kulturala, 50. urteetan bortitz hasia, atzera geratzen hasi da. *Euzko-Gogoa* hila da. *Egan* bera urtean behin bakarrik agertzen da 1966/67/68. urteotan. Liburugintzaren gora handia oraindik ez da hasi. Dinamikoena *Jakin* dabil, urtean bost zenbaki ateratzera pasatzeko asmotan hain zuzen (23, 1). Hauxe izan liteke, beraz, euskal kulturgintzara asmoz eta gogoz beteta heldu den hazaldi berriaren aldizkaria. Badu izena, azpiegitura bat, komeni den periodizitatea. Eta gazte jendeok (beti bezala, Rikardo Arregi aipatuko dugu, sinbolo mailan geratzeko) *Jakin* beren plataforma bihurtu nahiko dute.

Hauek profesionalismoa inauguratu nahiko dute euskal kulturgintzan, ordura arteko boluntarismoak eta kaotismoa gainditzeko.

59 aldera jadanik hasia zenuen *Jakin*, kulturgintza seniorik egitekotan, jende *prestatur*a eskatuz (edozein prozesuri begiratzen diogula ere, sustraiak 59 inguru hartan bilatu beharko ditugu hemendik aurrera). Eliz ikastetxeetako ikasleak, ordea, ezin esan daiteke «jende *prestatur*a» direnik (Europaren mailako kultura egiteko, orduan esango zen moduan). Gainera, egongo balira ere, beren gaitan, zer egin besteetan, garrantzizkoenak beste horiek direla erabaki bait da? «Gaur prakadunoi esan nai genizuke zerbaít —irakurtzen da 11, 1960, 3-4 Editorialean—. *Yakin* orainarte apaizgaiona izan dugu, baiña, zuei ere ateari iriki bear dizkizuegu. Ba-da gure aldizkari ontan filosofia ta teologirik; ta ekonomia, mediku-jakintza, lege-jakintza, ta gainerrakoak? — Jakintza DENA bear du euskerak, biziko bada». Kontua, beraz, ez da laikoak (pertsanak) aldizkarian biltzea, aldizkaria alor «laikoetara» hedatzea haino. Orduan sortzen da lema: «karreradunok euskaldun!» (ik. *Yakin'en geigarri*, otsaila 1960, 1 eta 4).

Orduan hasten dira *Jakin*-en (59/60 aldera alegia) amateurismoaren kritikak ere, hasi. Euskal kulturgintza, esango da, borondate oneko edo abertzaleko edozein ezjakinen eskutan dago: «Esan liteke zerbaiterako aundi-naia duen edozein kulturagabek derriorez euskeraz idatzi bear duela» (*Yakin'en geigarri* I, 3-4, 2). Edo «euskaltzale», baina kulturagabekoen lana izan dela kulturgintza orain arte: «Euskal idazleen artean, gazteongan

batez ere, gertatu dena au da: kultura egiteko preparaziorik ez dugula. Ba-genekien euskera (...), orregatik euskera, euskera eta euskera eman dugu. Besterik ezean zer egingo genuen, ba? Zenbait idazleok euskera puxka bat ikasi eta idazteko prest geundela uste izan dugu. Zer idatzi, ordea? Euskera? Onatx izkuntz-formalismua deitu izan dana... Euskera euskeragatik etabilli; izkuntza absolututasunez jantzi dugu orrela. Okerrena dana, irakurleek ere berdintsu pentsatzen dute: euskeraz irakurtean, ez ditekela euskera ikasteko baiño izan, alegia» (9, 86).

Kulturarik emango bada, eduki egin behar da lehenengo: jende prestatua behar da euskal kulturari. «Jakín dezagula gero, erdalkeria bezain kaltegarri zaiola Euskalerrriari gure txanponetako kultura uskeria» (*Jakín'en geigarri*, I, 3/4, 3).

Ideion bidetik joango da hurrengo urteetan *Jakín*-en eboluzioa: kultur alor guzietara zabaldu, laikoak integratuz; hitz batetan, kultur aldizkari zinez orokarra bilakaturik. Baina ideiak, beren indar guzian, 68an agertuko dira. Krisiaren ondotik *Jakín*-ek hartu duen egiturarekin. Han daude, Zuzendaritzan, Rikardo Arregi eta gazte suhar haiek; baina baita Karlos Santamaria, etab. ere, «prestatuak» alegia. Urte hauetan egingo dira *Jakín*-en sekula egin diren editorial sakonenak. Baina momentu honetako *Jakín*-en planteamendu agresiboak ikusi aurretik, eboluzioaren beste alderdi pare bat gogoratzea komeniko da oraindik.

Izan ere, oso konplexua izan da eboluzio hau (urteotako Euskal Herri guziarena bezala): euskara modernoa egin nahia, laikoak irabazi nahia, kultur eremu guziaz landu nahia, jende prestatu nahia, gazteen aldizkari izan nahia... Asmo desberdinok elkar baldinpetuz eta elkarri eraginez, edo elkar azpiratuz, jarraitu dute. *Jakín*, prestatuen eta ikasleen aldizkaria izango da urte mordoska batetan. Gai berrietara irekitzeak eta jende berria biltzeak aldatu egin du halere *Jakín*-en errealitatea bera. 66an «Euskal gazteria kultura bideetan» lehen ondoan beste hau eranstean da: «herriaren izpiritu eta kulturaren alde», hurbilketa nahi baten espresio, politikagintza gogor batetan beti herriaren izenean ziharduten joerei. Baziren *Jakín*-ez interesatzen hasi ziren talde politikoak. Alabaina 66/67. urteetako zenbaki guzietan azalpen hau eramango dute barneko azalean: «*Jakín* aldizkariaren xedea euskerari laguntzea da, euskerazko kultura egiten saiatzea». *Jakín* salmentan zegoen. Baina ez zuen edozein talde politikoren esku geratu nahi. Krisi urteak dira horiek. *Jakín* gazteen aldizkaria da oraindik, eta bere burua hala aitort-

tzen du espreski (23, 2). Baina berehalaxe, maiz-sarri ikusitako zentzu aldaketa bat eragingo zaio kontzeptu horri: gazteena da, bai, baina gaztetasuna ez da adinez neurtzen, izpirituz baino... *Jakin* «izpirituz» gazteena da!

Azkenik, urte haietako gazteen desengainu sentimentua seinala dezagun. *Jakin*-en eta *Jakin*-en inguruan inpresioa zabalitzen da, euskal kulturgintzari zinez ekiten dioten bakarrak gazteak berak direla, *Jakin* bera alegia (ez dago esan beharrik, kulturgintzaren kontzeptzio partikular batekin operatzen zela estimazio horietan: literaturgintza baztertuz, adibidez); eta, *Jakin*-en beraren kulturgintza moduak ere franko desegokiak izan direla ordura arte. Arazo guziaren birplanteaketa radikal baten premia sentitzen da beraz. Gordin asko azaltzen dira sentimentuok: «Euskal ikasleok (...) gartsuki erantzun behar diogu gaurko *Jakin*-ek, ez bestek (!), egiten duen euskal kultura intelektuala urratze lanbide honi» (23, 3).

Horrela gertatu da, *Jakin*-ek bere burua, urte hauetan, aldizkarizat ezezik, bitxiki samar «mogimendu»tzat ere hartzea (23, 3. 1967ko jakinlarien bilera gaia horrelaxe planteatuko da: «*Jakin* aldizkariaren eta mogimenduaren gaurko eginkizuna» (25, 61).

Kontzientzia berri bat dabil *Jakin*-en, ilun oraino, kontradiktorio puntu askotan, irtenbide baten behargarri nolnahi ere. 68ko Zuzendaritza sistemaren aldakuntzak ekarri bait du irtenbidea azkenean.

34. zenbakia *Euskal kultura*-ren monografikoa da, «uhin berriko» autore zerrenda batek osatua dena (J. Apalategi, M. A. Intxausti, M. Lasa, I. Sarasola, J. M. Torrealdei). Kulturgintzaren kontzeptua bera eta bereziki euskal kulturgintzarena eztabaidatu eta argitu nahi dira (zenbaki oso logratua denik ezin esan halere). Benetan interesgarria Sarrera-Editoriala da (34, 1-8): ikus dezagun hau, zuzendari ekipoaren pentsamendua bertan daukagunez.

*Jakin*, Sarrera-Editorialean ematen duenez, Komite Zentraltxo antzeko zerbait bezala sentitzen da momentu honetan, euskal kultur mugimendu guziaren plangintzan enplegatutik, dena begi eta belarri. Bi muturren eskema sinplearekin epaitzen da dena: alde batetik programa falta, ikusten da, espontaneismoa, amateurismoa, folklorismoa, funtsean dena bat bait da, gure

kultur miseriaren kausa hain zuzen, —bestetik erreforma, eraberrikuntza, hots, programa, planifikazioa, koordinazioa, profesionalismoa, «kuadroak», salbazioa hor bait dago—. Eskema honekin lehenengo kulturgintza guziko programa zehatz baten beharra aitortzen da: «Bestela, orain arte bezela, gure erorbide nagusi baten abiatu ibili beharko dugu aurrerantzean ere. Espontaneismoa salatu nahi dugu... Gure iritzian, espontaneismoak, luzarora, euskera heriotzera daramaki» (*ibid.*, 1). Orain artean «afizionatuen lana da euskal kultura» (*ibid.*, 4). Baina «gaur egun, edozein eginkizunek, profesionalak behar ditu, hots, hortarako espezializatuak eta egunero zortzi ordu lan hortan diarduten gizonak» (*ibid.*). «Euskal kulturaren planifikazioa egiteko orduan» gogoan izan beharko dira honen gaurko egoera eta baldinkizun bereziak, esaten zaigu: hots, «gaurkoz amateurismoan jokatu beharko dugu(la)»; baina lehenbailehen gainditzeko asmoz.

Konkretuki: *Euskaltzaindiak*, esaten da, «eraberritu sakon baten premia du» Euskal *idazleek* programa baten arabera lanegin bear dute», h.d., beren lanak koordinatu eta profesionaldu («idazleak idaz-bidetik atera behar du ogibidea»). *Ikastoletan* ere «planifikazio orokar baten falta» salatzen da orobat. Euskal liburuaren politika bat ere planifikatu beharra dago *argitaletxetan*, «liburuak probokatuz, egitarau baten barruan noski, eta ez berekasa sor ditezen zai egonaz». Azkenik, kultura nola herrira eraman, plan bat egin behar da: «herria lotan bai dago» (29, 5).

«Geroari begiratu bat eman dezaiozun. Berriz diogu: profesionalismo bat behar dugu; espezializatuak behar ditugu. Hortarako, nahi-ta-nahi-ezko zaigu 'kuadroak' eratzea. Ta hain zuzen ekinbide hontan, pentsatzen dugu, alfabetatzeak, baldin osorik egiten bada, Unibertsitateak aina eman dezaigukeala»... Ikusten da Editorial honen izpiritua. Eta, besteak beste, *Jakin* bera behintzat harrez gero planifikatu egiten da.

### Rikardoren oroiz

Azpimarra dezagun aipatu Editorial honetako planifikazio asmoetan hiru ideia nagusi: idazleen elkartearena (1), editoria- len liburu politikarena (2), Alfabetakuntzarena (3). Gauzotan, oro har, pertsonalki gehien destakatu zena, Rikardo Arregi izan



zen zalantza gabe. Baina ez daukagu ahazterik, Rikardok guzi honetan *Jakin*-ekin kontaktzen zuela (edo, agian historikoki zehazkiago, *Jakin*-ek zuela Rikardorekin kontaktzen, esan beharko genuke) eta Karlos Santamariaren gidaritzza eta laguntzarekin batez ere. Rikardoren aktibitateak ez ziren *Jakin*-era mugatzen. Baina hiru projektuotan hain zuzen ez dago bata bestea gabe ikusterik Rikardo eta *Jakin*, *Jakin* eta Rikardo<sup>4</sup>.

Hogeiabost urtegarren honetan, bihoazkio zortzi urte oparoz lankide eta zuzendalkide argi bezain bizkor izan genuen Rikardori *Jakin-en* oroipena eta omenaldia. Bere pertsonalitate bortitzaren marka ezarri dio betiko aldizkariari. Rikardo, izan ere, *Jakin-en* «sortu» zen, aldizkari honetan estreinatu zuen luma 1961ean, harrez gero beti gure bileretan izateko; *Jakin*-eko produktu tipiko bat zen, kulturgintzaren bere kontzepzioan adina, bere akats eta guzi (literaturaren gutxiespenean adibidez), bere ekipoaren eta ekipo lanaren obsesioan, eta oinarriko beste hainbat ikus eta planteamoldetan euskal kulturari buruz. Ez da gutxiago aldizkariak Rikardori, haren dinamismoari eta ideia jarioari, zor diona. Bion historiak elkar josita geratu dira betikotz.

68tik aurrera, lehenago batez ere «goi mailaz» arduratuta ibilitako gure *Jakin* hau, kulturaren herriratze eta dibulgate asmoetara bihurtu zen osoki, «kulturalismoak» kondenatuz: «herrikoieria kondenatzeko erabili dugun garraztasun bararekin gaitzesten dugu kulturalismoa. Didaktismoa kontrajartzen diogu. Didaktismoa, guretzat, zer da?: irakatsi, adierazi, esplikatu, informatu» (34, 4). Hitz batetan: alfabetatu. «Euskal Herriko herri-jakintza eragin beharra dago, herri horrengana joan behar dugu. Herria lotan bai dago. Eta lo ez dagoanean, galbidean dago errextasunaren aldapan behera (...). Gure beste eginbehar bat da herrietako kultura-bizitza animatzea eta aupatzea» (29, 5).

*Jakin*-ek, Rikardorekin, hiru mailatan egituratuta ikusten zuen euskal kulturgintza: Euskaltzaindia buru eta gidari; Idazleen elkarteak produzitzaile (baina plangintza baten barruan); Alfabetakuntza zabaltzaile. «Alfabetatzearen bitartez Euskal Unibertsitatea herritartu behar dugu» (34, 7).

Idazleei buruz ere, Elkarre bat sortzeko ideia *Jakin*-ek aldarrikatu zuen seguruenik lehen aldiz (1969) eta, ideia honen bultzagile bortitzagoa bazen ere Karlos Santamaria, *Jakin*-en zuzendaria izan zen gero Elkarrearen aurreneko Idazkaria, sortu

edo zenean (J. M. Torrealdei). «Euskal idazleek —idazten zuen *Jakin*-ek— bateratu beharra daukate, gure iritzian hiru asmuok bultzaturik: lan egitekoa, euskera bateratuan idaztekoa ta heuren lanak koordinatzekoa» (34, 5). Hemen ere idazleen espontaneismoa eta profesionaltasun falta salatzen ziren. Elkartearen xedea, hain zuzen, idazleen interes profesionalak baliaraztekoa zen, era horretan espezializa zitezten ere, «denetik egiten» ibili gabe.

Azkenik, liburu produkzioaren plangintzaz: *Jakin*-ek eta Rikardok, hiru asmuok, idazle elkarte eta liburu plangintza eta alfabetakuntza alegia, elkarrekin lotu-lotuta bururatzen zituzten. Gero ez bait dira apika oso lotuta ibili... Ezagutzen du irakurleak *Lur* argitaletxea izan zena. Ezagutzen du agian haren historia ere: Rikardo, Aresti, etab. Askoz gutxiago ezagutzen dena, ia ez delako aipatzen, haren «prehistoria» da.

*Jakin*-ek, esan dugunez, textugintza saio batzuk eginak zituen. Gero, debeku aldian (1961-1964), *Filosofiaren Kondaira*, *Europa*, etab. liburu kultural batzuetan saiatu zen (Rikardok horietan parte hartzen zuela). Eta jakinlarien artean erne zen geroago, aldizkariak gain —eta aparte— «Que-sais-je?» moduko dibulgazio liburuska errazak promozionatzeko asmoa, gero Rikardok, *Jakin*-en laguntzaz (*Jakin*-eko fitxategiez, *Jakin*-en abonatuaren beren zerrendaz ere, etab. baliatuz!) *Lur* argitaletxearekin hezur-mamitu zuena. Gerora editorial honek lanik franko burutu du euskal liburugintzan, merezimendu haundienak literatur eta kreazio arloan eginaz halere. Rikardoren (eta *Jakin*-en) jatorrizko ideia ez bait zen hori, aurrenik argitaraturiko liburuek eta, garbiago oraindik, Rikardok berak ongi asko adierazten dutenez. Honela Rikardok: «Euskal liburuaren programazio batek oinarritzko hiru sail hauekin kontatu behar du, espezializazioak geroko utzi beharko direla. Hiru sailok hauk izanen lirake: 1) kulturaren dibulgaziozko oinarritzko liburuak (...), 2) itzulpen eta saiaiera laburrak (...), 3) literatur-kreaizio hutsezko obrak». Eta literatur-kreaizioaz espreski abisatzen zuen: «Hierarkiaz hirugarren leku bat okupatuko du sail honek gure programazioetan» (ik. R. Arregi, *Politikaren atarian*, 1969, 10-13). Aldera, orain, Rikardoren textu hori bospasei hilabete lehenago *Jakin*-en Editorialak zioenarekin: «...Euskeraz ezer argitaratu ohi duten editorialek ez dute euskal liburuaren politikarik (...) Euskeraz behar ditugu liburuak (...). Kulturazko gai guztiak, sakonki, euskeraz ematen hasteko ordua da. Ortografiaren eta terminologiaren batasun batekin. Baina nola? Liburuak probokatuz, egitarau baten barruan noski, eta ez

berekasa sor ditezen zai egonaz. Liburuak probokatu, ikastolari, alfabetatzeari eta euskal unibertsitarioei begiratu. Eta hau, euskeratuz eta sortuz, bietara. — Beti bezela, kreaio-lanari eta literatura hutsari autonomia handia uzten zaie»... (34, 8). «Autonomia handia uzten zaie», zen, Rikardok esan ohi zuen guzia literaturari eta kreaioari buruz...

*Jakin*-ek, bere bokazioz nahiz trajektoriaz, eta kreaioanago zebiltzan *Euzko-Gogoa*, *Egan*, *Olerti*, etabarrekin lehia ez sartzearen ere, ez dio jaramon haundirik egin izan literaturari, kreaioari, aztertzeo edo ez bazen behintzat. Gainera euskal kulturako hutsune larriena eta lehenbailehen bete beharrena, kultura (praktikoa) edo zientzia izenda genezakeen barrutian ikusi du. Eta Rikardo trajektoria horrexetan zetorren.

Hilabete batzuk geroago Rikardo hil egin zen. Eta *Jakin*-ek ere —bigarren debekua— aldizkaritasuna utzi eta liburugintzara pasa behar izan zuen.

### Zazpi urte aldizkari-liburu

Euskal kulturgintzan, nahi dena baino gehiago, ahal dentxo, egin behar izaten da gehienetan. 68tik aurrera Joan Mari Torrealдай zen *Jakin*-en Zuzendaria. Torrealдай, debekuaren ondok itera zen lehenengo liburu-aldizkariaren atarikoan, biziki ahalegintzen da aldizkariaren lehenagoko editorialen moldeari berdín-berdín jarraitasun ematen, *Jakin*-entzat, debekua gorabehera, ezer gertatu ez balitz bezalaxe. Planteamendu eta ikusmolde berberak, eskema berdínak, hizkera ere lehengoxea: «planifikazioa» da beti ere hitz magikoa etapa honetan.

1969-1977 bitartean *Jakin*-ek bi adar desberdín desarroilatu zituen. Alde batetik liburugintzarena edo editorialarena: «*Jakin* liburu sorta» edo saio liburuen adarra. Bestetik, ordea, aldizkariari nolabait eutsi nahi eta, «*Jakin* sorta» asmatu zen: funtsean aldizkari bat zena (ekipoan egina, etab.), formatoz ere berdína, baina liburu itxuran aterea, legeagatik; hots, aldizkariak lehenago zituen nota laburren eta kroniken sekzioak gabe. Sistema honek Franco hil arte jarraitu zuen. Orain «*Jakin* sorta» edo aldizkari-liburu horretaz bakarrik arituko gara, *Jakin*-en historian bera delako aldizkariaren trajektoria —ahal zen neurrian eta moduan— jarraitu duena.

*Ipar Euskal Herria* (1969) zeritzon lehen aleari (gaia eta

xede orokarra aparte, zerikusirik ez du 1979ko beste *Ipar Euskal Herria I/II*-rekin). Kulturgintzaren planteamenduetan jarraitzen du Atarikoak: lehen herrikoikeriaren eta espontaneismoaren kontra bezala, probintzikeriaren aurka orain. Probintziek, eta Ipar eta Hegoaldeak bereziki, elkarrengana hurbildu behar dute. «Urbilketa hau hezurmamitzeko, planifikatze baten beharretan gaude» (6. or.). «Sekretu guzia hau da: mugaz haraindiko eta hemendikoen har-emanak sortu, ugaldu, errotu eta planifikatu» (*ibid.*). Izan ere, «ez dugu Euskal Herria ezagutzen. Zergatik? ez dugu programa bat, planifikazio bat, hortarako» (8. or.)... Lehengo berdin, beraz: planifikazio gosez. Eta lehengo berdin, Iparreko nahiz Hegoko aldizkarietara batabesteko informazioa «didaktismoz eta pedagogiaz» eskatzen zaienean ere. Eta berdin, baita, elkarri laguntzeko eta lanak koordinatzeko planak egiten direnean, etab. Orain ez gara sartuko plangintza horretan egiten diren proposapen konkretuak begiratzera. *Jakin*-en kulturgintza nola projektatzen zen, ikusi nahi dugu.

«Probintzikoikeria honek —esaten zaigu— (edo «lauprobintzikoikeriak») bi iturri ditu. Bat, informaziorik-eza, eta adolescentismoa» (*ibid.*). Hurrengo zenbakian, *Salbatore Mitxelena*, «aldikeria, adolescentismoaren semea da» (5. or.) irakurtzen da berriro. Atarikoak euskal kulturaren planteaketan jarraitzen du hemen ere: «Lehen, txokokeriaren arriskutik libratzeko *Ipar Euskal Herria* presentatu bagenuen, orain 'aldikeriaren' arriskutik onez ateratzeko asmotan aurkezten dugu hau» (*ibid.*). Aldikeria delako hori, lehenagokoen lana ez aintzakotzat hartzean datza; mundua gurekin hasi dela uste izatean, «euskal kultura sortu berria dela pentsatzean». Aldikeria «beste garaietako mogimenduak eta joerak, orduko ahaleginak, saiaketak, orduko indar nagusiak eta problematika ez ezagutzean sortzen da». Baina, sakon errotzeko, «gure kultur-indarren historia behar dugu jakin» (6. or.). Ikerketa monografikoak eskatzen dira horretarako.

Ez gara gehiago luzatuko. Zenbakiz zenbaki, kulturgintzaren zentzua alderdi desberdinetatik argitzen eta sakontzen du *Jakin*-ek: *Kultura eta Fedea* (1971), etab.

*Jakin*-en ez da inoiz urte hauetan adina kulturgintzari buruz teorizatu: akatsak aztertu, erremediatzen saiatu, geroari begira programak egin. Ahalegin guzi honek halere ez du emango behar bezalako fruiturik: Rikardoren heriotzarekin, debekuekin (ezin aldizkariaren ritmoari eutsi), etab., prozesu prometa garri hau moztuta geratu zen.

## 1959 eta 1969: konparazio llabur bat

*Jakin*-ek, lehen-lehenengo egunetik, kultura egin nahi zuen. Baina lehen-lehenengo egunetik halaber, hizkuntz arazoan preso aurkitu da: garbi/mordoilo, jakintzak, batasuna, etab. Kulturaren eta kulturgintzaren planteamendu gehienak, horrela, hizkuntzarenak bihurtzen ziren. 1959an, oraindik, horixe borrokatzeko, baina azkenean hori bera gertatzen da.

Hamar urte geroago arras bestela egin litezke kulturgintzaren planteamenduak. Ahaztu ez da egingo hizkuntzaren arazoa (ik. 30. eta 31/32. zenbakiak). Baina euskal kulturgintzaren planteamendu sakonago, hizkuntz arazotik librego batekin, gaitan zentra daiteke: euskalduntasunaren kontzeptua bera zabala-gotzen (30. zenb., *Euskal Herriko biru hereje*); sustrai historiko (33. zenb.: *Lehen Karlistada*) eta kulturalen bila (*Ipar Euskal Herria*, 1969; *Lur eta Gizon*, 1974); pentsamendu korronte modernoak aztertzen (29. zenb.: *Jakintza berria*; 35. zenb.: *Gaurko pentsalari bat*, H. Marcuse alegia), etab. Azkenean gaia nagusitu zaio hizkuntzari.

### Liburu aroa

#### (hizkuntzaren arazoa berriro)

«Azken urteotan —idazten zuen *Jakin*-ek 1969an (34, 8)— euskeraz egiten dan lanik nagusia —eta gehiena— aldizkari bidez egiten da». Liburuaren eta liburu plangintzaren premia aipatuz jarraitzen zuen.

Laster itzulipurdikatu zen egoera hau. *Egan* oso ahul (urtean ale bakarra 1970az gero), kultur aldizkaririk apenas geratu zen artean, eta *Jakin*-en debekuarekin kointzidituz hain zuzen, argialetxeen boom bat sortuko da:

1969	...	...	...	Lur, Gordailu eta Irakur Sail
1970	...	...	...	Etor eta Jakin
1972	...	...	...	Iker
1973	...	...	...	Gero eta Elkar
1974	...	...	...	Kardaberaz
1975	...	...	...	Kriselu, Idatz, L. Zugaza, Artezi
1976	...	...	...	Geu, Erein

1972an astean liburu bat agertzen da jadanik euskaraz. Rekord bat euskararen historian. Bestalde kultur mugimendu haundiko urteak dira 70. hauek (Alfabetakuntza, ikastola, kanta berria, etab.); hainbat biziago dabil mugimendu politikoa.

Debekatu izan delako baino gehiago, beraz, argitalpenen panorama guzia sustraitik aldatu delako Euskal Herrian, *Jakin*-ek ezin beteko du bere programatzaile eta gidari ametsa. Argitaletxeek, ordea, denek liburu berdintsua programatzen dizute bolada batez: liburu sozio-politikoak, tesi liburua, gehienbat (*Afrikan iraultzaren alde, Soziologiaren hastapenak, Euskal Herriko Ekonomiaz, Komunista Alderdiaren Agiria...*). *Jakin*-ek, editorial gisa, berdin jokatu du, *Euskal Herriaren historia, Iraultzaren hildotik, Iraultzaz*, etab., argitaratuz.

Urte polemikoak dira benetan: euskara lantzea burgeskeria omen da, etab. Saltsa izugarria dabil «ezkerra» ohi deritzon horren barruan, hots, gazteria guzian. Nola edo hala, argitaletxe guziek buru egin nahi diote egoera honi. *Jakin* (aldizkari-liburua) agora ireki bat izaten saiatzen da denboraldi honetan: errealitateko pluralismoaren ispilu izan nahirik, *Gure Ikastola, Koperatibak*, etab. zenbakiak, apropos, eritzi desberdinetako, are kontrarioetako Autoreak elkartu nahiz prestatu genituen, difereziak kontrasta zitezten. Baina denborak ez zeuden «irenismo» goxo hauetarako... Esperentzia honek ez zuen harrera onegia izan.

Zalantza gabe neurritz gora nahastu ziren urte hauetan kulturegintza eta politikagintza (urte larriak ikastolentzat). Baina kulturegintzaren planteamenduei gagozkiela, interesgarriago da apika, liburu sozio-politikoaren esperientzia gogorak liburu politikaren birplanteo batetara behartu dituela argitaletxeak: 75 aldera, irakaskuntzari eta ikastolari begira jarriko dira argitaletxe gehienak. Izan ere, alfabetakuntzaren eta ikastolen inguruan geroz eta eske haundiagoa ari da sortzen.

Liburu teoriko-ideologikoaren lekuan funtzionala indartuko da hemendik aurrera. Gehien-gehiena euskararen irakaskuntzari dagokiona. Baina bestelakoetan ere —*Lurraren kondaira*, etab.— normalizatu gabeko hizkuntzaren arazoarekin topo egiten da behin eta berriro. Aurrerago eta larriago nabaritzen da problema hau. Euskal kultur mugimenduan, horretara, berriro euskararen kontenplatze aldi bat dator, 50. urteetako antzera, nahiz beste maila batetan orain (garbi/mordoilo arazoak ez du hain-

bat larritzen; batasuna egin samarra dago). Egia da, *Jakin*-ek urteak daramatzala borrokan «hizkuntz-formalismoaren» eta «euskara euskaragatik» lantzearen kontra. Baina, halere, kultur-gintzako mugimendu orokarrari obedituz, «euskararen lantzeraz» bihurtuko da *Jakin* ere: oinarrizko textuak prestatzera hain zuzen, *Axular-en Hiztegia* (1973) ondoren, *Natur Zientziak* (1976) hiztegia izango bait da lehen fruitua jakinlarietarako bere egina.

Ongi koadratzen da «konbertsio» hau *Jakin*-en historian. Etorri ere 75 aurretik dator: 72an hartu bait zuen *Jakin*-ek hiztegi ekiteko erabakia. Eta konbertsiorik ere ez bait da...

68ko Zuzendaritza, horrenbeste behintzat esan genezake, moduak baino gehiago, edukinak axolatzen zuen. Mezuak. Inpaktoak. Aldizkariak gizartean eragitea, jendea mugiaraztea, lana dinamizatzea eta planak egitea, zen haien asmoa. Ikusi, ikusten zuten hiztegi moderno espezializatuen eta textuen premia: «Gaurkotasunean jabeturiko hiztegi modernu bat ere behar dugu. Idazleari presta dezaizkiogula alik erabilgarrien idaz-tresnak bere pentsaera errazki eman dezaigun. Bestela ere badugu eragozpenik» (29, 6). Baina hori ez zitzaion beren eginkizuna iruditzen, Euskaltzaindiarena edo baino (ik. 29, 6; 30, 2-3). Aldizkaria debekatuz gero liburugintzari ekin zaionean, ordea, gorri-gorri agertu da premia honen larria eta luzatu ezina. F. Zabalaren *Euskal Herriaren historia* eta Holandako *Kristau bidea*-ri bi eta hiru itzulpen egin behar izan zaizkie: itzultzaile askok, izan ere, euskara garbi-garbi edo goxo-goxo eta baserri kutsuko ederrean itzultzen zizun, itzuli, lehenagoko moduan; baina begien bistan uzten zuen euskararen subdesarroiloa kontzeptu teknikoak zehatz eta garbi adierazteko. Azkenean ez genekien eta Nafarroako Erregeen izenak berak euskaraz nola eman! Baina Zuzendaritza berrian orduantxe Unibertsitatetik heldutako jendea dago (Joseba Intxausti, Paulo Agirrebaltzategi): inpakto sozialak adina arduratzen bait ditu zehaztasun teknikoak. Euskarak ere gauzak zehatz eta mehatz esan behar ditu, beste edozein hizkuntza modernok bezalaxe, ez gutxi-gorabehera eta, nola-hala, inguru-minguru.

Zuzendaritza honek, bada, *Jakin*-en liburugintzako berezitasuna, beste argitaldarien aldean, oinarrizko liburu eta textuen egitean ikusiko du. 1972ko Donapaleuko bileraz gero, oinarrizko textuen eta hiztegien lanketan enplegatuko dira jakinlariak zenbait urtez, eginkizun horretarako propio, eta *Jakin*-etik erabat

aparte, UZEI sortu arte (1977). Bistan bait zegoen, *Jakin-ek* aldizkaritik ezin eramán zezakeen lana zela hori.

Historiaren ironiak zer diren! Zein, eta 1959an «euskara lantzeko» idazten zutenen kontra altxatu zen Intxausti huraxe izan behar, hogeí urte inguru geroago, UZEIra eramango zuen prozesua *Jakin-en* abiatu duena...

Kontraesanik ez, baina, dagoena, desarrollo bat da (dialektikoa, esango luke zenbaitek). Orain «euskara lantzearen» arazoa (normalizazioarena hain zuzen) planteatzen denean, beste modu eta maila batetan planteatzen da eta beste bat da haren zentzua. Han (1959) «euskara lantzeak» euskara politean ezer ez esatea, edo ulertu ezinezko euskara landuan zerbait esatea, signifikatzen zuen. Euskara lantzea, euskarari «garbi-garbi» eustea zen. Orain (1977), aldiz, edozer gauza adierazi ahal izateko eta edozeinek ulertu ahal izateko moduan euskara normalizatzea: euskara tresna egoki eta funtzionala izan dadin guzientzat, edozein gai erabiltzeko, erabilerak euskararengatik bere altura (zehaztasuna, teknikotasuna) galdu gabe. Eta hau, normalizazioa azken finen, hasieratiko asmoa eta kezka da *Jakin-en*, hartarako metodoak beti oso egokiak izan ez baditugu ere.

### «Postfrankismo honetan, berriz»

«Administrazioak beharturiko zazpi urtetako isilaldiaren ondoren, sorreratik 20 urtetara, postfrankismo honetan, berriz plazaratzen gara. *Jakin-ek* euskal kultur mugimenduaren azterbide eta eragile izan nahi luke». 1977. urte berriarekin, *Jakin* berriro ateratzen da. «Behar ohi diren baimen» guzi horiekin dator oraingoan.

Lehen zenbakiaz aparte behintzat, aldi honetan gogoeta gutxi agertu da *Jakin-en* kulturgintzari buruz (teorizazioen garaia burutua du noski): ik. euskararen batasunaz (8, 1978, 13: *ohart*, hemendik aurrerantzean, urtea gabe aipatuko dela aldizkari zenbakia; uler bedi *bigarren aldiko* zenbakia adierazten dela!); euskal lurraldeen elkar ezagutu beharraz (9, 5-7), etab. Ezer berririk ez. Izan ere, *Jakin-ek* ez bait du ezer berririk izan nahi, jarraipena baizik. Hogeí urtetako lanaren jarraipena.

Egoera politikoan ba omen dagoen, ez omen dagoen, berritasuna aparte (gorabehera txit eztabaidatua gertatu bait da hori),



momentu kulturala oso diferentea da *Jakin*-entzat birjaiotze honetakoa. Liburgintza indartsu dabil (gure indartxoan neurri erlatiboan); astekari-hamaboskariak inoiz baino ausartago. *Jakin*-ek «liburuaren eta astekariaren arteko hutsune(an)» ikusiko bait dizu bere lekua (1, 3). «Astekariaren arintasuna eta bizitasuna, liburuaren seriotasuna eta sakontasuna: bien arteko ezkontza izan nahi luke *Jakin*-ek» (*ibid.*).

Zenbakiak nola prestatuko diren azaltzen dizu gero: «Zenbaki gidatu edo zentratuak egiten ditugu [monografikoak, alegia]. Zenbaki bakoitzak gai nagusi bat izango du ardatz bezala. Eta ikuspuntu eta azterpegi askotatik begiratuko diogu. Gai-ardatz hori, gainera, kontseilari baten laguntzaz eratuko da». Beste leku batzuetan azalpen honen osagarriok ikus ditzakezu: «JAKINen jokabidean gai nagusi bakoitzean espezialduak edo/eta protagonistak dute hitza» (9, 3): hau da, kanta berriari buruz kantariak berek idazten dute, Nafarroaz nafarrek, arabarrek Arabaz, etab. Gero, segun eta zein gai erabili, «ahalik eta ikuspegi zabalenaz» (17/18, 4) «arazoaren lehen hurbilketa» gisa (19/20, 3) eginga izan liteke monografia.

Euskal kulturgintzan, eta argitalpen periodikoen munduan bereberki, anarkia eta inprobisazio, formalitate falta, izugarria bait dago oraindik, *Jakin*-ek «ahalik eta txukunen, egokien eta garaiz» agertuz (8, 1), lan seriotasuna dokumentatu nahi luke. Plangintzaren ideiekin jarraitzen du, beraz.

Eta harrokeriarik gabe —inork bezain ongi bait dakigu, nolako buruhauste artean ibili behar izaten duten euskal aldizkariak—, baina asmotxo apur bat ere badu, «kultur animazioan ohitura berriak sortzea» (1, 7).

Monografiari laburpenak eransten zaizkio gaztelaniaz eta frantsesez. Zertarako? «Gure azterketa-moduari begiratzeko, kanpokoek ere leiho tipi bat, besterik ez bada, ukan dezaten; eta batez ere, gainontzeko kultur minoriekin, nolabait bederen, harreman-modu bat sortu nahirik» (*ibid.*, 3).

1956an *Jakin* sortu zenean, txukun-txukun sailetan banatuta agertzen zen: Teologi Saila, Filosofi Saila, etab. 1957an eraberritu egin ziren sailkapenak, 1961ean berriro piska bat aldatu. 1964ean erabat kendu. 1968an, monografien sistema abiatzean, berriro sartzen dira sailkapenak. 69-76 bitarteko aldizkari-liburuetan ez da egongo sailak erabiltzerik, monografia huts-hutsa

baino. 77an berriro sailak ezartzen dira. Aurkez ditzagun, bada, llaburki bederen, monografiaz gainerako oraingo sailok:

«*Gure eritziz* izenekoan, editorialeak agertuko dira, hainbat gairi buruz eta bereziki gai nagusiaz. *Orain eta bemen* sailarekin arintasuna, bizitasuna, gaurkotasuna lortu nahi genuke, iruzkin edo komentario bizi, biperdun eta llaburren bidez. *Gaiak* sailean, aldiz, tituluak aditzera ematen duenez, pentsaera desberdinetako idazlanak agertuko genituzke. *Kultur bideetan* sailari inportantzia berezia dagokio gure ustez; euskal kulturaren aurrerakuntzan hain munta handia ukan duten zenbait talde, mugimendu eta erakunde azalduko bait dira hor. *Liburuak* deitu sailak ere badu garrantzirik. Ibon Sarasolak eramango du sail hau, eta hiruhilabeteroko liburuaren kritika zorrotza eta gidatzailea egiteko asmoa du» (1, 3-4).

Euskal Herriko prentsan mugimendu bizia dabil urteotan: *Berriak*, *Garaia*... Euskal aldizkariak zenbait lankide galduko dute, hamaika larri pasa beharko bait dute handik hara. Bestela, *Jakin*-ek ez du zerikusirik erdarazko euskal prentsa horrekin denarekin. Bi alor desberdin dira, beste publiko batetatik bizi da. Baina zer izango da *Zebatz*-ekin? Ez ote diogu elkarri lurra jango? Urte batzuk duela (1973-1976) iparraldean ateratzen den *Zabal*-ek, izan ere, Donostiara aldatzea erabaki du, *Zebatz* izenarekin. Eta elkarren lehia, norgehiagoketa, gauza oso positiboa dela, esan beharra egoten da: baina euskarazko merkatutxoan denok dakigu lagungarritatik itogarritara zein erraz pasaten den konkurrentzia eta ugaritasuna.

*Jakin* eta *Zebatz* bateratsu atera ziren plazara (*Jakin* zertxobait aurretik) eta berehala garbitu ziren beldurrak eta zalantzak. *Zebatz* politikatik zetorren eta politikara zihoan zuzen-zuzen. Okupatu nahi zuen publiko espazioa: «Euskal populuaeren eta, bereziki, proletargoaren aldeko burruka teorikoan interbentzio tresnatzat hartzen du ZEHATZek bere burua» (1. zenb., *Aurkezpena*). *Zebatz*-ek militanteena eta militantea izan nahi zuen, «konotazio aseptikoak oro baztertuz» (*Jakin*-ek, aldiz, nolabait bilatu egiten dizu horrelako zerbait, asmo horren mugak ezagutuaz ere). «Tematikaz mugaturik gatoz —adierazten zuen gainera—. (...) Gizarte zientzien aldizkari da ZEHATZ, formazio sozialaren azterketan berezitua». Xedea: «sozialist abertzalegoa indartu». Kolaboratzaileei gagozkiela, azkenik: «Erresistentzia

ideologikoan euskal iraultzaren hildotik diharduzuen guztiok deituak zarete elkar lan honetara» (*ibid.*).

Bi proiektu eta ihardun-eredu desberdinei erantzuten zieten garbi-garbi *Jakin*-ek eta *Zehatz*-ek, beraz. Eta bientzako adina leku zegoen Euskal Herrian.

*Jakin*-en lehenengo zenbaki berriak honela eman bait du bere autodefinizioa:

Kultur aldizkaria da *Jakin*. Kulturaz, herri baten biziera, lana, sentiera, pentsaera, jakitatea, jokaera, sentikortasuna ulertzen dugu. Ez du *Jakin* sail, eremu edo ikuspegi batek soilik bereizten. Sailak eta eremuak oro (soziologia, ekonomia, deretxoa, filosofia, erlijioa, zientzia, literatura, etc.) erabil genitzake; eta ikuspegi desberdinetatik begiraturik erabiliko ditugu. Kultur—, pentsamendu—, eta saio-aldizkari kritikoa izanen da *Jakin*.

Lan-tresna bat da, beraz, *Jakin*, euskal kultur eta politik ekintzaileentzat, unibertsitarientzat, alfabetatzaileentzat, irakasleentzat, idazleentzat, kultur-eragileentzat, kazetari entzat. Emango dituen azterketengatik, sintesiengatik, ikuspegiengatik eta izango duen seriotasunagatik, gaurkotasunagatik, orokortasunagatik, onuragarri dakiok euskal langintzan dabilen edozeini.

Euskal Herrian errotzen da *Jakin*, eta Euskal Herri-rako. 1960az geroztik herri honek sortu eta bereganatu duen dinamika berriaren joerak eta ikuspegiak bezala ekarriak, haintzat eta ontzat emanik abiatzen gara. Aurrera jarraitzeko asmotan abiatu ere. Bai. Euskal Herriko eta kultura unibertsaleko bide berriak, arazo biziak behin ta berriz tratatuko ditugu. Euskal kultura, lehenbaitlehen kultura modernu bilaka dadin, eta kultura unibertsalak euskal kulturaren berezitasuna onar dezan (1, 7).

Hitz asko eta zehaztasun gutxi, definizio lazoegia irudituko zaio bati baino gehiagori. Baina *Jakin*-en definiziorako elementu oinarri-oinarrizkoena, gure errealitateak krudelki inposatua, hauxe da: gisa honetako euskal aldizkari bakarra bera dela Euskal Herrian. Ezin ahanz genezake hori. Eta hori horrela den artean, *Jakin*-ek ez dauka bere burua estuago definitzerik. Guziena edo,

behintzat, ahalik eta gehien-gehienena izan behar du, euskal kulturgintzaren barruan. Pluralismoz eta irekitasunez jokatu.

Sintomatikoa zen eta orain azpimarkatuz berresango dizugu, 1977ko lehen aurkezpen hartan bi aldiz hitzez hitz errepikatzen zen perpausa: «*Kultur—, pentsamendu—, eta saio-aldizkari kritikoa izanen da Jakin*».

## **Euskal kultur batzarrearen projektua**

Haizeak eraman duen projektu bat duzu hau, baina merezi du aipamen bat; besterik ez bada, posibilitate galduen historia-rako: Euskal kultur batzarrearen projektua.

Politikaren gorarekin, Franco hil eta berehala, kulturgingintzan genbiltzanok bagenekien, zer gertatuko zitzaion alor triste honi: batetik, politikaren aldean baztertuta geratuko zela (nahitaez etorri behar bait zuen inflazio politiko batek diktaduraren ondoren); bestetik, kulturgintzaren politizazio itsu eta itxuragabe bat gaineratuko zitzaiola kulturgintzari berari, indarrak sakabanatuz, elkarren kontra ere jarritz, euskal kulturaren zerbitzuan aritu ordez, Alderdien eta alderdikarien interesak nagusi zirela. Ez al da horixe gertatu?

1977ko *Jakin*-en lehen zenbakian hau irakurtzen da: «Euskal kultur batzarrea sortu behar dela uste dugu, euskal kulturaren politika eta egitarau zehatz baten barnean eta bidetatik, kulturgintza bateratu bat eraman dezagun kulturgizon, talde, elkarte eta instituzio guztiok. Oinharri eta baldintza zabal batzuren inguruan, guzti horik bilduko lituzke Euskal Kultur Batzarreak» (1, 1977, 10). Batzarre honek euskal kulturaren interesak Madrilen aurrean ere ordezkatu behar zituen.

Projektu honen barnean dagoen filosofia, ezaguna da, zaharra da eta; euskararen egoera larriak ez du uzten, arazo hau beste bat gehiago bezala erabil dadin, edo momentuko Alderdi-interesei eta komenentzia elektoralei azpira dakien.

Euskal Kultur Batzarrea osatzeko asmotan, egin ere egin zen aldi hartan zenbait bilera: UZEI, UEU, Elhuyar, Arantzadi, lau herrrialdeetako Ikastola Elkarteak, AEK, euskal prentsa-koak, Euskaltzaindia bera, etab., ibiltzen ziren partaide. Bulzada, Nafarroako Ikastolen Federakundeak eman zuen. Guz-

tion xedea zen, bada: autonomi prozesuaren barruan alternatiba kultural (autonomo) bat projektatzea eta erakunde bat, propio horretarako, sortzea... Beraz, euskararen eta euskal kulturagintzaren planteamendu autonomo bat, gorabehera politikoetatik aparte.

Egia esan, euskararen autonomia politikari buruz maiz-sarri aldarrikatu izan den arren, honelako projektu batek, bidegarria bazirudin ere Euskadiko indar politiko gailena PSOE zen bitartean (preautonomikoan), luzarora bizitza zaila zuen. Orduan ez zion inori kontzientzia txarrik sortzen «politikoen oportunitateaz» eta politikoen euskal kultur mugimendua akaparatu nahiaz hitzegiteak. Baina sozialisten erreinuak gutxi iraun zuen. Eta etsaiak zilegi ez dituen etsaikeriak euskararekin, adiskideak ditu. Hala luzitzen digu...

<sup>1</sup> TORREALDAY, J. M., *Euskal Idazleak Gaur*, 1977, 579. or.

<sup>2</sup> Ik. BASTARRIKA, J. I., *Gizona izaten-aburuaren oinarri*, *Jakin* 1 (1956), 39-47. Id., *Txillardegi*, *Jakin* 5, 1957, 99-102. («Izaten-aburua» existentzialismoari esaten zaio).

<sup>3</sup> Ik., baita, MITXELENA, L., *Itun zar eta berria. Olabide'tar Erraimun*, S.L., Egan 1/4, 1959, 85-94, eta Orixeren erantzuna: ORIXE, *Olabide, bai*. L. Mitxelena iaunari, Egan 5/6, 1959, 186-189.

<sup>4</sup> Ik. TORREALDAY, J. M., *Kulturagintza eta Rikardo*, in *Rikardo Arregi*, 1971, 32-35.

# Filosofia eta Teologia

## Sarrera

*Jakin* aldizkaria «Teologilarien Yardunak» bezala sortu zen eta «apaiz ta praile gaien elkartasuna» zuen helburuetako bat (1, 1). Ez da harritzekoa, beraz, gai teologikoez eta filosofikoez toki nabarmena badute.

Sorreratik ditu bi sail ongi finkatuak: *Theologi-saila* eta *Philosophi-saila*. Hura «dugu len-mailakoa», teologi «saio bizi» eta «arazo berriekin» osatu nahi dena (1, 3). Era berean, «gai berriak, sakonak, arazodunak, egun-egungoak, irakurgarriak» bildu nahi dira *Philosophi-sailerako* (*ibid.*).

Hogeitabost urteren buruan gai teologiko-filosofikoen balorazioa egiterakoan ez zaigu beti samurra gertatzen, teologiaren eta filosofiarren mugak ongi bereiztea, gaiok ikusabartu dituenak erraz ulertuko duenez. Teologia fundamentalala eta Morala dira Filosofiari sarrien gurutzatzen zaizkionak.

Bi sailak txukun hesituta jaio ziren, baina 4. zenbakirako, biek *Teologi-Filosofi saila* osatu zen. Beste sailetako zenbait gaik ere izan zezakeen toki apropos askoa gure sail honetan.

Apez eta frailegaien aldizkari honek egoki isladatzen du garai hartako seminarioetako giroa. Bai gaiaren aukera, bai beraren erabilkera, teologi eta filosofi ikasleek entzun, irakurri, eztabai-datu eta lantzen zutenaren barnean erraz ulertzen da.

Teologi-Filosofi sailak bere eboluzioa izan du. Bilakaera honen bi faktore aipa ditzakegu: 1) Elizaren baitako gertakizunak; 2) aldizkari proiektuaren beraren aldaketa.

## 1) Elizaren eboluzioa

Pio XII.a Aita Santu zela jaio zen *Jakin*. Erromaren hitza edozein eztabaida teologiko, liturgiko, etiko, pastoral eta, sarri, filosofikoetan ere erabakitzailerik zen denboretan. Bigarren Mundu-Gerraren ondoko gurutzada antikomunisten denboretan. Neoeskolastikaren ildotik ez doazen pentsamolde teologiko-filosofikoak errezeluz ikusten ziren garaietan.

Roncalli Aita Santuak Elizaren baitan indartzen ari zen dinamika arras desberdin eta berri bati bidea ireki zion. Bildu eta hasi zuen Vatikanotar II. Kontzilioak zein ondorio garrantzizko ekarriko zuen garbi somatu gabe hil zen Joan XXIII.a. Paulo VI.ari zor zaito kontzilioa burutzea, erdi kondenaturik zeuden hainbat teologo eta pentsalariren lankidetzaren onartuz, eta ekumenismoaren, pentsamendu modernoaren, zientziaren aurrean elkarriketa-izpiritu zabalagoz jokatzuz. *Jakin*-en tematika filosofiko eta teologikoaren bilakaerak Elizaren aldakuntza erakusten du.

## 2) JAKINen asmoen aldaketa

*Jakin*-ek jaiotzako helburu askori sendo eutsi dio. Baina aldaketarik izan du. Labur adieraz daiteke hemen: *Teologiarren Jardunak* 11. zenbakian *Kultura Jardunak* bilakatzen da; eta «prakadunei», sekularrei atea irekitzen zaizkie: «Yakin orain artean apaizgaiona izan da, baina zuei ere atea iriki bear dizkizuegu» (11, 4). 1960ko jakinlarien topaketan ere «prakadunen» premiaz jardun zuten (13, 75). Inprimategian atera zen lehenengo zenbakiak *Euskal gaztedia kultura bideetan* zuen izenburua.

Inprimategiko lehen zenbakitik *Aita Santuaren itza* saila desagertu egiten da. Lehenengo debekuaren ondoko zenbakietan ere filosofi-teologi saila galdu egiten da. Sail horretarako moduko gairik agertuko da, baina ez lehen adina eta ez lehenengo moldez.

1961ean *Jakin* isildu zutenean, Arantzazuko euskal idazle gazteak ez ziren geldirik geratu. Idazten jarraitu zuten, eta *Egan*-era

bidaltzen. Aldizkari honetan 1962ko zenbakietan hiru artikulua daude Arantzazutik eginak. 1963an, berriz, 12 lan konta daitezke. Artikuluotatik gehienak filosofi-teologi sailekoak dira, eta existentzialismo eta etika kutsua nabari zaie, *Jakin*-eko aurreko zenbakietan bezalatsu.

1968ko eraberritzean (29, 4) erlijioaz planteamendu explizitua egiten da. «Erljio anaitar baten billa goaz, bere barne-egituretan gizonari serbitzeak, dagokion mailla izan dezan... Erljio-krisia presente dagoela bai kontzientzi barnean ta bai giza-egituretan, ba dakigu. Aziaroko krisitzat ematen dugu... Eleizaren eboluzioa arreta handiz jarraituko dugu, ta erlijiozko gizona jainkogabekoarekin alkarrizketan ikusi nahi genuke». Informazioa eta elkarrizketa dira, beraz, gai honen bi zutabeak.

1969ko bigarren debekuaren ondoren aldizkariaren ordezkotzat sortu zen *Jakin* sorta-n 4., 5. eta 10. zenbakiak eskaini zitzaizkion erlijio arazoari, bere tokian ikusiko dugunez.

1977an bigarren aldiari ekiten dionean, «kultur aldizkari da *Jakin*» esaten du bere buruaz (1, 1977, 7). Kulturaren sabeltzar horretan, ordea, filosofia eta erlijioa ere kabitzen dira. «Ez du *Jakin* sail, eremu edo ikuspegi batek soilik bereizten. Sailak eta eremuak oro (soziologia, ekonomia, deretxoa, filosofia, erlijioa, zientzia, literatura, etc.) erabil genitzake; eta ikuspegi desberdinetatik begiraturik erabiliko ditugu» (*ibid.*). Gertatzez, filosofiak ez du toki haundirik izan. Teologiak, hainbeste ere ez.

Bi zatitan aztertuko ditugu teologi eta filosofi gaiak. Eta hori *Jakin*-en historiako epeak banan banan segituz.

## I. TEOLOGI GAIAK

### 1. 1956-1961

*Jakin*-en hasieran, teologiaren banakuntza klasikoaren zati gehienetako gaiak daude. Gaia bera lantzea da noski teologi ikasleen asmoa. Baina baita euskara erabiltzea, gaitzea eta trebatzea ere. Honela dio, adibidez, hasiera haietako batek: «Indar-neurketa bat bezela egin dut nik euskeraz: ia zenbateraino erabilli dezakedan nik jakintza gauza bat alik eta geien euskeraz» (1, 16).



Hona sailez sail banaturik erabilitako gaiak.

### a) Aita Santuaren hitza

Izenburu horren azpian Aita Santuaren hitzaldietako pasarte batzu ematen ziren. Inoiz hitzaldien aipamen soila egiten zen. *Jakin*-en lehen hamairu zenbakietan, hirutan ezik (7, 9 eta 11), iraun zuen sail honek. Inprimatzearekin batera *Jakin*-ek beste planteamenduak egin zituenen, desagertu egin zen. Saila egotea bera *Jakin*-en garai hartako planteamenduen ezaugarri da. Bestetik, Aita Santuaren magisterioak gure garai hartan zuen garrantzia adierazten du.

### b) Idazteuna

Sail honetan dauzkagu gai klasiko batzuk: Genesiko lehen kapituluaren interpretapena (8, 73-84), ebanjelioen arazo historiko bat (6, 39-40), teologia biblikoaren barneko gai batzu Itun Berriari buruz (9, 7-14; 12, 38-44; 14, 20-24), eta Salbamen Kondairaren aurkezpena (10, 19-27; 12, 19-23; 14, 7-10; 15, 12-15).

### c) Teologia Fundamentalsa

Teologiako sailik mardulena *Jakin*-en Teologia Fundamentalsa da. Hasiara batetan, Apologetikako gai klasikoak ikusten ditugu: Goi-agerpena (3, 107-114; 12, 24-30), miraria (1, 8-15; 7, 49-55; 7, 56-61), Turin-go maindire santua eta Jesusen aurpegia (9, 55-59), Salbamenerako Elizaren beharra (1, 16-28), zientzia, teknika eta Jainkoa (12, 66-71; 14, 11-15), fedea (11, 7-11; 13, 25-30).

Eklesiologiak garai hartan apologetika usain handia zuen. Baina *Jakin*-eko lehen zenbaki hauetan aurki daiteke Elizaren barne misterioa azaltzen duen gai mistagogikoagorik. Adibidez Hugo Rahner-en, «Eliza, Jainko indar gure aultasunean» (5, 33-36; 6, 27-33), edo-ta bataiatuaren apaiztasuna (14, 70-74).

Azpimarkatzekoa da Teologia dogmatikoko arlorik oparoena teologia fundamentalsa izatea. Katolizismoaren barneko egiaren hausnarketa baketsuaren ordez, beste Elizetako eta edozein Elizetatik kanpo dauden pentsalariekiko elkarrizketa —sarri konfrontaketa— maiteago izan du *Jakin*-ek. Hanka bat filosofian, bestea teologian, markatutako ildotik ibiltzeko joera hau sakondu egingo da geroago ikusiko dugunez.

Kristautasuna ebidentetzat ez zeukan Europako eta Euskal-terriko pentsalari eta mugimenduen fenomenoari ireki zaiola *Jakin* adierazten du horrek. Tonu eta era desberdinetan hurbildu ba-zaio ere.

Euskal nortasuna fedearen sustraian samurregi jartzen eta euskalduntasuna eta euskara fedearekin aiseegi berdintzearen (euskaldun = fededun) kontrako joera markatzen du *Jakin*-ek. Ri-kardo Arregiren 1967ko «euskaltzaleen Jainkoa ill behar dugu» oi-hu garratz haren aurretik gainera. Ikus lehen zenbakian bertan, Bolintxu-ren gogoetak eta galderak euskara erlijioaren funtzioan jartzen zuten sermoi batzuen planteamenduari buruz (1, 59-62).

#### d) Antropologia - Angelologia

Dogmaren beste sailerako gaiak ez dira asko. Antropologiari dagokionez, norbait gizonaren jatorriak kezkatzen du (14, 25-29; 17, 1964, 44-47), beste bat, alderantziz, heriotz ondoak (11, 24-32).

Bada aingeruei buruz Santo Tomasek zekien guztia jakin nahi duenik ere (9, 23-28).

#### e) Mariologia

Arantzazuko santutegian irteten zen aldizkari batetan, eta Ama Birjinaganako jaiak kristau bizitzan halako tokia zuen garai hartan ez da harrizkoa mariologiaz arduratzea. 1956an Arantzazuko jubileo urtea ospatu zen. Ama Birjinaren irudia herri herri ibili zen. Euskal Herriko mutilak urtero milaka igotzen ziren Arantzazura. Mariari buruzko artikulu denak giro horretakoak, 1957-1958 urteetakoak dira. 1957an Lourdesko agerkunde- den mendeurrena ospatu zen. Hain hots haundia atera zuen gertakizun honen inguruan zenbaki monografikoa antolatu zen. Erabili ziren gaiak hauek ziren: Maria, gizonen ama (3, 17-21; 3, 36-23), sortzez garbia (6, 41-46), birjina (5, 29-32); Mariaren agerkundeak (7, 16-18); santutegi ospetsu batzu (6, 34-38); Lourdesko agerkundeak (7, 77-100); Bernardette santua (7, 19-48); Lourdesko mirariak (7, 62-66); Lourdesko konbertsioak (7, 67-76); Lourdesko mendeurrenari buruz Aita Santua- ren idazkia (6, 13-26); batzarre mariologikoa Lourdesen (5, 68-75).

### f) Liturgia

Kontzilio aurreko liturgia teologia desbideratu batek murriztua zegoen, eta latinak kondizionatua. Derrigorrezkoak ziren ikuspegi juridiko-moralizatzaile estu haien aurka ahal zen moduan saiatu beharra zegoen. Hortik asmatu ziren latinaren eta euskararen arteko pupurri bitxi hura egiten zuten «Lagunarteko Meza» haiek. Adibide bat *Jakin*-en argitaratu zen (2, 37-51). Baina teologi zantzu berriak ere soma daitezke, kantuaren betekizuna (4, 35-39), Jainkoaren hitza (15, 61-66), otoitza eta liturgia (5, 19-22) aztertzerakoan. Urrunago gelditzen zaigu aingeruak eta gu nola elkartzen garen liturgian erabaki nahia (8, 21-25).

### g) Pastoral

Lehen zenbakietako zenbait gaik ez du hurbileko praktikotarik. Baina aldizkariaren planteamenduetan sen pastoral hori ez da falta. Lehen zenbakian bertan gizartearen azterketa soziologikoaren garrantziaz mintzatzen da (1, 63-66). Hala ere Donostiako apezgaiek herri zentzu gehiago eskatuko liokete (2, 175-177).

Dena den ugariak dira gai pastoralak: gaztedia (1, 59-62), psikoanaliaren laguntza apez lanerako (2, 26-36), erlijio senaren garapena (2, 61-65), katekesia (4, 48-51). Azken gai honi gagozkiorik, aipatzekoa litzateke Alemaniako katekismo baten itzulpenari buruz (*Kristiñau katezismoa*, Itxaropena, Zarautz 1956) sortu zen eztabaida: Lekuona Zaharraren (Ikus EGAN, 5-6, 1956, 151-154; JAKIN, 3, 158-160), Berasaluze (JAKIN, 2, 163-167) eta Aita Goitiaren artean (ikus ARANZAZU, 4, 1957, 125-128). Interesgarriak dira agertzen diren eritzi pedagogiko, teologiko eta euskarari buruzkoak. Berdin esan dezakegu Aita Gurearen aldaketa dela eta ez dela esan zituztenak Fernando Mendizabalek (2, 158-160; 4, 72-77), Lekuona Zaharrak (3, 162-170; 5, 86-89) eta A. Irigoyenek (4, 70-71).

### h) Morala

Moraleko gaien artean, batipat, moral sozialeko gaiek dute leku berezia: lan saria, etxe bizitza, emigrazioa etab. Soziologian ikasten ziren batez ere gaiok, eta arlo honetara iristen garenean zehatzago ikusiko dugu. Gaiok Aita Santuen hitzaldi eta entzikliken argitan erabiltzen ziren. Arrazoi teologikoaz gain, bazen beste bat, Aita Santuarengana hainbeste jotzeko: errejimen

frankistak bere ahotsa ez beste guztiak itotzen zituen garaian, Aita Santuaren hitzez disfrazatu beharra zegoen norberaren pentsabidea.

Gai sozialez aparte, besteok aurkitzen ditugu: Jacques Leclercq belgiar moralista katolikoaren eta garai hartan hain eztabaidatuaren berriak (2, 117-120; 4, 20-24); mingabeko erditzearen arazoa (1, 34-38); existentzialismoaren eraginez sortutako «Moral berria» (3, 71-77); katolikoaren jarrera zinemaren aurrean (5, 63-67).

### **i) Teologia espirituala**

Hemen sar daitezke: Loyolako Inazioaren aurkezpena (1, 1-7), Teresa Deunaren irakatsiak (11, 33-35; 12, 13-18; 13, 21-24; 15, 27-32), Columba Marmion ospetsuaren testu baten itzulpena (3, 22-35), Krisostomo santuaren apaizgoari buruzko testuak, eta berorren bizitzako berri batzu (4, 25-30; 5, 15-18), edo Schmaus-en eskutik Kristorengana nola hurbil gaitzkeen azaltzen duen lana (13, 25-30).

## **2. 1964-1969**

Biziki aldatzen da teologiaren erabilpena aldi honetan. Kontzilio bete beteko eta kontzilio ondoko lehen urteak dira. *Jakin* Euskal Herriko gazteria berriaren kezka eta arazoei begira jartzen da gero eta gehiago.

Arazo biziagoak, ez hain teologikoak, eta fededun ez direnentzat ere interesgarri gerta daitezkeenak darabiltza.

### **a) Idazteuna**

Bibliari buruz bi lan daude: ebanjelioen egiaz (18, 42-51) eta jakintza eta bibliaren arteko harremani buruz (29, 48-53).

### **b) Liturgia**

Kontzilioaren tokian tokiko hizkuntzak erabiltzeko erabakia-  
ren ondoriobidez, euskara ere liturgiara sartu zen. 1964-5 urteetan hiru lan daude honen inguruan. Batek planteamendu orokorra egiten du (16, 16-22); eta Omaetxebarriak mezatako testuen lehen itzulpenari ohar batzuk egiten dizkio (19, 36-38, 86-92).

### c) Morala

Hona gai interesgarri batzuk: Utilitarismoa (18, 33-41), Lutero eta morala (18, 71-73), antisorgailuen arazoa (19, 20-35), zinema (19, 40-43), eta nahiz filosofi nahiz teologi sailean sar daitezkeen beste gaiok: kristaua eta politika, herrien askatasuna, biolentzia etab. (Ikus Filosofi sailean, *etika*).

### d) Pastoral

Hemen aipatzekoak dira Erdozaincy-ren bi lan bikain, konzilioko teologiaren haritik kristautasunaren oinarriak (17, 11-17), eta kristauak egun nola bizi dezakeen bere fedea (23, 52-59) azaltzen dituztenak.

Badago bestelako lanik ere: Gaurko gotzaien statusa zailantzan jartzera ausartzen denik (18, 11-19), unibertsitarioei Jainkoa, Kristo eta Elizaz mintzatzen zaienik (19, 50-54), gazteria tunel ilunean dakusanik (33, 44-49), apaizen identitateari buruz galdera zorrotzik egiten duenik (33, 57-59), «Euskaltzaleen Jainkoa ill behar dugu» oihukatzerara ausartzen denik (27-28, 23-37), edo bataiatu gabeko haurren auzia zertan den esaten duenik (19, 64-67).

### e) Erlijioaren kritika

Filosofi sailean ikusiko dugunez, marxismoari jende asko hurbiltzen zaio epe honetan. Gogora ditzagun hemen bi lan. Bata, Europan kristau eta marxisten arteko elkarriketaren boomeraren aurretixe, komunismoarekin elkarriketan hastea eskatzen zuena (16, 43-54); marxismoaren erlijioarekiko kritika zertan zen esaten zuena bestea (26, 49-64).

## 3. 1969-1977

*Jakin* debekatu zutenetik sortu zen *Jakin Sorta*-n hiru liburu prestatu ziren erlijioari buruz.

— *Kultura eta fedea* (*Jakin Sorta* 4, 1971). Fedea da kulturarekin, ideologiarekin, soziologia erlijioarekin kontrastatzen dena. Fedea hiru aldetatik analisatzen da: a) Fedearen kontzeptua zehatz mugatu nahi da (ikus 39-64); b) fedea gaurko munduan nola bizi esaten du beste lan batek (117-150); c) kristau

itxaropena eta esperantza historikoaren arteko harremanak zehaztu nahi ditu beste lanak (155-171).

— *Erlijioa Hauzipean (Jakin Sorta 5, 1971)*. Erlijioa hemen bi korronte oso desberdinekin analisatzen da. a) Protestantismoko mugimendu liberalaren ikuspegitik aurrena: Karl Barth, Paul Tillich, Rudolf Bultmann teologo haundien pentsabideak eskaintzen ditu Joseba Arregik; Bonhoeffer-en fede erlijio gabea esplikatzen du E. Osak (11-119); b) Marxismoarekin hurrena (121-202). Filosofi sailean zehaztasun gehiago.

Liburuaren eraskin bezala Zeruko Argiaren orrialdeetan gertatu zen polemika jasotzen da. Gaurko (orduko) apezaren irudia zegoen auzitan, Larresoro, Torrealdai eta Xarrittonen arteko eztabaida horretan (Ikus 205-228).

— *Marx eta Jesus Europan (Jakin Sorta 10, 1975)*. Neomaxismoaren erlijio kritika biltzen da hemen. Ikus Filosofi saila.

Hiru liburu hauek aparte, «erlijioaren irakaskuntza ikastolan» arazoari buruz bi lan, joera desberdinekoak, daude *Gure Ikastola*-n (Ikus *Jakin Sorta 6*, 185-217). Eta beste artikulua bat Rikardo Arregiren «Euskaltzaleen Jainkoa ill behar dugu» komentatuz, haren anaia Josebak egina (Ikus *Jakin Sorta 3*, 43-53).

#### 4. 1977-1981

*Jakin*-en bigarren aldiko lehen hogeitazentzabakietan, erlijio arazorik ia ez da erabili. Artikuluxka bat dago «Euskal Eliza herritarra» eskatuz (1, 98-99), eta beste lan bat Puebla-ko Latin amerikar Elizaren batzarrearen informazioa eta esanahia emanez (10, 93-105).

## II. FILOSOFI GAIAK

Kontzilio aurreko —eta bitartekoa ere— seminarioetako filosofi ikasketa eskolastikaren inguruan zebilen. Akinoko Tomas, Duns Skoto, Suarez, Kayetano, etab. eta XIX-XX mendeetako beste neoeskolastiko batzuk ziren filosofia sistematikoaren arrasto nagusiak markatzen zituztenak. Eskolastikaren eritzietatik apartatzen ziren filosofoak, haren ikuspegitik aztertzen, epaitzen,

eta balioztatzen ziren. Bacon, Descartes, Leibniz, Kant, Hegel, Marx, Kierkegaard, Bergson, Sartre edo beste edozein, galbahe horretatik pasarazten ziren. Eta onenean pasa ezinik geldi ohi ziren. Blondel, Unamuno, Ortega y Gasset, Teilhard de Chardin ofizialki susmo txarrez ikusita (inoiz Indizean sartuta) zeudenean, ez dago kaskezurra nekatu beharrik, Nietzsche, Sartre edo Marx nola epaituko ziren asmatzeko.

Giro horren fruitu dira, agian, *Jakin*-en agertu ziren 1961 arterainoko lan filosofiko gehienak, eta 1969 bitartean agertuko diren zenbait. Seminarioetako idazle jendea gutxitu-ala entzuten hasten dira kolore ezberdineko musikak.

## 1. 1956-1961

### a) Arazo orokorrak

«Philosophia perennis» irakastea zen seminarioen eginkizuna. Filosofi eskola eta sistema guztien gaintik edo azpitik, inoizko eta inolako filosofo deboto, edo ateo, materialista, idealista edo eklektiko denak kritikatzeko modukoa. Iraunkorra. Betirakoa. «Filosofia» hori doi doi zen XIII. mendeko eskolastiko nagusiek bataiatutako Platon-Aristotelesen pupurria baino gehiago.

Filosofia hau «ulergaitza» dela diotenen aurka mintzatzen da hasieretako idazle bat (3, 44-47).

Filosofia erruz kondizionatzen zuen, hura teologiaren funtziotan ikasteak. Filosofia, «ancilla theologiae» zen, teologiaren mirabea.

Teologi-filosofien, fede-arrazoimen arteko harremanak ez dira, ordea, hain errazak. Eztabaida bizia eta zaharra da hori. Honen lekuko dira *Jakin*-eko bi artikulu filosofia eta kristautasunari buruz (8, 36-40; 14, 60-65).

Norbaitek «Filosofiaren muina» zein den erabakitzen duen bitartean (11, 16-23), besteak «Filosofia zertarako» den esplikatatu beharra ikusten du (13, 60-65).

Latinez edo beste erdara dotoretan ikasitako kontzeptu filosofikoak euskarazko hitzetara jalkitzea ez zen erraza. Eta hori egiteko bideei buruzko eritziak ez ziren beti berdinak. Oroi

Intxausti-Orixeren eztabaidaz (10, 67-71). Norbaitek Orixeren maisugoa soluzio erabakitzaile eztabaidaezina bezala ikusten zuen bitartean (7, 110-111), beste bat euskara arruntaren egituretan dagoen filosofiaz baliatuko litzateke semantika filosofikoa lan-tzeko, eta euskal hitz filosofikoak asmatzeko (3, 152-156).

### b) Metafisika - Teodizea - Kosmologia

Filosofi eremu elkorrenak ere ez zuen ikaratzen *Jakin*-eko idazle gaztea. Kontzeptu abstraktuena, bereizkuntza zorrotzenak beren ñabardura xeheenarekin euskaraz ere adierazi beharra zegoen. Borroka honen eragina somatzen da «zentzuen mundua aazturik, izatearen bide argietan ibillaldi bat egin» eta «izate garbian murgil» nahi denean (9, 15); edo «Jainkoaren izatea ere adimen utsez ezagutu ta egiztatu litekela, sinismena alboan utzirik» frogatu nahi denean (4, 31), edo mundua «betikoa» ala «asieraduna» den galdetzen denean (9, 29-34).

Dena den, gai horiek beren edukinaren interesagatik ere erabiltzen ziren noski. Orixek J. Intxaustiren artikuluari egin oharretan (10, 67-71) arazo metafisikoa bera eztabaidatzen da.

### c) Psikologia - Antropologia

Filosofi sistema eskolastikoaren sail garrantzizkoa zen «psikologia arrazionala», metafisikaren printzipioak gizonari aplikatzen zizkiona. Eremu hauze zen garai hartako filosofi ikasketan urduritasunik eta konformidade ezarik asko sortzen zuena, hain zuzen gaurko psikologi jakintzak bestelako emaitzak eman dituelako, eta ikasleei ere ezagunak zitzaizkielako. Normala da, bada, Psikologia arrazionalan sar daitekeen lan bakarra badago *Jakin*-en (2, 72-80). Beste artikulua denak gaur Psikologia deitzen dugun sailean sar daitezke.

Sailik landuenak karakterologia (1, 48-58; 13, 47-52), tipologia (6, 79-83) eta psikologia ebolutiboa dira (4, 40-47; 8, 48-55; 9, 64-74). Arantzasuko teologoen landutakoak dira gai guztiok. Zein haizek jotzen zuen garai hartan ere ikusten da hor.

Psikologi gaiok ahaleginez aztertzeo arrazoia ez zen jakin-min soila. Urte gutxiren buruan teologo horiek ekingo zioten apez lana zuten gogoan. Hala agertzen da garbiago «erlijio-se-naren esnatzea» (2, 61-65) aztertzen denean, edo psikoanalisi teknika nola erabil daitekeen aitortzako sakramentuan eta direk-



zio espiritualean (2, 26-36). Psikologiaren ondorio pedagogikoak ere batek gogoratzen ditu irakaskuntza munduan (2, 88-90).

#### d) Etika - Soziologia

Bi zientzia nahiko desberdinak diren arren etika eta soziologia, apez ikastetxeetan ikasten zen soziologiak azken Aita Santuen idatzietatik ateratako doktrina sozialaren antz gehiago zuen beste ezer baino. Etika soziala zen batipat. Elizaren magisterioak markatua zegoelako, teologi sailean ere jar zitezkeen gaiok.

*Jakin*-eko lehen zenbakietan agertzen diren gaiak biziak direnik ezin uka: Lan-saria (2, 81-87; 11, 12-15), emigrazioa (8, 26-35), etxe-bizitza (10, 39-48), gurasoen seme-alabak hezitzeo eskubidea (10, 56-63). «Movimiento»ko printzipio sozio-politiko totalitarioen erreinuan sindikatu librerako eskubidearen alde ateratzea (6, 48-53) eta «kristau demokraziaren» gorespenak kantatzea ere (6, 54-63) ez zen txantxetako. Bide beretik doa, apaizak gizarte arazoan sartzeko duen eskubidea eta eginkizuna garbi azaltzen zuen beste artikulua bat (6, 64-71). Sozialismoari buruz (marxistari buruz) inoiz ematen den eritzia, gaurtik begiratuz behintzat, ez da gozoa (2, 66-71). Alderantziz, ekonomiak gizartean duen eraginari buruzko beste lan batetako pentsakizunak txit interesgarriak dira gaur ere (3, 62-70).

Soziologia erlijiosoa ere aski berria zen garai hartan, hemen behintzat. Honetaz ere bada lanik *Jakin*-en hasiera hasieratik gainera (1, 63-66; 3, 115-118; 5, 37-48).

#### e) Beste sailak: estetika, historia

— *Estetika*: Filosofi zati honetaz ere bada lanik. «Ederraren atseginaz» saio bat dago (15, 2-6) eta Romano Guardini-ren estetizismoaz beste bat (9, 60-63).

— *Historia*: Filosofiaren historiaz saio berezirik ez dago. Baina gero aipatuko ditugun hainbat filosofoen pentsamenduaz dauden artikulua hemene sar genitzake. Bada gehiagorik ordea. «Jakinarrien artean asmo bikain ta pozgarri bat jaio zen: Filosofi kondaira idaztea». Halaxe hasten da 1960ko 13. zenbakian (13, 3-4). Jakinarriek irailaren 12tik 14era egindako batzarrean hartu zen asmo hau (13, 74-75), eta ez eztabaidarik gabe. Baina salmentarik ez ote zuen izango beldurra, egunen batean eraikiko zen euskal unibertsitatearen esperantzak garaitu zuen:

«Gazteok ba-daukagu oraindik Euskalerrriagan itxaropenik, bai ta bai; baiña zertarako eta norentzat idatzi onelakorik? ... Zertarako? Utikan galdera oiek! Ikusia dago, ba: bizi gaitezen, nolabait bizi gaitezen! Ikastetxe Nagusi baten zai gaudela ezurak gogor ez dakizki-gun, pipiak jo, ta biarko batean izan liteken Etxe orretan euskerak zoko bat bederen izan dezan; bestela or izango dugu gure illobia. Ez dugula eroslerik, eta areago irakurlerik izango? Bai, izango ditugu: ori da gure ustea, ta Jainkoak nai dezala uste trinko ta betea izatea» (13, 3-4).

Lanak banatu eta urte beteren buruan amaitzea espero zen (13, 75). *Baina 1965eraino irauin behar izan zuen Filosofiaren Kondaira*-ren lehen tomoak. Ez zen besterik atera; eta argitara emana eskutan zeuden lanekin osatua, eskola filosofikoen kidedasuna, edo ordena historikoaren erizpidea errespetatu gabe. Argitaratutako lanak hauek dira: Sokrateurrea, Lehen eskolastika, Spinoza eta Bergson. Asmo eta apustu haiek erdizka eta nolabait bete eta irabazi ziren bada.

### f) Existenzialismoa

Bi pentsamentuok zeukaten bereziki urduri orain 20-25 urteko «kristau» filosofia: existenzialismoak eta marxismoak.

Bigarren Mundu-Gerraren ondotik sutu zen existenzialismoa, Europako kulturari eta, batez ere Frantziakoan.

Apezetxeetan ere bere eragina zuen. Gogoz arakatzen zen ikusiko dugunez.

Lehenengo zenbakian dator existenzialismoaren inguruko lan bat (1, 39-47). Existenzialismoa beste filosofi mundutara begiak zabaltzeko leihua izan zen. Aipatu artikulua egileak dioenez, existenzialisten eraginez «eskolastika-arazokeri tentel ugari beinbetiko baztertu dira, arlo garrantzitsuetara biurtzearen» (1, 47). Bestetik, ordea, existenzialismoaren arrazoiak ulertzeko girorik egokiena ez zen seminarioa. Astunegia zen gehienetan Elizaren susmo txar eta kondenen pisua. Ikus Bastarririk Txillardegiren «Leturiaren Egunkari ezkutua» elaberriari egindako kritika (5, 99-102) eta honen erantzuna (6, 85-88) eta haren kontraerantzuna (6, 94-95).

Beste artikulurik ere badator existentzialismoari buruz (14, 55-59). Elizak filosofia honi bereziki ondorio etikoak gaitzesten zizkion. «Situazio etika» zeritzan pentsakeratik subjektibismora eta erlatibismora labaintzen zen nonbait derrigorrez (15, 67-72).

### g) Marxismoa

Marxismoaren egia ulertzeko ez ziren haiek garai aproposak, ez Elizaren aldetik, ez gure arteko egoera politikoaren aldetik. Hala ere ahoberokeriarik gabe eta antikomunismo espiriturik gabe egindako artikulua dira marxismoaz eta komunismoaz *Jakin*-en historiako lehen zenbakietako lanak (5, 76-84; 9, 35-41; 12, 57-65).

### h) Pentsalariak

Eskolastikaren arrastotik ibili ez den pentsalari eta idazle asko agertzen da *Jakin* apezgaiek gehienbat egiten zuten aldi honetan. Hara artikulua oso bat eskaintzen zaien izenak: Marcelino Menendez Pelayo (2, 52-60; 3, 48-61), Pio Baroja (2, 91-97), Unamuno (3, 83-88), Camus (5, 51-60), Papini (5, 61-62), Bergson (8, 54-63; 11, 36-40), R. Guardini (9, 60-63), Ortega y Gasset (10, 28-35), Ibsen (11, 60-65; 12, 47-56), Schopenhauer (12, 31-37), Russell (13, 14-20), Txejov (13, 39-46), Bernanos (13, 53-58), Descartes (14, 66-69), Balmes eta Kant (15, 40-47). Andana polit hau ugari zitekeen, noski, beste artikuluetako hainbat izen bilduz gero: Marx, Sartre, Marcel, Maritain, Sturzo, etc....

## 2. 1964-1969

Lehenengo isilaldiaren ondorenean eta bigarrenera arte erabiliko diren gaiek eskolastika kutsu gutxiago dute. Arinagoak dira; eta irakurterrazagoak ere bai. Existentzialismoaren eragina ahulduz doan bezala, sozialismoarena eta marxismoarena bortitza goa bilakatzen da.

### a) Psikologia, giza arazoak

Gizona aztergai duten lanetan, bata gizonari dagokion heziketaz arduratzen da, Maritain-en ideiak emanez (16, 82-88), beste, parapsikologiak ari da (31-32, 95-104).

21. zenbakian badago pentsaketa sakonik gizonaren bakar-  
dadea, mugak, ilunpeak eta ezinegonak gogoratuz (21, 25-33 eta  
84-96).

Zientziaren eta filosofiaren arteko mugetan, badago beste  
lan interesgarriak. 1967an X. Kintanak hiru artikulu egin zituen,  
biziaren hasierari buruz (24, 27-35), eboluzioaz (25, 53-59),  
Jainkoa eta materiaz (26, 39-48). Teilhard de Chardin-en mundu  
ikuskerara ageri da.

### b) Estetika

Edertasunaren filosofiaz bi lan datoz: «Ederraren izan mui-  
na» (17, 39-43), eta «Ederra eta gu» (20, 1-5).

### c) Etika

Etika arazoak ugari daude.

Behin baino gehiagotan ukitzen da biolentziaren gaia. Kon-  
tzilio bitartean korrante pazifista indartu egin zen, gerra ororen  
berezko injustizia salatuz. Mugimendu horren koordenadetan  
ulertu behar da, gai honi ematen zaion tratamendua. Gandhiren  
pentsamendua eta praxia azaltzen eta miresmenez aupatzen du  
batek (17, 48-53). Hegoamerikako egoerari begira, Camilo To-  
rres etab. ere gogoratzen dira (30, 43; 31-32, 80-81, eta 105-  
108).

Erljio askatasuna eta kontzientzi askatasuna ere Kontzilioan  
sortutako eztabaida bizien ondorioz indarberitutako arazoak dira.  
Horretaz ere *Jakin*-ek eskaintzen du pentsamendurik. Lammenais  
gogoratzen du batek (19, 3-7); kontzientzi askatasuna, eta per-  
tsonaren duintasuna goraiatzan besteak (19, 55-57).

Elizaren doktrina sozialaren arabera ere arazo bat baino  
gehiago epaitzen da: katolikoek eginkizuna politikan (16, 55-  
61), pertsonaren askatasunaren eskubidea *Pacem in terris* entzi-  
klikan (18, 3-80), herrien askatasuna Joan XXIII.a baitan (22,  
29-37), Jesus eta politika (34, 58-60).

Bada Aita Santuen entziklikan eta kristau doktrina sociala-  
ren benetako zentzua non dagoen adierazteko hausnarketa sa-  
konik egiten duenik (16, 32-36).

#### d) Sozialismoa, komunismoa, marxismoa

Epigrafe honen azpian lan asko dago gure aldizkariaren epe honetan. Kolore desberdinetako idazkiak dira.

— Kapitalismoaren izpiritua kritikatuko dizu batek, pertsonalismoaren ekarria erabiliz (21, 73-80); Elizaren doktrinatik beretik egingo dizu hori bera beste batek (23, 23-31). Hirugarrenen batek sistema sozialista bezain ahula eta kritikagarria ikusten du mendebaleko demokrazia (23, 5-10). Bada Gorki-ren «Ama» nobela irakurriaz gure gazteria zeren bila doan komunismora erantzuten saiatzen denik (22, 57-62).

— Beste artikulu batzuetan sozialismo marxistaren teoria hotz hotzean deskribitzen da (20, 51-58), eta Leninen kondaira eta mitoa (22, 44-51). Eta Komunismoak beti aurrera egiteko, jendea enganatzeko eta bereganatzeko darabiltzan maltzurkeria, azpijoko eta maina guztiak deskribitzen dizkizu, intentzio osoz noski (16, 43-54). Beste artikulu batetan komunismoaren aurpegi anker odoltsua salatzen da; eta haren ideologiaren baitan, azaleko ukapenen azpitik erlijioaren muin muineko egiturek nola bizirik dirauten (23, 11-17). Artikulugile batek komunistekin ere elkarriketatu egin behar dela defendituko du (16, 43-54).

— Aipamen berezia merezi dute Rikardo Arregiren «Sozialismoa modan dago» (24, 36-51) eta «Ezkertiar berriak» (25, 9-20; 26, 22-32), eta Txillardegiren erantzunak: «Marxismoa modan egon zan» (26, 3-21). Gure herriko gazteria bizi bizirik sentitzen hasten zen arazoak hemengo ikuspegitik, hemengo eztabaiden interesetatik eginak daudelako, besterik ez bada.

— Marxismoaren erlijio kritikari gagozkioarik, interesgarri zaizkigu gaur ere Azurmendiren lanean gaurko marxismoak erlijioari egiten dion kritikari buruzko oharra (26, 49-64).

#### e) Marcuse

Frankfurt-eko eskolako marxista kritikari honi 35. zenbaki osoa eskaini zitzaion. Ez zentsuraren zorrotzaren beldurrik gabe. Badaezpada ere, Marcuse-ren izena kendu eta M. erabiltzeko erabakia hartu zuen redakzioak. Ez alferrik, ordea! Administrazioak, bigarren aldiz *Jakin* isilarazi aurretik, ametitu zuen azken zenbakia izan zen.

Monografia horretan, Marcuse-ren aurkezpen orokorraren on-

dotik (35, 3-16), batipat bi liburu laburtzen ziren: «Dimentsio bakarreo gizona» eta «Marxismo sovietarra» (35, 17-24 eta 25-51). Monografia hau baino urtebete lehenago norbaitek somatu zuen Marcuse-ren interesa (31-32, 82-83).

#### f) Existenzialismotik estrukturalismora?

*Jakin*-en lehen aldian existenzialismoak erakarmen gehiago zuen idazlearentzat. Bigarren aldi honetan orrialde gutxiago eskaintzen zaizkio behintzat. Doi-doi Txillardegiren Leturiak Jainkoaren arrastoak nondik nora miatzen dituen lan bat dago (20, 38-46). Noski, horrek ez du besterik gabe esan nahi existenzialismoaren «arrazoiak» ahazteko motiborik daukagunik. Txillardegik espreski dio gizon modernoak ez dagoela larritasun existenziala galdu eta parabisura sartzeko bezperetan (20, 6-15). Dena den, marxismoaren pisua haundiagoa da urte hauetako gure aldizkariaren zenbakietan. Eta azkenik bai existenzialismoa bai marxismoa gairatu eta kritikatu dituen pentsamoldearen bilaketaren aztarnak nabari direla esango genuke, «Jakintza berria» eta «estrukturalismoa» nola aztertzen diren ikusten dugunean (29, 1-29).

#### g) Pentsalari eta filosofoak

Kondairako epe honetan ere asko dira *Jakin*-en orrialdeetara azaldu diren idazle eta filosofoak. Hona batzuk: Graham Greene (16, 73-81; 18, 74-77), Gandhi (17, 48-53), Lammenais (19, 3-7), Lévy Bruhl, Lévy-Strauss (20, 6-15), Unamuno-Jammes (21, 81-84; 30, 17-33), Maritain (23, 40-46); Pio Baroja (21, 16-24; 24, 52-58; 30, 8-16; 33, 84-94), Ionesco (23, 18-22; 25, 42-47), Huarte garaztarra (31-32, 84-94); Epikuro (33, 50-52), Steinbeck (34, 58).

#### h) Euskal pentsamendua

«Urtzago»k «Euzko oldozkerea» non dagoen bazekien eta horixe erakutsi nahi izan zuen (25, 48-52).

*Jakin*-eko redakzioak euskal kulturari buruz zenbaki monografikoa prestatu zuenean (34. zenbakia), inkesta bat egin zuen euskal pentsamendu berezirik ba al zegoen galdetuz (34, 9-18). Inkestaren ondoren lan bat zetorren kultura eta ideologiaz (34, 19-27) eta beste bat euskal kulturaren etorkizuneko bideei buruz (34, 40-55).

### 3. 1969-1977

Aldi honetan teologi-filosofien elkarrekiko mugetan lan asko ikusten dugu.

#### a) Kultura eta fedea

Kulturaz bi lan daude, asmo eta ikuspuntu desberdinetatik eginak. Batak Rikardo Arregiren kulturari buruzko pentsamenduak bildu nahi du (*Jakin Sorta 3*, 11-32). Besteak «Kultura eta fedea» liburuan ikuspegi zabalagotik kulturaren zertzelada nagusi batzuk eskaintzen ditu (*Jakin Sorta 4*, 15-37).

Azken liburu honetan bertan fedea eta ideologiaren arteko harremanak aztertzen dira, Marx, Gramsci, Freud, Monod, Fries aipatzen direlarik (*ibid.*, 67-82). Liburu berean erlijioaren ikuspegi soziologikoak sor ditzakeen galdera eta kezkek ikus daitezke (*ibid.*, 83-115).

#### b) Marxismoa eta erlijioa

1964etik 1977 alderarte, marxismoaren kezka aurrez aurre topatzen duzu *Jakin*-eko orrialdeetan. Pentsamendu horren eraso hain zalapartatsua eta bat batekoa izanik, gure eta gure herriaren fedeari sortzen zizkion eta dizkion galdera zorrotzei adarretatik heldu nahi izan die.

Aipatu «Kultura eta fedea»n ugariak dira marxismoaren aipamenak (Ikus *Jakin Sorta 4*, 65, 108-112, 129).

Marxismoak asko dira eta hauen erlijio kritikak ezin gutxiago izan. Ez da harritzekoa *Jakin* ikuspegi desberdin horietatik egin-dako erlijio kritikak jasotzen ikustea.

Filosofia soviatarren erlijio kritikaren goibeheak eman zituen Azurmendiren eskutik (*Jakin Sorta 5*, 125-202). Geroago monografia luze bat eskaini zion neomarxismoaren erlijio kritikari.

Erljio kritikarik pobreena eta zaharkituena marxismo soviatarrena da. Eta fededunari kezka eta larritasun gutxiena sortzen diona, aginterik ez duen bitartean behintzat. Erljioaren eta erlijiodunen errealitatea leialago begiratzen saiatu diren intelektual marxisten pentsakeraren informazio izatea ere interesgarria da euskal fededunarentzat eta fedegabearentzat. Zentzu

honetan antolatu zen «Marx eta Jesus Europan» (*Jakin Sorta* 10, 1975).

*Jakin Sortako* azken zenbaki honek «erlijio kritikaren krisia» sarrera gisa eman ondoren (*ibid.*, 11-72), nazio desberdinetako alderdi komunisten eta intelektuaren erlijioarekiko pentsamoldea eskaintzen du. Italiako Alderdi Komunistaren pentsakera (74-78) eta Frantziakoarena (97-121). Gero nazio desberdinetako intelektual entzutetsu zenbaiten eritzia biltzen da. Ikus daitezke: Salvatore di Marco (78-83), eta Lucio Lombardo Radice (83-94), italiarrak; Roger Garaudy (123-143), frantsesa; Max Horkheimer (145-170) eta Ernst Bloch (175-194), alemanak; Leszek Kolakowski (195-242), poloniarra.

#### 4. 1977-1981

*Jakin-en* bigarren aldiko zenbakietan filosofiak ere, teologiak bezala, ez du garrantzirik hartu. «Filosofo berriei» zenbaki bat eskaini zien. Eta hildako pentsalari batzuk ere kontutan hartu ditu.

##### a) Filosofo berriak

1977-1978an Frantziar, «Filosofo berriak» izenez komunikabideetan arrakasta handia izan zuen mugimendua sortu zen. Batzuentzat, pentsalari gazteok kultura marxistizatu honetan inor esatera aspaldi ausartzen ez zen egia mardula esan dute. Besteentzat «Filosofo berriok», ez filosofiarik, ez berrikuntzarik zekarten; eskuineko indarrei joko egin zioten. *Jakin-ek* monografia prestatu zuen lehen eskuko informazio objektiboa, bere testuinguruan jarria eta kritikoa emanez.

Filosofia berrien esanahiari buruzko bere eritzi propioa ez zuen ezkutatu *Jakin-ek* (8, 5-9) Gero Filosofo berriek, aurka eta alde, prentsan izan zuten arrakasta analisatu zen (16-23). Pentsalari hauetako batzuk banan banan aztertu ziren. Arinago edo sakonago aurkeztu genituenak izan ziren: André Glücksmann, Bernard Henri-Lévy, Jean-Marie Benoist, Jean-Paul Dollé, Guy Lardreau, Christian Jambet, Maurice Clavel (24-66). Ondoren, filosofiaren kondairan non kokatzen eta nondik datozen mugatu nahi izan zen (67-111). Azkenik bi filosofo euskalduni eskatu zitzaizen «Filosofia berriari» buruzko eritzia (112-120).



## b) Hildakoen oroimena

Gainerakoan *Jakin*-en azken urteotan apika ez dago beste gai filosofikorik. Gramsci-ren aurkezpena egin zen 1977an, heriotzeko 40 urte bete zirela eta (4, 83-96). Intelektual eta pentsalari ospetsuren bat joan denean, batzutan oroimena egin nahi izan du *Jakin*-ek. Gogoratu direnak hauek dira: Margaret Mead (9, 97-103), Marcuse (11, 70-72), Nicos Poulantzas (12, 138-146), Erich Fromm (14-15, 171-172), Piaget (16, 68-70).

## Bukaera

Aurreko orrialdeetan ikusi dugu filosofi eta teologi gaiak *Jakin*-en historian izan duten tokia. Ondorio bezala baieztapen hauek egin ditzakegula uste dugu:

1. Teologi-filosofi gaiei *Jakin*-en eman zaien tratamendua, *Jakin* beraren eboluzioak markatuta dago. Apezegaien aldizkaria, gazteriaren aldizkaria, kultur aldizkaria izateak planteamendu eta asmo desberdinak erabiltzea esan nahi du. Inprimategira pasatzen denean, teologiak eta filosofiak garrantzia galdu egiten dute. Bidezkoa zen hori gertatzea, seminaristentzako aldizkaria ez izatea erabaki zuen unetik.

2. Teologia huts ongi hesituaren barrutia baino maiteago izan du *Jakin*-ek, honen eta filosofiaren arteko mugetan dagoen eremu malkar, basati, kezka eta istiluz betea. Hori adierazten dute 1960 arte teologia fundamentalak, teologiako beste sailen aldean duen garrantziak; existentzialismoarekin konfrontatu nahiak; marxismoak biztutako kezkar erantzun kritikoa eman nahiak; erlijio kritikaren eztenari bizkarririk ez kentzeak.

3. Teologi arazoetan, «doctrina catholica» zeritzana, benetako egia ziur eta segurutzat jotzen zena ematen da. Filosofiaz dihardunean, «philosophia perennis»-aren oinarrietan finkaturik egiten zen. Ziurtasun teologiko eta filosofiko horretatik ausartzen zen beste pentsalari heterodoxoagoekin dema jokatzea. Sekularrak aldizkarian zenbat eta gehiago sartu, orduan eta samurragoa da garai hartan gure Euskal Herriko eliz jendeak, arrazoi gehiegirik gabe, oso segurutzat zeukanarekin talka egiten zuten ideia, eritzi eta pentsamoldeekin topo egitea.

4. Etika eta soziologian Elizaren doktrina ofiziala zen nagusi. Gai hauek espekulazio asmoz baino gehiago intentzio

pastoralez erabiltzen ziren. Bestetik, etika sozialeko arazoak hainbeste eta Elizaren doktrina ofizialaren moldeetan erabiltzeak diktadurapean gertatu ohi dena isladatzen du: politika egin ezinean etika egiten da. Herrien eskubideak, sindikato askatasuna, etab., arazo etiko bezala tratatzeko erabakiaren azpian, baieztapen eta eritzi politikoa ezkututzen da.

5. 1961 alde arterako zenbakietan uste dugu «euskaraz» gaiak erabiltzeak garrantzi haundia duela; beharbada, batzutan, edukinak berak baino gehiago. Gerora gaiaren beraren kezka eta interesari arreta gehiagoz begiratuko zaio.

6. *Jakin*-en bigarren aldiaren orain arterainoko ibilaldian, filosofi eta teologi gaiak ez dira asko erabili. Beste gai asko ere ez. Informazio bide neutraletik abiatzen eta ibiltzen saiatu delako izan daiteke *neurri batetan*. Ideologi kutsurik ez eukitzea planteatzea bera, ezinezkoa izateaz gain, inozokeria borobila bada, ahal den neurrian pisua kentzea gure aldizkariak har dezakeen bide on bat dela uste dugu. Bestetik, asmo hori ez dago filosofia eta teologia erabiltzearen kontra. *Jakin*-en barnean toki naturala eta egokia dute biek.

## Artea eta literatura

Filosofi eta teologi ikasleek hasi zuten *Jakin*, baina «Antze ta Elerti» sail batekin, 4. zenbakian «Kultura-Iakintza-Antze» bihurtuko zena. Lehenengo hiru zenbakietan (h.d., onartu ziren artean) kreaizozko lanek betetzen zuten sail hau gehienbat, poesiek batez ere. Bestelako lanak, artikulua, Arantzazun eginak dituzu denak: arteari buruzko gogoeta orokarrez lehenengoa, I. Bastarrikaren *Erti txirbillak* (1, 77-79); artikulua bat literaturazkoa: Zurutuzaren *Hugo Wast'en ixil-gordea* (2, 123-130); musikazko bi, J. Iturriarenak biak: *Mozart* (2, 131-137) eta *Nundik nora musika?* (3, 119-126).

4. zenbakiaz gero poesiarik eta kreaizozko lanek ez da ametitzen *Jakin*-en. Sailaren izenburua ere aldatu egin da, esan bezala. Harrez gero artikulua ugaritu egingo dira. 1977az gero, azkenik, literaturak batik bat, bere txoko jakina eta fijoia izango du aldizkarian. Ikus ditzagun orain gaiak banan banan.

### Musika

Musika unibertsal haundiaz, klasikoaz nahiz modernoaz, oso gutxi argitara izan da *Jakin*-en: J. Iturriaren *Mozart* (2, 131-137), J. Laskibarren *Haendel* (11, 71-74) eta I. Sarasolaren *Strawinsky* (21, 131-137). Hiru estudiantxo. Gainera, lehenengo biak behintzat, musikarari haien ehunurtekoengatik. Gutxi da hogeiki eta bost urtetan.

Bada J. Iturriaren beste lantxo bat, *Jakin*-en hasieretakoa,

*Nundik nora musika?* (3, 119-126), musika modernoaren berri ematen diguna, txukuna eta polita bera. «Musika-gai edozeini buruz zerbait edatzeko agindu didate —hasten da lan hau—. Erti-alor au gutxi jorratua omen degu-ta». Horra, bada, euskara kultur alor guzietan trebatzeko programaren beste agerpen bat: «euskara lantzeko» idazten zen hau ere.

Hurrengo textu honek erakusten digun diferentzia, nolana ere, bi idazleren artekoaz beste, izan daiteke bi aldiren artekoa eta bitartean egin den eboluzioarena ere: «Ni enauk eresgillea, eres-idorotzaille bat baizik» (3, 125), itzultzen du J. Iturriak Strawinskyren ateraldi sonatua 1957an; Sarasolak, bederatzirte geroago, esaldi bera: «Ni ez naiz konpositorea, musika-asmatzaillea baizik» (21, 12).

*Jakin*-en maiz-sarriago begiratu izan dena, Euskal Herriko bizitza musikala duzu, kanta berria bereziki. Hor daude Manolo Urbietaren kritikak (31/32, 77-78), E. Knörrenak (8, big. ald., 125), kantaldi, talde edo diskoen erreseinak, etab. Zerbaki monografiko oso bat eskaini zaio euskal kanta berriari (big. aldiko 4, 1977) G. Knörr, X. Lete, L. Iriondo, J. A. Artze, J. R. Beloki eta I. Zubizarretaren artean osatua. Eta, oro har, txit lan interesgarria osatu dela urteak zehar, esan genezake, euskal musikari buruz. Esandakoez gain, balio orokarreko bezala aipagarrienak hauetxek dituzkezu: J. A. Arana Martija, *Euskal Musika* (in *Lur eta Gizon*, 1974, 179-197); Maite Idirin, *Herri kanta egungo Iparraldean* (10, big. ald., 43-60); J. M. Lekuona, *Poesigintza eta kanta gerraostean* (5, big. ald., 123-130); J. A. Arana Martija, *Bertsoen doinua* (14/15, big. ald., 80-98)...

Badaude beste lantxoren batzuk: interbista bat Nuria Feliurekin (22, 75-82); Joan Manuel Serrat eta eurobisioa (29, 42; 30, 40); musika eta politika (11, big. ald., 72); baina, oro har, ez da hauxe izan *Jakin*-en alor begiratuena, ez. Pozgarria, halere, bizitza musikaleko protagonisten kolaborantza gure aldizkarian. Indartu beharra dagoena, zalantza gabe. *Jakin*-en sortzaileetakotzat eman bait ditzakegu, esaterako, Manolo Urbietak, edo Joxe Iturriak, adibidez.

## Zinema

Musika baino ere gutxiago landuta, *Jakin*-en, «zazpigarren artea» dago, zinema. Eta dagoentxo bera, aurreneko urteetan

batik bat, ikuspegi «deboto» bitxi samar batetatik dago begiratura (Charlie Chapin: 4, 58-61; *Katolikoa ta zinema*: 5, 63-67; *Zinema, gaiztakeriaren ikasbide?*: 19, 40-43, etab... Franco hil ondoko *Jakin* berriaren ere, bost urtetan behin bakarrik begiratu izan zaio zinemari, eta Zeffirelliren «Nazaretoko Jesus» zela eta orduan.

Dagoen euskal zinema apurraz ere oso gutxi arduratu da *Jakin* orain artean, musikarekin egin duenaren kontrastez: behin «Ama Lur»-taz (33, 35), besterik ez da euskal zinemaz inoiz mintzatu.

Problema da, noski. Zinemaz garaikotasun pitin batekin hitzegitekotan, filmeak gure artean projektatzen diren momentuan, edo Euskal Zinemaren Topaketak, Donostiako Zinema Jaialdia, etab. ospatzen direnean, izango litzateke egokiena hitzegitea. Baina hiruhilabetekari batentzat ez dago gaurkotasun aukera haundirik, eguneroko edo asteroko prentsaren aldean.

Dena dela, balio beza, kontraste bezala baino ez bada ere, gogoratzeak, nola *Egan*-ek, adibidez, bazuen 1954eaz gerora bere Zinema Sail fijoak, zenbakioro, L. Mitxelenaren eta G. Ansolaren kontura.

Lexiko teknikoari gagozkiola, agerian daude gaiok euskaraz idaztearen zazpi doloreak: musika arloan «componer» itzultzeko *zeatu*, *idatzi* eta horrelakoak erabili badira, zinemaren barrutiko *zine-mutilla* (actor, artista), *idaxtzaille* (guionista), etab. apenas dira galantagoak. Ez dago, hementxe ere, normalizazioaren premia makala.

## Arte plastikoak

*Jakin* Arantzazun sortu zen. Beraz, harrigarria ez da —urte haietan Arantzazun zegoen bizitza artistiko aberatsarekin— arte plastikoek leku gehixeago baldin badute aldizkarian. 1958an Yon Ulaziak, Arantzazuko absidearen pintore Muñozen laguntzaile ibili bait zen, *Egungo arte berriaz* idatzi zuen (8, 62-67), hurrengoan *Europako eleiz berriak* (9, 44-49) artikularekin jarraitzeko. Geroagoan, berriro *Elizetako arte berriaz* idazten du Joxe Azurmendik *Egan*-en (1/3, 1963, 3-10) eta elizetako arte berriaz urte haietan erruz idatzi zen. Bai, arte eskola paregabea bihurtuta zegoen Arantzazu hark berea eragiten zuen.

Baina arkitekto, pintore, eskultore eta gainerako guzi haien artean, inpresio haundiena egin ziguna denoi, Oteiza izan zen duda gabe. Orduan, ez da harritzekoa, berriz ere, Joseba In-txaustik 1960an *Oteiza'tar Gorka* idaztea (11, 43-46); Xabier Egañak —pintorea berau ere eta arestian *Jakin*-eko margolaria— *Oteizaren lana obeto ulertu aal izateko oarpen koskorrak* halaber (27/28, 38-44); eta, azkenik, Oteizak berak ere idaztea *Jakin*-en (29, 58-62), bere artearen zentzua esplikatzen nahiz...

Elizgintza berriko Arantzazu hark eta, batez ere, Oteizak, Arantzazutik, gutxitan bezalako protagonismoa irabazi zioten arteari euskal herrietako bizitzan eta kulturaren, Arestiren edo Gandiagaren urte haietako poesiak ere isladatu dutenez. *Jakin*-en ezin izan zitekeen bestela. Ez gaitu harritzen, beraz, hirugarren aldiz ere, 1966an berriro *Estetika berria eliz-gintzan* (22, 52-55) aurkitzen badugu, Aldabako eliza berriaz hau, J. A. Letamendiarena. Arte erlijiosoaren gora da. Eta joera honetan idazten du Tx. Izagirrek *Dominiko Theotokopuli Grekoa* (18, 83-88).

Bestalde, euskal herrietako bizitza artistikoaz ere arduratu da *Jakin*. Ez da agertu zaharra, adibidez, X. Egañaren *Arteder-81* (19/20, big. ald., 146-147), Bilboko erakusketa haundiaz. Eta atseginez gogoratzen dugu, noizpait lankide izan genuela Ayalde, *Euskal arteaz* (25, 21-23) artikuluaekin. J. San Martinek *Ibarrola'ren pintura* (21, 13-15) argitara zuen, pintore hark oraino gure artean ospe haundirik ez zuen garaian. «Oker aundiren batek bere martxa etetzen ez badu, etorkizunean izen aundia artzera dator Ibarrola», idazten zuen. Igarri gabe, ikusi egiten zuen.

Euskal Herriko arteaz dihardugula, aipatu beharrenak hiru lan ditugu, *Jakin*-ek alor honetan emandako inportanteenak: alegia, J. San Martinen *Euskal Artea* eta J. I. Linazasorearen *Euskal Herriko Arkitektura*, biak in *Lur eta Gizon*, 1974, 147-167 or. lehenengoa eta 169-178 or. bigarrena; eta R. Gelosen *Pintura Ipar Euskal Herrian 1930az geroztik* (10, big. ald., 34-42), Iparaldeko bizitza artistikoaren ezagutzailerik on askorentzat ere sorpresa bat izan zena. Uste dugu, lankide horiek lan frango ederra egin digutela, gure errealitate artistikoa ezagutzera emateko.

Beste lan eremu bat, artean, ikastoletakoa da. Ikastolak omen dira gure etorkizuna, esan ohi denez. Hori egia baldin bada euskararen geroaz, euskaldun horien kulturaz eta bizitza artistikoaz ere halatsu izango da. Eta ikastolez arduratu den bezala (elebitasunaz berriki), edo ikastoletako literaturaren ira-

kaskuntzaz bezala (ik. *Literatura eta euskal irakaskuntza*, in *Gure Ikastola*, 1972, 231-258 or.), *Artea ikastolan* ere eman du *Jakin*-ek argitara, A. Lertxundi eta I. Urbietaren elkarlana (ik. *Gure ikastola*, 1972, 219-229 or.), «ez, artista batzuk sortzearen antsiarekin». «Gure interes guzia nortasun baten lorketa besterik ez da». Hezkuntza artistikoaren partea nortasunaren desarroiloan. Eta nola eraman ikastoletan haurren hezkuntza artistiko hori.

## Literatura

Literaturaz bai, konformidadean, asko dago *Jakin*-en. Ideia bat egiteko, irakurleak aurkibide sistematikoan (tematikoan) begiratzea du hoberena: hemen ez bait daukagu alderdi gogoangarri gutxi batzuk axial-axaldu baino egiterik.

*Jakin* ez da literatur aldizkaririk propioki. Kultur aldizkari bezala, halere, ezin daiteke ezaxola literaturaz. Literatur informazioaz, kritikaz, etab. Informazioa (dibulgazioa alegia), era askotan saiatu gara ematen: artikuluko teorikoz, autore batzuen azalpenez, liburu konkretuen kritikaz... *Lur eta Gizon*, 1974, aldizkari-liburuan bi lankide seinalatuk lagundu zigun: P. Lafittek, *Herri literatura* lanarekin eta A. L. Villasantek, *Euskal literatura landua-z.* Gure literaturaren bi alderdi nagusiak orokarki azaldu zizkiguten horrela bien artean, biak bait dira bakoitz bere lanaren barrutian espezialistak. Gero, eskualdeei eskainitako zenbakietan esate baterako, beti sartu dugu hango idazleen eta literaturaren kapitulua: Arabako euskal idazleak, Ipar Euskadikoak, nafarrak. Saiatu gara eskola gabeko herri honetan informazio orokarra ematen.

Lehenengo istiluak, historiari gagozkiola eta literatur arloan, Txillardegiren inguruan izan ditu *Jakin*-ek. I. Bastarrika, Orixeren miresle itsuati, ez zitzaion asko gustatu nonbait *Leturiaren egunkari ezkutua* (5, 99-102). «Naste-borraste bat-edo» iruditzen zitzaion, «astuntxoegi ere», etortasunik gabekoa, etab.; orain ez dugu zehaztasun gehiagoren beharrik. Bastarrikaren kritika zakarra izan bazen, Txillardegiren erantzuna ez zen bigunagoa izan. Elkarren kritika hauen buruan, dena dela, auzia berehalaxe literaturatik euskararen arlora pasa zen (garbi/mordoilo), geroxeago Orixerekin atzera literaturara bihurtzeko (euskararen arazoak eta literaturarenak frango gutxi berezi ohi zirela esan

beharko genuke). Orixek, bada, euskal kritikaren historian seguru-ri oso-oso gutxi egingo zen bezalako kritika sutsu gaiztoa egin zion *Peru Leartza'ko*-ri. Euskararen aldetik «323 uts, irureunda ogeitiru, 152 orrialdetan» ateratzen zizkion. Pentsamendu aldetik «Leartzaren filosofia ustela ta merkea da: novela tzarretan ikasia». Egiaz filosoforik ere ez da, «beti bere urduritasu-nera biurtzen baita, kakalardoa bere opiltxoetara bezela». Erli-ji kontuetan, berriz, ezjakin hutsa da. Era batera: «gizonak, astakirtena izatekotan, olakoxea nai luke!». Beraz, «barrenak ez dit agintzen ixillik egotea, liburu onek gaurko gazte-jendearen artean egin dezaken kaltearengatik». Nobelaren literaturtasuna ez zuen ukitzen, baina bukaera honekin errematatzen zuen bere kritika zanpakorra: «Txillardegik bere liburua onela bukatzen du: «Arrazoi zenuen: burutik egiña dago» (*Leartza*). —Nik ere artikulua onela bukatzen det: Liburu au buruz egiña ordez, burutik egiña dago. Baztatu ezazute zoko illunera» (*Yakin'en geigarri*, 5-6, 1960).

Hau dena, lehenagotik zetorrenarekin batera hartu behar da, noski: alegia, Orixe-Bastarrika-Txillardegik gorabeheren barruan, zenbaki honetako beste zenbait tokitan argituta geratu den eran. Txillardegik «Orixe jaunari, begiramenduz eta adiskide antzera» erantzun zion: *Gogaide ez, baiña bai adiskide* (14, 52-54).

Gainerantzean polemika askorik ez da egon *Jakin*-en literatur gorabeheretan (polemikak, euskararen kontuan izan dira ia denak). Beharbada San Martinek eta Labayenek Orixeren *Euskaldunak* poemari buruz izandako auzia (21, 65-72 eta 22, 87-92), edo E. Etxezarretak L. M. Muxikari egindako kritika (7, big. ald., 123-125) eta honen erantzuna (8, big. ald., 139-141), edo erizpide literatur-soziologikoei buruz Ehulateiren eta Torrealdaireren artean egondako diferentziak (10, big. ald., 16-25 eta 11, big. ald., 112-113), polemikatxotzat har genitzake.

Beste polemika edo bati *Jakin*-en gaurko irakurleak nekez-ago igarriko dizkio sustrai (okasional) literarioak. Urrutitik bait datoz urak. 1961ean Dionisio Arrutik *Erri baten misterioa* idatzi zuen (15, 33-39), judu herriaz, intentzio apartekorik gabe nik uste, antisemitismoaren kritikaz. D. Peillenek bixi-bixi *Mixteriorik ez da harrigarri* batekin erantzun zion (17, 34-38), juduak ezinikusi izateko zenbat arrazoi dagoen agertuz... Ahoa bete hagin geratuko zen Arruti, non sartua ote zen asmatu ezinda. Zer misterio dago mixteriorik ez horretan? *Egan*-etik zetorki-



gun misterio guzia. Mirandek *Goncourt-saria dela ta* idatzi bait zuen (3/6, 1960, 237-239), artikulua harengatik eta lehenagoko beste batzuegatik, Aginagak *Behar ginuen bakarra!* (1/3, 1961, 6-7) erantzun zion, Mirande antisemita, nazi eta faxista bezala agertarazi nahiz. Mirandek *Ene artikulua baten «kritika»ren ondoren* osteratu zion lehenengo (1/3, 1962, 6-11), baina oso minduta geratuko zen. *Igela*-k ere defendatu zuen Mirande<sup>1</sup>, agian Peillenek idatzitako textutxo batetan, eta azkenean nola-bait *Jakin*-era ere heldu zitzaigun auzi hau, esan den moduan. Miranderen «faxismo» delakoaren auzian eta haren euskaraz idazteari uztean bere inportantzia izan zuelako aipatzen dugu gorabehera hau<sup>2</sup>. Bestela Mirandek ez zuen *Jakin*-ekin eta jakinlariekin zerikusirik, ez harremanik, inoiz izan, 1956ko Euskaltzaindiaren Arantzazuko bileran elkar pasadizoan ikusi izana aparte<sup>3</sup>.

Hasiera-hasieran, lehenengo hiru zenbakietan, poesiak ere argitaratzen ziren *Jakin*-en. Utzi egin zuen gero. Izan ere, lehen zenbakiak berak esaten zuen Editorialean: «elerti-saioak baño elerti ta antze-gaiak erabiltzea nai genduke; ots elerti ta antzeari buruzkoak» (1, 3). Literaturgintza ez da *Jakin*-en eginkizuna, baina literaturgintzari bere zerbitzua zor dio: informazioa, kritika, etab.

Erbesteko autoreak lehenengo: Papini, Camus, Sartre, Bernanos, Ibsen, Txejov, errusiar literatura, etab. arakatu dira urteok zehar. Ionescoren berri J. M. Torrealdairen hiru artikulutan segidan ematen da (hau gertatzen da autore tratatuena; bloke bezala errusiar literatura letorke lehen tokian). Korrante literario berriez informatzen da, experimentalismoaz poesian adibidez, etab.

Protesta bat ere ikusten dugu *Jakin*-en, erbesteko autoreen berri gehiegi (edo etxekoen gutxiegi) ematen omen zelako: «ikusí ere ikusten dugu, atal ortan («Kultura-Iakintza-Antze») auzi bikañak urratzen dirala; zenbait gizon ospetsuen berri ematen zaigula. Bai, egia da. Baiñan ezer gutxi agertu da YAKIN'en Euskalerrí'ko etxeko edesti, gizon ospetsu, erti ta orrelako amai-ka gauzeri buruz. Oso onuragarri zaigu YAKIN'go idazle ta irakurleoi geure erriaren kulturaz berri izatea: zein ditugun Euskalerrí'ko idazle onak; bertsolariak; gure erriko abestigilleak nor ditugun; margolari ospetsuak, lengo ta oraingoak. Gure erriko erlijioari buruz zenbat arlo urratzeke ere! Gai guzti oiek

eta antzekoak ez al dute gure aldizkarian toki berezirik merezi? Etxeko kulturaz ase gaitzen lenik erabat, eta goazen gero erbesteko iturrietako urak xurgatzera» (*Yakin'en geigarri*, 3-4, 1960). 1968ko aldizkariaren birmoldaketaz gero, nolana ere, asko gutxituko da *Jakin*-en erbesteko autoreen tratamendua.

Euskal autoreez aritzerakoan, mintza gaitzen aurrenik erdarazko «euskal» autoreez. Pio Baroja da aztertuen, zalantza gabe: I. Unzurrunzaga, Y. Etxaide, M. Lasa, Pelay Orozko enplegatu dira harekin. Unamunorekin gehiago saiatu da Txillardegí («Igara» orduan): beste zenbait lekutan emandako lanez gain, Levy Strauss eta Unamuno, Unamuno eta Jammes, argitara ditu *Jakin*-en. Zenbaki monografiko berezi bat ere atera zen (30.a) «Euskal Herriko hiru hereje» Unamuno, Baroja eta Salaverriari buruz. Hau, «*Jakin* sorta»n Salvatore Mitxelenari eskainitakoa eta *Bertsolaritza* zenbakia izan dira inoiz egin ditugun monografia literario bakarrak (Rikardori bere heriotzekoan eskainiak beste karaktere bat duenez gero). Bitxia da: *Jakin*-en Barojari buruz ihardun direnek, haren euskalduntasuna errebindikatzeko gogoz egin dute. Polemika sonatu batzuen oihartzuna somatzen duzu: baina hura ez zen *Jakin*-eraino iritsi...

Euskarazko euskal literatoez *Jakin*-en idatzi den gehiena autore edo argitalpen berrien inguruan biltzen da. Ez dena: badira lanak XVI-XVIII mendeetako lirika gortesauaz, herri literaturaz, etab.; edo-ta baita Fernando Amezketarraz, Pio Mortaraz, Belaustegigoitiaz, Azkuez eta Oríxez, P. Broussaini buruz, etab. Baina, oro har, oraintasunari lotu beharra dabil nagusi: Txillardegí, Aresti, Gandiaga, «Otsalar», L. M. Mugika, M. Lasa, J. Azurmendi, Lete, Sarasola, M. Zarate, Saizarbitoria, Atxaga, K. Izagirre, etab. etab. gehiago ikusten dira.

1977az gero, gaurko *Jakin* honetan, nolabait arautu egin da literaturaren tratamendua. Lehen, funtsean, lankideek nahi zutena eta nahi bazuten agertzen zen zerbait. Oraingo *Jakin*-en egitamuan, literaturari gagozkiola, bi sail berezi eta fijo nabarmentzen dira: J. M. Torrealdairen urteko liburuen kontadurariena eta «Liburuak» saila, kritikarena.

Ahoz aho dabil aspaldian, euskal letretan ez dagoela kritikarik. Edo kritika partidista hutsa dagoela: adiskideari öngi, etsaiari gaizki. Edo axalkerietan geratzen dela. Edo... *Jakin* berri hau projektatu zenean, I. Sarasolari eskuetan eman genion kritika

saila programatzea, literatur kritikak bere lekua zerbaki guzietan ukan zezan. Horrela sortu zen «Liburuak» saila. Kritika seriozki egina eta irakurleen orientagarria nahi genuen. Beharrez gero, nahiago akademizismoa, partidismoak baino. Funtsezko gauza bat nahi genuen.

Baina lan zaila da kritika Euskal Herrian. Kanpoan berehala sortu ziren kritika sistema haren kritikak. Zerbakiero sail bat eramateak, bestalde, bere buruhausteak ditu. Lana da eta lotura da. Konpromezua da batez ere. Hiru zerbaki orduko behintzat Ibonek utzi egin zuen bere lana, berak antolaturiko kritika saila airean utziaz eta hankaz gora. A. Otaegik, Etxezarretak, Koro Navarrok, Mikel Zalbidetik lagundu ziguten 1978an sail hori eramaten eta 1979 urtearekin batera Jon Kortazar egin zen sailaren kargu.

Jon Kortazarrena lan eskergarri eskerga baldin bada, leial asko eta zerbakiero-zerbakiero bere kritikak egin egin dituelako da, bai (ik. Aurkibidean); baina, are gehiago, kritika modu bat desarroilatu duelako, giro minbera eta gaitzikor honetan, hasi eta txispazo batzuk bota ezezik, iraun eta jarraitu egin zezakeen bakarra agian. Aseptikoa. Hotza. Nolabait antzua, nahi bada. Baina gutxienez berriro posible egin du kritika. Oso erraza bait da «kritikarik ez dago» esatea (eta ez egitea): kritika ere inpossible da, ordea, kritikak eramaten ez dakien inguru literario extu, erretxin batetan. Ea nola den posible, bestela, sail bat urteetan eramatea, mundu guziarekin haserretu gabe.

Bestea J. M. Torrealdaireren urte guziko liburuen zerrenda, klasifikapena eta azalpen soziologikoa da, urteroko lehen zerbakian etorri ohi den saila. Oinarritzko informazioa, gure liburugintzako gorabeherak ezagutzeko. Lan asper eta nekagarri honekin, uste dugu *Jakin*-ek zerbitzu on bat ematen diela euskal kulturari dabilzan guziei.

*Jakin*-ek, aldizkaria da eta, aldizkariaren tradizioan ikusten du bere burua. Badaki zenbat zor dien aurrekoei (eta albokoei). Asko ikasi du haietatik eta ikasten jarraitu nahi luke. Baita ere izan liteke *Jakin*-en eginkizuna, gure irakurleei lehenagoko eta euskal kulturari paper bat jokatu izandako aldizkariaren berri ematea. Zerbaki honetan bertan eliz ikastetxeetako euskal aldizkari ohien berri ematen dugu. Beste batetan *Euskara*, XIX. mendeko aldizkari alemanaz informatzen genuen (7, big. ald., 108-122).

Ikerketarik baliozkoena, ordea, oraingoz, *Euzko Gogoari* eskaini diogu (big. aldiko 12, 120-137 eta 13, 96-119), geure historiak ere eskatzen zigunez. Lan hori jarraitzea gustatuko litzai-guke, gure irakurleon zerbitzuan. Liburuek bezalaxe, zenbait al-dizkarik bederen ongi merezita dauka bere tokia euskal kultu-raren eta literaturaren historian.

---

<sup>1</sup> Ik. Mirande, J. - Peillen, Tx., *Igela, euskaldun heterodoxoen erre-bista*, (Hordago) 1979, 109.

<sup>2</sup> Tx. Peillenek honela dio: «Aginaga delako jaunarekin eduki zituen eztabaidek ez zioten onik egin. A. delakoaren laido pertsonalek eta beste euskaltzaleen ixiltasunak mindurik, euskaraz idazteari utzi egin zion», ik. Mirande, J., *Idazlan Hautatuak* (Gero), 1976, 25.

<sup>3</sup> «Arantzazun izan nintzen (...) eta han euskal idazle andana batekin gertatu nintzan, Frantziskotar fraide hainitz heien artean... baina sekulako abegi ona egin derautate guztiek, elizgizonek eta «prakadunek», eta han izaita ez zait dolutu», ik. Mirande, J., aip. lib., 54.

## Zientziak

«Ba-da gure aldizkari ontan filosofia ta teologirik; ta ekonomia, mediku-jakintza, lege-jakintza, ta gai-ñerakoak?

Jakintza DENA bear du euskerak, biziko bada. Atozte guziok, jakintza au osatzera... (11, 1960, 4).

«Prakadunei» egiten zaien desafio honetan nabari daitekeenez, gaien *edozein*-tasuna azpimarratzen du behin berriro zuzendaritzak, bere «ateak zabalik» jartzean. Edozein gai euskaraz erabili ahal izateko saialekutzat aurkezten du *Jakin*-ek bere burua, euskaraz ematearena ez beste mugarik aipatu gabe. Zer da, orduan, «jakintza» hori, nola muga daiteke? Aldizkariak berak ez du zehaztu izan. Zehazgabetasun berarekin begiratuko dioguk ere, jorratu izan diren arloak bait dira hemen interesgarri, ez idazlan bat noraino den «zientifiko» erabakitzea, ez eta haren eduki-ekarriak balioztatzea ere.

Gauza bera esan daiteke idazlanak multzokatzeko erabili dugun erizpidez: komentziosko sailkapen posibleetako bati jarraituz, lau arlo nagusi bereizi ditugu (giza zientziak, natur zientziak, zientzia aplikatuak eta zientzia politiko-sozialak) eta horien inguruan bildu *Jakin*-en argitara diren zientzi artikulua, bese-tetan jasotako teologi-filosofiak, literatur kritika etab. bazter utzirik.

## 1. Giza zientziak

1.1. Hasieratik beretik ekin zitzaion Psikologia-Pedagogia dei genezakeen «yakintz-soraa» lantzeari. Helburu jakinetara norabidaturiko bi artikulu aipa daitezke diogunaren lekuko: I. Bereziartuaren «Mingabeko erditza» (1, 34-38) eta I. Etxebesteren «Psikoanalysis ta arimarekiko jarduna» (2, 26-36); batak zein besteak zientzi oinarrien gainean («psiko-profilaktiko araubidea» eta psikoanalisi-psikopatologia) eraiki nahi dituzte ondorio etiko-pastoralak, asmoa arazoaren «mama euskeraz adieraztea» izan badaiteke ere (1, 34).

Lanketa beregainagoa izango dute tipologia-karakterologiek, batetik, eta psikologia ebolutiboak, bestetik: autore, joera, eta sailkapen desberdinen azalpena eskaintzen dute Norbait-ek («Izakerak», 1, 48-58), X. Ayestaranek («Tipolojiaren joera-arazoak», 6, 79-83) eta D. Bastarririk («Karakterologiaren burubideak», 13, 47-53 eta 14, 75-77). Hiru zenbakitan zehar emango du A. Esnaolak «A. Gemelli'ri jarraituz» (8, 48) moldatu duen giza eboluzioaren azalpena («Arimiztia azkorraroan», 4, 40-47, «Bizitzaren agerpenak», 8, 48-55 eta 9, 64-74).

1.2. Giza nortasunaren bilakabide hau, gerora, eremu mugatuago bati lotuko zaio *Jakin*-en orrialdeetan: elebitasunari, alegia. Hainbat ikuspuntu eta planteamenduren eskutik aztertu izan da linguistika aplikatuaren esparru hau: seinalagarrienak, ondokotara bil daitezke: psikolinguistikazko artikulu teorikoen artean, aipatzekoak dira *Gure Ikastola* monografiako lan hauek: C. Esteva-ren «Hizkuntzabitasuna kultur antropologiaren arazo» (*Jakin Sorta* 6, 93-111), Siguan-Adurizen «Hizkuntzabitasuna, gizartea, pertsona» (*ibid.* 113-121), S. Ayestaranen «Hizkuntzabitasuna eta giza-nortasunaren baterakuntza» (*ibid.* 127-137).

Hizkuntzaren ikas- eta irakaskuntzen gora-behera praktikoa-goak dituzte begi-aurrean M. Pla («Hizkuntzabidun eskola» *ibid.* 123-126), M. Lasa («Euskal Herriko irakaskuntza elebiduna antolatzeke oinarrizko ideia batzu», 7, 1978, 47-60), eta *Elebitasunaren auzia ikastoletan* zenbaki monografikoaren egileek (19/20), azken zenbaki bikoitz hau «arazoaren lehen hurbilketatzat» (3 or.) aurkezten bada ere. Zenbaki horretan ikus daitezkeen «zenbait alderdi pedagogiko, linguistiko, psikologiko, soziologiko» (*ibid.*) horien bide beretik doaz euskalduntze-alfabetatzearen eta normalizazioaren egoeraz eta eginkizunez diharduten M. Zalbideren «Euskararen irakaskuntza Gipuzkoan» (2, 1977, 126-

134), P. M. Legarretaren «Alfabetatze Euskalduntze Mugimenduen orainaz... eta geroaz» (4, 1977, 102-108), D. Heguy eta M. Ithurbideren «Euskararen irakaskuntza [Ipar Euskal Herrian, alegia]» (10, 1979, 27-33), K. Mendia eta J.J. Urangaren «Arabako Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundea» (17/18, 1981, 105-117) eta M. Aizpuruaren «Zientzi euskara» (3, 1977, 88-97).

Hizkuntzaren eta gizartearen arteko erlazioek izan duten traeraren lekuko, berriz, gutiengoen hizkuntz jokabideez ari diren azterketok aurki ditzakegu: J. Azurmendiren «Irlanderaren paradoxa» (1, 1977, 100-116), J. Intxaustiren «Abertzaletasun katalana eta hizkuntza» (7, 1978, 5-46) eta «Linguistika eta Herri-gintza Katalunian» (10, 1979, 83-92).

Hizkuntz azterketei buruzko idazlanez mintzo bait gara, diogun bidenabar, linguistika orokorrak ere idatzi izan dela *Jakin*-en orrialdeetan: L. Mitxelenak azken aldietako «berritasunak» aipatzen zituen (ik. 29, 7-14), Igara-Txillardegik estrukturalismoaren azalpena eskaintzen (*ibid.* 15-29) eta P. Salaburuk linguistika sortzaile-bihurtzailearena (ik. 19/20, 1981, 191-207).

1.3. Giza zientzien alor honetan, azkenik, euskal historia eta geografia landu dituzten artikulu urriak aipa daitezke. Prehistoriaz eta Etnologiiaz mintzo dira Joxemiel Barandiaranen «Euskal Etnia eta Jatorria» (*Jakin Sorta 9*, 67-86) eta jaun beraren hitzaldiak laburtzen dituen F. Mendizabalen «Euskalerriko aintzin-kultur ondarrak» (3, 89-96). Zuzenbidezko azterketa historikoez landa *Jakin*-en eskaini izan den monografia historikoaren bat edo beste bereiztekotan, hona hiru: J. A. Aranaren «Bizkaiko urien sortzea» (22, 6-21), J. Intxaustiren «Euskal Ola zaharrak» (*Jakin Sorta 9*, 309-339) eta J. M. Jimeno Jurioren «Historia laburra [Nafarroarena]» (6, 1978, 32-45). Hautaketa-buruhauste handirik gabe seinaltatzekoa da, bestalde, J. L. Lizundiak buruturiko Euskal Herriaren deskribapen geografikoa: «Euskal Lurra» (*Jakin Sorta 9*, 11-63).

## 2. Natur Zientziak

Teologia eta Filosofia ez beste giza zientziak gero eta ugarriagotuz eta zabalagotuz joan diren bezala, epe aski mugatuan erabili izan dira natur zientzietako gaiak *Jakin*-en. Honen arrazoia, besteak beste, talde eta ekintza espreski zientifikoaren sorreran aurkitu behar da: gogora, adibidez, *Elbuyar*, hiztegi bereziak, UZEI.

2.1. Zientzion artean, *fisika* izan daiteke lehenik seinalatu beharrekoa: I. Iturrioren «Atomuaren etxe barnea» (16, 11-15) eta J. Otamendiren «Legeak Pisika Jakintzan» (17, 87-89) bezalako dibulgaziozko artikuluen ondoan, metodologiaren eta traetaeraren aldetik beste maila batetan mugitzen diren hiru lan argitaratuko ditu Osiranzuk: «Fisikaz eta...» (18, 78-82), «Noiz? Nun?» (19, 58-63: relatibismoaren ondorioez) eta «Argiaz zerbait» (20, 47-50).

2.2. Azalpen zientifiko zehatz eta autonomoen ikuspegitik adina, zenbait daturi darizkion ondorio filosofiko-antropologiko-enetik begiratu zaiela dirudi biologiako arazoei; arlo honetako saiakera ia denak, bestalde, X. Kintanak landu ditu: honek ADNaz, Golgiren Aparatuaz eta «garaunaren iharduketaz» eskainitako albiste laburrak (ik. 29, 54-56; 30, 51-52) eta idazle beraren «Biologizko miraria: zelularen erdibitzea» (34, 72-77) ez beste idazlanak, eboluzioarekin zerikusian daude planteatuak: I.M. Zubizarretaren «Zelula, bizitzak lenen laztandu duana?» (22, 83-86) eta X. Kintanaren «Bizitzaren hasikera» (24, 27-35), «Aldakuntzaren agerpena» (25, 53-59), «Jainkoa eta materia. Teilhard de Chardin» (26, 39-48), «Aldakuntzaren abarren kidesasuna» (27-28, 45-50).

Eboluzioaren auzia lehenago ere azaldua zen *Jakin*-en, beste ikusaldetatik azaldua, ordea: monogenismo-poligenismoak, adibidez, Bibliaren eta Elizaren irakatsi eta erabakien arabera argitzen saiatua zen Errupioño anaia (ik. «Gizonaren jatorria ta Eleiza», 14, 25-29 eta 17, 44-47); P. Mendizabalek, berriz, parez pare ematen zituen Genesisia eta Geologia («azken azkeneko teoriak», alegia), bion arteko adostasuna frogatu nahirik (ik. «Mundua nola sortu zan», 8, 73-84).

### 3. Zientzia aplikatuak

Teknologi munduaren erabateko ausentziaz landa, osasunaren, medikuntzaren, ekologiaren lekutxoia dateke arlo honetan azpimarratzekoena. Esan beharra dago, gainera, azken epean izan dutela oihartzunik arazo hauek *Jakin*-en.

Lehenagokoetan zerbait aipatu behar, eta erradioaktibitateak osasunean (geneetan) duen eraginaz mintzo den Bengoetxearen «Ela-indarrak giza-etorkiari kalte?» (4, 52-57) aipa daiteke.

Azken denboretakoen artean, ekologiari (5, 1978) eta medi-



kuntzari (12, 1978) eskainitako monografiak arlo honetan ere seinalatzeak dira, planteamendu sozio-politikoak ez bait du agortzen horien ekarria.

#### 4. Zientzia politiko-sozialak

4.1. Hasi-berritako hitzaldi-artikulu bat (L. Dorrnsororen «Ekonomiak elkarrekin salletan duan eragiña», 3, 62-70) bereiziz gero, 1970.a arte itxaron beharko da *ekonomiazko lanik* aurkitzeko. Herrialde bati (Ipar Euskal Herriari, alegia: *Jakin Sorta 1*, 1970) eskainitako lehen zenbakitik hasita, ostera, oinarritzeko lekua izango du ekonomiak gisa horretako monografiatan, literatura, kultura, politika eta besteren alboan (ik. 1, 1970, 67-86 eta 87-97; 6, 1978, 55-67 eta 68-74; 9, 1979, 49-63 eta 64-84; 10, 1979, 6-9; 17/18, 1981, 36-49 eta 50-61).

Aipatu monografiatan aurki daitezkeen sektoreen azterketen ondoan, J. Intxaustiaren «Euskal Ola zaharrak» (*Jakin Sorta 9*, 309-339) eta kooperatibei —hemengoei eta kanpokoei— buruzko zenbaki osoa aipa daitezke (*Jakin Sorta 7*).

Azalpen konkretuetatik teoriarantz joz, bi idazlan nabarmenduko ditugu: ekonomia bere luze-zabalean eta sektoreen arteko erlaziotan arakatzeko tresna eskaintzen duen J.A. Mendikuteraren «Azken eskariak eta gehigarri balioaren hazketak» (5, 1978, 85-97) eta «ekonomia aztertzeak eta ulertzeak... oinarri berri batzuei proposatzen» dituen J. Garateren «Langabezia eta ekonomia berria» (16, 1980, 6-22).

4.2. Kultur lan orotan bezala, *politika* batek sostengatzen du *Jakin*-en ekintza osoa. Besterik da, ordea, oinarri-formulazio esplizituak; are gehiago, une-inguruak ahanzten ez badira: Orixeen harako «ontan iraun dezan» haren aipamenak nahiz haren antzeko profesioak baino gehiago, deus gutxi aurkituko da, horregatik, luzaroan.

Lerro-arteko eta zeharbidezko idarokizunetatik analisi zehatzagoetara etorritz, euskal politikaren berri emateko bi modutako lanak aipa ditzakegu: ikuspegi historiko-juridikoz aztertu diren Foruen historia (ik. J. Eizagirre-Garaikoaren «Euskal Lege Zaharra», *Jakin Sorta 9*, 115-145) eta Autonomi Estatutuari eskaini zenbaki monografikoa (3, 1977). Bide beretsutik eman du J. A. Arana Martijak euskal udalen berri («Udalak eta Autonomia», 7, 1978, 61-82).

Halako batetan, alderdi politikoak eta hauteskundeak ere iritsi ziren hegoaldera, eta beren oihartzuna izan dute *Jakin*-en: gogora ditzagun herrialdeetako botu-azterketak (Nafarroakoa: 6, 1978, 88-99; Ipar Euskal Herrikoa: 9, 1979, 27-48; Arabakoa: 17/18, 1981, 128-141) eta, batez ere, «metodo aintzinatu baten» eskutik azaldu den «Euskal Herriko botua» (11, 1979, 5-42).

Azterketa xehatu hauen ondoan, euskal politikaren analisi «politikoak» ere landu dira; besteren artean, hauek aurki ditza-kegu: J.A. Otaegiren «PNV eta euskal indarren batasuna» (1, 1977, 117-122) eta «Euskadiren kontzeptua galdu zaigu» (16, 1980, 91-96).

Gure arazoak eremu zabalagoen argitan aurkezteko ahale-  
ginen lekuko, elebitasunaren nazioarteko legeztapena daukagu: ik. J. Urrutiaren «Hizkuntzabitasuna Legedi positibuetan» (*Jakin Sorta* 6, 139-160). Nazioarteko politikaz egin diren azalpen labur eta uanean unekoak ahortzi gabe ere, gutiengo edo nazio ukatuen berri emanez osaturiko bi zenbaki monografiko seinalatu behar dira hemen (Europakoak: 2, 1977 eta Soviet-Batasunekoak: 13, 1980).

4.3. *Uanean uneko iruzkinak* ez dira, noski, nazioarteko politi-  
kara mugatu; ez eta politika instituzionalaren berri ematera ere. Esaterako, arazo politiko-sozialak, zuzenean erabiliak nahiz ez, gero eta maizago agertuko dira, eta perspektibaz aldatuz joango. Gizabanakoa dute batez ere kontutan lehen aldietako X.X.k («Gipuzkoan barrena...», 1, 1956, 67-75), P. Aranzadik («Problema aundi bat: Bizitza», 10, 1959, 39-48) edo Iñaki Behengoak («Automazioaren bentajak», 18 1965, 52-56), langileen irabaziez eta «bizitz-galestitasuna»z, etxebizitzaren mugez, eta lanaren banaketaz dihardutenean. Gerora, berriz, nabarmenago-tuz joango da arazoon —eta aldizkariaren beraren— erreferentzi mundua: Euskal Herriaren etniazko eta bizinahizko ikuspegia sumaerazagoa bihurtuko da gaien hautapenean eta trataeran. Ez dago hemen horiek banan bana izendatzen hasterik. Aski da, diogunaren frogatarako, *Nota laburrak* eta *Orain eta Hemen* sail-etako oharra ikustea, biolentzia dela, prentsa dela, presoak di-rela, hirigintza dela ari direnean.

Aldizkariaren bizitzan ageri diren bilakaerekin batera, ohar bat, zientzien alorraren aurkezpena bukatzeko: berritasunak, inon bilatzekotan, ez direla gaien edo edukinen originaltasunean

bilatu behar; eta bai gaiok euskaraz erabiltzearenean. Horren kontzientiza argia dute artikulugileek eta behin eta berriro agertuko ere dute, hiztegi-faltak sortu dizkien buruhausteeekin loturik askotan. Hala Osiranzuk: «Fisikako gaiak euskeraz erabiltean, egungo jakintzari ta teknikari dagozkien itzak nola eman erabaki bearrean arkitzen dut, alabearrez, nere burua» (18, 78). Hala Mitxelenak ere: «Erabili asmo dudan sailla ez da maizegi jorratua izan euskeraz («Txillardegi» dugu, nik dakidanez, linguistika «berriaz» gure izkuntzan mintzatu den idazle bakarra), eta noraezekoa dut itzen aukeramena neure gain artzea» (29, 8).

## Euskararen arazoak

Lan honetan ez dugu *Jakin*-en erabili den euskararen azterketa kritikorik egingo. Beste nonbaitetik doaz gure asmoak. *Jakin* jaio zenean, 1956an, problema zen euskaraz idaztea. «Zaarra» zen euskara, eta «basatia», *Jakin*-en lehenengo zenbakian (1, 1) konstatatzen zen bezala. Baina zaharra izateaz gainera, mila adarretan banatua zegoen «euskara-zugaitza» (1, 1). Euskara ez zen bat, asko baizik. Gerraondoko gau ilunaren ondoren euskararentzat eguna argitzera zihoala zirudien hartan, hizkuntza bera bihurtu zitzaion problema euskal idazleari.

Eta problema izanik, euskara polemika ere bilakatuko zen berehala. Ez zen hura, besoak gurutzatuta egoteko ordua. Hizkuntzaren egoera tristeak erremedioa eskatzen zuen. Salbatu beharra zegoen euskara («gaizkatu» esaten zuen orduan zenbaitetik). «Soineko» berriz jantzi behar zela euskara, «jakintza-soinekoz» alegia, F. Mendizabalen irudiaz baliatzeko (1, 16); batasuna ezinbestezkoa zela, bai ortografian eta terminologian, bai aditzean eta deklinabidean: puntu hauetan guztietan bat zetozen denak, edo gehienak behintzat. Istiluak eta eztabaidak, eta aurrez aurreko iritziak, soluziorik onena zein izan zitekeen erabakitzeko orduan sortzen ziren. «Jakintza-soinekoz» jantzi bai, baina «soineko onek nolako bear dun, bi eztabaida dauzkagu: mordolozaleak eta garbi-zaleak» (1, 16). Batasuna bai, «batasunean dago indarra-ta» (4, 86). Baina, zein idazle nahiz joera hartu eredutzat? Zein euskalkitan oinarritu?

Euskara bera, problema eta polemika. Horrela zeuden gau-

zak *Jakin* agertu zenean. Ez dago esan beharrik, bete betean hartu dutela *Jakin* —batez ere 1968ra arte— euskarari berari buruzko eztabaidek. Euskarari «kultur-mentua» (1, 1) txertatu nahian sortu bait zen, ezinezkoa zitzaion eztabaida horietatik kanpora gelditzea. Uretan sartzen dena busti egiten da, ez dago besterik.

*Jakin*-ek, bere bizitzako hogeitabost urteotan, hizkuntzarekiko arazoen aurrean aukeratu izan dituen bideen berri ematea izango da lan honen helburua.

### Hizkuntza basatiari «kultur-mentua» txertatzera

Aurpegi eman behar izan dien arazoei heldu aurretik, ikus dezagun zein beharri erantzun nahi izan dion *Jakin*-ek. Eraikuntza berriaren lerro nagusiak, hau da, zein premiak bultzatu dituen lanera eta nolako etxea jaso nahi duten, lehenengo zenbakiko «Ataria»n markatzen dituzte aldizkariaren eraikitzaileek («eraikilleak» esaten zaie 9. zenbakian). «Iltzer zirudindin zugaitza»ri «mentu berri bat» txertatzera dator *Jakin* (1, 1). Hiltzeko zorian ikusten zuten euskara *Jakin*-en sortzaileak. Haien begitan, euskara «artzain eta ikazkiñen mintzaia» zen «soilik» (1, 1), «ikullu gaitara»ko (1, 2) ez bestetarako balio zuena. Eta ez zuten seguruenik exageratzeko asmorik! Dena dela, aipatu esaldietan isurtzen diren iritziei gehiegizkoak baderitzegu ere, bat gatozke beste honetan esaten denarekin: «Egun-egungo jokabide-mailetatik at dugu gure euskera» (1, 1).

Modu batera edo bestera, behin eta berriz errepikatuko da ideia bera hurrengo zenbakietan ere: zenbait gaitan egin gabe dago euskara oraindik (4, 78); «tresna zartxo»a da gure hizkuntza (6, 3); «ez dago jakintza-gaiak erabiltzeko landua» (7, 105); «lar egona baita lurrari, lur berdiñari, olerki lurrari, itsatsia» (9, 4).

Hitz batek, lehenengo zenbakiaren lehenengo orrialdean irakurtzen dugun hitz batek, erakusten digu zerk nahigabetzen zituen *Jakin*-en fundatzaileak. Hitza, honako hau da: *basatia*. Basatia ikusten zuten hizkuntza; basatia, «euskara-zugaitza». Zein zen momentu hartan euskararen egoera adierazteko, nekez aurki zezaketen hitz egokiagorik. Izan ere, *Jakin* atera aurreko urteko euskarazko produkzioa, 1955ekoa alegia, aztertzen badugu, zer aurkitzen dugu? Ba, elaberri pare bat, erlijio-gaiak

erabiltzen dituen zenbait lan (*Iñazio Deuna, Lili txuria odoletan, Santu bizitzak, Meza Saindua, Kristau Ikasbidea*, etab.) eta euskarari ukitzen zaizkion hiruzpalau libururu. Hortik aurrera, deus ere ez. Ez filosofiarik, ez teologiarik, ez zientzi gairik aurkituko du batek (ik. JOAN MARI TORREALDAY: *Euskal Idazleak, gaur*. Oñati, 1977, 578-579. orr.). Adibide hau jar-tzean, ez dugu, noski, urte horretan argitara eman zena gaitzes-teko asmorik. 1956ko udazkenean, gure hizkuntza basatia zela esaten zutenei, arrazoirik ez zitzaie la falta agertu nahi izan dugu bakarrik.

Negar egiteak ezer gutxi konpontzen duela eta, lanean jar-tzen dira gazte batzuk. Asmoa? Arestian aipatu dugun zenbaki eta orrialde berean dago erantzuna, laburra bezain mamitsua: hizkuntza basati horri «kultur-mentua» txertatzera datoz. *Kultur mendua*: lehen orduko jakinlariengan eta geroagoengan izan-go duen oihartzuna desberdina izango bada ere, hitz honek ematen digu, nolabait, *Jakin*-ek hogeitabost urte luze hauetan egin nahi izan duen lanaren giltza. Honen frogabide dira *Jakin*-en orrialdeetan sakabanatuta dauden textuok: «Euskerari ja-kintzarako bideak irikitzea ere Yakin'en asmo nagusienetan jarri bear da» (7, 105); «horra JAKIN-ek sortu beharrekoa: euskal kultura» (21, 5); «JAKIN-en xede nagusia euskerari eta Euskal Herriari laguntzea da, euskerazko kultura gorpuzten» (23, 2); «JAKIN kultura aldizkaria delarik...» (25, 62); «Kultur aldiz-karia da *Jakin*» (1, 1977, 7).

Hitz berak definitzen baditu ere batzuen eta besteen as-moak, «kultur mendu» hitzak alegia, berorren edukinari dago-kionez ez dira iritzi berekoak izango hasierako zuzendariak eta gero etorriko direnak. Iritzi-ezberdintasun honek eragin nabar-mena izango du *Jakin*-en bizitzako etapa desberdinetan, bai for-matoari dagokionez, bai idaz-tankeraz eta gaiez denaz bezanba-tean. Ongi deritzogu, horregatik, arazo honi buruz iruzkintxo bat egiteari. Ikus dezagun, bada, zer ulertzen zuten kultur menduaz kreaturaren gurasoek eta zer hauen atzetik etorri zire-nek. Bi elementuk osatzen dute «kultur mendu» hitza eta bi-dezkoa izango da bakoitzari berea ematea.

*Kultura*. Zer da kultura *Jakin*-en sortzaileentzat? Ez digute, noski, kontzeptuaren definizioerik ematen; baina zenbait textuk garbi uzten dute nondik doazen tiroak. Euskarak «kultur-yoera ta kultur-ats guzi-guzietan murgil[du]» behar duela esan ondo-

ren (1, 1), aldizkariak izango dituen sailak aurkezterakoan, *Kultur-gaiak* sailean «edotariko gaiak» sartuko direla adierazten dute (1, 3). Jakinlarien bigarren bileran aldizkaria bi sailetan banatzea erabakitzen denean (hasieran zazpi sail zituen, «Ataria» barne), bigarrenerako, hots, «KULTURA-JAKINTZA-ANTZE eta ELKAR-IZKETA» sailerako gai hauek proposatzen dira: «berri jakingarriak, eztabaidak, bakoitzaren iritziak etab.» (7, 105). Beste saila, «TEOLOGI-FILOSOFI-SAILLA», egokitzen jotzen dute, euskarari «jakintza-sailletan barna» laguntzeko (*ibid.*). Ikusmolde honen arabera, filosofi eta teologi gaiak lantzeak emango luke euskara kulturbideratzearen neurria.

1959. urtean, aldizkaria esku berritara pasatzearekin batera, nabaria izango da kulturaren kontzepzioaren aldaketa. Kulturaren eremua zabaldu eta aberastu egiten da orain. «Kultura, bizitza-praktikutasuna da», dio zuzendari berrietako batek, Joseba Intxaustik hain zuzen (9, 84). «Deretxua, Mediziña, Filosofia...» landu behar dira (*ibid.*). Ikuspegi berri bat agertzen da hemen: kasualitatez bezala teologia aipatu ere ez da egiten, eta filosofiari berari azken lekua ematen zaio. Eta oraindik enteratu ez direnentzat, ideia bera dator 11. zenbakian: «Ba-da gure aldizkari ontan filosofia ta teologirik; ta ekonomia, mediku-jakintza, lege-jakintza, ta gaiñerakoak? Jakintza DENA bear du euskerak, biziko bada» (4. or.). DENA, letra nagusitan idatzita dagoen hitz horretan dago gakoa: jakintzaren eremu guzti-guztiak landu behar dira; bestela, «aizea orrazten ari gera» (1, 1), aldizkariaren sortzaileek berek dioten bezala. Ondoko urteetan, ez da indartu baizik egingo ikusmolde berri hau.

*Mendua.* Irudizale samarrak genituen *Jakin*-en sortzaileak: euskara zuhaitza da («zugaitz bat loretan»); ez, ordea, edozein zuhaitz, pogo baizik («pago usai lurrintsua darion euskal-izkuntz zaarra»); «basatia» da hizkuntza; txertatu («euskera-zugaitz zaarrari txertaturiko...»), etab. Irudi hauek guztiak aurreneko zenbakian agertzen dira, lehenengo orrialdean. Geroago, 17. zenbakian, euskara «piñutu» egin behar dela esango zaigu. Irudi horien artean, bat interesatzen zaigu orain: «mentua». Gutienez lau aldiz erabiltzen da esandako orrialdean. Bazuen, nonbait, garrantzirik hitz horretaz baliatu nahi izan zutenentzat. Baina, betikoa. Adierazkorrak eta plastikoak dira irudiak, baina traido-reak izaten ere badakite.

Beren asmoa azaltzeko hitz horretara jo zutenentzat, euskarari «mentu berri» bat txertatzeak, zuhaitz zaharra gatzetzea,

zahar-berritzea, esan nahi zuen, dirudienez, eta ez besterik. Mendu kontzeptuaren azpian, ordea, elementu berri bat sartzearen ideia dago. Honela definitzen du «mendua» Ibon Sarasolak, bere *Euskal hiztegi arauemaile*-an: «Landare batetan txertatzen den beste landare baten zatia». Beste landare baten zatia, beraz. Lehenengo landarea euskara baldin bada, zein da bigarrena? Ez da irudia bere azken ondorioetaraino eramaten. Euskara garbia eta jatorra erabiliz egin nahiko da hizkuntzaren zaharberrikuntza. Noizbehinka egiten zaizkion kritikak aparte («xamurrago, xaloago idazten saiatu bear zenduketela derizkiot» —6, 101—; «biurriegia da zenbait lanen euskera» —7, 104—, etab.), erasorik gogorrena «Illobira bultzaka» artikulutik jasoko du jokabide honek. Honela dio Joseba Intxaustik lan horretan: «Euskal-jauregia edertu ta bikaindu nai izan dugu (...); baina barrua txukun eta garbi gorde dedin, biztanleak —euskaldunak— uxatu egin ditugu, eta jauregi dirdaitsua museo bihurtzeko asmoa artu» (9, 83).

### «Euskera garbian»

Garbi dago zein den *Jakin*-en helburua: euskara kulturbiderratu, gure hizkuntza «egungo arazoetara egokitu» (1, 1). Euskara kulturaren eskakizunetara jarri beharra zegoela, hori ez zuen inork zalantzan jartzen orduan; euskararen etorkizunak kezkatzen zituenak, bat zetozen denak puntu honetan. Beno, ez den-denak. Orixeri, adibidez, inon diren deabrurik itsusienak eta beldurgarrienak ekartzen dizkio burura kultura hitzak; kulturak, nonbait, infernu osoa dakar bere atzetik, euskararen eta Euskal Herriaren hondamendia. Orixeri berari emango diogu hitza: «zer da k..., idatzi nai ere ez dudan itz nazkagarri ori? (...) ori da nik gorrotorik aundientsuna diodan itza; aldez aldez kristautasun jatorrari ere lekua kendu nai izan baitio» (5, 91). Eta kuriosoena: aldizkariaren helburua eta lan-egitaraua azaltzerakoan hitz hori berori hiru aldiz, eta orrialde berean (1, 1), erabili zutenek berek, Orixeri eskainiko dizkiote hitz goxo beroenak (ik. 5. zenbakian «Orixe'ri» izenburua daraman eta «YAKIN»ek izenpetzen duen poesia; baita, zenbaki horretan bertan (97-98. orr.), orduko zuzendarien artean ahots nagusia zermanan I. Bastarririk Orixeri idatzitako gutun irekia ere).

Baina, goazen harira. Helburuak, aldizkariaren helburuak alegia, ez du eztabaidarako biderik ematen. Egin nahi dena egin



beharrezkoa dela, ez du inork zalantzan jartzen. Eztabaidak, bidea aukeratzeko orduan sortzen dira.

*Jakin* plazara irten zenean, bi euskara-mota zeuden elkarrekin burrukan (eta burruka bizirik dago oraindik ere, nahiz eta gaurregun gehiago agertzen den euskara-batua-bai/euskara-batua-ez bezala; askotan, gainera, euskara batua eta euskara mordoiloa zaku berean sartuz). Bi euskara-mota, bada: euskara garbia batetik, euskara mordoiloa bestetik. Mordoilo hitzak dituen konnotazio pejoratiiboak bistan daude (ik. Azkue: «ERDERA-MORDOILO, EUSKERA-MORDOILO: jerigonza, lingua extraña o propia mal hablada»); nortzuk eta nortzuei buruz erabiliko zuten hitz hori ez dago esan beharrik. Besterik da garbi hitzaren kasuan. Hanbatik hanbatean, edonork hobetsiko luke euskara garbia; baina «hanbatik hanbatean» horretan dago koska. Euskara garbia ulergaitza gertatzen bazaio jendeari, zer? Esate baterako, euskara «garbian» idatzita dagoen testu hau garbia denik ez luke bere senean dagoen inork esango:

«Adimena, dio Mercier'ek, *egige* edo alezko mena da (intellectus potentialis) ta beste landako bultzakai zirraratzallea bear du adi-lanerako suspertu dedin. Adimen *egikor* eta *egigea* berez langilleak dira, egipenaren urreneko erro ta oñarri, bafian bata bakarrik konpondu diteken bitartean, besteak landako osakai bat bear du lanerako itzarri dedin. Bigarrenaren lagun bearrezkoa, bere erraietan zentzubidez irartzen dan *eraki adigaia da*. Bi arazki egilleak damaioite almen egigeari lanerako erreztasuna, alkarren leian ustartuaz: irudimen eta indar *bakantzalle egzaitzsuak* (intellectus activus)» (2, 73).

Dena dela, *Jakin*-ek hasieran euskara garbiaren bidea hartu zuen: «Saia gaitezen geure burutapen, geure sentimendu baitarakoienak *euskera garbian* agertzen» (1, 2; azp. gurea). Eta bide horri eutsi nahiko dio, kanpotik datozkion eraso guztien gainetik. Kritikak —eta kontrakritikak ere bai— berehala hasi ziren etortzen. Horren lekuko, 3. zenbakian datorren «Eberkera eredu...» lana. «Batek euskera-euskera bear degula, (...) besteak berriz, euskera erailtzen ari gerala lantze-joera onekin» (3, 149), dio hor Bastarrika'tar Iñakik. «Nori jaramon egin?», galdetzen du geroxeago. Erantzuna hurrengo orrialdean: «Geienik erditik joan oi da egia. Berdin ere deritzait arlo ontan». Erantzun eroso, baina gauzak ezer gutxi argitzen dituena. «Erdi» hori zer den, non dagoen, eta non ez, bait da kontua.

Lan honetan bertan, norbaitek «aldizkariak ORIXE jaunaren

kutsua daramala» aurpegiratu omen diela aitortzen du Bastarrikak. Geroago, 5. zenbakian, Orixeri «zugan txertaturiko kimu-berri bigunak gaituzu. Zugandik datorkigun zuats ernegarriari esker bizi gera», «baduke euskal-gogoak non susper ta bizkortu, besteen larretara jo gabe» (97. or.) eta gisa honetako loreak botako dizkiona (beharbada Andima Ibinagabeitiak salakuntza hori «gorapenik aundiena» (4, 78) bezala hartu behar dutela esateak adoretuta), hemen ez da jarrera horren alde ateratzera ausartzen. Defentsiban jartzen da: «Guk ote degu erru guztia? (...) Zer irakurri al izan degu guk gazteok Orixte, Zaitegi ta joera ontako beste zenbaiten idaztiak baino?» (3, 151).

Lehen eraso zuzena, eraso gogorra gogorrik baldin bada, Txillardegiren lumatik etorriko zaio bere bozeramailea Bastarrikarengan duen jokabide honi. Honelako hitz goxoak eskaintzen dizkio Txillardegik Bastarrikari, honek *Leturia'ren egunkari ez-kutua* zela eta zuzendu zion gutun irekiari erantzunez: «Zuk —eta zu bezelako guziak— euskera il nai duzute, zuen laguntzarik gabe ere arriskuan ez ba lego bezela; eta asmo gaiztoz eta apropos ari zeratela pentsa liteke, euskera akabatzekotan, noski! Ezjakin utsak bakarrik eutsi ditzake zuen txorakeriak» (6, 89). Txillardegi bereziki mindu dutenak, Bastarrikaren gutun irekiko esaldiok izan dira, Zaitegiri hartua lehenengoa, Bastarrikarenak berarenak besteak: «Zenbait gaztek uste dute berak agertu arte, ez dala euskeraz idatzi». «Itzalez ta begirunez ta mirespenez begira bear dizkagu gizaldi ontako idazle-sailla, eta oek [Lizardi, Olabide, Orixte, Zaitegi etab.] batez ere. Oek, garako idazleak, urratu zizkigutek iakintza ta gizapide-landa guziak (...) Lan gogor eta astunena oen bizkar zamatu dute doi-doi» (5, 101). Ikuspuntu honek min eman diola, argi eta garbi adierazten du Txillardegik bere erantzunean: «Zure ustez, (...) zoragarriak dira 1900 ezkerozko 'garako' idazleak (...). Eta onelakoak entzuteko nazkaturik nagoen ezker, enaiz gaur ontatik pasako» (6, 89).

Bada Txillardegiren erantzunean kontutan hartu beharreko beste gauzarik ere. Alde batetik, euskera garbian ari zela uste zuenari euskera mordoiloaren bidetik doala egotzen zaio: «zure mordollo orren akabera eskatu bearrean zera» (6, 91). Bestetik, euskara garbia/euskara mordoiloa bezala ikusten genuen eztabaida, beste era batetan planteatzen du Txillardegik: «Gaur gaurkoz bi joera dira: euskera egiazkoarena bat, eta 'garako' idazle batzuen asmazio egoskaitzetakoa bestea» (*ibid.*). Euskara egiazkoa-

ren eta asmazio hutsezko euskararen artean dago, beraz, burruka. Zenbait idazleren euskara «garbiaren» kontra ateratzeak, ez du inola ere esan nahi mordoilokeria defendatzen denik.

Gauzek, dena dela, berdintsu jarraituko dute aldizkarian, honen zuzendaritza jende berriak hartu arte. Bastarririk itxuratzuzen zuen joerari etxetik bertatik emango zaio herio-kolpea. Behin eta berriz aipatutako «Illobira bultzaka» lanean ematen zaio lurra euskara-mota horri. «Euskera illobira bultzatzen ari zaizkigu zenbait euskal-idazle» (9, 83), «Euskal-idazle: IXIL ZAIITE, zure euskera odeitarrez (...) gure izkuntzari semeak kentzen saiatu nai baduzu» (9, 88) etab. irakur daitezke hor.

Aldizkariaren bestaldera biratze hau ez dute denek onartuko. Orain hasten dira, adibidez, Orixeren kritikak. 1957an «Aran-tzazu Euskal-Universidade baten asiera bezela ikusten dut, (...) bere Revista eder eta guzti» (5, 90) zioena, honela mintzatuko da 1960an: «Euskera zailla egiten genula? Ez YAKIN'ek bezain zailla» (11, 84). Inoiz euskara zailik egin bada *Jakin*-en, halere, inolako zalantzarik gabe, lehenengo zembakietan egin zen. Dena dela, 1961ean hilko da Orixe, eta aldizkaria «Illobira bultzaka»n markaturiko bideari jarraituko zaio, oposizio haundirik gabe. Txillardegik berak ere *Jakin* aldatu egin dela aitortuko du 1960an, euskarari dagokionez batez ere, eta aldizkaria «begi onez» ikusten duela esatera iritsiko da (ik. 12, 81).

### «Jakintitzak»

«Gogotsu ta ametski» agertu zen *Jakin* aldizkaria (1, 1). Baina, horixe, ametsak amets dira; eta, goiz edo berandu, bere legea ezartzen du errealitateak. Euskaraz landu gabe, edo oso gutxi landuta, zeuden alorretan saiatu nahi zuen *Jakin*-ek. Euskara kultur mailara, zientzi mailara, jasotzea hartu zuen helburutzat. Horretarako zeuzkan tresnak, ordea, nahikoa hasi-masizkoak ziren. Gogoak gogo eta ametsak amets, hainbat eta hainbat gai eta kontzeptu erabili gabe zeuden hartan, zer egin zezakeen euskal idazleak? Ba, ahal zuena, beti bezala. Kontzeptu bera adierazteko, batek «thesi» hitza erabiliko zuen (1, 13), besteak «azalkizuna» (1, 17); hark «Elizaren magisterioa» (1, 15), honek «Eliz Irakaslegoa» (1, 28). Hemen, oraindik, neurri bat gordetzen dela esango genuke. Adibide bitxiagorik ere ekar zitezkeen hona: esate baterako, «zilleiztia» [moral] (1, 34); «izaten-

-aburua» [existentzialismoa] (1, 39): «muetaketa» [tipologia] (1, 53); «arimiztia» [psikologia] (4, 40); etab., etab. Oso erraza da esatea: «Euskera garbiz, euskera garbi amorratura io gabe [hitz hauek Orixerenak dira, baita arestian aipatu dugun 'izaten-aburu' delako hori ere (Ik. 2, 105)], esan ditezke eunetik laurogei ta emezortzi» (10, 71). Esan, bai, esan daitezke; baina, norentzat? Idazleak norbaitentzat idazten du, irakurlearentzat hain zuzen, eta ez aurreko paretarentzat. Helburua idazte hutsa balitz besterik gabe, ariketak edo «indar-neurketak» egitea («ia zenbateraino erabilli dezakedan nik jakintza gauza bat alik eta geien euskeraz» —1, 16—), orduan ez legoke problemarik. Alde horretatik, «gizarte-zalekeri-arauketa» (2, 66) esan, edo «sistema sozialista», berdintsu litzateke. Hizkuntza, alabaina, ez da idazlearen nahikerien menera dagoen jostailua, ez eta probalekua ere. Arazoaren gakoa, azken batez, honetan datza: alegia, zeri eman nahi zaio lehentasuna? Textuaren ulergarritasunari, gaiari, irakurleari, ala hizkuntzaren orbaingabetasunari eta idazlearen garai irteteko gogoari?

Hitzak dira idazlearen tresnak, aspaldiko egia da hori. Eta jakintzaren eta kulturaren eremuan saiatu nahi duen idazlearen tresnak kultur hitzak dira, hitz teknikoak. Edo «jakintzarak», garai batean *Jakin*-en esaten zitzaaien bezala (ik. 2, 177-178 eta 3, 171). Kultur hitzen inguruan *Jakin*-en orrialdeetan barrena agertzen diren iritzi eta eztabaidak biltzera joko dugu hemen.

Jaioberria da oraindik *Jakin* eta hara, bigarren zenbakian bertan expreski planteatzen da kultur hitzen arazoa. Ez da harritzekoa, noski, aldizkariaren asmoak gogoan hartzen badira. *Jakin*-en inguruan bildu den jendeak kultur gaiak landu nahi ditu, eta euskaraz gainera, baina hizkuntzaren aldetik ez du erraztasun haundirik aurkitzen eginkizun horretarako. Euskara egin gabe dago zenbait gaitan, eta bereziki *Jakin*-en erabili nahi diren gaitan. Zer egin dezake idazleak horrelako egoera baten aurrean?

Orrialde asko betetzen dituzte, lehenengo urteetan arazo honetaz diharduten lanek. Seinale, ondore haundiko problema dagoela tartean euskararen etorkizunerako. Ikuspegi desberdinak agertzen dituzte, normala denez, gaiari heltzen diotenenk, eta nork bere iritzi eta soluziobideak ematen ditu. Soluziobide hauek aurkezteari eta iruzkintzeari ekingo diogu hurrengo lerroetan (ordenak, noski, ez du ezer adierazi nahi).

1. Hasteko, Campionen irizpidea, Orixek bi aldiz aipatzen

duena, aldi bakoitzean hitz desberdinak erabiltzen baditu ere: «gure baratzako utsak geron landarez bete, *ál dugula*; ezin badugu, besterenera joan landare eske» (5, 90; ik. baita 11, 85 ere). Orixerentzat hau da «erabateko irizpide bakarra», *Jakin*-era bidaltzen duen lehenengo eskutitzean dioenez (5, 90), eskutitz horretan bertan «karta», «Revista», «ortografia», «Klasiku» eta beste, lasai asko sartzan baditu ere. Noski, gure baratzean kontzeptu horiek emateko landare egokirik ez dagoela erantzun diezazuke, eta kito. Izan ere, «*ál dugula*; ezin badugu» hori, nork neurtzen du? Printzipio mailan, ezin diozu inondik ere heldu irizpide horri, hain bait da biribila. Printzipio biribilek, ordea, ez dute emankortasunik praktikan.

Bestalde, nork ezagutzen ditu euskararen baratzeko landare guztiak? Euskara eta euskal kultura salbatu, lur-arraz mugitzen den idazleak salbatuko ditu. Idazleak eta irakurleak. Euskararen eremura erakarri behar den irakurlearen egoera gogoratzen dio J. Intxaustik Orixeri, honen «euskera garbiz (...) esan ditezke eunetik laurogei ta emezortzi» horren baliozkotasuna auzitan jarriz. Orixerena berez egia dela aitortu ondoren, honela dio J. Intxaustik: «Zorionerako edo zoritxarrez izango da; baiña, idaztean, ezin ditut aaztu gure errietako karreradun euskal-ikastolagabeak». Eta geroxeago: «Bide zabala baiño zearkako bidetxigorrak ez ote zaizkigu onuragarriago?» (10, 73).

Orixek, dena dela, ez du atzera joko arazo honetan. Berriro gogoratuko du Championena 11. zenbakian (85. or.), eta hori dela «bide bakarra» esango du.

2. Hitz berriak sortu: hau izan daiteke beste bide bat. Donostiako apezgaiek —hauei zor diegu hitz teknikoen problematikari *Jakin*-en barruan eskaintzen zaion aurreneko lana— ez dira jokabide honen oso aldekoak. Agian, lehenengo zenbakiko hitz berri bitxi samar batzu dituzte gogoan. Orixek, bere aldetik, ez bide dio bainarik jartzen jokaera honi; aitzitik, hitzak asmatzeko berak erabiltzen dituen arauak aurkezten ditu 14. zenbakian (30-34. orr.). Txillardegik ere ontzat ematen du bide hau, muga batzuren barruan bada ere: hitz berri horiek «idea zeazki, ta ez gutxi gora-beera, eman bear dute» (11, 90). Hemen

sartu beharko genuke A. Onaindiaren proposamena ere: filosofian eta teologian erabiltzen diren hitzen zerrenda bat osatu eta Orixeri bidaltzea, alegia, honek horien itzulpena egin dezan (ik. 7, 110). Bere horretan ez bada ere, funtsean beren onespina ematen diote jakinlariek, 1959ko bileran, ideia horri: «gaurrarte YAKIN'en agertu izan dan kultur-terminologi osoa bildu eta Orixe'ri bialtzea» (10, 82) erabakiko da hor.

3. Hitz berriak sortzera jotzea baino egokiagoa iruditzen zaie Donostiako apezgaiei, «liburu zarretan eta oraingo idazle garaienetan, batez ere» (2, 178) aurkitzen diren hitzak biltzea eta erabiltzea. Mundu itxi baten barruan mugitzen direla apezgai hauek, ongi frogatzen dute hitz-bilketa horretarako aukeratzen dituzten liburuek: Olabideren *Itun Berria*, Orixeren *Meza-Bezperak*, *Aitorkizunak*, *Barne muinetan* eta Zaitegiren *Bidalien egiñak* aipatzen dituzte. Liburu hauen balioa ukatu gabe, nekez aurkituko dira hor hainbat eta hainbat zientzi eremutarako behar diren hitzak.
4. Beste soluzio bat, hitz ezezagunen ondoan erdarazkoak jartzea izan daiteke. Hau ere Donostiako apezgaien eskutik datorkigu. Bai hauek eta bai 1958an Arantzazun biltzen diren jakinlariek, ongi ikusten dute noizbehinka horrela jokatzea, abusatu gabe noski. Eginkizun bera izango luke, artikulua buruan berorretan erabilitako hitz zailen itzulpena emateak.
5. Behin eta berriz aipatzen ari garen apezgaiek inola ere onartzen ez duten bidea —«Au euskera ote díteke?» (2, 177)—, hitz zailak beren hartan erdaraz uztea izango litzateke. Zer esan nahi duen doi-doi «beren hartan» horrek, ez dago oso garbi. Aurreneko zenbakiko «revelazino», «magisterio», «systemata» eta gisa horretako hitzak ote dituzte gogoan? Ala, orduan ezezik oraindik orain ere aski ezaguna den eta adibide pare baten bidez azal daitekeen jokabidea: «erderazko 'ensayo' tankerara» (apezgai horien berorien lanean dago hau), «erderaz 'X' deritzona?»
6. Jakinlarien hirugarren bilerako punturik nagusia zientzi terminologiari buruzkoa izango da. 1959an gaude eta jende berriak hartu du bere gain aldizkariaren ardura.

Oker ez bagaude, bilera horretan entzuten dira lehenengo aldiz aldizkariaren bizitzan jakintza eta kultur gaietarako *terminologia unibertsala* onartu beharra daukala euskarak defendatzen duten ahotsak. Ikusmolde berri bat hasi da indar hartzen. Eta norabide berri honen alde ateratzen diren arrazoiak oso gertu daude «Illobira bultzaka»n erabiltzen ziren haietatik. Han, «barrua [euskal-jauregia] txukun eta garbi gorde dedin, biztanleak —euskaldunak— uxatu egin ditugu» (9, 83) esaten zen. Hemen argudio bera aurkitzen dugu: «euskaldun geienak ez dakizkite[n]» hitzez baliatzeak «eragozpen geiago dakarkigu, euskaldunak euskeratik aienatu egiten baidizkigu» (10, 82). *Jakin* ez da, noski, uharte bat, eta orain ematen den norabide-aldaketak zerikusi haundia du kanpotik datozen haize berriekin. Hor dauzkagu, adibidez, 11. zenbakian, A. Villasanteren eta Txillardegiren iritziak, 1959ko *Euskeratik* jasotzen direnak. Honela dio lehenengoak: «Erderaren bidez sartzan zaizkigun itzak artuaz ta asimilatuaz (bearreko diranean, jakina), ez dut uste euskerari kalte egiten zaionik» (11, 87). Eta Txillardegik: «Euskal-itzez bere neurri juxtuan adierazi ez dezakegun idea, itz auen bidez [erdaretatik artutakoen bidez, alegia] aisa egin genezake» (11, 90). Bestalde, 1960an irakurleen artean banatutako inkestari ematen zaizkion erantzun gehienak joera honen alde erakusten dira (ik. 13, 81-83). Bat besterik ez aipatzearren, hona hemen zer dioen Jose Antonio Agirre Lehendakariak berak teknika-hitzei buruz: «Teknika ta, kanpokoak artu bear dira nere ustez».

7. Eta azkenik, Txillardegik bakarrik aipatzen duen bidea, hots, hitz zaharrei esanahi berria ematean datzana. Bide honetaz gainera beste bi ere agertzen ditu Txillardegik, baina hauetaz hitz egin dugu lehenago. Bai bide hau, bai beste biak, ideia berriak emateko proposatzen ditu Txillardegik; ideia zaharrei dagokienez, asmatzea ez, ikastea baizik, da bide bakarra.

Hauek dira, gure ustez, autuan dugun arazoari begira, gure aldizkarian barrena idazleari eskaintzen zaizkion aukerak. Soluziobide bakoitzaren gainean egin ditugun iruzkinetan garbi geratu da —hala espero dugu behintzat—, momentu jakin batean haustura bat ematen dela, formulazio mailan gutxienez, prakti-

kan etenduraren ondorioak berehala gauzaten ez badira ere. Garbi/mordoi lo eztabaidaz aritu garenean seinlatu dugun biraketarekin batera gertatzen da kultur hitzen kasuan ematen den norabide-aldaketa. Ez da gutxiagorako. Izan ere, garbi/mordoi lo auziaren oinarri-oinarrian hitzen arazoa bait dago, edo hitzen jatorriaren arazoa, garbiago esateko. Funtsean batera datozen arazo hauek bereiz tratatzeko arrazoi bakarra kultur hitzen kontu honen gaurkotasun ukalezina izan da.

1960tik aurrera ez dago ezer kontatzeko modukorik gai honetaz. Txillardegik, 12. zenbakian (84. or.), ikusmolde berriari ematen dion lepokoarekin batera («Euskeraz asma baditeke [kontzeptu berrientzat] itz egokiren bat, aurrera eta pozik. Baina bestela, erderetara; eta pozik ere»), mututu egiten dira kontrako ahotsak. Jokabide honen alde hor ateratzen dituen argudioak ez dira, izan ere, bat ere merkeak (euskara hiltzeko zorian dago; lehenengo eginkizuna eria salbatzea da, txertoak egitea geroagoko lana izango da), eta horiei aurka egin nahi dienak odola izerditu beharko du. Hiltzearen dagoenaren ondoan lekuz kanpo daude berriketak. Hor ez du balio bizitzeko arrazoiak behar direla esateak. Lehenbizi, bizi; gero izango da aukerarik, bizitzeko arrazoiak bilatzeko.

Ez dugu bukatu nahi puntu hau, zientzi terminologia dela eta F. Mendizabalek 1957an egiten duen planteamendua hona ekarri gabe, zuzena eta gaur-gaurkoa bait deritzogu horri. Hara zer dioen: «Jakintzan eginda daude gutxi asko ideak, eta nori bere izena eman bear zaio. (...) Orregaitik, kultur-itx berriak asma ditzagunean arretaz ibili bear dugu itz berriekin burubarrukoa izatez eta berez esaten. (...) Jakintza egitekoan ez da ainbat ardura olako edo alako izkeratan egotea. Baña ideak neurri neurrian esatea, orixe bai dala arduradun jakintzan» (3, 172).

### «Batasuna dugu jomuga»

Euskal-idazleen artean batasunik ez egoteak kalte aundia dakarkio euskerari (4, 86).

Batasuna ta gidaritza bat bear dugu, ta ori zuk [Euskaltzaindiak] bakarrik eman dezaigukezu (10, 4.)

Batasuna dugula jomuga: egin gabe dago (29, 2).

Batasunaren erlojuak jo du (30, 1).

*Jakin* beti azaldu da batasunaren alde (31-32, 14).



Batasun-mina nabarmena da *Jakin*-en orrialdeetan zehar. Nonnahi aurki daitezke batasunerako deiak. Behar-beharrezkotzat jotzen da batasuna, eta ez batasuna batasunagatik interesatzen delako, «euskera indartzeko bide bat» (31-32, 1) delako baizik. Batasun-egarri honen erakutsi dira goian jarri ditugun esaldiak. *Jakin*-ek, gainera, zenbaki oso bat (zenbaki bikoitza) eskainiko dio batasunaren arazoari, 1968ko Arantzazuko bilera-  
ren aurretik.

Baina alor honetan, esaten direnen gainetik, ekintzak dira garrantzitsuak, hau da, batasunari begira aldizkarian hartzen diren erabakiak. Lehen urratsak eman orduko, oso kezkatu-  
rik agertzen zaizkigu jakinlariak, euskara kontutan ikusten duten nahaspila dela eta: «Noizpait autsi bearra daukagu naspilla ori, ezer tajuzkorik egingo badugu» (4, 86). Ez dira, alabaina, lamentazio-  
tan gelditzen. Beren lehenengo bilera arazo honi eskaintzen diote ia osorik. «YAKIN batasun bide» (*ibid.*) lemaren pean, alor honetan momentuan ahalgarri dena lortzera saiitzen dira. Garbizaleak eta mordoilo-  
zaleak iritzi bat eta berera ekartzea ezinezkoa denez, «ortografi-gauzetatik» (*ibid.*) abiatzen dira. Zenbait erabaki hartzera ere iristen dira: adibidez, nola idatzi behar den *ba* baiezkoa eta nola *ba* baldintzazkoa; «dot» edo «det»-  
en ordez, «dut» erabiliko dela beti, etab. Eta erabaki hauek bete beharrekoak izango direla, esaten da hor, *Jakin*-en idatzi nahi dutenentzat: «YAKIN'en beti ola idaztea erabaki zan» (4, 89). Ortografi mailako batasunaz gainera, kultur hiztegian lortu beharko litzatekeenaz ere arduratzen dira bilera horretan. 1957ko kontua da hau, orain duela hogeitalau urte gertatutakoa. Datu honek ez du iruzkin beharrik.

1964ean, Baionan ospatzen den biltzarre ezagunean, pauso haundi bat ematen da batasunerako bidean. *Jakin* tartean dago. Eta hor hartzen diren erabakiak (zenbait letren idazkerari, deklinazioari, aditzari eta «h» famatuaren erabilerari ukitzen zaizkienak) bereak egiten ditu *Jakin*-ek eta horiek betetzera behar-  
tzen aurrerantzean aldizkariaren orrialdeetan idatzi nahiko du-  
tenak.

Arantzazuko bilera baino hilabete batzu lehenago zenbait euskal idazle Ermuan biltzen direnean literatur hizkuntzaren batasuna aztertu nahian, han egongo da *Jakin*-en zuzendaria ere. Ermuan eman ziren hitzaldiak eta irakurri ziren komunikazioak argitara emango ditu gero aldizkariak (ik. 31-32. zenbaki bikoitza). Baina, inportanteagoa dena, Ermuako Euskal Idazleen

Jardunaldietan hartzen diren erabakien artean, honako hau agertzen da: «YAKIN aldizkaria oraindixek lotzen da Oñati'n Iraitlean Euskaltzaindiak artuko dituen erabakietara» (31-32, 73).

Bistan dago, *Jakin* ez dela gogoz kontra eta ezinbestean jarri Euskaltzaindiaren esanetara. Batasunaren edergarri egin du hori, nahiz eta aldez aurretik jakin horrela jokatzuz zenbait harpidedunek ihes egingo ziola. Inork zalantzarik balu oraindik, hara zer esaten den 34. zenbakian: «Harek [Euskaltzaindiak] esandakoa betetzea, derrigorrezkoa zaigu guztioi. Ez legez agintzen dualako. Ondotxo dakigu ez duala, zoritxarrez, lege-indarrrik. Baina bere kontseiluak zergatik guretzako agindu bihurtu ez?» (5. or.).

### «Hizkuntzaren finkapena»

*Jakin*-en bizitzan konstante bat izan da euskararen normalizazioaz arduratzea eta horren premia larriaren kontzientzia jendearengan sortzen ahalegintzea. Kultur hiztegi baten beharraz argi eta garbi hitzegiten da jakinlariei lehenengo bileran, 1957an beraz. Hogeitalau urte geroago, hiztegi berezituak egiteko ordua oraindik ez dela iritsi edo aldarrikatzen dutenak, ez dakigu ez ote diren besteei egozten dieten akats berean erortzen, oroitza-pen historikoari uko egitean datzan akatsean, alegia. 1968an ere, bestalde, «gaurkotasunean jabeturiko hiztegi modernu» (29, 6) bat beharrezkoa duela euskal idazleak gogoratzen da. Sarritan gogoratzen da baita, aldizkarian, hiztegi horien osagarri, edo hobeki, horien hurrengo urrats diren testu-liburuen beharra ere.

Hemen ere, dena dela, hitzek baino gehiago, ekintzek balio dute, hartzen diren erabakiek eta martxan jartzen diren lanek, hain zuzen. Zentzu honetan, aipua luze samarra izango bada ere, merezi duela uste dugu, 1957ko bilera hartan, iruzkintzen ari garen puntu honi buruz hartzen den erabakia oso-osorik hona aldatzeak. Pasarte horretan, gainera, oso ongi adierazten da, batasuna eta normalizazioa ez direla funtsean arazo beraren bi alderdi baizik. Hona testua:

Baia idazkera batutzea ez da aski. Au baño aundiago da, eta kultur-iztegia ere batu egin bear da. Emen ere, ordea, norberak egin bear du lenengo batasuna, erabiltzen dituan itzei beti esanai berdiña emanaz... Orrezaz gainera guztion batasuna egin bear da. Au burutzeko zenbait bide ederretsi ziran. Le-

nengo bide errexena, norberak idazten dituan lanetan erabili-tako kultur-itzak bildu eta artikularekin batera Arantzazu'ra bidali YAKIN'en izenean. Beste bide bat, kultur-iztegi arazoan eginda dagon lana bildu eta besteak bezelaxe fitxatan YAKIN'en zuzendegira bidali. Ortarako zenbait liburu zar eta berri banatu ziran iakinlarion artean, baita an etzeudenen artean ere... Gero, itz-pilla oiek bildu, eta YAKIN'en argitaratuko genituzke kultur-iztegi bezela (4, 89-90).

Ez zebiltzan txantxetan gazte haiek. Bazekiten ongi asko zertan ari ziren. Kultur hiztegia ateratzeko asmoa gauzatzen ez bada ere, lan haundia egin zen fitxa-bilketan ondoko urteetan.

Normalizazioaren atal honetan sartu beharko lirateke baita, kanpotiko izen propioen eta maileguzko zenbait hitz arrunten idazkerari begira, bilera horretan hartzen diren neurriak: «Izen nagusiak jatorrizko izkeratan bezela idatziko dira», eta «itz arrontak, mintzatzen diran bezela: Teodizea, metafisika...» (4, 92). Baztertu egiten dira, beraz, hasierako theologia, philosophia etab.

Lehen urrats hauen jarraipen izango dira geroago aukeratuko diren bideak: aldizkariaren eta batez ere liburuen bukaeran, barruan erabili diren hitzik ezezagunenen erdarazko itzulpena ematea (*Kristau bidea*-n, gainera, tratamendu berezia ematen zaie euskalkiei); «Jakín Bide» bilduma, honen egitekoak «hizkuntza-zen finkapena eta gaurko jakintzen euskal erabilkera» bait dira (ik. A. Luis Villasante: *Axular-en Hiztegia*, Jakín, 1973, 8. or.); eta bereziki «Jakín» hiztegi berezituen asmoa, bere lehen fruitua eman ondoren, UZEIren eskuetan jarriko dena.

### «Txikerkeriak»

Kultura lantzeko jaio zen aldizkaria gramatika-arazo bitxi batzuri bere atek irekitzera beharturik aurkitu zen denbora luzez. 1956tik 1966ra arte makina bat orrialde hartuko dituzte eztabaida hauek. «Aita Gurea» esan ala «Gure Aita»; *-eri* ala *-ei* (Orixek ez bata eta ez bestea, dio, *-iri* baizik, eta gauza bitxiagoak ere esaten ditu, benetan ari den ala ez zalantzan jartzeko modukoak —ik. YAKIN'en geigarri, I (3-4) 1960, 3—); *nun dun, nuan duan* ala *nuen duen*; «Amasei seme Euskalerrí'ko» ala «Euskalerrí'ko amasei seme»; *-z, -taz* ala *-tzaz*, etab. etab. Kritikak, erantzunak, kontraerantzunak, kontraerantzunekiko kon-

traerantzunak..., hor ibiliko dira jira-biraka nola gelditu jakin gabe. Hitzeko norgehiagoketa hauetan jolasten direnei, bat ere kupidarik gabe erasotzen diete, irakurle batek lehenbizi («zumaia» batek) eta *Jakin*-ek berak gero: «Gaurko egoera makurrean, Aitagurea edo Gure Aita esan, txikerkeri (bizantinismo) utsa deritzait» (5, 94); «Euskal kultura mailla aurkitzen dan egoeran, gure setari milla aldiz bidezkoago derizkiogu, euskal hizkuntzalariek oraindik 'tzaz' eta beste zenbait arinkerietan dabilzan bitartean» (23, 3).

Amaitzera goaz. *Jakin*-en asmoak, kalera irtetzen denean eta gero; *Jakin*-en aldian aldiko alderdi-hartzeak, euskara-motari dagozkion istilu eta gorabeheretan; *Jakin*-en jarrera garbi eta erabatekoa euskara batuaren alde; *Jakin*-en ahaleginak, aldizkariaren eta liburuen bitartez, euskara goiko maila batera jasotzeko: puntu hauek guztiak eman nahi izan dizkiogu ezagutzera irakurleari. Aldizkaria jaio zenean gure hizkuntza problema zela esan dugu hasieran, problema eta polemika gainera. Hogeitabost urte hauetan behin baino gehiagotan hartu behar izan du parte hizkuntzari zegozkion eztabaidetan, arriskuen itzuri ibili gabe. Gaur egun badirudi gauzak baretu egin direla. Bestalde, euskara ez da orain ameslari batzuen kontua. Garai batean «artzain ta ikazkiñen mintzaia» (1, 1) zenak, jaso haundia du gaur kulturealeen artean ere. Giro berri honi esker, oinarri aski sendoak ditu *Jakin*-ek orain, eta duela urte batzu ez bezalako kondiziotan aurkitzen da, kultur aldizkari bezala berea duen eginkizuna betetzeko.

Ateak zabalik



## JAKINen zuzendariak

Zuzendaritza mailan *Jakin*-en esku hartu dutenen izenak ematen ditugu hemen. Zuzendaritzaren inguruan beste askok ere egin du lanik, baina ezin ditugu denak izen eta guzti aipatu.

Ikus daitekeenez, *Jakin*-en Zuzendaritza gisa diferentetan antolatu da 25 urteotan, pertsona bakar edo bikote baten lana da inoiz, eta inoiz talde-lana. 1968ak markatzen du etena Zuzendaritza sisteman: artean estudianteak ziren zuzendari, eta harrez gero pertsona bat «full time» deikatzen da zuzendaritzara.

Hemen agertzen diren izenak «egiazko» zuzendarienak dira, eta ez «legezko» soil direnenak. Azken hauen artean daude, adibidez, Joseba Intxausti (1964-66), Kandido Zubizarreta (1966-1967), Luis Antonio Bilbao (1977-81), aldizkarian bertan agertzen direnak.

### Lehen aldia

- |           |  |
|-----------|--|
| 1956-1959 | <i>Sortzaile-zuzendariak:</i> Iñaki Bastarrika, Iñaki Bereziartua, Fernando Mendizabal<br><i>Sortzaile-taldea:</i> Imanol Urbieta, Joxe Mari Osa, Sabin Berasaluze |
| 1959-1960 | Kepa Enbeita, Joseba Intxausti   |
| 1961      | Joseba Intxausti, Joxe Azurmendi   |
| 1962-1963 | Joxe Azurmendi   |
| 1964      | Joxe Azurmendi, Pello Martin Zabaleta, Joan Mari Torrealдай  |
| 1965      | Pello Martin Zabaleta, Joan Mari Torrealдай  |
| 1966      | Joan Mari Torrealдай, Joan Joxe Olaberria  |
| 1967      | Joan Joxe Olaberria, Joxe Ramon Beloki   |

**Bigarren aldia**

- 1968-1969 *Zuzendaria:* Joan Mari Torrealdai  
*Taldea:* Karlos Santamaria, Rikardo Arregi, Ibon Sarasola,  
Andoni Iturria, Andoni Lekuona, Ramuntxo Kanblong,  
Piarres Xarritton

**Hirugarren aldia**

- 1970-1971 Joseba Intxausti  
1972-1973 Joseba Intxausti, Paulo Agirrebaltzategi  
1974 *Zuzendaria:* Joseba Intxausti  
*Taldea:* Paulo Agirrebaltzategi, Manolo Pagola, Joxe Azurmendi, Joan Mari Torrealdai, Joxe Antonio Aduriz, Joan Joxe Iturrioz  
1975-1976 *Zuzendaria:* Paulo Agirrebaltzategi  
*Taldea:* Joseba Intxausti, Joan Mari Torrealdai, Manolo Pagola, Joxe Azurmendi, Joxe Antonio Aduriz, Joan Joxe Iturrioz

**Laugarren aldia**

- 1977-1981 *Zuzendaria:* Joan Mari Torrealdai  
*Taldea:* Joseba Intxausti, Joxe Azurmendi, Manolo Pagola,  
Paulo Agirrebaltzategi, Pello Huizi, Joxe Antonio Aduriz

Gutienik 294 idazle diferente igaro da *Jakin*-en orrialdeetatik, 25 urte hauetan, lankidetzaz oso desberdinez, zein artikulatu-sail ederrarekin (orrialderik gehien: Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti, Joan Mari Torrealdai), zein kolaborazio bakar batekin.

Lankidetzaz honen berri zehatzagoak izan nahirik, *Jakin*-en historiaren laualdiak banan-bana arakatuko ditugu, eta aldi bakoitzean eskuhartu dutenen zenbait xehetasun eskainiko.

Aldi bakoitzaren barruan bi erataraz aztertu nahi izan ditugu idazleak: zahar/berri, laiko/apaiz. Idazleak «zahar»/«berri»tan banatzean, zera adierazi nahi dugu: ikertzen dugun aldi horren aurretik *Jakin*-en idatzi duten ala ez. Delako «berritasun» horrek, *Jakin*-en lehenbizikoz idazten duela esan nahi du, ez besterik. Idazleen aztermodu hau interesgarria iruditzen zaigu, aldi bakoitzaren idazle-politika eta tradizioarekiko jarraikitasuna, nolabait bederen, agerian gelditzen direlako.

Bigarren aztermoduak idazle «berriak» ikertzen ditu «laiko»/«apaiz» ebakiduraren arabera. Aldizkariaren historiak ematen dio puntu honi interesgarritasuna eta esan-nahia: apaizgaien aldizkari bezala jaiotzetik gaurko aldizkari izateraino eraman duen bidea luzea delako oso.

---

**IDAZLEAK**

Aldia	Zaharrak	Berriak	Berriak		Orotara
			Laikoak	Apaizak	
	%	%	%	%	
1956-1961	— —	124 100	14 11	110 89	124
1964-1969	73 69,5	32 30,5	46 44	59 56	105
1969-1975	33 48	36 52	47 69	22 31	69
1977-1981	31 23,5	102 76,5	111 83,5	22 16,5	133

---



Ikus dezagun hurbilagotik aldi bakoitza:

1. Lehen aldian (5-6 urte) 124 idazle ditugu. «Berriak» noski. Gehien gehienak (% 89) apaizgaiak dira. «Belaunaldi komentual» honentzat, saiajleku aproposa izan da *Jakin*, eta euskal kulturarentzat idazle-harrobi oparoa. Idazleak, gaztea da oso, ikaslea. Laikoen kolaborazioa, lehen urte hauetan, urria izateaz aparte (% 11), hizkuntz alorrekoa da parte on batean.

2. Bigarren aldian (5-6 urte), 105 idazlek partehartzen du *Jakin*-en. Horietako asko eta asko (% 69,5) lehenago *Jakin*-en partehartuak dira. Ikusten denez, ba, ez debekuek eta ez ondoriozko geldiuneak sortu du etenik idazleen aldetik. Eta, gainera, berririk ere badator; eta hauetako asko laiko eta gaztea: % 44 dira dagoeneko laikoak.

3. Hirugarren aldian (5-6 urte) idazleen kopurua jaitsi egiten da. *Jakin* Sorta-ren garaian gaude. 9 zerbaki ateratzen dira denetara, bestetan baino gutiago. Hori bateko. Eta besteko, gaien tratamendua hagitx sako-nagoa da, liburu mailakoa. Kolaboratzaile hauetatik ia erdia (% 48) lehenago *Jakin*-etik pasa da. Proportzio oso handian sartzen dira berriak (% 52), aukeraturiko gai bakoitzeko adituen bila jotzen bait du Zuzendaritzak. Aldi honetan laikoak nagusitzen dira idazle mailan, % 69rekin. Bere ingurunea zabaldu egiten du *Jakin*-ek.

4. Laugarren aldi hau (5 urte) arras bestelakoa da alde guztietatik. Jende askok eskuhartzen du (133), eta, gainera, idazle horietako asko berriak dira *Jakin*-en orrietan (% 76,5). Idazle asko eta berriak zergatik? Idazle berrion ugaltasunaren arrazoia honetan datzake: espezialisten lankidetzeta bilatzen du bere dossierretan orain *Jakin*-ek, betiko «euskal idazle»ena baino gehiago.

«Laiko/apaiz» dikotomiak ez du zentzurik oraingo aldizkarian, ez planteamendu mailan eta ez lankidetzarenean. Lankide laikoen partehartzea % 83,5 izan da azken bost urteotan, hasiera batetako proportzioak itzulipurdikatu egin direlarik. Horra hor datua. Eta, gainera, hau: 1975 aldera, euskal idazlegoan apaiz-jendearen hainbatekoa % 39 bueltan kalkulatzen zen. Bai orduan (% 31) eta batez ere orain (% 16,5) batezbesteko horren oso azpitik dabil *Jakin*-ekoa.

Eta amaitzeko, azken puntu bat, iruzkin luzeagoa beharko balu ere, oraingoz aipatze hutsarekin utzi beharko duguna.

Idazle-sorleku izan da *Jakin*. Ugari dira bere lehen artikulua *Jakin*-en argitaratu eman duten idazleak. «Idazle-bataioa» *Jakin*-en hartu eta gero pasa dira hauek beste alor eta einkizunetara. Orain bertan ere betetzen du *Jakin*-ek funtzio hau, baina orain baino lehen askozaz gehiago: 30-45 urte bitarte horretako idazleetan bada makina bat bere lehen urratsak *Jakin*-en eman dituenik! Zenbat? Nekez eman dezakegu orain kopuru zehatzik, idazleen lehen pausoen berri zehatzak inguratzea lan gaitza bait da, baina seguru gaude izen-lerrokada bikaina osa genezakeela *Jakin*-en idazten hasitako guztiak batabestaren ondoan bilduz.

## 2.300 harpidedun

### Informazio guti

*Jakin*-en fitxategiak, abonatu bakoitzari buruz, informazio oso guti —gutiegi— biltzen du: aldizkaria bidaltzeko behar ditugun datuak ozta-ozta. Ez dugu gure abonatuaz bestelako informaziorik: ez ikasketarik, ez lanbiderik ezagutzen dugu, esaterako. Informazio-urritasun hau erremediatzea komeniko litzatekeelakoan gaude, eta, agian, luzatu gabe, fitxa osatzeko deiren bat egin geniezaioke harpidedunari.

Datu kontu honetan are okerrago gaude *Jakin*-en historiara itzultzen bagara. Datu guti dugu: 25 urteak puntarik punta, urtez urte, abonatuaz abonatu, ezin ditzakegu inolaz ere aztertu. Zuzendaritza etengabe berri-zeak, aldizkaria lekuz aldatzeak, debekuek dakartzaten etenak direla medio, fitxa eta paper asko galdu egin zaigu.

### Abonatuaren kopurua urtez urte

Arestian aipatu bezala lanak ditu urtez urteko informazioa zehatz-mehatz ezagutzeak. Abonatuaren kopuruaren zifra hauek finkatzeko, adibidez, iturri desberdinez baliatu behar izan dugu. Informazioa, oro har, arunt fidagarria da, nahiz eta urte batean edo bestean ez ehuneko ehun zehatza izan.


Honela jaso eta moldatu dugu abonatuaren kopuruaren informazio hau:

- 1) 1957-1969: aldi honetako urteko azken zenbakiaren tirada arrunta izan dugu kontutan. Zifra horri 50 kendu diogu abonatu-multzoa erabakitzeke, esperientziz bai bait dakigu horrenbestekoren bat gelditzen zitzaigula stockean abonatuak serbitu eta gero.
- 2) 1970-1976: aldi honetan tirada ez baino abonatuak zuzen zenbatzen ditugu, zerrendetatik informazioa jasoz. Liburu batetik bes-

tera alde dagoenean, kopururik errepikatuena hartzen dugu aintzat.

- 3) 1977-1981: abonatuena gaurko fitxategian bildu ditugu datu hauek. Ezin zehatzagoak dira, beraz.

Grafiko honetan, nagusiki nabarmentzen da azken bost urteotako gorakada harrigarria. Bada besterik ere, ikus dezakegunez, batez ere hasierakoa eta 1968-1970 ingurukoa. Urtez urte gora eta gora joan ondoren, 1970 bueltan estabilizatu samarra ematen zuen eboluzio-lerroak, baina ez: 1977tik aurrera ia zutitu egiten da. *Jakin*, harpidedunen aldetik, berritu egin da: gaurko gure harpidedunen % 61 azken bost urteotan harpidetu dira.



**1972-1973: krisi urteak?**

Ezaguna denez, 1971-1973 urte buelta hori biziki asaldaturia zen Euskal Herrian: gorabehera asko, istilu eta burruka ugari, hizkuntz alorrean bezala politikan eta ideologian.

Urte horietan *Jakin*-en irakurleria hagitz berritzen da. Baja asko dago, eta jende berri asko harpidetzen da. Euskal kulturaren munduan posizio bilaketa bat bide dago, talde eta gizabanakoen aldetik. Kultur eremuen birmoldaketa bailituen. *Jakin*-i dagokionez, 1972-1973. urteetan 235 irakurle galtzen ditu. Asko da: azken bost urteotan adina. Galtzen dugun irakurle tradizional honen lekua, irakurle gazteagoak, hiritarragoak betetzen du gurean. Irakurle oso desberdina du *Jakin*-ek urte haueetatik aurrera.

Arazoi bategatik edo besteagatik urte horietan baja emandako horien artean euskal idazle «zahar» ezagun asko aurkitzen ditugu.

Jaso genituen baja askok beren arrazioak eta motibazioak ematen zituzten. Ez da interesik gabekoa gutun azterketa. Hiru arazoi-motara bil-labur ditzakegu erantzunak: ekonomiazkoa, ideologiazkoa, hizkuntzazkoa.

Baja justifikatzeko eman ohi diren arrazioetako bat, ba, ekonomikoa da, nolabait esanda urte horietako «boom» editorialari zor zaiona. Hainbeste aldiz aipaturiko irakurlearen mezenasgoaren krisia dakar berarekin liburuaren ugaltasunak, harpidetza-sistemaren krisia behintzat. Sekula baino liburu gehiago plazaratzen da orain, *Jakin*-ek berak ere bai; garestiago —garestiegi— gertatzen da orain dena erostea, eta, gainera, orain, aukera egiterik ere bada. Liburudendan erostera jotzen du orain zenbaitek, abonamendua baztertuz.

Baina, artxiboko gutunei jaramon eginik bederen, arazoi ekonomikoek baino munta handiagoa dute ideologikoez eta linguistikoez. Har ditzagun banan-banan:

Ideologi motibazioetan bi muturrak aurkitzen ditugu: urte beretan klerikalismoa salatzen dituzte batzuk, eta marxismoa beste batzuk.

Klerikalismoa salatuz badugu zenbait gutun: «Erljio kutsu soportaezinek» dio batek. Beste batek: «Oso klerikala da eta interesgarrien diren gaiak ez ditu nere ustez tratatzen».

Baina egia esan, kontrako salakuntzez josiriko gutunak alde handiz gehiago dira. Hona adibide batzu:

Batek:

«*Jakin*» liburu-sortako alerik gehienak aspergarri eta nekagarri zaizkit. Marxismoaz batez ere leporaiño nago.

Beraz, ez gehiago zuen libururik bialdu, denbora galdu-azten baitidate.

Beste batek:

...Azkenez, JAKIN da marxismuaren zabalzaille aundia. Ez dakit

zergaitik Prailleak izan biar diren Marx'en argitaldariak. Tamala benetan!

Eta ni ez naiz «conservadore edo integrista».

Hirugarren batek:

Ez nator *ados* zuen oraingo iritziakin, eta ez bidali geiago neri zuen aldizkari ta libururik.

Laugarren batek, are gogorrago (eta hizki nagusitan):

Zueri eskerrak, zuen laguntzakin eta Aita San Frantziskoren semen babespean, euskera ez dan euskera eta euskaldun askori biotzondoko gogorra ematen diguten iritziak zabaltzen ari badira.

Hirugarren sailean, bajen hizkuntz arazoiei dagokienean, tonu eta agresibitate beretsua agertzen da.

Batek:

«Zuek azaldu nai dituzuen idaz-gaiak atsegingarriak zaizkit. Baina erabiltzen dezuten euskera ezin det ontzat artu. Beraz arpi-dedun taldetik kendu nire izena.

Beste batek:

Enaz H zalia. Alderdi bi dagozan ezkeror ni beste aldean nago. Eztot gura geure Euzkerea Hkin josita.

Hirugarren bat luze mintzo da:

Samintasunez baiña esan egin bear deutsuet, aurrerantzean ez dodala zuekaz artu emonik izan gura eta ez bialtzeko geiago ez YAKIN aldizkaririk ezta ere or argitzen dozuezan beste idaztirik. Zintzoak zifiaten, baiña... egun, batek ba-daki zer izan dan gure artean, da...

«H» izki lorrin eta ganorabako orregaz bete dozuenez gero dagi-zuen lan guztia, gorde egizue zeuentzako eta kittu.

(...)

Ezin daiket ontzat artu, zuek bein eta berriz artez zabizela zin eginagaitik. Bai ostera, maltzurkeriz, gaiztakeriz eta ezta-baida gogorren alde dala zuen ekintza sinisten dot, begien aurrean ikusten dodazan gauzagaitik.

(...)

Izan beitez nire lerro oneik, lengoak gitxi dirala gure artean sortu dan burrukaren eta Euskereari iatorkion kalte izugarriaren erru dun diran guztien salatzaile biziak. Etzare gure lagunak, ez... etzare.

YAKIN aldizkariaren asiera-asieratik arpi-dedun izateak damost eskubidea era onetan zueri mintzatzeko.

Laugarren bat ez da bigunagoa:

Aspaldian «Arantzazutarrak» aspertuta gauzkatzute zuen nolabai-

teko euskerarekin. Nun duzute esaterako S. Mitxelenaren prosa jator hura? Pikotara bota duzute. Jakiña, gauza berriak esan bear omen dira, ta esan ere bakoitzak nai duen bezela.

(...)

Nere konfiantza beintzat galdu duzute. Ez dut nai, ez Jakin sorta, ez Jakin liburu sorta, ez ezer. Ez neri ezer bialdu, alperrik ikusiko duzute-ta.

Ta zure mendean daukazun idazle oieri, ez ditezela orren ausartak izan. Ikasi dezatela aurrena ondo euskeraz, ta bitartean ixillik egon ditezela.

Han eta hemen ageri den tonuak ederki asko agertzen du, berak bakarrik, urte haietako giroa. Urte hauetantxe agortzen da nonbait gurekiko agresibitate hori, zeren eta geroztikako bajak, askoz gutiago izateaz aparte, normalizat jo ditzakegun horietakoak bait dira.

### Abonatu en banakuntza geografikoa

Non bizi dira *Jakin*-en harpidedunak? Tamalez, hasiera haietako gure abonatu en helpiderik ez dugu gorde. Azken aldiko datuak ezagutzen ditugu bakarrik. Jar dezagun hemen bi urtetako geografik banaketa, gero bien arteko konparazioa egiteko:

	1974	1981
Gipuzkoa	69'5	59
Bizkaia	18	29
Nafarroa	2'4	4
Ipar Euskal Herria	2'5	2
Araba	1'7	2
Espainia	2'5	2
Atzerria	3	2

Hona non kokatzen ziren eta diren gure harpidedunak. Ez dago gogoratu beharrik: gehien-gehienak Gipuzkoan eta gero Bizkaian. Hori bai, baina konparaketa diakronikoak erakusten digu 1974etik 1981era Gipuzkoan kontzentratzea ahuldu egin dela. Birekilibrio (erlatibo) bat bezala sumatzen da: Gipuzkoa % 69,5tik % 59ra jaitsi da; Bizkaia, aldiz, % 18tik % 29ra igaro. Dena den, bi urteotan ere (1974ean zein 1981ean) abonatu oren % 88 Gipuzkoan eta Bizkaian bizi dira. Bestalde, egia da Iparraldean, Nafarroan eta Araban hedatuz doazela gure harpidedunak.

Azken datu bat, geografik kokamenaz: gure harpidedunen % 70'5, gaur egun, 10.000tik gorako herrietan bizi dira, hots, hiritarrak dira.

# JAKIN inkesta 1981

## **Inkesta batetik bestera**

*Jakin*-en irakurlearen eskuetara iritsi zen inkestaren helburuetako bat gure abonatuaren eritziak jasotzea zen, inkestaren sarreran bertan esaten genuenez. Eritzi-bilaketa hau konstante bat da *Jakin*-en bizitzako unerik garrantzitsuenetan, lehen zenbakitik bertatik hasita: «Guzien iritziak nai genituzke...». Baina, lehen eritzi-jasoketa sistematikoa 10. zenbakia zela eta erabaki zuen Zuzendaritzak: «Aspalditxotik izan ere, kezka bat genuen YAKINlari askok: gustora al daude gure arpedunak errebistarekin? Nola ikusten gaituzte beraren bidez? Zer eskatzen digute? Eta onelako galdera asko generabilzkin gure kolkoan. Ori dela-ta, enkues-tatxo bat gertatu dugun».

400 orri zabaldu zituzten 1959an, 15 galderakin. Eta % 24'5ek erantzun.

Oraingo honetan, 400 ez, 2.300 bat inkesta-orri baino zabaldu ditugu, gure abonatuaren artean soilki, 33 galdera egiten ditugularik. Birritan bidali ditugu, lehen aldian gutunez, eta, bigarrenean, aldizkariaren barruan<sup>1</sup>.

304 erantzun jaso ditugu. Hots, % 13 paseak erantzun dio inkestari (nahiz eta guk hemen % 12 eta piku aztertu, azkenekoak berandu iritsi bait zitzaizkigun).

300 erantzun zer da, guti ala asko? Zera esango genuke, asko dela, baina nahi baino gutiago. Ez da txantxetako, izan ere, gure herri honetan hirurehun eritziak bildu ahal izatea. Hori bateko. Baina besteko, erantzun hauek ez dira abonatu guztien izenean edo ordezkartzan emanak, ondorio orokorrak atera ahal ditzagun. Esan beharrik ez dago, erantzun

---

<sup>1</sup> Irakurlea berehala jabetuko denez, erantzunen azterketarik gehienetako xifrek ez dute 100 osatzen. Portzentaiak oro eman beharrean garrantzizkoenak eta esanguratsuenak soilki ematen bait ditugu.

bakoitzak bere burua ordezkatzen duela, eta ez besterik. Eta horregatik, mugapen honekin ulertu behar direla gure iruzkinak eta konklusioak oro. Harpidedungo osoaz ez, erantzun duten hauen populazioaz baino arituko gara denbora osoan, bestelakorik espreski adierazten ez duguinto.

Zeintzu dira 300 hauek? Gaitza da zehaztasun osoz jakitza. Aldizkariari lotuenak ote? Baliteke. Baina ez, nahitaez, bakarrak; guk dakigularik, *Jakin*-en bizitzan hurbildik esku-hartze duen hainbat jende ez bait du erantzun. Gauza batetaz gaude ziur: 300 hauek asko eta asko gure bazkiderik bizienetakoak, kezkatuenetakoak, jatorrenetakoak, leialenetakoak direla.

## GALDERAZ GALDERA

### 1.

#### a) Izena eta deiturak

Erantzulearen izena gehienetan agertzen da, nahiz eta izena ematea ala ez erantzulearen eskutan guk espreski utzi, ez zedin nehor ezeroso senti eritzi zenbait agertzean. % 74ek eman du bere izena, eta % 26k ez. Izena eman dutenen kopuru hain handi honek gure abonatuena heldutasuna erakusten ote duen gaude, nor bere eritzien jabe eta erantzule egiten dela iruditzen bait zaigu.

#### b) Herria

Erantzun dutenen probintziak aipatuko ditugu soilki, eta bidebatez *Jakin*-eko abonatu guztien bizilekuarekin konparatuko. Proporzionaliki Gipuzkoatik erantzun gutiago jaso dugu gainerako euskal probintzietatik baino.

#### Erantzuleak Harpidedunak oro

	%	%
Gipuzkoa	46	59
Bizkaia	34	29
Nafarroa	5	4
Araba	3	2
Ipar Euskal Herria	3	2
Espainia	2	2
Atzerria	2	2
Erantzunik ez	5	

#### c) Adina

Urteak	%
0-24	22
25-29	22
30-39	28
40-50	13



Erantzuleen urteen batezbestekoa oso gaztea da: hogeitamar urtetik beherakoak % 44 dira. Portzentaia handia da, baita ere, 30-40 urte bitartekoa: % 28.

#### d) Sexua

	%
Emakumezkoak . . . . .	.11
Gizonezkoak . . . . .	.87

% 2ren sexua jakiterik ez dugu izan. Dena den, gauza bat dago hemen argi eta garbi: emakumezkoen eskasia. Izan, *Jakin-en* harpidedunen artean % 23 emakumezkoak dira, populazio handia, gure eritiz.

#### e) Egoera zibila

	%
Ezkonduak . . . . .	.45
Ez kongabeak . . . . .	.43

Berdintsu ditugu erantzunetan ezkonduak eta ez kongabeak. Fraile edo apaiz direla espreski adierazi dutenak % 3 besterik ez dira.

## 2. Ikasketak

	%
Goi-mailako ikasketak . . . . .	.49
Erdi-mailako ikasketak . . . . .	.28
EGB-BUP. . . . .	.18

Goi-mailako ikasketak egin dituztenen kopurua hagitz handia da. Bidezko da, noski, *Jakin-en* irakurleria horien artean autkitzea. Goi-mailako estudio-moten artean lehen mailan aurki ditzakegunak, ingeniari-tza, filosofia eta letrak, filologia eta ekonomia dira.

Tarteko katrerak eginak ere ugari dira (halanola, maisutza, hizkuntzak, ikasketa teknikoak...)- Hauetan denetan nagusi magisterioa da, berak batzik % 12 osatzen bait du.

## 3. Oraingo lanbidea

	%
Irakasleak . . . . .	.30
Bulego-langileak . . . . .	.14
Ikasleak . . . . .	.10
Langileak . . . . .	.7
Langabeak . . . . .	.3

Irakaskuntza da gure abonatuena lanbideetan lehena, maila guztietako irakaskuntza (ikastolakoa, nahiz eskola publikokoa, nahiz Unibetsitatekoa).

Bulegoko langile horien artean, bulegariak eta funtzionariak batez ere kontsideratu ditugu.

#### 4. Alderdiren edo sindikaturen batetan al zaude?

	%
Ez . . . . .	68
Bai . . . . .	27

Ez alderdi, ez sindikatu batetan enkoadraturik dago gure harpedunen gehiengo: % 68. Hurrengo galderan ikusiko dugun jarrera politikoak % 27 bakarrik eramaten ditu alderdi edo sindikatu baten barruan militantismoa praktikatzera. Enkoadraturik dauden % 27 horien artean, % 13k alderdi politiko konkretu bat aipatzen du, eta % 12k sindikaturen bat. Maizenik aipatzen diren alderdiak hauek dira: EAJ, EE, HB, ESEI. Eta sindikatuak: ELA, LAB, STEE-EILAS. EPK behin bakarrik aipatzen da, PSE eta UCD sekula ez.

#### 5. Zein da zure joera politikoa?

	%
Ezker abertzalea . . . . .	20
Ezkerra . . . . .	14
H.B. . . . .	14
E.E. . . . .	11
Abertzalea . . . . .	11
EAJ. . . . .	8
Besterik . . . . .	6

Erantzunik ematen ez dutenak % 17 badira ere, gehien-gehienek argi eta garbi agertzen dute beren joera politikoa. Jarrera politiko hau, zenbaitzuk alderdi edo batasun bat izendatuz eman dute, eta beste batzuk zabalxeago; hots, alderdi edo joera batekiko identifikazioa adieraziz batzuk, baina askoz gehiagok alderdiarekiko atxekimenduaren erlatibotasuna espreski azpimattatuz.

Iruzkina behar handirik ez du zerrenda honek. Bakar-bakarrik esan, % 59 dagoela abertzaletasunaren ezker aldean erantzuleen artean.

#### 6. Zenbat liburu irakurtzen dituzu urtean?

Gure harpedunak, batzuek besteko, 20 liburu irakurtzen dituzte urtean zehat. Ezin liteke esan irakurle porrokatua denik, baina ez eta gutxi irakurtzen duenik ere. Gehien irakurtzen duenak 150 liburu irakurtzen dituzte. Sei dira urtean 100 liburu irakurtzen dituztenak.

7. Zein euskal eta erdal aldizkari eta egunkari erosten dituzu ndrmelean?

Euskal aldizkariak		Egunkariak		Aldizkari elebidunak eta erdarazkoak	
	%		%		%
Argia . . . . .	64	Egin . . . . .	60	Punto y Hora ...	23
Anaitasuna . . . . .	46	Deia . . . . .	31	Ere . . . . .	20
Oh! Euzkadi . . . . .	14	El País . . . . .	20	Muga . . . . .	8
Herria . . . . .	7	D. Vasco ...	8	Viejo Topo. . . . .	8
Elhuyar . . . . .	6			Interviu . . . . .	6
Euskera . . . . .	5			Herria-2000 Eliza...	5
Saski-naski . . . . .	3			Triunfo . . . . .	5

99 titulu aipatzen dita, eta horien artean gehien-gehiena *Argia* eta *Bgin*. Oso ondo situaturik datoz, baita, *Anaitasuna* eta *Deia* ete.

8. Euskaldun-berria baldin bazara, noizdanik?

	%
Euskaldun-zaharrak ... ..	72
Euskaldun-berriak ... ..	28

Proportzio handia da euskaldun-berriena, *Jakin-ek* suposatzen duen euskararen erabiltzapena eta maneua kontuan edukita. Dena den, euskaldun-berri hauetako asko, aspaldi ikasiak dira. % 22 duela 10-15 urte euskaldundu zen.

9-10. Non ikasi duzu euskaraz irakurtzen eta idazten?

	Irakurtzen	Idazten
	%	%
Etxean . . . . .	61	51
Gau eskolan . . . . .	21	25
Ikastolan . . . . .	6	7
Akademian . . . . .	4	5
Norbere kasa . . . . .	13	12
Setnarioan . . . . .	8	9

Etxea da oraindik ikaslekurik aipatuena, idazten ikasteko baino gehiago irakurtzen ikasteko.

Autodidaxiaren pisua benetan handia da oraindik: % 12-13. Gau eskolen lana ez da arbuizatzea inolaz ere. Beste ikaslekuetara buruz zer esan? Seminarioen ordua (% 8-9) pasea bada, etorri gabea da oraindik Unibertsitatearena (% 3), akademiarena (% 4-5), eta ikastolarena berarena (% 6-7).

**11. Ezer idazten al duzu euskaraz?**

	%
Ez . . . . .	21
Lan pertsonalak . . . . .	29
Lan-atazoak . . . . .	16
Attikulu solteak . . . . .	13
Literatur lanak . . . . .	8

Ez da idazteari emana gure irakurlea. Idazten duenean ere, gehienetan bere bizitza pribatuari edota lanbideari begirako lanak izan ohi dira.

**12. Idazten duzu erdaraz?**

	%
Ez . . . . .	43
Lan-arazoak . . . . .	14
Lan pertsonalak . . . . .	13
Lan zientifikoak . . . . .	9

Euskaraz baino gutiago idazten du erdaraz: % 43k deus ez, eta beste zenbaitek, aitortzen duenez, «beste erremediorik» ez daukalako, «zotitxartez» eta horrela. Lan-arazoak gaintitzen du hemen dimentsio pertsonala. % lek bakarrik lantzen du literatura erdatza.

**13. Hitzegiten al duzu euskaraz normalki?**

	%
Etxean . . . . .	81
Lagunartean . . . . .	80
Lanean . . . . .	69

% lek bakatrik aitortzen du mintzatzen ez dena. Bizi-ingurune euskaldunean bizi da gure erantzulea. Bestelakoa da ingurune profesionala, askoz erdaldunagoa.

**14. Euskal kulturgintzan parterik hartzen al duzu? Zertan?**

	%
Ez . . . . .	21
Euskararen irakasle gisa . . . . .	30
Idazle gisa . . . . .	10

% 64ek zerbaitetan militante gisa parte hartzen du. Ikusten denez, euskara irakasten askok, idazle gisa ere dexentek, baina baita ere herri mailako ekintzetan (% 6), kultur elkartetan (% 4), herria kontzientzia-

razteko eta errebindikapen lanetan (% 5). Eta azkenik, kuriosoena: mintzaldietara joanez eta euskaraz irakurriz euskal kulturgintzan parte hartzen duelako kontzientzia du % 4ek.

15. Noizdanik **zara** JAKINen harpidedun?

	%
Hasieratik edo aspalditik . . . . .	10
1977tik . . . . .	31
1978tik . . . . .	12
1979tik . . . . .	16
1980tik . . . . .	6
1981etik . . . . .	13

% 78 aldizkariaren bigarren aldi honetakoak dira. Hots, aldizkariara etorri berri samarrak. Aspaldiko abonatuak baino kezkatagoak, aktibagoak edo aldizkariari lotuagoak ote dira oraintsu hurbildu zaizkigun hauek? Harpidedun zaharren parte-hartze eskasa ageriko gauza da behintzat: % 10 bakarrik. Izan, % 39 dira hasierako edo aspaldiko abonatuak. Gainerakoak —% 61— 1977az geroztik abonatu dira.

16. Zergatik egin zinen JAKINen harpidedun?

	%
Aldizkariaren kalitateagatik . . . . .	30
Kultur informazioagatik . . . . .	26
Gaien interesagatik . . . . .	18
Abertzaletasunagatik . . . . .	12
Euskara bultzatzeagatik . . . . .	5

Harpidetzearen motibazioetan nagusi *Jakin-en* barne-alderdiak datoz, edukinaren aldetik nahiz hizkuntzaren aldetik: % 73. Nolabaiteko mezenasgoa, hots, abertzale izateagatik *Jakin* erostea, edo euskara laguntzearen aldizkaria hartzea, % 17n bakarrik agertzen da *Jakin* hartzeko motibazio bezala. Zergatik errepikatu ohi da orduan beti aldizkariari «por puro patriotismo» erosten direla, edota, «ia-ia por sistemà», irakurtzeko asmotik gabe? Aldizkaria zenbat eta nola irakurtzen den ikustean, are frogatuago gelditzen da *Jakin* kultur tresna bezala hattzen duela gure abonatuak.

17. Nola egin zinen JAKINen harpidedun?

	%
Adiskide baten bidez . . . . .	21
Kanpaina batetan . . . . .	39
Liburudendan ezagututa . . . . .	18

Azken urteotako hatpide-itutriak egin ditugun kanpainak dira (1977, 1978 eta 1979koak eta berrikitan eginiko «Prensa euskaraz» kanpaina). Adiskideen eragina, agian, orain baino emankorragoa zen lehen.

### 18. Zure alea beste inork irakurtzen al du?

	%
Ez . . . . .	57
Bai . . . . .	43

*Jakin* bezalako aldizkari batek abonatua bakarrik du irakurle maizenik, esan nahi bait da ez dela, esaterako, famili aldizkaria. Halere, *Jakin-en* kasuan, sarri irakurtzen du batek baino gehiagok, harrizteraino sarri. Etxeko norbait aipatzen da sarritan: emaztea, anaiaren bat, etab. Beste zenbait kasutan hitu, lau eta gehiago irakurle bide ditu ale bakoitzak. Xifra guztiak bilduz, ale bakoitzak, batz besteko, 3 irakurle eta gehiago ditu. Kontrara, banaka batzuk bakarrik aitortzen dute, guti edo deus ez dutela irakurtzen.

### 19. Emazu zure eritzia puntu hauei buruz. (Kalifika ezazu puntu bakoitza 0-tik 10-era)

Presentaera . . . . .	7,5
Gaiak . . . . .	8
Artikuluen zailtasuna . . . . .	6,5
Dossier sistema . . . . .	8
Euskara . . . . .	9
Frantses-espainierazko laburpenak . . . . .	7

Kalifikazio nahiko altua jaso du puntu bakoitzak. Puntuaziorik eskasena «artikuluen zailtasunak» eta «laburpen-itzulpenak» izan dute, eta esplikagarri da: nahasketa egon da artikuluen zailtasunaren ulettzapenean: zer puntuatu behar zen goitik, zailtasuna ala erraztasuna? Eta laburpen kontuan zer esan?: batzuk ez dituzte irakurtzen edo alferrikakotzat jotzen dituzte.

Puntuaziorik gorena euskarak izan du, alde dexentearekin, gainera. Erantzuleen % 73k 8tik gorako puntuazioa eman dio euskarari. % 30ek puntuaziorik altuena: 10. Egia esan, urte luzetan lehia bereziz zaindu du euskara *Jakin-ek* textuaren argitasunaren, zehaztasunaren izenean eta hizkuntzaren normalizapena eta modernotasuna lortzeko. Ahalegin horri antzeman egin dio irakurleak, nonbait.

Zazpi eta erditik gorako kalifikapena bildu dute «Presentaerak», «Gaiak» eta «Dossier sistemak», nahiz eta ez kritikarik eta idarokizunik gabe. Hitz batean esateko, juzku positiboa egiten du irakurleak, eta gainera, hobe daitekeela adierazten.

## 20. Zein da zure eritzia aldizkariaren pentsaeraz?

	%
Positiboa . . . . .	.86
Negatiboa . . . . .	.0
Zabalagoa behar du . . . . .	.16
Definituagoa behar du . . . . .	.4

Eritzi negatiborik ez egoteaz gain, eritzi positiboen indarra nabarmentki handia da: % 86.

Zabalatasuna aipatzean errealitate desberdinak kontsideratzen dita: joera desberdinak, edozein kulturgilek parte hartzea, liberealtasuna, etab.

## 21. Aukera itzazu irakurle bezala atseginen dituzun hiru gaiak

	%
Politika . . . . .	.39
Soziologia . . . . .	.36
Kultura . . . . .	.76
Euskara . . . . .	.65
Filosofia . . . . .	.18
Literatura . . . . .	.50

25 gai agertzen dira aipatutik erantzunetan. Boturik gehienak, alde handiz, kulturak daramatza. Bistan da: kultur aldizkaria nahi du jendeak, euskarak eta litetatutak ere tratamendu egokia dutelatik, noski.

## 22. Orain arte erabili ditugun gaietan zein izan da zuretzat inportanteena?

	%
Bertsolaritza . . . . .	.18
Nazio txikien zoria . . . . .	.14
Ipar Euskal Herria . . . . .	.13
Araba . . . . .	.9
Nafarroa . . . . .	.8
Nazio-arazoa Soviet Batasunean ...	.6
Langabezia . . . . .	.5

Orain arte erabiliriko gairik garrantzizkoenaz ari gara hemen. Bai gairik inportanteena bezala eta bai zenbakirik hoberena bezala, «Bertsolaritza» aukeratu du itakurleak.

Gai-motak multzokatzen baditugu, euskal kulturaz, euskaraz, euskal nazioaz ari diren gaiak datoz lehen lekuan: % 39. Eta bigarrenean, eskualde-arazoaren inguruan dabilzanak: % 30.

**23. Zein gai erabiltzeko eskatuko zeniguke?**

	%
Euskata . . . . .	13
Kultura . . . . .	12
Literatura . . . . .	12
Irakaskuntza . . . . .	11
Ekonomia . . . . .	10
Politika . . . . .	10
Gaurko arazo larriak . . . . .	10
Gizarte-problemak . . . . .	9
Energi itutriak . . . . .	5
Historia . . . . .	4
Antropologia . . . . .	3
Erljioa . . . . .	3

197 gai desberdin proposatzen dizkigute, aipatzen ditugun sail hauen barruan. Boturik gehien bildu duen arazoa, zalantzarik gabe, euskararen egoera eta normalizapena da.

**24. Ba al da zure ustez gehiegi erabili dugun gairik?**

	%
Ez . . . . .	40
Bai . . . . .	9
Erantzunik ez . . . . .	46
Ez daki . . . . .	4

Gairen baten gehiegizko erabilera % 9k bakarrik aipatzen dute, beren artean oso sakabanaturik, gainera: politika, euskara, geografia eta beste aipatzen dituzte.

Oro har, bistan da alde honetatik ez dagoela inflaziorik: % 50ek ez dakite edo ez dute etantzunik ematen, eta % 40k espreski ezetz diote.

**25. Orain arteko zenbakirik hobereana, zure ustez?**

	%
Bertsolaritza . . . . .	24
Araba . . . . .	6
Ipar Euskal Herria . . . . .	5
Nafarroa . . . . .	4
Filosofo Berriak . . . . .	4
Nazio-arazoa Soviet Batasunean ...	4
Elebitasunaren auzia . . . . .	4

Gaietan bezala zenbakietan hobereana, «Bertsolaritza» da, eritzi-emaitzen ustez. Ondoren, eskualdeez ari diren zenbakiak. Seinalagatti da



«Elebitasunaren azuia ikastoletan» zenbakiaren posizioa, kontuan eduki behar bait da erantzun gehienak jaso ondoren ateratiko zenbakia dela.

## 26. Bereziki interesatu zaizun artikulurik? Zergatik?

Bereziki interesatutako 45 artikulua konkretatzen dituzte erantzuleek. Halere parte on batek (% 43k) ez daki zer erantzun, nonbait.

Maizenik aipatzen dituzten artikulua, Joxe Azurmendirenak dira (% 9). Bertsolaritzaren ingurukoak gero (% 8), eta, hirugatrenik, euskal liburugintzaz edo liburu-kritikaz ari direnak: % 5.

## 27. Bereziki haserretu edo mindu zaituen artikulurik?

	%
Ez . . . . .	31
Bai . . . . .	8
Ez daki . . . . .	4
Erantzunik ez . . . . .	56

